200.-

Kristau Fedearen Sustraiak

I

AITA LUIS VILLASANTE, O.F.M.

Kristau Fedearen Sustraiak

I

JAINKOA

JAKIN-taldearen ardurapean
Arantzazu-Oñatin
1962

NIHIL OBSTAT

Fr. Petrus Aranguren, O. F. M.
Censor Ordinis

Aránzazu, die 27 de Martii 1962

IMPRIMI POTEST

Fr. Benedictus Mendia, O. F. M.
Min. Prov.

Sancti Sebastiani, die 29 Martii 1962

NIHIL OBSTAT

P. Eulalius a Puero Jesu, O. C.D.

IMPRIMATUR

Dr. Josephus Sudupe
Vic. Gen.

Sancti Sebastiani, 21 maii 1962

N.º de Registro 2014-62

Depósito Legal, SS. 607-62

Talleres Gráficos del Santuario de Aránzazu
OÑATE (Guipúzcoa)

Aurkibidea

Itzaurrea ... 7
Zenbait Liburu ... 12
I Kapitulua. Gizadi osoaren aitorrera ... 15
II Kapitulua. Mundu au esplikatu bearra ... 29
III Kapitulua. Munduan agiri den ordena ... 39
IV Kapitulua. Gizonaren sorrera ... 56
V Kapitulua. Jainkogabeko Morala ... 74
VI Kapitulua. Birtutearen saria ... 97
VII Kapitulua. Bizi-naia ... 108
VIII Kapitulua. Barneko ondoeza ... 116
IX Kapitulua. Gure yoranen azkengabea ... 126
X Kapitulua. Pesimistak eta txepelak ... 135
XI Kapitulua. Ideala eztela amets utsa ... 145
XII Kapitulua. Jainkoa eta gizartea.—Familia ... 154
XIII Kapitulua. Erresumak (Nazioak) ... 169
XIV Kapitulua. Gizarteko lokarria ... 185
XV Kapitulua. Gizartearen xedea (elburua) ... 193
XVI Kapitulua. Zer dela-ta ez legoke Jainkorik? ... 203

Itzaurrea

Gai ontaz libru bat euskeraz egiten ari nintzela entzun zuanean, ba-dakit zer esan zuen baten batek: "Zertarako gauza oiek euskeraz?..."

Batzuek uste dute nunbait fedea alako teillatu bat bezala dela. Gure buruen gaiñetik zintzilika dagoen teillatu zerutar bat. Eta teillatu ori aidean legoke, iñungo aberik eta ormarik eusten eztiola. Ori, ordea, ezta ala, dakigunez. Fedeak ba-ditu, bai, bere sustrai zerutarrak, baiña baita lurrean ere, ba-ditu bere oiñarri bearrezkoak. Eta abe oiek ankaz gora joango balira, teillatua ere laister litzake lurrean. Egia au egunero ari gera frogatzen, gaiñera.

Lehenago, gure Euskalerrian, fedea gorde izan da giro egoki batek eusten ziolako. Orain beiñolako giro ura aldatuaz dijoa. Obeki esateko, mundu guztia ari da giro-aldatze ori jasaiten. Oraingo bizi-moldeak, oitureek, ideiek irauli ta gaiñazpi jarri dizkigute lengo erak eta usario zaharrak. Eta egokera berri onen txipristiñak gurera ere eldu dira nai ta naiez. Fedea —munduan den ondasunik baliotsuena— zaindu nai badugu, fede onen sustrai eta oiñarriak bearko ditugu indartu eta azkartu. XX'gn. mendeko kristaua, batez ere zerbait ikasia bada, gaur ezin kontenta diteke aur-denporan ikasitako Kristau Dotriñarekin. Gaur toki denetatik eldu zaizkion teoria, asmo eta berrikeriez burua galtzerik nai ezpadu, besteak beste, bearko du bere kristau fedeaz eskola luzexeagoa ikasi.

Ba-zan bearra, nere ustez, euskeraz onelako zerabit egin zedin. Erderaz bai, ba-dira liburuak ugari gauza auen gaiñean, eta gogotik irakurtzen dira. Gaur eguneko kezka nagusiekin zer-iku-

si dutelako, noski. Baiña erderaz baldin badaude liburu oiek denak, gero zer gertatzen da? Burua ere, jakiña, erderara jartzen dela, eta oiek euskeraz esan ezinda ibiltzen gerala. Gure apaizei ere ez al zaie orrelako zerbait gertatzen? Gure eliza askotan oraindik oiturazko sermoi batzuk egiten dira euskeraz, lengo gisara edo gai arrunt batzuk erabilliaz. Baiña estudioko zirkuloak eta billerak, konferentziak, gaztedia oraingo arazoetan eskolatzeko ematen diren jardunak, oiek ia beti erderaz. Jokabide orrek nora garamazkian, ezta zail asmatzen.

Liburu onekin, bada, laguntasun pixka bat eman nai nieke nere anai apaizei. Baiña eztut idatzi apaizentzat bakarrik. Bere burua zerbait landu ta jantzi nai duan edozeiñek ere irakur dezake gogoz, eta ain zuzen, erdi-maillako irakurle ori izan dut nik kontuan.

* * *

Arraiña burutik asten omen da usteltzen. Kristautasun-kontuan ere orixe gertatu izan da. Aize berriak zabaldu ziran Europan. Jakintza-itxurarekin jantzirik zetozten ideiak esan nai dut, eta oiek biotz askotan erlijioaganako oztasuna, iguiña ezpada, erein zuten. Eta gaur eguneon ere ikasi askoren artean nabaritzen dugu aje ori, eta oietatik zabaltzen da gero besteetara.

Denpora gutxi duela, Sánchez Bella jaunak onako au esan zuen, eta egia biribilla da, noski: "Au da okerrena —zion—: Komunisten artean Universidadeak ajola guztia jartzen du gizonak ideologia baten araura moldatzen. Emen, Okzidenteko alde ontan, berriz, Universidadea teknikaz arduratzen da soil-soilik. Ideologia-aldetik ezta ez ar eta ez eme, ez alde bateko ta ez besteko, guztiz da ajolakabe, eta franko aldiz eszeptikoa ere bai. Universidadeak, ordea, egikizun aundi bat du betebearrekoa: gizon osoa bear luke formatu, munduaz eta bizitzaz erabateko esplikazio osoa eman bear lioke gizonari."

Ideologiak —edo mistikak, orain esaten dutenez— eman oi dio Komunismuari berebiziko indarra. Eta ain zuzen, orrelakorik eztutelako gelditzen dira Okzidenteko erriak gaindituak izateko zorian. Teknika soillak eta jakintza positivuen irakaspenek ezpaitute gizona asetzen ahal. Mundu onek eta gure bizitzak duen esanaia, sentidua, nai du gizonak jakin. Komunismuak badaki gose onen berri, eta ala, ba-du galdekizun aundi oentzat

erantzun bat, naiz ta gezurrezkoa izan. Eta Okzidenteko erriek eztute batere erantzunik. Obeki esateko, izan, ba-dute, eta egiazko erantzun bakarra, gaiñera, baiña eztute aintzat artu nai. Jainkoaren fedea onartzen eztuan bitartean, bere arimaz gabetua bezala biziko da gure zivilizazioa. Bestelako zoragarritasuna artu oi du biziak, fedearen argitan! Fedeak bakar-bakarrik eman dezaioke gizonari, argiaz gaiñera, kemena, adorea eta arraitasuna. Bera dugu gidari, indar emale eta bai bozkario banatzaille ere.

Jainko bat ba-dela eta Jainko ori dela munduaren eta gizonaren sortzaillea, gizonak ba-duela arima bat izpiritu utsezkoa, Jainkorik gabe ez birtutea ta ez Morala, ez giza-yoranak ta ez gizartea ere ezin ditezkela esplika ta ez zutik egon: orra liburuan zabal-xamar azaltzen diren gaiak. Jainkoaren auzi au, aitzingibel askokoa da, eta saiets guztietatik eldu nai izan diot: erlijioen kondaira, munduaren sorrera, munduan agiri den ordena, gizonaren sorrera, Moralaren azken oiñarria, gizonaren yoranak, familia, ezkontza, gizartea, ta abar.

Kristau fedeak ba-ditu gure aro ontan bere tentazio bereziak, biarko gizonei seguru-asko irriparrea sorraraziko dietenak, baiña gaur askoren fedea kili-kolo jartzeraiñoko lain izan oi direnak: Evoluzionismua, Materialismua, Jakintza eta erlijioa elkarren etsai direla, erlijioa aurrerapenaren aurka dijoala, gureaz landara beste erlijio-mota asko ere ba-dela munduan eta ea zergatik gureak bakarrik izan bear duen egiazko bakarra, ta abar...

Problema guzti oek —edo geienak beintzat— ikutu bearrekoak ziran Jainkoaren gai aundi ta beneragarri au tratatzean.

Jakintzaren eta erlijioaren arteko konpondu eziña... Atso zaarren ipuia duzu. Baiño esan ta esan, itxurazko egiantza edo tankera gauzari emanaz, azkenean buruan sartzen dizute. Beraz, gaur eguneko kezkak begien aurrean eukitzea, bearrekoa zan.

"Gure erlijioa, besteen artean bat geiago... Ainbeste daude munduan!... Denak gutxi gorabera berdin-xamarrak..." Orra beste lelo bat, gure aroan maiz entzuten dena. Etzait bein ere aaztuko gure Mixiolari bati ontaz entzun niona. Aita Pablo Alberdi-ri, alegia. Txinan urte-mordoa Mixiolari egondakoa. Komunistek andik egotzi zutenean, onera etorri zan. Emen urte-pare bat egin eta atzera biurtu zan Japoira eta an il da. Aita onek, bada, esaten zidan: "Kristau erlijioa zer den ez nintzan ondo jabetu, arik eta beste oiek urbildik ezagutu nituan artean. Erlijio asko direla

eta gurea oietako bat dela esan oi da; baiña ezta ori ondo esana. Ezta, ez, erlijio bat, bera da Erlijioa ao betean. Gure adimenduari frogantzak eskeintzen dizkion erlijio bakarra. Eskolan irakatsi diteken erlijio bakarra. Gizon osoa —buru ta biotz— ase dezaken erlijio bakarra. Fedean beintzat iñoizko sendoen jarri nintzan, beste oiek zer ziren ikusi nuanean..."

Nere asmoa da kristau fedearen oiñarriak, adimendurik zorrotzenari fedeak eskeiñi dezazkioken frogantzak, azaltzea ta agertzera ematea. Arrazoiaren aldetik gure erlijioa siñisgarri ez-ezik, onartu bearrekoa ere ba-dela erakustea. Oiñarri oetan lehenena: Jainkoa ba-dela. Egia oni buruz dijoakizu, ba, liburu au oso-ososrik. Urrengo joango dira, Jainkoak nai baldin badu, eta nere indarrak agortzen ezpadira (eta euskal erriak nere lanak ezertan artzen baditu), onako beste auek: Jesukristori buruz, Elizari buruz, Fedeari buruz... Ain zuzen, azkeneko gai auek dira nik aspaldiko urteetan emen Arantzazun esplikatzen ditudanak (Teologia Fundamental). Jainkoarena, berriz, ezta nere saillekoa. Baiña nolanai ere, ortik asi bear zan, eta orregatik oni eldu nion aurrenik. Aurki ikusi nuen itsu-mutil baten bearrean nintzela. Aurkitu nuen, eta ez makala, ene iduriz. Aita Sertillanges-en "Les Sources de la Croyance en Dieu". Liburu au da nik gai ontaz irakurri dudan gauzarik oberena. Mamiz, eta bai egituraz ere, liburu ori da gaur emen euskeraz ematen dizudana. Mamiz ezezik, azalez ere bai frankotan. Jakiña, nere erara itzuli dut ango gauza asko, beste zenbait utzirik, eta an eztaudenak ere iñoiz sarturik. Mundua, gizona, giza-bizitza, Morala, gizartea, gizartearen atzera-aurrera ta elburua: dena dela Jainkoaren bearrean, Jainkoa gabe dena dela ulerteziña, eta, labur, dena dagoela Arengandik zintzilika, sakon ta zorrotz-asko eman oi da aditzera Sertillangesen liburu ortan.

* * *

Euskal kulturaren etxegintzan zerbait egin nai badugu, nork bere arria bearko du jarri. Jakintzaren eremuetan sail asko dauzkagu gorritu gabeak. Nik autatu dudana, au da. Aitor bearra dizut, gaiñera: urte eta neke askoren umea dudala gaurko nere lana. Makiña bat atera ditut onen aurretik, au baiño geroago asiak izanarren.

Zer dela-ta Apologetika-bombardeo au?, esango duzu menturaz. Aurrena, norberak zer menderatzen duan obeki, eta sail ura

landu bear dualako. Eta ortaz gaiñera, gorago aipatu ditudan arrazoi aiengatik. Gaurko gure Euskalerria ezta orain 50 urtekoa bezalakoa. Gaur mundu guztia pixka bat bere onetik aterea ikusten dugu. Ideiatan nahaste ikaragarria dago, eta gu ere zurrumilloaren barruan gaude, nai ta naiez. Gaurko gizonak, alde guztietatik datozkion erasoek garaituko ezpadute, kristau aziera sakonagoa bearko du atxeman.

Onekin eztut esan nai pesimista naizenik etorkizunari buruz. Bai zera pesimista! Etorkizuna arrai ikusten dut nik oso, gure kristau fedearentzat. Fede onek ain ditu oiñarri sendo eta trinkoak! Ain argi dago Jainkoaren, Jesukristoren eta Eliza Katolikoaren egia! Giza-adimendua egia aundi auen aitzinean otz-otzean jartzen denean, arriturik gelditzen da, oien sendoa eta mardula atxemaiten baitu. Milla txorakeria, gezur, propaganda faltso, slogan *eta ipui zabal ditezke lau aizetara, baiña gure erlijioaren iturburuetara zuzen-zuzenean edatera dijoana, ezta oien bildur izango. Ez gaude ez amaiaren asieran, baiñan bai biurgune aundi baten aitzinean, König jaunak esan duanez.*

Emengo nere euskara-moduaz naiago nuke batere ez esatea. Ezpaitzait gogoko lan auetan ortaz mintzatzea. Zerbait esan bear, ordea, eta auxe bakarrik esango dizut: euskara pixka bat zabala, pixka bat eguterantza abiatua, Axularren alderantza, alegia, erabilli nai izan dudala. Ots, euskaldun guztiontzat egokiena iduritzen zaidan artara zerbait alderatua, gure literatur-tradizio onenaren zerbait kutsua duena. Gaien aldetik, berriz, gorritu gabeko lurretan goldenabarrean aritu bear izan dut, eta ala, Axularrek berak dionez, "enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badirudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla"...

Ba-dugu euskaltzaleok beti izkuntzari buruz itzegiten ibiltzeko griña txarra; mamiari baiño azalari jaramon geiago egiteko griña, alegia. Dena dela, mami ta azal, dagoen bezala ematen dizut. Zerorrek ikus, baiña liburu au idatzi badut, ezta izan, noski, mamia baztertuz, azalari uts-utsik begira jarri zaitezen. Agi denez, ez nabil literatura utsa egiten, gai gotor eta giartsu bat azaltzen baizik.

AITA LUIS VILLASANTE, O. F. M.

Arantzazun, 1962, Martxoak 22.

ZENBAIT LIBURU
emengo gaiak menderatzeko on direnak

SERTILLANGES (A D), *Les Sources de la Croyance en Dieu,* 1903. (Bada gaztelaniazko edizioa: Editorial Litúrgica Española, Barcelona, 1942).

Id., *Dieu ou rien,* Paris 1933

Id., *El Problema del Mal* (Historia). E.P.E.S.A., Madrid, 1951.

KONIG (FRANZ), *Cristo y las religiones de la tierra. Manual de historia de la religión.* B.A.C., Madrid, 1960.

SCHMIDT (GUILLERMO), *Manual de Historia Comparada de las religiones.* Espasa-Calpe, Madrid, 1941.

WILLIAM FOXWELL ALBRIGHT, *De l'age de la pierre à la chrétienté. Le monothéisme et son évolution historique.* Payot. Paris, 1951.

ALBERT CUTTAT (JACQUES), *El encuentro de las religiones,* Ed. Fax, Madrid, 1960.

DESQUEYRAT (A.), *La Crisis religiosa de los tiempos nuevos.* Desclée de Brouwer, Bilbao, 1959.

EGILLE ASKOREN ARTEAN, *Dios, el Hombre y el Cosmos,* Ediciones Guadarrama, Madrid, 1959.

ARNALDICH (LUIS), *El origen del mundo y del hombre según la Biblia.* Ediciones Rialp, Madrid, 1957.

DANIELOU (JEAN), *Dios y nosotros.* Taurus, Madrid, 1957.

RIAZA (JOSE M.), *El Comienzo del mundo.* Exposición de los avances científicos actuales. B.A.C., Madrid, 1959.

PEREGO (ANGELO), *La Creación.* E.L.E., Barcelona, 1961.

FRAILE (GUILLERMO), *Historia de la Filosofía.* B.A.C., Madrid, 1956.

MICHELET, *Dieu et l'agnosticisme contemporain.* Gabalda, París, 1920.

LENNERZ, *Natürliche Gotteserkenntnis,* Herder, Freiburg im Breisgau, 1926.

DESCOQS, *Praelectiones Theologiae Naturalis, Cours de Théodicée.* Beauchesne, Paris, 1932.

ANDEREZ (VALERIANO), *Hacia el origen del hombre.* Universidad Pontificia de Comillas, 1956.

CALCARA (ANIELLO), *Il problema morale nei tempi moderni.* Edizioni Paoline, Alba, 1957.

GONZALEZ MORAL (IRENAEUS), *Philosophia Moralis.* Editorialis Sal Terrae, Santander, 1955.

CRUSAFONT-TRUYOLS-AGUIRRE, *El Hombre en la cumbre del proceso evolutivo.* Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbao, 1961.

EGILLE ASKOREN ARTEAN, *Warum glauben? Begründung und Verteidigung des Glaubens in 39 Thesen.* Echter Verlang, Würzburg, 1961.

GARRIGOU-LAGRANGE (REGINALDUS), *De Deo Uno. Commentarium in primam partem S. Thomae.* Desclée de Brouwer et Cie., Paris, 1938.

OROMI (MIGUEL)-SANCHEZ-MARIN (FAUSTINO), *Unamuno y un siglo. Agonías Intelectuales.* Pylsa, Madrid, 1957.

GARRIGOU-LAGRANGE (R.), *Dieu. Son existence et sa nature.* 11 ed. 2 vol., Paris, 1950.

JOLIVET (R), *Etudes sur le problème de Dieu dans la philosophie contemporaine.* Lyon-Paris, 1932.

SCIACCA (M. F.), *Dios y la religión en la filosofía actual.* Barcelona, 1958.

ORTEGAT (P.), *Philosophie de la religión.* 2 vol. Louvain, 1948.

EGILLE ASKO, *Dio nella ricerca umana,* Roma, 1953.

MARCOZZI (V.), *Il problema di Dio e le scienze.* Brescia, 1952.

RIDEAU (E.), *Paganisme ou Christianisme? Etude sur l'atheisme moderne,* Paris, 1953.

ALESSANDRO (A. D.), *Il materialismo scientifico e l'idea di Dio.* Napoles, 1952.

MARCOZZI (V.), *Le origini dell'uomo,* Milano, 1954.
Id., *Evoluzione o creazione?,* Milano, 1953.

TODOLI (J.), *Filosofía de la religión.* Madrid, 1955.

LEPP (I.), *Psychanalyse de l'ahtéisme moderne.* Grasset. Paris, 1961.

URS VON BALTHASAR (H.), *El problema de Dios en el hombre actual.* Ed. Guadarrama. Madrid.

Id., *El Cristiano y la angustia.* Ed. Guadarrama. Madrid.

CASTRO CUBELLS (C.), *Lo religioso y el hombre actual.* Ed. Guadarrama. Madrid.

MARITAIN (J.), *La signification de l'athéisme contemporain.* Desclée de Brouwer. Paris.

BORNE (E.), *Dieu n'est pas mort, Essai sur l'athéisme contemporain.* Fayard. Paris, 1960.

LACROIX (J.), *Le sens de l'athéisme moderne.* Cahiers de l'Actualité religieuse. Casterman. Paris, 1958.

DE LUBAC (H.), *Le drame de l'humanisme athée.* Spes. Paris, 1944.

MOELLER (CH.), *Mentalité moderne et évangélisation.* Ed. Lumen Vitae. Bruxelles, 1962.

EUSKERAZKOAK

LAPEYRE (E.), *Credo edo Sinhesten Dut Esplikatua,* Baiona, 1891.

ARBELBIDE (J.-P.), *Erlisionea,* Lille, 1890.

IBARGUTXI'TAR J. GURUTZ, *Kristau Ikasbide Atzalbena. I. Siñiskaiak,* Bilbao, 1959.

LASALLE (LEON), *Gure Erlisionearen Frogantza,* Baiona, 1961 (39 orrialdeko liburuxka).

ZAITEGI ETA PLAZAOLA TAR IOKIN, *Platoneneko Atarian,* Donostia, 1962.

I Kapitulua

Gizadi osoaren aitorrera

LABURPENA

Erlijioen Kondairak azaldu dituanak, batez ere erri primitivuei buruz. Jainko bakarraren siñestea erri auetan.—Aymeri Picaud ta Jainkoaren euskal izen zaharra.—Noiznai eta nonai gizona beti ikusten dugu erlijio baten jabe. Jainkoaz ezin aaztu gizona.—Aitorrera orokar onen indarra gutxitu nai lutekenak.—Monoteismua eta Politeismua. Zein zaharrago?—Erlijioaren gainbeera gaur eguneon eta gertaera onen sustraiak.—Gizadiaren Jainko fede onetatik atera al diteke frogantza seguru bat Jainkoa ba-dela jakiteko?

Erlijioen Kondaira: orra Jakintza bat siñeste gabekoek asmatua, fedea desegiteko tresna egokia zelakoan. Baiña argia ezta argiaren bildur. Munduan diren eta izan diren erri denen siñiskerak arakatzetik zer kalte etorri dakiguke? Kaltea ezezik, laguntzarik baliotsuena eldu zaio gaur eguneon Jainko-fedeari alde ortatik.

Comte eta bere eskolako beste jaun siñisgabe batzuk uste izan zuten gizona aberetasunetik igoa zela poliki-poliki, evoluzioz; eta erlijio-kontuan animismua, fetitxismua, magia ta olako siñiskeriak izango zirela gizonaren lenengo erlijio-mota. Gero, berriz, eta beti gorantza igoaz, Jainko askoren ideiara iritxi zela: orra politeismua. Eta azkenik, mailla gorena bezala, Jainko bakarraren fedea atxeman zuan. Auxe da azkenengo muga, elburua. Azkenengoa ez, zergatik, Jaun oien ustez, Jakintzak Ateismua zabaldu bear omen du bazterretan eta au izanen da atzenengo ondorea eta Jakintzaren frutu bikaiñena...

Ametsak. Aurre-iritzien indarrez sortutako teoriak. Baiña teoriak alde batera utzirik, lur zabalaren kolkoan bizi diren errialde guztiak bana-banaka arakatzen ibilli diren jaunak, zenbat argibide eta berri jakingarri eztigute eman! Eta batez ere **erri primitivuak** deitzen diren oien berriak, bai direla pozgarri!

Koppers jaunak, Tierra de Fuego-ko **yamana** deitu indioak Gusinde-rekin batean aztertu zituan. Jaun onek, bada, ara zer dion: "Erri primitivuek Jainko Aitagan duten fedea argitara ematea izan da, ene ustez, gure XX garren mendeak egin duen aurki-berririk aundiena. Eta eztut uste batere geiegikeririk diodanik ori esatean."

Erri primitivu oiek orain ere bizi dira, 1961 gn. urte ontan, eta besteetatik samur bereizi ditezke. Eztaukate ez artzaintzarik ez nekazaritzarik; are gutxiago iñungo industriarik. Basoak, mendiak edo izadiak berez ematen duanetik bizi dira. Eztute iñoiz izan idazlerik ez filosofurik edo pentsalari ospetsurik. Orrelako erriek gaur arte iraun izan dute, beren egoera arrigarri ortan, eta pentsatzekoa da Jainkoak iraun arazi dituala, gure mende arro eta Jainko-gabeko onek gizadiko gure anai xumeen artean Jainko-fedearen testigurik ederrenak billatu ditzan. Orrelako erri primitivuak ba-dira, bada, oraindik, bai Asian eta Afrikan, Ameriketan eta bai Ozeanian ere. Eta zein biotz-ukigarri den oien erlijioaren berriak eta xehetasu-

nak irakurtzea! Ezagun da bai Jainkoaren Ardurak eztuala gizona bein ere bertan-bera laga, eta are gutxiago biotz-umillak diren gure anai oiek!

Ejenplu bat bakarra aipa dezadan, Koppers jaunak yamana oiezaz diona kontatuko dugu. Darwin ospetsua bi aldiz izana zan Tierra de Fuego-ko lurraldean, 1832 eta 1834 gnean. Eta bere ikusketa aien ondore bezala atera zuan yamanak etzutela batere erlijiorik, Jainko gabeko erria zela. Lau aizetara zabaldu zuan berri au, eta onartua izan zan Europako jende ikasien artean. Ala ere, Darwinek baiño lehenago eta berak baiño begi zoliagoa zeukan beste norbaitek ikusi zuan yamana oiek ba-zeukatela erlijioa, ta erlijio bizi-bizia gaiñera; baiña Europa jakintsuak, oni gibela emanik, Darwinen epaiarekin gelditu zan. Zenbat olako pasatzen dira Jakintza delakoaren esparruan! Geroztik, ara joan ziran Mixiolariek Darwinen epai ori sendotu besterik etzuten egin. Berek ere etzuten sekula susmatu indio aiek, berez, eta Mixiolariek erakusten zietenaz kanpo, batere erlijiorik izan lezaketenik. Egia esan, billakuntzak egiten ere etzuten burua asko nekatu.

Eta orra 1922 urtea. Koppers eta Gusinde dijoaz ara azterketa ori zeatz egitera. Koppers jaunak du itza. "Iru edo lau emakumeekin ari giñan jardunean. Beren istorio, ipui ta olakoak kontatzen zizkiguten. Alako batean solasak ekarri zuan **Watauinéwa** itza. Itz onen ostean misterioren bat gordetzen zela susmatzen genduan. Galdetu genien, bada, nor zan Watauinewa ori. Etziguten erantzunik eman. Azkenean, eta erdi lotsaz, emakume aietako batek, auxe jaulki zigun: **Watauinéwa kristauen Jainkoa bezala da.** Gero denak ixildu ziran eta garbi igarri genduan etzeudela geiago esateko."

Bi egun geroago, ordea, bi emakume gazte aurkeztu ziran gure gizonengana, esanaz: "Orain kontatuko dizuegu dena Watauinéwaz. Lengo egunean galdera ura egin zenutenean, an gure artean ba-zeuden Watauinéwak illarazitako umeen ama batzuk, eta orregatik etzan ortaz itzegiteko garaia." (Umeen eriotzak Watauinewaren kastigutzat artzen dute, eta argatik ezta izen ori aipatu bear umeren bat il zaion amaren aurrean). Eta gaiñeratu zuten: "Guri Watauinéwak eztigu umerik il eta ala lasai eta bildurrik gabe esango dizuegu dena." Eta berri zeatz eta ugariak jakinarazi zizkieten beren Jainko ortaz. Gero beste askori ere galdetuaz, siñiskera ura yamana

guztien artean zabaldurik zegoala argi ta garbi egiztatu zuten.

Watauinéwa izenak, beren izkuntzan, Zaharra esan nai omen du, Betikoa, Aldatzen eztena. **Hitapuan** ere deitzen diote Jainko oni, eta izen onek esan nai du: Nere Aita. Iñork ere ez omen daki ez noiztikoa den ez nondik duen bere bizia Watauinéwa orrek; betikoa da, beti bizi izan dena. Gauza guztiak Berak egiñak direla, ori ez, eztute esaten, baiña bai Bera dela izadi guztiko jaun eta errege. Janariakgatik eskerrak eman bear zaizkio. Edozein gauzagatik esan oi dute **Watauinéwa-sirh,** au da, Jainkoaren emaitza. Watauinéwak edozein gauza dezake, bere indarrentzat ezpaitago mugarik. Orregatik deitzen zaio **Abailakin,** au da, indartsua, almen aundikoa. Bera da bizitzaren eta baita eriotzaren jauna ere. Berak eman oi du bizia, baiña baita eriotza ere. Izpiritu on eta gaiztoen gaiñean ere siñisten dute yamana auek; baiña Watauinéwa oien denen gaiñetik dago. Iñungo aztiek eztute eskubiderik Watauinewaren kontra. Watauinéwak nai ezpadu, aztiak ezin dezake gauzarik.

Watauinéwa Jainko ona da. Eta ederki adirazten du ori ain sarri darabilten izen orrek: Hitapuan=Nere Aita. Ala ere, senide maiteak illarazten dituala-ta, noizean bein, naigabe gogorretan, ao-mihitan artzen dute beste izen au ere: **wölapa-tex-sef** (zeruko iltzaillea). Ikusi dugu nola ama gaixo aiek uste zuten Jainkoak iltzen dizkiela beren umeak. Eztute asko pentsatzen higiene-faltaz gertatzen zaiela ori. Gertaera denak zuzen-zuzenean Jainkoari ezartzen dizkiote.

Watauinéwa, yamanen iritziz, izpiritu bat da. Beraz, ezin ikusi diteke. Batzuetan pena artzen dute orregatik: nai lukete Bera ikusi eta Berarekin aoz-ao itzegin, egia Berari esateko, zeren, ¿zergatik iltzen ditu aur gaixoak? Watauinéwaren bizi-lekua zeruan dago, baiña lurrean gertatzen den guzia ba dakus eta badaki. Ezkutuan egiten den gaitza ere ikusi oi du Ark. Gaizkilleen zigortzea ere Berari dagokio...

Watauinéwa ezta —norbaitek pentsatuko luken bezala— yamanen ipui edo mitu bat. Indio auen mituak 1920 urterako bilduak zeuden, baiña oien artean ezta agiri Watauinéwa. Ala ere, segurantza geiago izateagatik, galdetu genien —dio Koppers-ek— bein eta berriz ea Watauinéwa norekin dagoan ezkondua. Aien erantzuna beti izan zan arritu ta are aserrea-

rena ere. Watauinéwa ezkondu! Zer zozokeria! Orrelako galdera egitea ere!...

Watauinéwaren siñeste onek erro sakonak ditu yamanen artean. Otoitz-modu asko zuzentzen zaizkio. Otoitzok itz jakin batzuekin daude egiñak, eta tradizioz ikasten eta irakasten dira. Baiño Watauinewarekin itzegiteko, eztago formula oiek erabilli bearrik. Iñoren itzak alde batera utzita ere, norbere itzekin, bakoitzak berak bere baitan moldatzen dituanakin ere mintzatu dakioke, eta batzuk naiago dute ala.

Yamanen artean ezta aurkitu sakrifiziorik, beste erri askotan bezala. Eztiote Jainkoari lurreko frutuen eskeintzarik egiten. Zertarako gaiñera? Ark dena baitu, eta eztago ezeren bearrean. Baiña janari denak Arenak direla aitortzen dute. Gizonek, premia duten beste artu bear dute, eta ez geiago.

Watauinewaren siñeste au, agi denez, zaar-zaarra da, kristautasunaz zer-ikusi eztaukana eta gure fedea lur aietara eldu biño lehenagokoa. Nolanai ere, gure fedetik ilki eztena. Koppers jaunak bere ixtudioan aipatzen dituan ipi-apa guztietatik garbi agiri da au.

Unkigarria da Koppers-ek Mixiolariari aurkitu auek agertu zizkioneko alkar izketa. Baiño entzun dezaiogun berriz ere Koppers berari: "Etzait sekula aaztuko igande arratsalde ura (1922-ko Ilbeltzaren 25), Mixiolari zaharrari gure aurkitu berriez mintzatu nintzaion arratsaldea. John Lawrence zuen izena, 79 urtekoa. Gure berriek biziro erasan zioten. Gero esan zidan: Badira 53 urte emen bizi naizela; eta zuk, iru aste besterik eztaramazu eta nik baiño askozaz geiago dakizu. Jendearen aurrean irabazi duzun konfiantza ori, neri etzidaten sekula eman. Eta nere paperak aztertu ondoren, gaiñeratu zuan: Ori danori eztute ikasi gugandik, Mixiolariengandik, siñiskera auek bere-bereak dituzte, dudarik gabe, beren ondasun jatorra dira."

Lawrence orrek ba-zituen iru seme (Mixiolari protestantea zan). Bat, india uts batekin ezkondua, gaiñera. Seme onek, bada, zer azterketak egiten ari ziren jakin zuaneko, berak ere esan zuan: —Gauza guzti oiek neronek ere banekizkian.

—Zergatik eztituzu esan ba?, galdetu zioten.

—Eta nola jakin nezakean nik —erantzun zuan— Europan indio gaxo auen erlijioa jakiteko orrelako gutiziarik izango zenik?

Indioei berei ere galdetu zieten gero ea zergatik etzizkieten esan gauza oiek Mixiolariei. Ara aien erantzuna: "Mixiolariek etziguten sekula galdetu gauza oiezaz; aitzitik, beti esaten ziguten gure gauzak txorakeriak besterik etzirela, eta aaztu egin bear genituala. Ala ere, guk asieratik igarri genduan aiek erakusten ziguten Jainkoa eta gure Watauinéwa, bere muiñean, bat eta gauza bera zirela. Mixiolarien jokabide orrek kalte egin zigun"...

Mixiolarien jokabide onek kalte egin zigun. Itz auek eztira alperrik galtzekoak. Zenbat aldiz, Mixiolariei toki askotan egin zaien arrera txarra ez ote da izan jokabide txar onen erruz! Koppers-ek dionez, orrelako makurrak maiz egin izan dituzte, bai Mixiolari protestanteek eta bai katolikoek ere. Erri oien biotzetara urreratu bearrean eta beren jatorrizko jakituria kutunkiro xurrupatu bearrean —eta lenen-lenengo beren izkuntza, au baita giltza— joan izan dira, beste gabe, gurea aiei sartzera. Gure izkuntza, gure oiturak, gure kultura, bizimodua eta erlijioa ere beren jatorrizko erlijioaz batere ikustekorik ezpalu bezala. "Zuek zozo batzuk zerate, zuen gauzak txorakeriak besterik eztira, utzi itzazute oiek bein betiko eta gureak artu..." Jainkoak, ordea, eztu olakorik nai. Edozein errik duan berezitasun eta jatorrizko ondasuna gorde ta zaindu bear da. Gure Aita Santu Juan XXIII gnak. oraintsu bere "Mater et Magistra"-n argi eta ozenki aldarrikatu du ori.

Makurretatik bear da ikasi gerorako. Eta Mixiolariak uts oietan erortzetik begiratzeko, on litzake, Koppers jaunak dionez, apaizgaien ikastaroetan Etnologiak eta Erlijioen Jakintzak zor zaion tokia baleza (1).

Mundu guztian dira ezagunak Schmidt jaunak egin dituen lanak erri primitivu direlako oiei buruz. Erri auek, milagroz eta Jainkoak ala nairik, gaur arte iraun izan dute beren antziña-kutsu arrigarrian eta alde askotatik gizatasunaren beerengo maillan aurkitzen direla ezin uka diteke. Oietakoak dira Australiako zenbait tribu: kulin, kurnai, yuin... Afrikako negrilloak, boskimanoak. Asiako pigmeoak, samojedoak, korjakoak, ainuak, eskimalak. Ipar-Amerikan, berriz, algonkinoak, Kaliforniako hoka, penuti, yuki. Amazonas-aldean ere

(1) Ikus Koppers (W.), El hombre más antiguo y su religión; König jaunaren liburuan, 111 orrialdea.

ba-dira beste batzuk, Tierra de Fuego-n, ta abar. Munduaren bazter-aldeetan eta batak bestearen berri jakin gabe bizi diren erri xume auek, bada, bizi-bizia atxiki dute Jainko bakarraren siñestea, Gusinde eta Koppers-ek yamanen artean aurkitu zuten bezala (2).

Labur, eta Erlijioen Kondairak ederki jakiñarazi digunez, Jainko bakarraren siñestea atze-aroan ez, baiña asieran idorotzen dugu. Siñeste au izan da erlijio jatorraren benetazko erroa, orpoa. Geroago, berriz, eta asierako Monoteismuaren ondoren aurkitzen dugu Megalitiko-aroaren erlijioa. Dolmenak eta beste olako oroigarriak utzi dizkigutenen erlijioa, alegia. Gure Euskalerrian ere amaika olako oroigarri ba-ditugu ("triku-arriak", "jentil-baratzak", "jentillen sepulturak" ta abar). Aipagarriak dira gure Joxe Migel Barandiaranek oiei buruz azaldu dituan argitasunak. Megalitiko-aroko gizon auetan Monoteismua askoz naastuago nabari da. Asaben kultua eta izadiaren indarrei ematen zitzaiona sartu zaigu Jainko Bakarra illundu eta baztartu naiez. Urrengo pausoa izango da, berriz, Politeismua, Jainko askoren siñestea. Aztikeriak, Magia ta beste olako oitura ta siñiskeriak, sasia belar jatorrakin bezala bizi izan dira sarritan erlijioaren ondoan eta iñoiz erlijioa itotzeraiño ere eldu izan dira. Azkenik, eta gizonak zeraman gain-beeraz errukiturik, Jainkoak bere itza argitu zigun eta bere mandatarien bitartez berriz biurtu zuan erlijioa bere oiñera. Primitivuen Monoteismu bera ere, gizonak bere argi xoillaz ardietsi duan ala Jainkoak lehen-gizonari agertutakoaren ondarra ote den jakitea, ezta batere gauza samurra.

* * *

XII garren mendean bidazti arrotz bat urreratu zan gure euskal lurretara. Aymeri Picaud zeritzaion. Frantsesa zan. Beste asko bezala, Kompostelara zijoan erromes. Gero, bere erromesbide artako berri jakingarriak bildurik, liburu bat atera zuen latiñez: "Liber Sancti Jacobi". Kompostelako bidean erromesak igaro bear dituen lurralde, arrisku eta jende-mota guztien xehetasunak ematen ditu. Euskaldunez ere mintzo da, noski. Geiago oraindik: euskal iztegitxo bat ere ba-dakar. Ba-

(2) Ikus Schmidt, Manual de Historia comparada de las religiones, 247 orriald.

dirudi garai artako euskaldunak, naiz ta kristauak izan, gizon eltzakak eta basati-xamar ba-zirela, Aymeri Picaud-ri siñistu bear badiogu, beintzat. Baiña gu orain goazen puntura-ko, etzaigu ajola ori. Beste gauza bategatik aipatzen dut emen gure erromes famatua: gure asaba zaharrek nola deitzen zu-ten Jainkoa, berari eskerrak dakigulako, alegia. Ala dio izte-gitxo onek: "Deum vocant urcia"=Jainkoari Urcia deitzen diote (3).

Garrantzi aundia du berri onek guretzat. Oraingo euske-ran ere agiri dira itz beneragarri orren aztarnak. **Ortze** zerua-ri esaten zaio. Eta **ortzadar/ostadar, ozkarbi, ortzegun/oste-gun, ortziral/ostiral** eta beste olako ba-ditugu, sustrai berbe-rakin eratuak. Orain bertan ere Arantzazuko auzo onetan eza-guna da (zaharren artean) itz eder bat, **ostondo,** zeru barrena edo sakona adierazteko: izarrak dauden zeru-ondoa, alegia. Dirudianez, zerua izango zan gure asabentzat Jainkoaren bi-zilekua, eta ortik sortu zan zeruaren beraren izena Jainkoari ematea, beste zenbait erri ta mintzairatan gertatu izan den bezala. Izen ori, euskaldunak kristautu baiño lehenagokoa bi-de-da.

Urtziaren izena aaztua izan da geroztik, eta aspaldidanik beintzat ba-dugu euskaldunok beste itz bat, guztion ezpaiñe-tan dabillena: Jainkoa edo Jaungoikoa. Uste dudanez, filolo-guen artean ba-da eztabaida azkeneko bi forma oetatik zein ote den zaharrena erabaki naiez; eta oker ezpanago, eztatoz bat. Batzuen iritziz, Jainkoa edo Jinkoa jentil-arotik datorren itza litzake; Jaun-Goikoa, berriz, orren gaiñean eta kristau dotriñaren argitasunaz eratua dela diote. Besteek, berriz, uste dute Jaun-Goikoa dela zaharren; eta Jainkoa bere laburpen bat baizik eztela (4). Euskal liburu zaharretan bai bata ta bai bestea agiri dira naasita, adibidez Decheparen, Axularren, Landuchion ta abar.

Dena dela, bai Urtziak eta bai Jainko izenak ez ote digu-te ematen alako arrastoren bat euskaldun zaharren Jainkoa-rekiko siñestea zer moduzkoa izan ziteken susmatzeko? Kris-

(3) "Liber Scti. Jacobi Codex Calixtinus. Transcripción de Walter Muir Whitehill; Santiago de Compostela 1944". Ikus IV liburua, VII gn. Kapitulua, 355 or.

(4) Fr. Eusebio de Echalar, "Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos", Geografía del País Vasco-Navarro, Navarra t. I, 1078 or.

tautu baiño lehenagoko izenak baitira, ezpairik gabe. Tresna bat kanpotik etxeratu oi dugunean, tresnarekin batean, tresnaren beraren izena ere kanpotik artu oi dugu, maizenik. Eta ori ikusten da Aymeri berak aipatzen dituan beste zenbait itzetan: adibidez, Ama Birjiñari esaten omen diote euskaldunek "andrea Maria", Santiago apostoluari "iaona domne iacue", ta abar. Jakiña, gauza oiek euskaldunentzat berriak izanik, gauzaren izena ere latiñetik artu zuten. Jainkoarekin, ordea, etzen ori gertatu: bai Jainkoaren siñestea ta bai izena ere ba-zuten euskaldunek kristautu aurretik, eta ala, kristautu zirenean, lengo izena gorde zuten.

Jentil-aroko euskaldunak, monoteistak ala politeistak al ziran? Jainko bat eta bakarrean, ala anitz Jainkoetan siñesten al zuten? Orra beste galdera bat, erabaki nai genukena, baiña damurik, gaurko egokeran eztugu bear aiña argibide zeatz erabakitzeko. Aymeri-ren iztegitxoan Urtzia izena singular bezala azaltzen zaigula bistan da. Baiña orduko euskaldunak kristautuak zeuden eta beraz monoteistak ziran. Kuestioa da lehenago, kristautu aurretik, zer moduzko erlijioa zuten jakitea. Urtzia al zan beren Jainko bakarra, ala ori Jainko nagusitzat artuarren, beronen aldamenean ba ote zituzten beste jainko txiki edo jainko-usteko izakien edo indarren siñeskerak eta siñeskeriak? Ezta samur jakitea, baiña atzenengo galdera oni baietza zor zaiola esango nuke. Beintzat Aymeri baiño eundaka ta milla urte lehenagoko aztarnei begiratuaz ala dirudi. Euskalerriko toki askotan gure egunotaraiño eldu dira dolmenak edo triku-arriak (kondaira-aurreko gizonen illobiak). Erria kristautu ta gero ere, gure mendera arte iraun izan dute ainbeste siñiskeri, oitura, usario ta esanek: guzti oiek aro aietako oiartzuna dakarkigute, eta gure asabek erlijio bat eta siñiskera batzuk ba-zituztela adierazten digute. Jainko bat eta bakarrarekin, ala Jainko ta Jainkosa askorekin, baiña erlijio bat alere (5).

Eta euskaldunez esan duguna, gutxi gorabera gaiñerako erriez birresan diteke. Noranai begiratzen dugularik eta mendeen erreskadan al diteken urrutiena ta gorena igotzen geralarik, nunai eta beti Jainkoaren uste edo siñeste onekin topo

(5) Ikus Jose Miguel Barandiaran, "Euskalerriko leen gizona" eta beronen Eusko Folklore, Etnologiako Lantegia. Milla berri jakingarri ta baliotsuak arkitzen dira bilduma ontan.

egiten dugu. Filosofia Jainkoaz jardutzen asi orduko, gizadiak bizi utsarekin aurrea artu zion, baita Jainkoaren auzi ontan erantzupen zuzena eman ere. Betiere biziak, biziari buruzko sistemai aurrea artzen baitie.

Arritzekoa da. Jainkoa dugu izakirik urrutiena, eta denpora berean gertuena. Gizadiak, beintzat, bere senaz, susmoaz eta bat-bateko ezagueraz nunai ta noiznai atxeman izan du Jainkoa. Lokarri sendo ta autsi-eziñekoak ditu nunbait gure izateak Arekin. Bestela, ahanzgarria balitz, ahantzia legoke aspaldidanik, zeren askorentzat aspergarri ez-ezik iguingarria ere baita.

Baiña Jainkoaz ezin aaztu gizona. Plutarko-k, erromatarren garaieko idazleak, onela zion: "Munduan barrena abiatzen bazera, giza-jendeak aurkituko dituzu mota askotakoak: arresi gabeko iritan bizi direnak, dirurik edo txanponik eztutenak, izkuntzarik arrotzenetan mintzatzen direnak, t. a. Baiña erlijio gabeko erririk edo Jainkoagan siñesten eztuen giza-jenderik, ori ez."

Plutarkok orain bi milla urte esandakoaren egia, guk ark baiño obeki egiztatu dezakegu gaur, gure mende ontan egin diren azterketa eta arakatze guztien ondoren. Aspaldiko eta egungo erriak arras ongi ezagun baitira gaur. Or ditugu gorago aipatu genituen erri primitivu direlako oiek. Or dira zivilizazio-mailla goratuago bat atxeman dutenak, ala nola erromatarrak, griegoak, txinoak, t. a. Bai batzuk eta bai besteak, alde oro ta aldi oro, erlijio bat eta jainkoazko siñeste batzuk izan dituzte. Gizona izan den lekuan, beti aurkitzen dugu erlijioa ere. Ezaguna da Quatrefages jakintsuaren erasia ura: "Gizona zer den galdetzen badidazute, abere erlijioso bat dela erantzungo dizuet", edo, gure Lapeyrek dionez, "animalia Jainkotiar bat" (6). Erri ateorik edo Jainkogabekorik ezta egundaiño aurkitu. Filosofuen eztabaida eta ustekizunen gaiñetik, Jainkoaren siñestea ta erlijioa giza-gertaera bat dugu (=un hecho humano).

* * *

Aitorrera orokar onen indarra gutxiesteko, ba-dakigu zer jokabide artzen duten erlijioaren etsaiek: ainbeste erlijioen ta

(6) Lapeyre, "Credo edo Sinhesten dut Esplikatua", 13 or.

Jainko-motaen ezberdintasunak salatu ta ezberdintasun oei bakar-bakarrik kasu egin. Eta ikustekoa da nolako irriparre errukitsu eta biurri-antxekoaz begiratzen dioten gizonari mendeetan-zear bere jainkoak tajutzen diarduela. Seriotasunik gabeko begirada, ordea. Ezpaitago eskubiderik, ezberdintasun oiek direla-ta, lekukotasun onen mamia aintzat ez artzeko. Aur-denporan diren edo ziren aztamu eta lehen-urratsak argi geiago dutenen erlijioarekin bat ez etortzea, ezta arritzekoa. Gaiñera, barruti ontan gertatzen dena, beste barruti edo eremu askotan ere gertatu izan da. Adibidez, ongiaren ideia ere orokar bezala azaltzen zaigu. Ideia ori ba-da gizona baitan noiznai ta nunai. Eta ideia edo uste ori erabatekoa ta berdiña da gizon denetan. Esan nai dut: ongia billatzen dute denek, ongia egin bear delako legea denek onartzen dute. Ontan denak datoz bat. Baiña gero ongi ori era askotara ikusten eta asmatzen dute batak eta besteak. Basati batek bere aita aguretua il egingo du. Kristaua, berriz, maitekiro zaitzen saiatuko da. Batak eta besteak ongia billatzen dute eta aitaganako maitasunak eragiñik ari dira, naiz ta beren egiñak oso ezberdiñ izan. Gure auzi onetan ere zerbait orrelako gertatzen da. Nik eztut esan nai gizon guztiek (batez ere jentil-arokoak) egiazko Jainkoa bere "tasun" guztiekin ezagutu zutenik. Jainkotasun baten ideia edo usteak gizonaren gogamenetik eztuela bein ere faltatu, ori da esan nai duguna. Izadia ta giza-bizitza izaki goi batengandik zintzilika bezala daudela: ori da, labur, gizonek beti siñestu dutena. Orra erlijio ta siñeste guztiek barnean dakarten muin berdintsua.

Dakigunez, munduan ezagun diren erlijio-mota guztiak bi moltzotan biltzen dira: monoteistak eta politeistak, au da, Jainko bat eta bakarra aitortzen dutenak eta anitz Jainko adoratzen dituztenak. Ala da, eta partitze ori zuzena eztenik eztugu esango. Ala ere, Jainko izenaz izaki asko ohoratzen dituzten erlijio oietan ere, urbillagotik begiratu ezkero, itxura ta azalaren azpitik, jatorrizko monoteismuaren aztarnak agiri dira ia beti. Ba-dute, alegia, Jainko bat gaiñerakoak baiño aundiago dena, mailla apartekoa bezala. Ala zuten Erromatarrek Jupiter, eta ori bera da Griegoen Zeus-pater (filologiak berak egiztatzen digunez); eta euskerazko Ostegun/Ortzegun (Urtzia berriz ere), Jainko oni eskeiñitako eguna zan (Jueves=día de Júpiter). Erromatar jentillak kristauen aurka ja-

rri zirenean (auek egiazko Jainko bakarraz kanpo, besterik ezagutu nai etzutelako), Tertuliano idazleak auxe ihardesten zien: "Zuek ere zin egiterakoan, **Jainkoa** esaten duzue beti, singularean, eta ez Jainkoak, pluralean"...

Egia da Jainko bakar orren ingurumarian jainko-izun askoren moltzoa sarturik zegoela, eta ortik naaste aundia sortzen zela; baiña geienetan jainko txiki auek irudiak izaten ziran, izadiko indarren irudi batzuk, eta simbolismu-kutsua nabari zaie.

Eta zein ote da zaharrago edo lehenagoko? Jainko bakarraren ala Jainko askoren fedea? Monoteismua ala Politeismua? Ontan ere izan dira eta ba-dira eztabaidak jakintsuen artean, baiña gorago esan dugunetik au garbi dago, nere ustez: Monoteismua da erlijio bakar jatorra eta asierakoa. Geroago, eta gizonak lurreko gauzetan aurrera zijoazten eran, egiazko fede ori illundu egin zan eta tajugabeko txorakeri askorekin nahastu, baiña sekula ere etzan guztiz itzali.

* * *

Gizadia, bada, Jainko-fededun azaltzen zaigu kondairan zear. Ala da igarotako mendeei bagagozkie. Baiña, eta orain? Fedea eta erlijioa ez ote datoz gainbehera, amilka? Egungo munduan erlijio-izpirik gabe bizi direnak ez ote dira gero ta ugariagoak? Bai, bearba. Gizon zivilizatuen artean erlijioari buruzko oztasun ori asko zabaldu da. Ala aitortzen zuan Suhard Kardinalak "Essor ou déclin de l'Eglise" izendaturiko bere gutun gogoangarrian. Eta ala aitortzen du gertaera onen sustraien billa ibilli den Desqueyrat jaunak (7).

Jaun onen iritziz, egungo gizadiaren krisis ori aunditzeak berak dakarren zera omen da. Gizadiak, gizadi denez, mendeetan-zear gizakumearen adiñak igarotzen ditu. Orain arte aurtzaroan izan da. Orain, berriz, mutiko billakatu zaigu, gazte txoro izatera eldu da. Ez oraindik gizondua, baiñan gizondu nai. Mutil gazteak aurtzaroko gauzak erdeiñatzen dituan bezala, egungo gizadiak ere orixe bera egiten du orain arteko siñisteekin. Adiñakin zentzua itzuliko zaiolakoan gera.

Gure ustez, besterik ere ba-da. Gaurko gizona mozkortu-

(7) Desqueyrat, La crisis religiosa de los tiempos nuevos.

rik eta lilluraturik bezala dago teknikak eta aurrerapenak ekarri dizkion asmaketa arrigarriekin. Zinea, fotografia, abiazioa, radioa, televisioa, satelite artifiziala, bomba atomikoa, nik al dakit zenbat eta zenbat gauza sortu dituan gure gizaldi onek! Gizona jostaillu berri auekin txoratua eta itsutua bezala agiri zaigu. Uste du nunbait tresna oiek emango diotela zoriona ta betetasuna; eta Jainkoaz eta beste munduko gauzez ajola gutxi, oien bearrik ezpalu bezala. Mutil gazte bati aitak bizikleta erosten dionean ez al da olako zerbait gertatzen? Lehenbiziko egunetan ain erotua dabil gure gizontxoa, ez jan ta ez lo ta ez mezatara joan bear duenik ere etzaio gogoratzen, etengabe dabil ara ta onera bere txirrinka gaiñean. Gero, berriz, egun batzuk igarotakoan, bere senera biurtzen da.

Baiña gizonak Jainkoa arbuiatzea ezta ondore gabe. Ondore samiñak bistan dira. Zoriontsuago al da egungo gizona bere asmaketa guztiekin? Erraztasunak ugaritu dira, jendea lasaiago bizi da, baiña baiña... etsipena ta suizidioak ugarituz dijoaz. Gorrotoaren ta ondoezaren markak ez ote dira lehen baiño agiriago nabari gure gizaldikoen aurpegietan? Eta or jaio zaigu literatur-mota berezi bat, pesimismu beltza dariona. Gure euskeran ere bere muturra agertu digu. Frankl psikiatra famatuak, oraindik asko eztela, ara zer aitortzen zuan: gure egunotan ain sarri gertatzen diren neurosisko gaixoaldi oiek, irutatik bat beintzat, gizonak Jainkoaganako ta beste mundurako duen joera ta yorana galeraztetik sortzen direla... (8).

Gure biziaroa motxegia da gizadiaren adiñak eta goraberak begiekin neurtzeko, baiña uste izateko da gaurko zoraldi au eztela luzaroko izango eta gizona bere senera biurtuko zaigula. "Ez gaude ez amaiaren asieran, gizadiko Kondairaren biurgune aundi baten aitzinean baizik", dio Könik jaunak (9).

* * *

Baiña goazen arira. Kondaira lekuko, gizadia nonai ta noiznai Jainko-fededun azaldu zaigu. Ori Jakintza historikoek agertzera eman digute. Aitorrera orokar au, ordea, naikoa

(8) Ikus Irala, Eficiencia sin fatiga en el trabajo mental, 48 or.
(9) König, Cristo y las religiones de la tierra, 62 or.

ote dugu, beste gabe, Jainkoa ba-dela jakiteko? Eztirudi. Egia da filosofu aundiek erasia au ezarri zutela, alegia: alde ta aldi oro siñesten dena ezin diteke gezur atera. Ezpairik gabe, aitor arrigarri ta unkigarri onek indar aundia ematen dio Jainkoa ba-delako usteari; batez ere, aditzera ematen digu ba-dituela gure izateak lokarri autsi-eziñak siñeste onekin. Baiña uste oker batek ere luzaroan iraun dezake gizonen artean eta erro sakonak egin ditzake, uste oker orren sortzaille izandako arrazoiek egiantza duten bitartean. Emen ere olako zerbait gerta zitekean. Gizadiak mendez mende uste izan du lurra tinko eta geldirik zegoela, eta eguzkia ari zela bere inguruan jirabiraka; gero, berriz, bestela zela agertu digu Jakintzak. Orregatik, bada, gizadiaren aitorra argumentu bat ez baiña asiera edo oin bat bezala artzen dugu guk gure azterpen auetan. Urrengo kapituluetan arakatu bearko siñeste orren egiazko proba edo sendagarriak.

II Kapitulua

Mundu au esplikatu bearra

LABURPENA

Mundua esplikatu bearrak jaso izan du beti gizona Jainkoagana. Auzi ontan, ordea, ajola aundiko bereizkuntza egin bearra dago: Nola *eta* Zergatik *eztirela bat, eztirela nahasi bear. Antziñako gizonak bereizkuntza ori etzuan egiten.—Filosofia jaio zeneko eztabaida. Aristoteles eta Jainkoa. Kreazioaren ideia beste nondikbait eldu zaigu, Bibliatik.—Beiñolako eztabaida ura gure aro ontan berriztatua. XVII gn. mendetik onera jakintza positivuen zaletasuna zabaldu da. Ortik sortu den giza-joera.—Gure galdera: Mundua zergatik?* Nola*kin etzaio galdera oni erantzuten. Laplace-ren "nebulosa". Eta mundua betikoa balitz? Kant-en kezkarì erantzunaz.*

Nor ezta egon gau eder batean zeruari begira? Izarren argiak ikara batean daudela eta illargiak bere erraiñu eztiakin bazter guztiak pakez gantzutu oi dituanean? Gauaren pakea ta isiltasuna, orduan! Baiña isiltasun ori izketan ari zaigula dirudi. Bai, eguneko zalapart eta iskanbilla guztiak baiño barrenago sartzen zaigu, noski.

Eta nor ezta izan egunez itxas-bazterrean urrutietara begira, gure olerkariaren itz oek dastatuaz:

"Oi itxaso zabalaren,
zabalaren zabala!..." (Iratzeder)

Ala nengoen ni bein adiskide batekin, ikuspegi zoragarri bat aurrean genuela (1). Alako batean adiskide arek ara zer esan zidan: "Eta gero esango dute Jainkorik eztagoela... Itsua edo ergela izan bear da uste ori siñisteko. Jainkoaren ezagutza berezko du gizonak, izadia ikusi utsarekin. Ateismua, berriz, indarka ta gure izateari bortxa egiñaz sartzen digute. Baiña alperrik. Ozenegia baita munduaren oiua..."

Izan ere, mundu au esplikatu bearrak ekarri du beti gizona Jainkoagan siñistera. Baiño asieratik ajola aundiko bereizkuntza bat egin bearra dago emen, zer esplikazio-mota billatzen dugun adierazteko. Gauza bat da fenomenu partikular bakoitzaren kausa urbilla, edo obeki esateko, gertatze-legeak (=condiciones de realización) jakitea; eta beste bat Izadi orokarrak, baltsan arturik, duan atzen erroa edo kausa ezagutzea. Beste itzez, **Nola** eta **Zergatik** eztira berdin; beraz, eztira nahasi bear auzi onetan. **Nola** galderari erantzuteko, or dago Jakintza. Baiña gu ez goaz orain **Nola**-ren eske. Guk billatzen duguna da **Zergatik.** Orregatik, eta guztiz egoki, esaten zuan Leibniz aundiak: Jakintzak dena esplikatzen du partikularki, eta deus ez jeneralki; Jainkoak, berriz, dena jeneralki, eta deus ez partikularki.

Lehen-gizonen erlijioari begiraldi bat eman ezkero, bereala konturatzen gera bereizkuntza ori egiten etzekitela. Alde batetik Jainko-sena bizi-bizia agiri zaigu aietan. Besterik, berriz, izadiko gertatzeak nola gertatzen diren etzekiten, eta Jainko-bidez esplikatzen zituzten gertakari guztiak, tarteko kausa urkoei kaso egin gabe. Yamanen andreek, aurreko kapituluan ikusi dugunez, umeen eriotzaren kulpa Jainkoari bo-

(1) Santander-ko kaian zan, itxas-belarri xarmant aren aurrez-aurre.

tatzen diote, eta eztute asko pentsatzen berak, beren higiene-faltaz, zoritxar orren sortzaille direnik.

Nahaspil onen erruz, joera jakin bat nabari zaigu aspaldiko aro aietan: Izadiko indarrak Jainko biurtzeko joera, edo indar oien eragille ta gidari bezala Jainkoren bat ipintzea. Au ezta arritzeko. Kondaira-aurreko gizon gizarajoak ikusten zuan bere burua izadiko indar eskerga ta ikaragarrien menpean. Mendi-tontorrak, arkaitzak, odeia, trumoia, txingorra, oiñaztarria, ugoldeak, aizea, piztiak: alde orotarik indar bortitz eta misteriotsuak; berak etzeukan oiek menderatzerik. Aul, indarge eta babesik gabe aurkitzen zan oien aurrean. Euria, ekaitza edo oiñaztarria nola sortzen diren ezin asmatu zezaken. Beste aldetik Jainko-sena bizi-bizia zeukan, eta orra esplikaziorik errezena: Izadiko gertakari guztiak Jainkoari erantsi. Kausa urbillen berri ez jakiteak egiten zuan ori.

Adibide bat eman dezagun, euria nola sortzen den guk orain ba-dakigu, Jakintzari eskerrak. Eguzkiaren beroak lurgaiñeko ura lurrun biurtzen du eta aidean jasoaz laiño biurtzen da ur ori. An oztu eta atzera urturik, jetxi oi da lurrera, eta orra euria. Ori antziñateko gizonek etzekiten, eta uste zuten Jainkoren bat zebillela euria egiten. Orregatik esaten zuten: Jupiterrek euria ari du. Edo oiñaztarriagatik: Jupiter ari da bere suzko azkonak jaurtikitzen, ta abar.

Eta ortik artu dute aitzaki fedegabeek Jainkoaren siñestea gaur alperrikakoa egin dela esateko. Bai, alperrikakoa. Jainkoaz —diote— baliatzen ziran gure aurrekoak izadiko gertakari ezezagunak nolabait esplikatzeko; orain, gertakari oiek Jakintzak argitu dituan ezkero, zertarako dugu Jainkoa? Jakintzak lurraren erraiak zulatu ditu, lurgaiña, ortzea ta izarrak arakatu ditu, fenomenu guztien giltza ta adibidea iritxiurren dago arentzat. Gertakizun guztiak lege itsu ta baitezpadako batzuen arabera gertatzen direla argi osotan ipiñi du berak. Jakintzak, bada, Jainkoa baztertu egin du, alperrikako biurtu du, bein-beiñeko hipotesi bat zela erakutsiz. Beraz, iñoiz egindako mesedeakgatik eskerrak biurtu ta bidali dezagun kanpora edo traste-lekuan gorde dezagun Jainkoa, ezpaitugu geiago orren bearrik.

Baiña arrazoibide orren ustela laister nabari da. Jainkoaren ideiak ba-du beste iturburu eta sustrai sakonagorik, bai gugan eta bai lehen-gizona baitan ere. Egia da aspaldiko gi-

zonek kausa urbillen berri etzekitelako, Jainko-bidez esplikatzen zutela dena, baiña ba-da besterik ere aien Jainko-fedean. Antziñateko gizonengan pentsakera-molde au oso argi agiri zaigu beti. Kausa urkoei ajola gutxi edo batere ez, eta zuzenzuzenean Jainkoa jartzen zuten denaren eragille bezala. Naiz Biblian naiz Homeron naiz aro aietako beste edozein dokumentotan ikus diteken gauza da. Orain, berriz, beste aldera goaz: kausa urbillei ajola guztia eman eta Jainkoa baztertu. Baiña ez bat eta ez beste. Eta nik esango nuke makur aundiagoa dela gurea aiena baiño. Bai, kausa urbillak Jainkoaren eskuetan tresna edo mutil batzuk bezala dira, eta oiek utzirik artez iturburura joatea ezta ain makur aundia, nola den tarteko oietan gelditzea eta oien aitzakiakin Jainkoa bera ukatzea. Eta au da, ain zuzen, gaur egiten dena: tarteko kausa urbillek Jainkoaren ikusbidea galerazten digutela.

Arrazoi gabe, diot berriz ere. Zeren, kausa urkoen jakiñean egonda ere, zutik gelditzen da beti eta erantzun-eske galdera zorrotz au: Mundua zergatik? edo nondik eta nora?

* * *

Grezia-ko lurralde autatuan, sei-zazpi mende Kristo jaio aurretik, sortu zan Filosofia. Orduan lehenbiziko aldiz azaltzen zaizkigu gizon pentsalariak, giza-mota berri ori. Tales, Empedokles, Heraklito, Parmenides, Pitagoras eta eztakit nik zenbat gizon argi eman zizkigun Greziako lur joriak. Nai zuten gogoeta egiñez munduari bere ezkutuak ebatsi. Eta ordurarteko mitologiak eta teogoniak aurkeritzat joaz, erabaki zuten munduko fenomenuak esplikatzeko etzela Jainko aien bearrik. Etzen makala izan gizadiak orduan somatu zuan dardara: ordurarteko Jainko-fedea erortzera ote zijoan? Erlijioak erreka jo bear al zuan? Eta betikoa gertatu zan: atzera-zale eta aurrera-zaleen arteko burruka. Ordurarte siñistu dena ososorik gorde ta atxiki nai izaten dute batzuek; beste batzuek, berriz, aurrerapenaren izenean lengoa arbuiatzen dute eta ustekizun berriei lotzen dira. Izadiko fenomenuak esplikatzeko Jainkorik etzen bear; beraz, Jainkoa ukatzeraiño zijoazten filosofu ateo aiek. Erria, ordea, bere senari jarraituaz, Jainkofededun gelditu zan.

Sokrates, Platon, Aristoteles, irukote aundi ura eldu ze-

nean, egin ziran senaren eta arrazoiaren arteko eztaiak. Fenomenuen gertatze-legeak esplikatzeko Jainko-bearrik ezpadago ere, munduak mundu denez lehen-kausa bat galdegiten du. Eragille bat eskatzen du. Eta ori arrazoiaren beraren izenean. Esan dezagun aatik Aristoteles bera ere etzela Jainkoaren ideia osoki perfetua izatera iritxi. Bai onengan eta bai griegoen filosofia guztian ere itz bat falta da, beintzat: Kreazioa. Ontan argia nondik iritxi zaigun denek dakigu. Ez filosofian, ez politikan, ez zivilizazio-arazoetan alako paper oargarririk jokatu eztuen erri xume batetik: judu-erritik, Bibliatik, alegia.

Eta gaur eguneon judu, mahomatar eta kristauak argi ortatik bizi gera. Orduarteko filosofuek ezin izan zuten ori asmatu. Izan ere, aientzat zer zan Jainkoa? Gutxi gora-bera auxe: makiña baten aurrean lanean ari den mekanikua bezalatsu. Mekanikuak, ordea, eztu makina bera sortzen. Mundua eta munduko gaia ere etzuten aek uste Jainkoaren obra zirenik. Aentzat Jainkoa langille bat bezala zan, munduari eragin ziona, mundua atondu, jantzi ta apaindu zuana; baiña mundua bera betikoa zan, noski, eta bere sorrera edo jatorriari etzioten ubururik billatzen. Ontan Bibliak zabaldu zigun argia ibaika. Mundua Jainkoak egiña da, ezerezetik aterea. Jainkoa ezta bakarrik munduaren eragille edo izakien sortzaille; munduko gaia berbera ere, Jainkoak ezerezetik atera izan du. Guri ain arrunt eta etxeko biurtu zaigun egia au, berria zan aientzat. Eta berau izan da illunpeak aienatu dituana.

Adema Zalduby-k, berak bakarrik dakian bezala, bertso mardul borobillez kantatu izan du Bibliatik eldu zaigun fede ori:

"Mintza zaitezte, iguzki,
hilargi ta izarrak,
Itsasoa, ihurtzuri,
haize, hedoi, uharrak;
Abre, xori, arrain, ibai,
mendi, zelhai, ibarrak.
Oi mundua! nork egin hau?
hori niri erradak.

Jainkoak gaitu guziak
egin ezdeusetarik;
bethidanik zen berbera,
zena bere baitharik.
Mundu hunek ez du nihor,
Jaungoikoaz bertzerik,
ez hastetik egilerik,
ez iraunarazlerik" (2).

* * *

"Zerurik ez lurrik, argirik, egunik,
ez zen nihun deusik oraino eginik;
Jainkoa bakharrik zen bera lehenik,
bere baithan bethidanik.

Bere botherea noizbeit du alhatzen;
ezdenari dio badadin manatzen,
zeru-lurrak dire orduan agertzen,
bizia ere da sortzen" (3).

* * *

Grezian beiñola gertatu zena ikusten dugu gure aroan berritua. Izan ere, Jainko ideiari buruzko pakea zergatik galdu du gaurko munduak? Ezta zail jakitea. Naikoa da azkeneko mende auei begiratu bat ematea, egungo egokeraren sustraiak billatzeko. Orra XVII gn. mendea. Mende ortan, metodu esperimentalari eskerrak, aurrerapen ikaragarriak egin ziran Jakintza naturaletan. Izadia argi berritan azaldu zitzaion gizonari, aurkitu-berria edo bailitzan. Metodu berri orrekin zenbat ezkutuen giltza ta adibidea etzen azkenik zabaldu! Ezta, beraz, arritzeko metodu esperimental orren jokera ta zaletasuna buru eta gogo guztietan sartu bada. Aztatu ta eskuztatu ditekena: besterik etzen bear. Eta ortik materiaren zaletasuna. Kausa urkoen ezagutzeak du ajola guztia. Kausa lenena alde bat uzten da, ezpaititeke eskuekin ukitu. Ta orduezkero dauzkagun jakintsurik geienak gisa ortara tajutuak daude. Jakintza esperimentaletan mutil eta txapeldun diren oietakoak.

(2) Ikus RIEV, II (1908), 203 or.
(3) Id. ibid., 206 or.

Espezialistak beren esparruan, esi-barruan. Barruti ertsi batean lan egiten ari den jakintsua, ordea, ikuste mee ta zorrotzekoa biurtu oi da bere sailleko gauzetan. Oietan ba-daki, bai, barne-barnera zulatzen. Baiña ortik kanpo, nik esango nuke ikuste labur eta motxekoa izan oi dela, kaleko ta mendiko gizon arrunta baiño ere motxagoa. Beti gauza bati begira egotetik datorren gaitza da, nunbait. Eta ara zer gertatzen zaion: denek ikusi oi dutena, berak ez ikusten. Gizadiaren erregebidetik baztertua izateko arriskuan dago. Beatzen artean igurtzi ta erabil ditekena baizik eztu siñesten.

Ain zuzen, oargarriak dira jakintsu batek —Humphry-Davy-k— ontaz idatzi zituen itzak: "Nik eskolan maiz aditzen nituan irakasle materialistak. Maisu oiek esaten zidaten, adibidez, materia, sentikor izatera eta azkenik adimendun izateraiño ere, berez, beste gabe, eta evoluzio itsu baten indarrez, iritxi zitekela. Baiña gero, eskolatik irten eta bereala, asko nuen baso eta zelaietan zear ibillaldi bat egitea, nere arima izaditik Jainkoagana jasotzeko. Eta argi ikusten nuan materiaren indarrak tresna batzuk baizik etzirela Jainkoaren eskuetan".

It zederrak eta egokiak. Baiña olako gutxi. Geienek nai luteke lehen-kausa ori teleskopioz ikusteko modukoa izan zedin, izarren ostean-edo ager ziteken bezalakoa. Su-katilluan erabilli eta aztertu zitekena. Jainkoa, ordea, adimen utsaren obiektua izan. Guztiok ikusten ditugun izakietatik zentzu on batek atxeman dezaken bezalako obiektua.

Jakintsuok pentsatzen dute Jainkoaren premiarik eztagoela, Jakintzak fenomenuen gertatze-legeak argitu dituen ezkero. Euria nola sortzen den esan digute. Baiña nik eztut uste Jainkoaren zeregiña euri-sortzaille izatea denik, laiñoen tokian egotea denik. Gorago ikusi dugunez, lehen-gizonak Jainkoari ezartzen zion zeregin ori, izadiko legeen berri etzekialako. Eta ain zuzen, orregatik Greziako filosofuek Jainko-siñestea zokoratu zuten. Aiek ere igarri zuten fenomenuok Jainko gabe esplikatu zitezkela. Gero, berriz, zentzua etorri zan eta Jainkoari berea biurtu zitzaion. Baiña XVII gn. mendean berriro goaz lengora. Mundu guztia, baltsan arturik, ez al da, bera ere, fenomenu bat? Eta fenomenuak bana-banaka eta partikularki, kausa urbillekin esplikatzen baldin badira, mundu guztia zergatik ez? Ala mintzo dira gaurko Jainko-uka-

tzailleak. Ortaz gaiñera, gaurko mundua, zientzia natural, positivu eta zeatz oien mozkorrak eta zorabioak artua dauka. Zoraldia, ordea, igaroko. Kausa urkoak ezin baitu iñola ere kausa atzenaren tokia bete. Etorkizuna, ezta dudarik, guztiz arrai eta begitarte oneko agiri da Jainkoaren ideiarentzat. Gauzak bere tokian jarriko dira, eta ideia ori lehen baiño argi ederragoan azalduko zaigu.

* * *

Jarri gaitezen, bada, galdekizunaren aurrez-aurre. Mundu au nondik, edo zergatik? Mundu onek kausa bat eskatzen du, egille bat galdegiten du. Ezta berez egiña. Nai ta ez lan onek langille bat bear du. Munduak eztauka bere baitan bere buruaren esplikazioa. Ba-dakit nik izakiek bata besteari eragiten eta mugiarazten diotela. Adibidez, eman dezagun mariñel bat, aingura bat eskuan duela: mariñelak eusten dio aingurari, ontziak, berriz, eusten dio mariñelari, itxasoak ontziari, lurrak itxasoari, ta abar. Baiña lehen kausa, iturburua? Ubidea edo kanala nai duzun aiña luza zenezake, baiña ubideak betiere uburua eskatzen. Zer esango genuke kuadro bat, irudi bat ikustean, zein pinzel edo kirtenaz pintatua izan den jakiteak emango baligu ajola guztia? Kirtena berdin zait neri luze edo labur izatea: eskua da nik billatzen dudana. Munduaren auzi ontan kausa urkoak eztira orixe besterik: kirten luze bat, baiña kirten ori erabilli duan eskua nai dugu jakin.

Giza-ulermenaren indarra ta balioa onesten duen edozeiñentzat, argi ta garbi dago au. Argumentu au ondatu dezakenik ezta jaio. Nornaik ikusi dezaken gauza baita.

Eta orduan —esango didazu— nola asko eta askok eztute ikusten? Ikusten eztuten edo ikusi nai eztuten oitatik askok, Laplace-ren "nebulosa" delako ori aipatzen digute lasai-asko. Uste dute nonbait orrekin dena esplikatzen dela eta eztagoela geiago Jainko-bearrik. Baiña aur bat ere bereala konturatzen da emen egiten den tajugabekeri galantaz. Bai orixe. Aur batek aisa ikusten du nolako erokeri ikaragarria siñesten duten jaun oiek: laiño-multzo batetik, berez, eta iñor tarteko jarri gabe, atera ditezkela mundu auek, landareak, abereak, adimendun izakiak... Emen gertatzen dena da (eta nahaspil ori sarri egin oi da) barruti bereziak nahastu egiten direla: Ja-

kintza positivuen eta Filosofiaren barrutiak, alegia. Laplaceren laiño-multzoa Jakintza aldetik onestekoa izango da, nik eztut deus esatekorik bere kontra, baiña Filosofia aldetik eztu ezertxo ere esplikatzen. Kirtena luzatu besterik eztu egiten. Eta nik eskua nai.

Beste korapillo bat ere askatu bearra dago, ordea. Ara zein: Eta mundua betikoa balitz? Ala ezluke esplikazio bearrik. Eztu asierarik izan, betidanik dator, jira-bira itsuan dabil etengabe. Egun ikusten dugun bezala, izan da beti. Berez eta bere baitatik sortzen eta ernatzen ditu izaki-mota guztiak, eztu egillerik. Zer erantzun? Eman dezagun betikoa dela; San Tomas-en iritziz, ori uste izatea ez legoke arrazoiaren legeen kontra (4). Baiña orduan ere auzia berdin-berdin dago zutik eta epaitu gabe. Kirtenaren luzeak ajola gutxi, lehen ere esan dugu. Denporak eztu emen deus ikustekorik. Munduak eztu bere baitan bere buruaren esplikazioa, ori bistan da. Betikoa balitz, betitik legoke Jainkoagandik zintzilika, beti Jainko eske. Edozein unean edo momentutan ere munduak bere egille ta sortzaillearen marka ta seiñalea adierazten digu. Oraiñari bakar-bakarrik bagagozkio ere, iturburu eske daukagu mundua, Jainko galdezka. Ajola gutxi du emen munduak denporazko asiera izan duan ala ez jakiteak. Arrautza ala oilloa, bietatik zein izan den lenen jakiteak, eztu emen batere interesik. Bai batak eta bai besteak ere, beren izatean, Jainkoaren bearra adierazten baitigute.

Eta orra or Kant, dena apal-itxurakeri. "Nor gera gu, ondogabeko osin orretan sartzeko? Arroputzak alakoak, mundu baztergabe oni sustraia billatu nai diotenak! Deus ere ezpaitakigu!" Hegel-ek, ordea, ederki erantzun zion: "Ulermenik baldin badago, onek bear du munduaren epaile izan". Zentzunak atxemaiten duena, asiera ta oiñarri bai, baiña muga ta xede ezin diteke iñola ere izan. Adimenak egia du asmo eta lege, eta egia bazterrik gabe, bere zabalera ta edadura osoan. "Zergatik?" Orra adimenaren galdera eta lekaioa. Iñork eta ezerk isilduko eztuen karrazia. Mundua ba-dela ba-dakust, baiña zergatik den galdetzen dut nik.

---

(4) Jakiña, Revelazioak erakutsirik ba-dakigu munduak izan duela asiera bat. Baiña ba-zitekean bestela ere. Emen posibleaz ari gera. Posiblea da tajugabeko edo absurdo eztena; eta San Tomasentzat ortan eztago absurdorik.

Izate ori baitezpadakoa duela esaten didate. Gezurra. Nere adimenak argi ikusten baitu eztela ala. Munduko izakiek eztute izate-iturria beren baitan eta bizia etzaie zor nai ta nai ez. Ni ta zu ta bai mundu osoa ere izan gindezken edo ez gindezken: iñork doarik emana dugu gure bizia ta izatea. Beraz, **zerbait** onen ostean ba-dago **Norbait.**

* * *

Bitartekoek Jainkoaren ikusbidea kentzen digute. Au da gaurko gure istillua. Kirtena dela-ta, eskua ez aitortu nai. Baiña ba-dator eguna (ontan uste osoa dugu) eta gauzak bere tokian jarriko dira. Bitartekoei berea emango zaie eta Jainkoari ere bai. Eta orduan au argi berritan eta ederragotan azalduko zaigu.

III Kapitulua

Munduan agiri dan ordena

LABURPENA

Munduan agiri den ordena: orra gizonak Jainkoa ezagutzeko duen erregebidea.—Greziako filosofuen iritziak gai ontaz. Egia onen illunaldia gure aroan eta gertaera orren sustraiak. Aurkitu berriek ekarri duten nahasmendua. Jainkoaren alde zebiltzanen jokabide dorpea.—Mundua, adimen baten lana ote da, bai ala ez? Izadiko legeei begiratu besterik eztago. Izaki bakoitza, eta bai mundu osoa ere ,asmo bati buruz dago abiatua, xede jakin abt ardiesteko dago antolatua, eta xede ori adimenak bakar-bakarrik ezarri zezaioken.—Argumentu onen kontra atera oi diren objezio nagusiak eta oien erantzupenak. 1 Gizonaren kategoriak izadiari aplikatzea ezta zillegi. 2 Munduak eskeintzen dizkigun desordenuak eta tajugabeko lanak. 3 Evoluzioa ta beronen lege itsuak. 4 Hegelen filosofia.

Gezaltzako aitona zaarrarekin bein mintzo nintzala, auxe jaulki zidan itzetik ortzera: "Goiko erloju ori zuzen dabil, gero! Ez aurreratu, ez atzeratu eta ez gelditu... Zeiñek zaintzen du? Ari kuerdia zeiñek ematen dio, ba?"...

Gizona, betiereko gizakumea mintzo zan aitonaren aotik. Zeru-lurretan agiri den ordena miragarriak Ordenatzaille baten aztarnak adierazten dizkigu. Orra Jainkoa ba-dela jakiteko beste bide bat, frogantza argi, sendo eta ezin ukatuzkoa. Aurreko kapituluan arakatu dugu lehenbiziko bidea: munduko izakiek iturburu bat galdegiten dute. Baiña munduan, izakiez gaiñera, ba-da beste zerbait ere. Munduak eskeintzen digu, eta agiri-agirian eskeiñi ere, ordena miragarri bat, egokitasun eder bat. Ikuskizun onen aurrean nork eztu sentitu biotzean zirrara gozoa? Bai, mundua izpirituak dauka artua. Berak darama xede jakin batera. Xede edo marra ori guk eztugu ezagutzen, noski, baiña beronen aundia sumatzen dugu, alere.

Nik esango nuke auxe izan duela gizonak erregebidea bezala Jainkoa ezagutzeko. Eta gizadi osoa aurkitzen dugu bide onen barruan.

* * *

Jakituriaz eta Filosofiaz mintzo geran guztietan, beti ara jo bearra dago ta, auzi ontan ere ezin egon gindezke Greziako lurralde autatua eta bere filosofuak aipatzeke.

Greziako lehenbiziko filosofuek, bada, eztirudi munduko ordenari jaramon geiegi egin ziotenik. Gauzak zertaz edo nolako gaiez egiñak izan diren jakitea zan aien kezka nagusia: suaz ala lurrez edo urez egiñak ote diren, ori nai zuten aztertu. Edozein modutan ere, gure galdekizun onentzat bi erantzupen zeuzkaten: bat, ustekabea edo itsumustua; bestea, alabearra edo patua. Esan dezagun itsumustua, ustekabea, eztela esplikazioa, esplikazioa ukatzea baizik. Berez, oarkabean eta ustegabe, ala gertatu dira gauzak, bestela atera zitezkealarik. Zuk mai gaiñera jaurtitzen dituzu fitxak, eta berez, iñork ordenatu gabe, egokiro erreskadatuak ateratzen zaizkitzu. Baiña nork eztu ikusten ori eztela posible? Alabearrak, berriz, esan nai du mundua baitezpada dagoela ordena bati lotua. Jainkotasun itsu baten menpean-edo dagoela. Ustegabearen beste muturrean dago, bada, bigarren esplikazio au.

Urratsik aundiena, ontan, Anaxagoras filosofuak egin zuen. Gogoan jasotzekoa da Aristoteles-en itza: "Azkenean azaldu zan norbait (Anaxagoras) eta esan zuen mundu ontako egokitasunak adimen bat galdegiten duela. Ba-zirudian gizon ordien artean zentzudun bakar bat agertu zala beintzat."

Gero Sokrates dugu aipagarri. Onek, galdera berezi batzuen bitartez ba-zekian bere ikaslea goxo-goxo ta poliki-poliki eramaten, egia batekin topo egiteraiño:

"Esaidazu, Aristodemo orrek (Jenofontek bere Oroigarrietan ala dakar), ba al dira beren antze edo trebetasunagatik zuk miresten dituzun gizonak? —Bai, alajaiña! —Esan beren izenak, otoi. —Olerki epikoan Homero miresten dut baitipat. Ditiramboan, Melanipides. Tragedian, Sofokles. Irudigintzan, Polikleto. Pinturan, Zeuxis. —Eta orain (jarraitzen zuan Sokratesek), esaidazu zure ustetan nor ote liteken miresgarriago: edo adimen eta ikara gabeko irudiak moldatzen dituana, ala izaki bizi ta ezagueradunen egillea? —Bistan da (erantzuten du Aistodemok), guztion gaiñetik miresten dut ezagueradun eta bizidun izakiak egiten dituana." Baiña Sokrates zertara zijoan oarturik, auxe gaiñeratzen zuan: "Baldin izaki oiek ustegabearen lana ezpadira."

Orduan Sokrates asten zan mundu ontako egokitasunak adierazten, eta etzuen neke aundirik izaten, mundu zabal au adimen baten eta ez ustegabearen frutua dela erakusteko.

Sokratesen ondotik, Platon eta Aristoteles etorri ziran. Irukote paregabe au ezin utzia dugu. Aristotelesek bikainki erakusten zuan mundua ezin ditekela izan ustegabearen lan edo frutua. Izadia, berak eztakiala, ari da lan ta lan, baiña bere lanegiñak egokiak ateratzen zaizkio. Etengabe ertigintzan ari da, erti-lana dario. Beraz, gogamen bat, adimendu bat badela nunbait, aitortu bear.

Bibliak ere gauza bera diosku. Nork eztu ezagutzen Salmuetako kanta zoragarri ura? Voltairek zionez, adimen ordenatzailleari buruz ezta sekula itz ederragorik asmatu:

"Zeruek Jainkoaren ospea aipatzen dute,
eta ortzeak Aren eskuetako lanak adirazten ditu.
Egunak egunari esan ori diotsa,
eta gauak gauari berri au ematen dio.
Eztira, ez, auek, entzun ez ditezken itzak edo solasak.
Aitzitik, beren oiartzuna lur osoan da aditzen,

eta beren oiuak munduaren bazterreraiño eldu dira."

Ala ere (eta esateko garaia da) egia onek bere illun-aldia ezagutu du gure aro onetan. Eta ori nola posible izan den komeni zaigu azaltzea. Besterik ezpada ikus dedin nola adimen autatu batzuk ere noiztenka egiatik aldendu oi diren. Eta bestalde, okerreko iritzietan maiz datzan egiantza edo egi-puska jasotzeagatik ere bai.

Gure asabek munduari buruz zeukaten ideia, mearra ta estua zan oso. Erkiña ta simplista. Ori ezin ukatu. Jakiña, etzituzten gaur eguneko jakinbideak. Aiek uste zuten Lurra zela mundu osoaren erdi ta zilbor, eta munduan agiri den ordena adimendun botere batek zuzen-zuzenean, erabateko eta beingoan egiña zela. Batez ere Bibliako itzak literalki artzeak egiten zuen ori.

Gogoan dut apaiz jaun batek iñoiz kontatu didana. Duela berrogei edo berrogeitamar urte, Eibarren ospatzen omen ziran mitin zaratatsuak. Eta mitin oietan, onelako gauzak edo antzekoak entzuten omen ziran:

"Nok esango leukean Jaungoikoak mundua sei egunetan egin ebala eta zazpigarrenean deskantsau zala? Kortako astoak be ez.

Eta nok esango leukean Josuek eguzkiari esan eutsala geraketako, eta eguzkia geratu egin zala? Kortako idiak be ez..."

Izan ere, alakoxea zan garai artako exegesi-modua, letrari josiegia. Iseka auei oin emateko aproposa.

Emezortzigarren mende erdiko dugun Aita Larramendi ospetsuak ere, naiz ta gizon jakintsu eta azkarra izan, ez al digu bere obretan esaten gure euskera Jainkoak Babelko Torrean Tubal Patriarkari emana ta ixuria dela? Gure mintzo onen erraiak aztertzen asko ibillia zan Larramendi, eta uste zuen euskeraren egokitasunak eta egitura arrigarriak etorburu jainkozkoa adierazten zuela. Gaur ustekizun oiek irakurtzean, irri egiten dugu. Baiña aitortu bear: bakoitza bere garaiaren seme izan oi da, eta orduan iritzi oiek ontzat ematen ziran, Linguistika ere sortu gabe baitzegoen.

Filosofu eta teologu aien ustez, dena zegoan ba Jainkoaren esku trebeak ezin obeago atondua eta tajutua. Munduko aro bakoitzak, Jainkoaren esku-sartze berria eskatzen zuan. Gaiñera, gizonaren onerako ta probetxurako zer zetorren obe-

kienik, eta uraxe egin zuen Jainkoak. Lurra zan, bada, esku leun batek gizonarentzat antolatutako kabia, zeruko babiloi ori teillatutzat duelarik. Or daude ere goiko izarrak, berari argi egiteko, lurreko frutuak eta laboreak berari azkurri emateko... eta azkenik baita ere or daude izadiko ezkutuak eta isilpekoak, gizonak denpora zertan pasa izan dezan amoreagatik. Eta aitortu dezagun: egia zan guzti ori, baiña agian ez gisa ortara.

Aurkitu berriak gertatu zirenean, etzen makala izan nahasmendua. (Galileo, Kepler, Koperniko, Newton ta beste olako jakintsuen asmaketak esan nai ditut). Lendabizi, Jainkoaren aldekoek arbuiatu ta erdeiñatu egin zituzten jaun oien berrikeriak. Uste zuten, nunbait, Jainkoa bere aulkitik jaurtitzera zetoztela. Gizarajo aiek, ordea, etzuten olako asmo beltzik. Fededunen iritziek eta usteek astindu gogorra artu zuten orduan. Gauzak azaletik ikusten zituztenentzat, ba-zirudian erlijioak bat egiten zuela orain lurrera zetozten ustekizun zaar aiekin. Ba-zirudian etzela geiago posible, aurrera-zale eta denpora berean Jesusen jarraitzaille izatea. Izan ere, Erdi-Aroko eskola aietan Jainkoarenak eta gizonarenak ain batu eta elkarrekin lotu ziran, ze orain ba-zirudian batak erreka jotzean, bestea ere derriorrean ondatzen zela. Eta oraindik naaspil onetatik ez gera zearo irten.

Ez gaitezen, bada, geiegi estutu eta larritu, baldin jakintsu batzuek erlijioaren irakaspenak aintzat artzen ezbadituzte. Askotan beintzat, ori zerk egiten duen ba-dakigu: Jainkoaren itza bere muin soillean, eta beronen inguruan pillatutako giza-iritziak bereizten ez jakiteak.

Dardara ura, sakona izan zan benetan. Eta oraindik pasatuko da denpora, arik eta burruka baretu ta isildu dedin arte. Gauzak berriz bere lekuan jarri arte. Jainko ordenatzaillea mundu aunditu ta zabaldu onen gaiñean errege bezala berriz agertu dedin arte.

XVII gn. mende-ondarrean, bada, aurkitu berri izugarriak egin ziran. Orduan oartu zan gizona, munduaren zabalera eta adiña, uste zen baiño izugarri aundiagoa zela. Mundu onen lehenbiziko eguna urrundu egiten da gugandik millaka eta millaka urtetan. Eta teleskopio oien bidez, neurgea, egurats baztergabea, mutu eta isillik, begietaratzen zaio gizon arrituari. Zabala azaltzen zaio alde orotarik, bai ortzean eta bai men-

deen erreskada luzean ere. Eta zabal orren Errege eta Jaunaz gero ta ideia aundiagoa sortu bearrean, ideia ori suntsitu egin zan.

Ordudanik gizonak eztu ikusi nai munduan makiña izugarri ta itsu bat baizik. Jirabiraka eta laisterka dabillen makiña bat, baiña xede gabe. Lanean ari da, bai, baiña bere lanaren berri jakin gabe. Bere langintzan eztu asmorik. Betiko lan alferra egin, desegin eta berregiten asi... Jainkoak alde egin du mundutik. Ba-dirudi, munduko bazterrak zabaldu ta urrundu zirenean, berekin eraman zutela Jainkoa. Mareak, ur-bera denean, txalupak berakin eramaten dituan bezalaxe.

Ez gabiltza emen iñoren erruak garbitu naiez, gertatuen berri ematen baizik. Gauzak nola pasatu ziren esaten, alegia. Eta gertatu zena izan zan, mundua begi berri batzuekin ikusi zela, eta etzela geiago bertan aurkitu makiña eskerga bat besterik. Materia uts, idor eta illunaren zabala baizik. Eta begirada onen lillurak Jainkoa aaztu erazi zuan.

Gaiñeratu dezagun Jainkoaren alde zebiltzanen ikuste motxa. Jainkoaren aldea babestu nai zuten, baiña ortarako bear etzen bidetik jo zuten. Ertsiki ari ziran, eta Jakintzak onartu ez dezaken eran. Zergati edo kausa urbillak gutxiesten zituzten. Jainko-zale oientzat izadia Egillearen nai edo borondate utsarekin esplikatzen zan, beste gabe. Jainkoak mundua beatzukaldika ibilli-araziko balu bezala. Itzez-itz artzen zan Bibliak dakarren ura, alegia, Jainkoak itxasoari emandako arako agindua: "Onaiñoxe elduko aiz, eta ez arutzago." Edo Kristoren erasia: "Teillatutik ezta txori bat bakarra erortzen, eta zuen buruetatik ille bat ere ez, Aita Zerukoaren baimenik gabe."

Ikuskera ta pentsakera bitxia, ordea. Izan ere, zer billakatzen zan mundua, orrela begiratuta? Mirakuilu-sail etengabea ta aspergarria, besterik ez. Dena epaitzen da beingoan emandako aginduekin. Baiña zorionean Jainkoaren Ardura edo Providentziak eztu deus ikustekorik pentsakera onekin. Gaiñera pentsakera orrek Jakintza beraren oiñarriak deuseztatzen ditu. Izan ere zer nai du Jakintzak? Fenomenuak, beroien zergati edo sustraietatik ezagutu. Euria zerk sortzen duen edo egiten duen, euriaren kausa zein den jakin dudanean, orduan dut fenomenu orren jakintza, zientzia. Orregatik zergati berezkoen eta urbillen billa dabiltza beti jakintza naturalak. Eta itxasoari Jainkoak bere bazterrak markatu ziz-

kiola esatea, jakintza naturalen landan deus ez esatea bezala da.

Gaiñera, Jakintzak, kausak ere ez nolanaikoak, baiñan baitezpadako edo bearrezko direnak nai ditu. Beste itz batzuekin: baldinkizun berdintsuak betetzen diren guztietan, fenomenu berbera berritu dedilla: bestela ez dago zientziarik. Baiña Jainkoa jartzen badigute etengabe eskua sartzen, orduan kausa naturalak eztira geiago egiazko kausak, eta Jakintzk eztu deus egitekorik. Ezta, ba, arritzekoa Jakintzak pentsakera ori gorrotatzen badu, eta mirakuilua bera ere, ainbeste kostatzen bazaio aitortzea.

Eta jakiña, ikuskera motx onekin zer gertatzen den esan bearrik eztago. Lege berri bat aurkitzen deneko, Jakintzari bururatuko zaio Jainkoa egotzi duela esparru artatik. Eta nola uste duan goiz edo berandu izadiaren lege ezkutu denak argituko dituela, zenbait jakintza-gizon Jainkoa ukatzeraiño joaten dira.

* * *

Sar gaitezen onezkero auzi onen muiñean. Izadia, adimen baten lana ote da, bai ala ez? Emen dago koxka, galdekizuna. Galdekizun oni erantzun baiño leen, ordea, oarkera bat. Erantzuteko bidean jarriko gaituan oarkera. Ona emen: izadian ba-da gauza bat agiri-agiria, ordenaren azpian eta ordenaren beraren oiñarria bezala. Zergati berdintsuek, gertakari berdintsuak sortzen dituzte beti. Baldintza berdintsuak betetzen diren guztietan, fenomenu berdintsuak azaltzen dira. Edozein sorkarik, ez nolanaiko agerkizunak, baizikan berari dagozkionak soil-soilik izaten ditu betiere. Naikoa proba ta siñistamendu dugu au, mundua adimen batetik irten dela jakiteko.

Suak zergatik erre oi du beti, edo beintzat erretzea du lege? Aidean utzitako gorputza, zergatik dator goitik beera? Izaki oiek artarakoxe jarriak daudelako. Ala ezpalitz, ez luteke beti jokabide berdiña izango. Ustekabearen eskuetan egongo lirake, orain ola eta gero ala jokatuaz. Gertakari bakoitza egokera berria litzake. Baiña izakiak, zuzenduak daude, bide jakin batean barna abiatuak. Beren jokabidea, ezaguna da, beti bat izan oi da ta. Zer esan nai du orrek? Izaki bakoitzak baduela zuzenbide bat, ba-duela xede bat lortu bearra, edo asmo

bat iritxi naiean ari dela. Ona emen adibide bat: erloju bat egitea, zer da? Orduak erakutsi lezazken tresna bat antolatzea, noski. Soldadu bat egitea, berriz, zer da? Gudukatu ta garaitu lezaken gizona moldatzea. Erlojuak, beraz, ordua erakusteko asmoa bere baitan mamitua ta kokatua bezala darabil, xede ori bere erraietan ezarria ta tinkotua darama. Eta soldaduak, garaitzeko xedea. Suak, urak, edozein izakik orobat lan jakin bat egiteko asmoa nabari du.

Eta asmo edo xede ori, nondik eldu zaio izakiari? Agi denez, ezta izakiarena berarena. Erlojuak adierazten duen xedea, beste norbaitek pentsatua izan da. Tresna il orri etzaio orrelakorik gogoratu. Adimenean dago ba izadiko xedeen sustraia ere.

Orregatik, galdetzen denean —Molière-n bezala—: Opioak zergatik eman oi du logurea?, ezta aski erantzutea: —Ala duelako bere izaera. Ala du bere izaera, ori bai, baiña izaera ortan ba-da kokatua asmo bat, xede bat.

Beraz, izaki bakoitzean xede bat aurkitzen dela ikusirik, eta izakiak beti, uts egin gabe, berdintsuki jokatzen duela oarturik, ba-dut eskubide galdetzeko: nondik eldu zaio xede ori? Eta orra erantzupena: Adimen lehenak eta ordenatzailleak egin bear izan du ori. Bakoitzaren izatea egin duenak, aretxek bakarrik ezarri zezaiokean jokera ori. Beste erantzunik ezta ikusten, izadiak eskeintzen digun determinismu ori esplikatzeko.

Determinismua —ots, izakiek beti berdintsuki jokatzea— izan oi da Jakintzaren oiñarri-legea. Baiña izadian bat ere xederik ezpalego, determinismurik ere ez legoke. Xedea kendu, eta Jakintza il duzue.

Xedea, **causa causarum** dela zioten aspaldiko filosofu zaarrek, zergati guztien sustraia eta gaiñerakoei agintzen diena. Edozein izaki, lurgaiñeko bizitzara jaio orduko, adimenean bizi da: xede eta asmo bezala izaki ori pentsatu duen adimenean. Adimen ori, auzi ontan, Jainkoaren adimena dugu.

Izakiak, bada, bakoitza bere lan berezia egitera jarririk daude. Eta ortaz gaiñera, izadi osoak ere, baltsan arturik, xede eta muga baten ondoren dijoala adierazten du. Izadia asmo batek darama, gogo batek darabil. Jakintza guztiek ez al digute ori agirian ematen? Munduaren antziña-aldea, igarotako denporak gogoratu besterik eztago. Asieratik onera

emandako urratsak zer moduzkoak izan dira? Lehenbizi, "nebulosa" delako ortatik, bizitzaren maillaraiño. Eta gero, biziaren lehen-taupada aietatik gizonagana eldu arte, zer aurrerapen ikaragarria, etengabeko alegiñean, beti goraka! Eta gizadiaren ibillerak mendeetan barrena: beronen aurtzaroa lehen-zivilizazio aietan, gazte-denpora aro klasikoetan, sasoi oneko adiña aro modernuakin. Poliki-poliki, manso-manso, eta neke-izerdi askoren artean, baiño alere etengabeko aurrerapena nabari da. Nahasmendu ta bolara txar batzuk gorabera, ba-da marra edo lerro jarraitu bat, etengabe gora naiean leiatzen dena, eta gora abiatze ori gizarteko matxinada ta nahasmenduek ezin dute galerazi. Guzti orrek zer adierazten du? Ustekabeak edo itsumustuak eztuela agintzen. Gogamena dela gidari.

Nola ustekabeari ezarri lan eskerga ori? Gizona, izaki miragarri au, gorputzeko makiñaz gaiñera, sentipenaz, adimenaz, borondateaz, mintzoaz, konzientziaz dotatua den izaki miragarri au... ustekabearen lana edo frutua izan ditekela... Itsuitsuan elkar juntatu diren atomuekin egiña izan dela... Ola mintzo dena, nola ez artu erotzat? Mai-gaiñera dadoak botatzen dituzu (auzi ontan dadoen ordez jarri itzazu atomuak), eta berez, iñork ordenatu gabe, elkar juntatzen dira, eta orra gizona, izaki arrigarri ori, aterea! Zentzu pixka bat duenak nola onart lezake uste ori?...

Ustekabea, itsu izan oi da. Eztu legerik. Ezta oberantza ari, eztu gorako leiarik, aurrerapenaren berri eztaki.

Mundu zabal au, bada, asmo, gogamen edo lege batek darabil. Dena da neurri, kontu, egokitasun, gogo. Eta egokitasun onetan ba-da iraupen eta aurrerapen. Alperrik ibilliko dira sofismak eta matazak saillean asmatzen. Ez digute sekulan buruan sartuko guzti ori bera bakarrik egiña izan ditekenik, edo guzti orren gaiñean Adimen bat eztagoenik. Gauza auek ez lirake probatu ere gein bear. Ain dira argiak eta berez ikusten direnak! Argi onen aurrean eztago begiak itxitzerik.

* * *

Ala ere, ba-da ikusi nai eztuenik. Zer moduzkoak dira, ba, jaun oiek ateratzen dituzten aitzakiak, edo nola konpontzen dira parregarri ez gelditzeko? Gezurraren aitzakiak eta oke-

rraren gordelekuak konta-eziñak dira. Saiatuko gera, ordea, aitzaki oiek buru batzuetara biltzen.

Ona emen, bada, objeziorik aundienak eta beroien erantzupena.

1.—Zure pentsakera ori, gizonari dagokiona da, ez izadiari dagokiona. Zure arrazoinamendu oiek ezin ezarri dakizkioke izadiko lanari. Izadia ezpaita gizakumea. Nondik dakizu lan egiten asi orduko, asmo baten bearrean dela, edo bere lekuan norbaitek xede bat asmatu bear izan duela? Kategoria oiek gureak dira soil-soilik. Guk, bai, guk aurretik ikusten ditugu xedeak eta ondoreak, eta uste dugu izadiak ere alatsu bear duela, baiña ontan engañu aundi bat dago.

Erantzupena.—Ba-du objezio onek egiantza. Bein baiño geiagotan erori izan da engañu ontan. Erantzuna, ordea, eskumenean dugu: gu ere, gizakumeok, ez ote gera izadiaren parte? Xedeen billa bagabiltza, izadiaren parte geralarik izango da, noski. Beraz, izadiari dagokion zerbait da ori ere. Deterministek eztute esaten, ba, gizonagan ikusten diren gauzak izadiaren baitezpadako agerkizun batzuk besterik eztirela? Eta nondik nora datozkigu gero objezio orrekin?

Edozein modutan ere, zer gera gu? Izadiaren lanetatik bat, noski. Ba-dugu jokera jakin bat, arriak bere zentrora jokera duen bezala. Ezgiñake xede-billa ibilliko, izadiak xederik ezpalu. Txorakeria da gizonagan xedea aitortzea, eta izadiari ukatzea. Eta gorago esan dugunez, Xede orokar ori da Jakintzaren benetazko oiñarria.

2.—Beste batzuek, izadian agiri diren desordenuak edo xedegabeko lanak salatzen dizkigute: gaizki moldaturiko izakiak, alperriko lanegiñak, aur-galtzeak t. a. Eta esaten dute: ezta ordenatzaillerik, ordenarik eztagoen ezkero. Zenbat alperriko lan eztitu egiten izadiak!

Erantzupena.—Ezta zail oei erantzutea. Ostatu batera bazoaz, eta an bazkari zatarra ematen badizute, zer esaten duzu? Ostatu artan eztutela sukaldaririk, kozinerorik? Eztut uste. Esango duzuna da zure izerdiaz aberastu nai dutela edo zuri ostutzen ari direla. Nolanai ere, bazkaria maneatzeko dagoena, sukaldari bat izango da, ez sokor-jotzaille bat. Ba auzi ontan ere berdintsu pentsa dezazun eskatzen zaizu. Ba-direla zen-

bait desordenu izadian? Baliteke. Agian ba-ditu Jainkoak bere arrazoiak olako desordenuak permititzeko, edo gure iduriz desordenuak diren oiek, ordena edo egokitasun edatuago baten barnean sartzen dira. Naikoa zaigu guri jakitea izadian ba-dela aski ordena eta egokitasun. Ordena bat ba-dagoela aitortzeko bear den beste bai, beintzat; eta ori bistan da. Ordena onen barnean desordenu batzuentzat toki den ala ez erabakitzea, ori beste kontu bat da, ta nolanai ere desordenu partikular oiek eztute indarrik egokitasun orokar ori ukatzeko. Begiak dituan edozeiñek aitortuko du izadian ba-dagoela egokitasunera jokera.

Jainko-ukatzailleek ez al digute, ba, esaten, izadiko langintzaren azpian aurrerapen-lege bat nabari dela? Aurrerapen-legea. Eta zer da ori? Aurrerapenaren lege-emalerik ezpalitz, ez legoke olako legerik. Eta baldin desordenuak badira, ez al da ori bera ordena bat dagoelako seiñale? Ordenarik eztagoen lekuan, desordenuak ezpaitira nabarmentzen.

Bestalde, desordenu oiek sorrarazten duten eskandaloa, sarri askotan beintzat, munduko ordena ongi ez ulertzetik dator. Are fededunen artean ere, ordena ori, sarritan, aurgisa-edo ulertzen da. Esplikazio batzuk aditzean, ba-dirudi dena egiña izan dela gizonari bizi-leku xamurrago bat antolatzeko asmoarekin. Baiña ustekizun oiek aurki gelditzen dira parregarri. Jakiña, munduko ordena, gauza guztiak bezala, zuzen edo makur konprenitu eta azaldu diteke. Eta gaizki konprenitzen bada, parregarri ateratzen da. Arako predikari bati gertatu zitzaion bezala. Jainkoak guganako duan ardura erakutsi nai zuan eta proba bezala ara zer zion: "Ikusi noraiñokoa den Jainkoaren jakituria ta ontasuna: Erri-inguru denetan jarri dizkigu iturriak!..."

Munduko ordena, bada, orokarrean, osotasunean atzemaiten da. Mosaiko baten antzera baita. Mosaiko batean, pusketatxo bati, bakarrean eta berezian begiratzen badiozu, zirriborro itxusi batzuk baizik eztituzu ikusiko. Sinfonia batean ere, tajugabeko dirudian ots batek balezake bere tokia, eta guztiaren armonia ta egokitasuna egiteko, osagarri bezala, asko lagun dezake. Ertigille Aundiari desordenuak eztio bildur ematen. Ba-dakike, nunbait, andik edertasuna ateratzen. Ba-daki legez kanpokoa ere bere xede ta asmoetara biltzen.

Euria beti ongarri balitz, eta aziak sekula ere ustelduko

ezpalitu, obe al litzake? Nik eztakit. Izadia, aberatsa da. Ari eskubeteka dario bizia, etengabe ta neurrigabe. Ba-du ark indar, galera bat aberastasun biurtzeko. Ondarrak ere arentzat onurakor dira. Ezta ezertxo ere alperrik galtzen aren galtzarrean.

Giza-langilleak eztaki zer egin ondarrekin. Zapatariak larru-pusketakin, arotzak egur-ozpalakin. Izadiak, berriz, ildakoen usteldurakin ere ba-daki izaki berriak sortzen. Erortzen eta galtzen den zernaik balio du aren lantegi jori-aberatsean.

Lantegi onetan, bizia sortzen den lantegi onetan, bada, izadiak darabilzkin elementuak, bakunak dira oso, jainkozko bakuntasun batekin. Eta era berean, gaitasun ikaragarria adierazten dute aplikazioetarako eta mota guztiko konbinaziotarako. Aur-joku oien atzetik mundu zabal au asmatu ta besarkatu al izan duenaren begi zorrotza salatzen digute, iñundik ere.

Zer garrantsi du, ba, auzi ontan, iñoiz arkume bat bost ankakin mundura etortzen dela jakiteak, edo gizakume batzuk jaiotzatik konkor izateak, edo anai siamesen jaiotzeak? Jainkoaren indar sortzaillea eta beronen bide arrigarriak ez al dira oitan beste edozein gauzetan bezin ondo ikusten?

Bein predikari bat ari omen zan sermoia egiten. Jainkoa dena ongi egiten duela erakutsi naiez zebillen. Elizatik irtetzean, konkor oietako bat bere zai zegoan. Eta bira osoa sermolariaren aurrean emanik, auxe esan omen zion irriz: "Ikusten al du berorrek?" Eta predikariak erantzun: "Ba, ziñez, konkor bezala, oso ongi moldaturik zaude, alajaiña!" Irri-solasa alde bat, ba-du mamia ateraldi onek. Izan ere, gogora ekarri dezagun izadiak lan ori moldatu zuaneko garaia. Sare mee orren barnera zerbait sartu da, samar bat, koskorren bat, eta orren erruz bear etzena sortzen da, desordenu ikaragarri bat, alegia. Makiña batean arri-koskor bat eror badadi, makiña beingoan gelditu egiten da. Baiña izadia eztago zure makiña orren gisa moldatua, molda-erreza da, ba-daki oztopo orren gaiñetik salto egiten, eta oztopo ta guzti gizona egiten digu. "Gaizki egiña ateratzen zaio, ordea", iardesten didazu. Gizarteko ar-emanetarako gaizki, baiña izadiak eztu orrekin zer-ikusi. Izadiaren lana denez, beste edozein lan bezin arrigarria dugu au.

Orduan Jainkoak ez al du izaki gaizki moldatu oien ar-

durarik? Bai, noski, baiña orain ez gera ari Jainkoaren Arduraz. Izadiaren langintzaz ari gera, eta guk dioguna da, izadiaren lana den aldetik, konkor bat, arrigarria ta miresgarria dela aren lan guztiak bezalaxe.

Munduko egokitasunak Jainkoa ba-dela erakusten digu. Beraz, akatsak eztira benetazko akatsak, edo eztira alde orotatik eta betiko akatsak. Jaurtitzen dizkiguten aitzaki eta korapilloak, olako xehetasun txatxarretatik artuak izan oi dira beti. Kasu au edo ura aipatzen digute. Baiña bistan da, gauza oiek eztute ainbesteraiñoko ajolarik, munduan agiri den ordenantza ederra deuseztatzeko eztute indarrik.

Zer esango genduke koko edo zomorro txiki bat tapiz baten barnean balego, eta an ari okertu batzuk ikusirik, esango balu: Emen eztago dibujorik, marrazkirik; mataza naaspil bat baizik eztago emen? Ba orixe gertatzen zaio ateoari. Eta gaiñera ateoak eztu aitzakirik, zomorroak daukan bezala. Zomorroak ezpaitu dibujorik ikusten, eta ala barkakizun da. Ateoak, berriz, bai, ikusten du, eta ala ta guztiz ere ustekabeari erantsi nai lioke lan miresgarri ori.

3.—Baiña ba-dugu beste zerbait ere, kausa ordenagillea trabatik kentzeko. Ezta ustekabea, eta ez alabearra. Oraingoan asmatu digute beste tresna bat. Eta bai bataiatu ere: **Evoluzioa,** orra. Ateismuak bere armatzat artu duen tramankulu ikaragarri eta bortitza auxe.

Munduaren azken esplikazioa bezala ekartzen badigute, evoluzioa engañu bat baizik ezta, lillurapenezko engañu ikaragarria. Jakintzaren landan zerbait esplikatu dezake, Filosofiaren alorrean deus ez. Eta beste aldetik, evoluzioa fededunek ere onart dezaketen gauza da. Itsumendi gaitza edo fede txar aundia bear da, Evoluzioa Jainkoaren kaltetan dijoala uste izateko; edo esplikazio orrekin Jainkoaren utsunea nolabait bete ditekela pentsatzeko.

Nondik-nora edo nola bete dezake Evoluzioak, biraldakuntzak, Jainkoaren lekua edo zeregiña? Edozein gauza esplikatzeko, Jainkoaren esku-sartze berezi bat nai duten oietakoak bagiña gu, orduan bai, gure teoriak ondatzera letorke evoluzioa; baiña ez gera oietakoak. Zergati naturalak guk aitortzen ditugu. Oiñaztarria esplikatzeko, bein tximista-indarra ezagutu ezkero, eztago Jupiter gana jo bearrik. Izaki bi-

zidunen mailladi luze ortako ar-maillak, bata-bestearekin elkartuak daudela probatzen bada noizbait, eta Jakintzak erakusten badu goi-mailletako izaki bizidunak evoluzioz azpikoetatik eldu direla, orduan, jakiña, "creaciones sucesivas" direlako oik erreka joko dute, baiña bost ajola zaigu guri teoria orrengatikan. Gu ez gabiltza fenomenuen kausa urkoen billa, kausa atzena edo lehena galdetzen dugu guk. Adimen sortzaille ori, gauzetatik urbillago edo urrutiago aurkitzen ote den jakitea, ori beste kuestioa da, eta emen ajola gutxi duena. Ziñez, mundua evoluzioz egiña izan dela esateak, eztigu guri ondoez aundirik ematen.

Ez gabiltza emen mundua **nola** egin den galdezka. Guk galdetzen duguna ezta **nola,** baizik **zergatik.** Evoluzioak prozedura bat, era bat, modu bat adierazten du, eta ez zergati bat. **Nola** jakin nai duenari zerbait esaten dio, zergatiaren atzetik dabillenari, deus ez. Eta zergatik dago evoluzio bat munduan? Eta evoluzio orrek zergatik du egokitasunerako joera, kaos naaspil batera jo bearrean?

Ez al duzue ikusten, azitze-lan miragarri ori dela, ain zuzen ere, Jainkoa probatzen eta erakustera ematen duena? Badakit Jainko-etsaien erantzupena: evoluzioak ba-ditu bere legeak, eta lege oien indarrez ari da etengabe lan ta lan. Materiaren legeak! Baiñan oietxek dira ba Adimen ori agertzen digutenak! "Lege oiek baitezpadakoak dira, eta emen eztago geiago galdetzerik edo billatzerik." Orra zer esaten duten gu isil-arazteko.

Baiña zeri esaten zaio bearrezko, premiazko edo baitezpadako? Bearrezko izate ori (ots, nezesidadea) bi eratakoa izan diteke: egitezkoa bat, eskubidezkoa beste bat. Gauza bat nai ta naiez, derriorrean, uts egin gabe gertatzen denean, eta beraz, aldez aurretik ziurtasun osoz gertatuko dela jakin ditekenean, orduan gauza ura bearrezkoa da egiteen aldetik. Adibidez: biar eguzkia aterako da. Baiña bestela gertatzea, asmatu ere ezin diteken gauza baldin bada, orduan beartasun ori ezta egitezkoa bakarrik, eskubidezkoa ere ba-da. "Edozein lanegiñek, sorkarik edo efektuk, ba-du kausa bat, zergati bat": orra eskubidezko beartasuna adierazten duen prinzipio bat.

Orain, izadian nabari diren bearrezko oro, egiteei dagozkionak dira, beartasun fisikoa adierazten dute soil soilik, eta olakoetan atea zabalik dago arutzago joateko, azterketa geia-

go egiteko. Kañoia disparatzean, bala ba-dijoa baitezpada, nai-ta-naiez, bere xede jakiñera; baiña ori izango da norbaitek gauzak ala eratu ta tajutu zituelako. Gisa berean, gure auzi ontan ere zillegi da, nai-ta-naieztasun orren azken sustraia edo erroa billatzea. Claude Bernard-ek esana da —eta egoki esana—: "Evoluzioa ezta besterik auxe baiño: joanaldi bat zuzenbide baten arauz, eta joanaldi orren elburua edo xedea aldez aurretik ezarria izan da."

Arritzekoa da, baiña Jainkoa ukatzeko ateratzen diguten argumentuak, Ura ba-dela probatzeko balio du. Bai, alaxen. Izadiko bear edo nai-ta-naiezko orrek Jainkoa adierazten baitu.

Izlari bat ba-omen zebillen Jainkorik eztagoela erakutsi naiez. Eta bere tesis ori sendotzeko, ba al dakizute zer aipatzen zuen? Lurra biribilla dela, eta eguzkiaren inguruan jira-biraka ari dela. Entzule batek galdegiten dio:

—Eta orrek zer probatzen du?

—Orrek probatzen du Jainkorik eztagoela.

—Jainkorik eztagoela? Bai zera. Orrek probatzen du mundua egin duenaren jakituria...

Gagarin-ek goi-aldeetara bere joanaldi ori egin duanean ere, orrelako lelokeriak entzun izan dira. Baiña utzi ditzagun alde batera, aintzat artzerik ere ezpaitute merezi.

Darwin-ek idatzi zuen, munduak, bere osotasunean arturik, adimen ordenatzaille batengandik datorrelako zantzua edo susmoa uzten ziola; baiña gero, xeeki, elementu bakoitzari kasu egiterakoan, susmo ori suntsitu egiten zitzaiola. Eta ola, xeeki ta partikularki gauzei begiratuaz, zer nabaritzen zuen? Elementuak elkarrekiko burruka itsuan, eta elementuok burrukaren beraren indarrez organizatzen zirela. Penagarri da jakintsu bat ola izketan aditzea. Norbaitek, erloju bat ikustean, esango balu bezala: bai, lehenbizikoz ikustean, ba-dirudi tresna au orduak markatzeko egiña izan dela, baiña gero, xeeki begiratzen zaionean, ezta an besterik ikusten baizikan gurpiltxoak, palankak, pisuak eta baitezpadako legeak... Tresna bere osotasunean artu bear da, jakiña, ordena ta egokitasuna, guztiari, konjuntoari dagokion zera baita.

Askoz zuzenago mintzo zan Lamark, transformismuaren asmatzaillea: Izadiko legeen betetzeak —dio onek— Jainkoaren naia adierazten du, lege oiek Arengandik eldu dira-ta.

Jakintzak, bada, ezin dezake arriskuan jarri gure fedea.

Adimen ordenatzaille ortan dugun siñistea, esan nai dut. Eman dezagun noizbait mundu zabal orokarraren azitze-lan osoa argitan jartzera eldu dela. Orrekin eztu Jainkoa erditik kentzen. Ukatze bat ez-baiña revelazio berri bat litzake ori. Eta Jakintzak argitutakoaren gain, Filosofia letorke galdetzera: zuk aurkitu dituzun lege oiek, nondik eldu dira? Munduaren azia Jainkoak sortu bear izan du. Berak jaurti zuan azi ori, eta gaiñerakoak ortik ilki dira. Azia, ordea, bear zan sortu.

4.—Alemania-aldetik etorri zitzaigun filosofia-mota bat, Hegel-ena. Eskola orrek aitortzen du munduak ba-duela xede bat, aurrerapen-lege bat. Xedetasun ori, ordea, itsua da, eztaki bere buruaren berri, eta mundu eta izakien barnean datza. Aurrerapenaren nai edo leia ori da, ain zuzen ere, munduan agintzen duena. "Dena da posible, Jainkoa bera ere bai": bitxikeria ori Renan-ek esana da. Agian, egunen batean, aurrerapenak Jainkoa bera ere sortuko digu. Lehenbizi kaos utsa besterik etzen; gero, bizigabekoen kimika eldu zitzaigun; geroago bizia sortu zan; urrengo, abereak; eta azkenik, gizona, bere gogamen ta guzti. Orain arte aurrerapenak eztigu eman gizona baiño lan bikaiñagorik. Baiña ezta dudarik: denporakin sortuko ditu, eta gero azkenik, zergatik ez? Jainkoa bera sortzera ere iritxiko da...

Logomakia oetatik zertxobait ulertzen duenari, nik zorionak ematen dizkiot. Txorakeria galantagorik eztu gizagogoak sekulan asmatu. Entzun duzu, irakurle. Evoluzioak noizbait Jainkoa emango omen digu, bere azken lana ta izaki gorena bezala. Eta evoluzioaren asieran eta oiñarrian, zer jartzen digute jaun oiek? Aizea, deus ez. Aurrerapen-lege bat, diote. Lege bat, bai, baiña ori gertaera bat baizik ezta. Eta guk gertaera orren arrazoia nai dugu. Zergatik edo nondik dator aurrerapen-lege ori? Zerk ibillarazten du izadia aurreruntz, an ezpaldin bada Norbait?

Evoluzio bat, berez lanean ari dena, bere buruaren berri eztakiana, eta alere adimena adierazten duena. Egokitasuna ta ordena dariona. Organizazio ta antolamendu bat, iñork agindu, asmatu ta amestu gabe... Zer dira oiek? Ordu-laurden baterako atsegingarri izan ditezken paradojak, gogamen-jokuak. Baiña galdekizun aundi oni ola erantzutea, seriotasunik gabe ibiltzea litzake. Iñori olakorik aditzean, ba al dakizu zer

galdetzen dudan? Ea nitaz edo bere buruaz burla egiten ari den jaun ori. Ea zorakeria sistematzat sartu nai diguten, edo denpora pasatzea filosofia biurtu ote den.

* * *

Bukatzeko. Ordena, ukatu ezin diteken gertaera bat dugu. Eta gertaera ori ezin esplikatu diteke, gogamen batera jo gabe, bere buruaren berri dakian adimen bat ipiñi gabe. Mundua baiño lehenago ta gorago den Izaki jakintsu ta boteretsu bat jarri gabe. Munduaren ibillera ta atzera-aurrera aldez aurretik ikusi ta jakin al izan duen Norbait.

"Goi-langillearen begipean, abere-mota guztiak biraldakuntzak egiten ari dira mendeetan barrena" (A. Gaudry). "Mundua, adimen baten agerpena da. Adimen emankor eta sendo baten agerpena. Mundua, siñistamendu argia da, Jainko personal bat ba-dela jakiteko. Gauza guztien lehen Egille eta mundu orokar onen Gidari bat ba-dagoela erakusteko" (Agassiz).

IV Kapitulua
Gizonaren sorrera

LABURPENA

Gizonari buruzko galderak. Jainkoa gabe eztute erantzunik.—I Bizitzaren misterioa. Bizidun izakiak ba-du aita bat eta ama bat, baiña orrek eztigu ematen bizitzaren esplikazioa. Antziñako filosofuen aburuak gizonari buruz. Bibliak diona. Genesisko liburuan datorren istorioa eta beronen muiña. Evoluzionismua debekatu al diteke Bibliaren izenean?—II Gizona Jainkoa gabe esplikatu naiez gure aro ontan azaldu diren sistemak: gizadia betikoa dela, bizia berez sortu zela, transformismua, ta abar. Sistema guzti oiezaz zer esan?—III Gizonaren bigarren aurpegia: arima. Ateismuaren alegiñak gizonaren eta abereen artean dagoen leizea ukatzeko. Adimenduaren izatasuna. Zer den pentsatzea, gogoeta egitea. Ideia abstraktuak sortzeko indarra. Materia utsak ezin dezake olakorik.

Materialismuaren gordelekuak. Gizonaren gogamenak, lan egingo badu, materiazko baldinkizun batzuk bear ditu. Materialistek ortik atera nai dituzten ondore gezurrezkoak. Musikalariak ere tresna bear du soiñu jotzeko, baiña tresna eta musikalaria eztira gauza bera.

IV Animaliek ba al dute adimendurik? Ori erakusteko kontatzen diren gertaerak. Ideiak, epaiak, itz egitea, eskola ikasteko gaitasuna, aurrerapena: guzti ori gizona baitan aurkitzen da; piztietan, ezta fitsik ere. Gizonaren arima, Jainkoaren obra berezia.

Mundua, kanpoko mundua, naiz ta jakin-miñaren pizgarri izan, ezta ala ere beste izakiren bat bezin ernagarri ta garrantsitsua guretzat. Beste izaki ori zein den esan bearrik eztago: gizona bera. Ezta jakin-miña bakarrik. Are bizitzak berak ere estutzen eta erantzupen-eske jartzen gaitu. Zer da gizona, nondik dator? Munduarekiko auzia erabakitzea, filosofuen zeregiña-edo dela esan diteke; baiña gizonarena, biziaren eremukoa dela sumatzen dugu. Gizonik ajolakabeenari ere urbildik eltzen dion galdekizuna. Gaiñera, guztiok igartzen dugu gizonaren bizitza, barruti berezi bateko zerbait dela. Problema berri bat dela gizona. Eta erantzupena ere berarizkoa galdegiten duela. Argi ikusten dugu gaiñerako izaki guztien gaiñetik gaudela gizonok. Gure barnean bizi diren indarrek eta gu baitan sortzen diren sentimenduek ederki asko erakusten digute ori.

Guretako bakoitza mundu oso bat da: mikrokosmos. Alde batetik mundu txikia, bai, baiño bestetik aundia. Materia soillaz osatutako ori baiño askozaz aundiago ta bikaiñagoa. Eta gogoeta egiten asi orduko, zer daki gizonak mundu berri oni buruz? Deus ez. Eztaki zergatik edo nola sortua izan den. Eztaki zein den emengo bere egitekoa. Zer gertatuko zaion emengo aldia bete ezkero, eta eriotzaz beste aldean zer moduzko arrera egingo zaion. Labur, gizonaren sorrera, xedea, legea, dena dugu jakiteko. Galdera zorrotzak eta premiatsuak benetan. Eta Jainkoa gabe erantzupenik eztutenak.

I

Nondik gatozen, zein den gure jatorria, gure biziaren arrazoia: orra aurreneko erabakikizuna.

Gorputza, materiaz osatua da, eta alde ontatik ezliguke buru-auste aundirik eman bear. Materiazko beste izakiek ematen digutena, ez geiago ta ez gutxiago. Baiña orra, materiazko estalkiaren azpian bizitzaren taupadak nabari dira. Bizia! Bizidun izakia, naiz pataria izan, naiz landarea, zer gauza miraritsua! Isil-isillik, baiño etengabe, ezin egonik ari da lan ta lan, bere egingoa egiten, beti aurreraka, eldutasunera iritxi arte. Ba-du bere bide jakiña ibilli bearra. Gaillurra edo muga jo ezkero, ordea, beerantza asten da, atzenengo orduan itzali arte. Bai, biziduna, zer gauza arrigarria!

Eta bizidunaren aurrean nola egon gure buruari galdetzeke: Zergatia, Sustarra? Zer au, nondik edo zergatik? Nor ezta egon bein baiño geiagotan arri egiñik misterio orren aurrean? Orra bekoki ori, gogoeta egiten dakiana. Eta begi oiek, txinpartak jaurti lezazketenak, edo, nai baduzu, ur geldia bezin bare egoten dakitenak. Eta ezpain oiek, solasa ogia bezala egiten dizutenak, izpirituaren janaritzat... Materiazko estalki gogorrean barrena, biziak ba-daki bidea urratzen, bere buruaren adierazle diren agerpenak kanpora ateratzen.

Biziaren iturburu batzuk ezagunak zaizkigu. Bizidun guztiek daukate aita bat eta ama bat Au da umegintzaren misterioa, ain zikindua ta likistua, eta ala ere belauniko baizen aomiitan artu bear ez litzakena. Misterio orrek ematen digu gizonaren esplikazio urkoa, urbilla, eskumenean daukaguna. Baiña esplikazio orrek, ezer argitu bearrean, ez ote digu korapilloa naasiago biurtzen? Bizitzaren langintzan langille zeran bikote gajoa: bai esplikazio kaskarra ta patala zerala zu, zerorrek ematen duzun bizi ori argitzeko! Ba al da lan arrigarriagorik? Gorputz baten erraietan beste gorputz berri bat sortzea eta moldatzea, eta langintza oni eskerrak, gizadia illezkor biurtzea! Etxe-egille batek etxearen oiñarrietan zerbait jartzea asmatu balu bezala, etxea erraberritzeko indarra duen zerbait, eta era ortara iñoizko desegiteari eta lur jotzeari iges egiten ikasi balu bezala.

Igo gindezke, noski, gizaldietan gora urrutietaraiño. Gurasoak ematen digu semearen esplikazioa; gurasoarena, berriz, aitasoak ematen digu, onena arbasoak, eta arbasoarena tokabilasoak, eta ola nai duzun arte. Bat bederak artu duena ematen baitu, antziñateko laisterkariek estadioko jolas aietan zuzia eskuz esku elkarri ematen zioten bezalaxe. Igesleku polita, antziñako gau beltzean gauzak uztea, etorburu-auziok gau artan zokoratzea. "Ba, beti izan da ola, eta kito: erantzupen orrekin aski dut." Baiña bistan da orrekin eztiogula galdekizunari erantzunik eman. Zer ajola du emen gizaldien kopuruak edo luzeerak? Kopuruak eta kontuak neurria adierazten du, eta ez kausa edo zergatia. Aitzaki bat, gordeleku bat baizik ezta. Aurrak ere orixe egiten du bere soiñekoan zikin bat oartzean. Zikin ori gorde ta ezkutatu al duan bezin luzaro. Gero, ama konturatzen denean, au esango du: "Ori? Aspaldikoa da..."

Gizonaren sorreraz filosofuek uste izan dutena aipatu nai bagenu, munduaz jardun giñenean esandako guztia berritu bearko genuke. Izan dira, gizona, lan arrigarri au, ustekabeari edo alabearrari ezarri diotenak. Munduaz orixe bera esan dutenak ezta arritzekoa emen ere bide ortatik jo badute. Izan ere, gorputza zer da? Gutxi gorabeera beste gauzen antzeko zerbait, korapillo geixeago duena, eta orregatik ustekabeari neke geixeago eman diona, baiño tira. Eta arima? Arima, oien ustez, zer zan? Su mee bat, putz bat edo arnas bat. Eztakite zer, baiña nolanai ere materiazko zerbait beintzat. Iruditzen zitzaien izaki guztiak, nai ta naiez, gorputzezkoak bear zutela izan. Beraz, gorputzaren eta arimaren artean etzuten alde aundirik ikusten.

Baiña munduaz itzegitean ikusi genduena, gertatu zan emen ere. Laister zabaldu zela argia. Munduak Jainkoa agerarazi zien bezala, areago gizonak, beste mundu txiki onek. Aurreko kapituluan aldatu genduan Sokratesen zati bat eta bertan ikusten da nola probatzen zuen Jainkoaren esistentzia, gizona zela bide. Platonek, berriz, ba-daki gure arima illezkorra eta materia gabekoa dela, eta ortik igotzen da Jainkoaren bi "tasun" oiek aitortzera. Aristotelesentzat, berriz, adimenduak ba-du zerbait jainkozko. Onek uste zuan, gaiñera, mundua betierekoa zela, eta gizadia bera ere bai, dirudianez; baiña ba-zekian, filosofu ona zenez, betikoa izanarren, sustar edo kausa baten eske dagoela, eta sustar ori Jainkoa dela. Labur: gizadi osoa —senaren indarrez ari dena oso-osorik, eta bestea, pentsalariena, bere semerik zindoenetan— gizadi osoak uste izan du giza-bizitzaren ondoan edo oiñarrietan nai ta naiezkoa zela Jainkotasun bat.

Eta Bibliak zer dio gizonaren jatorriaz? Guztiok dakigu buruz. Oraingo gogamenaren begitan zer balio du istorio onek? Bi testu dauzkagu Genesisko liburuan. Batak (Gn. 1, 27) onela dio: "Eta Jainkoak bere irudira egin zuan gizona: Jainkoaren irudira sortu zuan, arra eta emea egin zituan". Zer moduz edo nola egin zuan, au da, zer moduzko prozedura erabilli zuan Jainkoak gizona egiteko, ortaz ezta emen ezertxo ere esaten. Eta beste izakien sorrera esplikatzeko biraldakuntza edo evoluzioa onart baditeke Bibliari iraiñik egin gabe, giza-gorputza ere olatsu sortu zela pentsatzea ezluke ezbideko gauza izan bear. Baiña orra beste testu bat, Gn. 2, 7, onela diona:

"Jainkoak, bada, moldatu zuan gizakumea lurreko buztiñetik eta gero aurpegira putz egiten ziolarik, bizidun biurtu zuen." Jainkoa lurrezko irudi bat moldatzen eta irudi oni putz egiten. Baiña istorio au itzez-itz, dagoen-dagoenean artu bear al da? Ez ote dauka alegi-kutsu nabaria? Jainkoa, materia gabekoa da. Nola, beraz, jarri ziteken irudi-imajiña bat moldatzen eta nola gero putz egin zezaioken? Eta zertarako gaiñera? Zirimonia baten balioa zeukala guzti orrek? Baiña norentzat zan zirimonia ura, an iñor etzegoelarik?...

Jainkoak materiatik sortu zuela gizona eta gero arima bat erantsi ziola: orra, gure ustez, Bibliak adierazi nai duenaren muiña. Gaiñerako guztia, izkera-modua da, azala, muin orren gaiñeko jantzia. Eta ba al da emen tokirik evoluzioarentzat? Agian bai. Eztugu zertan pentsatu Jainkoa ibilli zela bere eskuz, artez eta bitarteko gabe gizona moldatzen (gaiñera Jainkoak eztu eskurik). Bibliak erakutsi nai diguna da gizonaren gorputza lurrezko elementuekin osatua dela. Elizak ere, austerre-egunez, ez al digu esaten: "Gogoratu, gizona, autsa zerala?" Eta ala ere ez gera autsa, aragia baizik. Bibliako esan au irakurtzean, nai-ta-naiez pentsatu bear al da gizonaren gorputza autsetik aterea izan dela, eta Bibliaren izenean debekatua izango al da beste organismu batzuetatik evoluzioz etorri zela esatea? Eztirudi. Giza-gorputzari buruz evoluzioa onartu bear al den ala ezten, nik eztut esaten, ezpaitakit. Nik esaten dudana da Bibliak betiere ezartzen dizkiola Jainkoari obra asko, obra oien egille arteza edo urkoa izan eztenean ere. Eta gerok zenbat aldiz eztugu esaten Jainkoak moldatu duela gure gorputza? Eta ala ere izkera orrekin eztitugu gure aita ta ama ukatzen.

Eman dezagun, bada, gorputza evoluzio bidez eratu dela. Gorputz oni gogo utsezko arima bat isuritzeko, Jainkoaren esku-sartze berezi bat bearko zan. Leen ere esan dut eta berriz diot: hipotesi-eran mintzo naiz. Gure aro nahasi ontan arretarik aundienaz berezi ta neurtu bear dira fedeko egia tinkoak eta egia oiekin nahasturik datozten eraskiñak. Naturalista batek esaten baldin badit neri berak eztuela uste gizasoiña zerutik jetxitako zera dela, gaiñontzeko abere-motakin zer-ikusi arrigarriak dituen ezkero, nik, fededun naizenez, Revelaziotik segurantza osoz atera ditekena besterik ezin eskatu nezaioke. Jainkoak bere sortze ori egiteko erabilli duen pro-

zedura, tartekoak, mendeen luzeera... gauza guzti oiek ajola gutxiko dira emen. Gizona, Jainkoaren obra dela, are gorputzean ere: orra beti gorde eta siñistu bear duguna.

II

Eztira alegin makalak egin gure gizaldi ontan gizonaren asiera Jainkoa gabe esplikatu naiez. Baiñan ezer asmatu edo lortu al dute gero? Ikusagun. Arimaren auzia geroko utzirik, gorputzaz soil-soilik mintzatuko gera orain.

Iru sistema ditugu begien aurrean.

Leenbizikoa (lotsa naiz esaten, baiña Jainkoa trabatik kentzearren ortaraiño eldu dira batzuk): gizadia betikoa zela uste izatea. Aristotelesek ere ala uste zuen, baiña filosofu ona zenez, ba-zekian orrekin etzuela Jainkoaren bearra ukatzen; bestalde, Aristotelesen garaian Jakintzak atzera-samar zebiltzan, eta ala barkakizun da ori uste izanagatik. Oraingoak, ordea, Kreatzaille ta kreazioaren ikusi-eziñak eramaten ditu teoria ori defenditzera. Bost inporta zaie olakoei arrazoiari eta jakintzari irain egitea, Jainkoa kanpora bialtzeko bidea billatzen baldin badute. Baiña alperrik ari dira. Jakintzak ezin ukatuzko eran erakutsi du garai batean etzela gizonik lurrean. Eta lurrak etzituela beti izan gizona bizi al izateko bear diren baldintzak: giroa, otz-beroa ta abar. Gizona lurrean bizi ezin ziteken aro ori ezaguna zaigu.

Bigarrena. Bigarren eskolakoek esaten digute: Jakiña, bistan da, gizona ezta beti lurgain ontan bizi izan, bizi izateko bear direnak falta zitzaizkion eta. Baiña bizitza posible egin zen ezkeroztik, nai-ta-naiez bizia sortu zan. Garai batean baziran iktiosauro, dinoterio eta beste olako piztitzarrak. Orain eztira. Zergatik? Oiek bizi izateko bear direnak galdu egin zirelako. Bizi izateko baldintzak galtzean, bizia ere galdu egin bear, nai ta ez. Eta kontrara, baldintza oiek asten direnean, bizia ere asi bear. Arrazoiketa polit ori Feuerbach-ena duzue. Filosofu azkarra gure mutilla. Ba-duzu zuk arraina ontzi batean: kentzen diozu ura, eta arraina, jakiña, il egiten da. Beraz, jarri zazu ura ontzi batean, eta beste gabe, ontzi artan arrain bat sortuko zaizu...

Jainko-etsaiek auzi ontan egiten dutena da bi gauza guztiz desberdiñak nahasi: baldinkizunen eremua eta kausa edo

zergatien landa, alegia. **Nola** eta **Zergatik:** bi gauza oiek bereizten eztakite edo eztute ikasi nai. Jakintza esperimentalak **Nola**-ren eremuan ari dira; barruti ortaz kanpora deus ez dezakete, deus eztakite. Eta **Nola**-ri buruzko zoko-moko guztiak argituagatik, zergati lehenaren auzia oso-osorik zutik eta erabaki gabe gelditzen da. Evoluzioaren ta bere gurpil guztien jakintza osoa ta betea bageneki ere, **Nola** orren jakiñean egongo giñake bakar-bakarrik, edo nai baduzu, zergati urbilla edo urkoa izango genuke argitan ipiñia (ots, fenomenuen aitzinekoak), baiña atzenengo zergatiaz, benazko zergatiaz, tutik ere ez genuke jakingo. Zein burutan erne da izadiaren ideia gidari ori, Claude Bernard-ek zionez? Zein indarrek jaurti zituen eguratsera izakiaren azi oiek? gero zabaltzen, edatzen eta elduerara eltzen diren azi oiek? Xedeen eta medioen arteko kidetasun arrigarri ori nola esplikatu? Nork eztakus galdekizun guzti oiek erantzupen gabe dirautela?

Baldinkizunak egonda ere, beste gabe, fenomenua ezta gertatzen, ori bistan da. Eta baldinkizun oien berri jakiñarren, gure lana ezta orrekin bukatzen: Fenomenuen azken sustraia bear dugu billatu. Jainkogabeko evoluzionistek ura aitortzen digute, baiña azkenengo au eztute ikusi nai. Eta igeslekutzat (alperriko igeslekua, jakiña) ara zer aipatzen duten: "generación espontánea" edo berezko sortzea delako ori, transformismuarekin batean. Aburu oiek dira, ain zuzen, guk irugarren sistema edo eskola bezala jartzera goazena.

Irugarrena. Izaki bizidunak berez sortzen zirela lurretik edo bizigabeko materiatik: uste ori naikoa zabaldua zegoen beiñola. Gizona bera ere orrela sortutakoa ez ote den esan izan da. Strauss, Jesusen bizitza nahastutzen nabarmendu zenak, ez omen zuan eragozpenik ikusten leen-gizona Kaldeako lokatzaren irakiñaldi batetik ilkia zela siñisteko. Egin zizkioten farrak etziran txikiak izan, eta ala, jarraitzaille gutxi izan du. Baiña asko t'askok beintzat uste zuten materia soillak ba-zuela organismu txiki oietako batzuk sortzeko indarra, eta gero, poliki-poliki, emeki-emeki aldaketak gertatzen zirela, azkenean gizona ere aldaketa oietatik sortu zan. Pasteur sonatuak, ordea, bere esperimentuekin erakutsi zuen gaur beintzat, edo egungo egokera ontan, eztela berezko sortzerik gertatzen; eta egia dela arako erasia ura: "Omne vivum ex ovo": azirik ez baldin badago, eztela bizidunik sortzen, alegia.

Egungo egokeran, esan dugu. Pasteur-en esperimentuek, izan ere, ertsi-ertsian arturik, auxe probatzen digute, alegia: berezko sortzea **orain** eztela gertatzen. Beste aro eta giro batzuetan zer gertatu ziteken, eztakigu. Lehen aipatu dugun Feuerbach orrek onako au esaten omen zuan: bizidunak sortzeko indar ori, lurreko elementuek ez beti, baizik eragite ta irakite ikaragarritan zeudenean bakarrik izan zutela. Hipotesi onek, jakiña, eztu sendogarririk, asmazio uts-utsa baizik ezta. Eta gaiñera, betiko auzia gelditzen zaigu erabaki gabe: nondik etorri dakioke izadiari bizidunak sortzeko indar ori? Jainkoak eman diola aitortzen baduzu, orduan bai, onartu diteke, baiño bestela? Gogoan ditut Flourens jaunaren itz batzuk: "Bere zatietan kidetasunik arrigarriena adierazten duen gorputz organizatua, elementu itsu batzuek berez eta beste gabe, sortu al izan dutela siñistea, zer txorakeria!"

Aurreko kapituluan esandako guztia berriro esan bearko litzake emen. Ondoan edo azpian Jainkoa ezarri ezkero, orduan bai, biziaren sortzea eta evoluzioa ere onart ditezke. Baiña berezko sortze ori Jainkoarekin, ateismuak eztu nai: ark teoria ori maite badu, Jainkoaren aurka joateko maite du.

Transformismuarekin beste ainbeste gertatzen da. Onek tartekoak ugaritzen ditu materia bizigabearen eta leenbiziko bizidunen artean. Amaigabeko saiotan, itsuan eta aztamutan ibilli ondoren, sortu zan azkenik bizia, eta gero emeki-emeki bizidunen motak berezituaz joan ziran, gizonaganaiño eldu arte... Uste oiezaz zer esan? Leen esandakoa. Jainkorik ezpaldin badago, gauza oiek eztute deus esplikatzen. Jainkoa baldin bada, berriz, teoria ortan ezinkizunik eztugu ikusten, baiña orduan ateoarentzat eztu deus balio. Ziñez, ezta samur ateo izatea!

Eta guzti au, gizonaren gorputzaz mintzo geralarik. Beste alderdiari, arimari, begiratzen bazaio, zer esan bearko? Gizonak, Jano-ren gisa, bi aurpegi baititu: bata, materiaruntz begira, eta bestea, materigabekoen mundurantza biurtua.

Beste alderdi ori dugu orain aztertu bearra.

III

Pentsatzeko dugun almena eta almen orrek duen ostatu edo bizilekua —zerebroa, alegia— ateismuak nai luke gauza

bera eta bakarra litezen. Eta Evoluzioari ain joera ta zaletasun aundia baldin badio, ori zergatik den argi dago: orrela Kausa Lehena erditik kendu al izango duela uste duelako. Orregatik etzaio aski giza-gorputza bakarrik evoluzioz esplikatzea. Gizakume guztia oso-osorik nai du andik etor dedin, edo, obeki esateko, gizakume osoa gorputza besterik eztela nai du erakutsi. Eta alegin guztiak egiten ditu izadiko erresumen arteko mugarri guztiak fundi-arazten. Gizakumea zer litzake bere ustez? Pizti bat, abere bat, besteak baiño aitzinago eldu izan dena. Eta aberea, zer litzake? Landare bat, beste landareak baiño aurrerapen geiago egin duena. Landarea, berriz, zer da? Arri bat edo burni bat, aurrerapen-bidean abiatua. Eta mea-mota guztiak, atomuen bilduma besterik eztira. Orra, bada, atomutik asi eta Sokratesen buru azkarrera eldu arte eztago etenik.

Ez gera aspertuko esaten: ala balitz ere, Jainkoaren bearizana ezta orrekin agortzen. Eman dezagun Evoluzioa dela Izadiaren prozedura orokarra. Ba orixe litzake: prozedura bat, eta ez beste ezer. Eta sustraia, kausa edo zergatia, oraindik aztertu bearrean gelditzen gera.

Gaiñera, ateismua bere lehenbiziko urratsean geldi-arazi dezakegu. Ezpaita sekula naturalistarik azaldu, bizigabekoen eremutik bizidunetara lerro jarraitu eta etengabeko ori aurkitu duenik. Materia utsaren eta bizitzaren artean ba-da leize bat, luebaki bat, eten bat. Beraz, jakintzari berari gagozkiola ere, erakutsi dezakegu bearrezkoa izan dela, bizia sorrarazteko, Jainko altsuaren esku-sartze berezi bat.

Onekin eztugu esan nai mirakuilu bat bear izan denik. Guk esan nai duguna da: Jainkoak, alegia, bere garaiean eman ziola izadiko langintzari bizia sortzeko bear zuen geigarria. Eta aski dugu orrekin.

Baiña au alde bat utzirik, aztertu dezagun ateismuak nai duen eta egiten duen naasketa ura: gizona abereekin nahasi, eta gizadia abere-eremuko pizti-mota bat balitz bezala azaldu. Gizakumea, abere uts bat: besteak baiño pixka bat aitzinatuagoa batzuen ustez, edo beste batzuen iritziz, bere asaba tximinoen ondoan biurriagoa eta okertuagoa.

Ez naiz txantxetan ari: ba-da ori ere esan duenik. Gure anai tximinoenganako sugarrez beteak, gizona, abere guztietan txarrena, aulena, gaixotiena dela diote. Aberearen sen eta

griñetatik geien aldendu dena, eta orregatik arriskurik aundienean dagoena. "Egia da, bestalde —diote— abere denetan interesanteena ere ba-dela." Maitagarriak dira gero jaun oiek! Amor ematen ere ba-dakite! Eta ezta nolanaiko doaia gizonari aitortzen diotena...

Baiño goazen aitzina. Zer oiñarri edo arrazoi ote daukate jaun oiek ola mintzatzeko? Eta eztago beste erantzunik: arrazoirik, oiñarririk, bat ere ez. Itsumendia, aurre-iritzia, eztago emen besterik. Gizonak antzik aundiena duela bere inguruko abereekin, eta ori jartzen dute arrazoiketa bakartzat. Antza, gorputza osatzen duten gaietan, organuetan eta auen zeregiñetan. Eta bukatzen dute: gizakumea, izadiko beste izaki oien gai berberakin egiñik dago, ore berdintsuaz moldatua. Gizonak eztauka abereak eztaukan gauzarik. Gizonagan mailla goratuago batean aurkitzen diren gauza guztiak, abereagan ere aurkitzen dira; asieran edo sustraiean, nai baduzu, baiña an dira.

Jakiña, begiak itxitzerik eztago. Ba-dakuste gizonak adimendua duela, gogoeta egiteko almena, eta borondatea ere bai, au da, bere eskuko al izatea. Eta gizonaren berezitasun oiek traba eta eragozpen aundia direla iritzi oiek ontzat emateko. Ori dela ta, egiñalak egiten dituzte, alde batetik, aberea ere adimenduz dotatua dela erakusteko, eta bestetik, gizonaren ulerpidea organismuaren beraren zeregin bat baizik eztela probatzeko.

Gure eztabaida au bide zuzenean abiatzerik nai badugu eta auzia bear bezala epaituko bada, adimendua zer den esanaz asi bear dugu. Agi denez, ontan datza auzi onen gorabeera guztia. Ori bear dugu lenbailen zeatz finkatu eta zedarritu. Ori argitu ezkero, aisa erabakiko dugu olako gauzarik piztian aurkitzen den ala ez.

Zer da, bada, ulermena edo adimendua? Materia gabearen almena, fakultatea (="la facultad de lo inmaterial"), esan genezake; eta segituan emango ditugu definizio onen argitasunak. Gure inguruan ba-dira izaki batzuk gure zentzunen eskumenean daudenak. Baiña ba-dira beste ezaguera-gai batzuk, izatez materia gabekoak direnak. Adibidez, nik esaten dudanean: **zuzentasuna, zintzotasuna, eskubidea** ta abar, izaki oiek eztute materiazko txintik. Eta beste izaki batzuk, berez materitar izanarren, materigabekiro, izpiritualkiro sortu oi ditugu

gure buruan, materiazko soiñeko ori erantzirik. Adibidez **zaldia, mendia, aritza, ibaia** diodanean: orokarkiro eta abstraktuki bizi dira gogai oiek nere gogamenean.

Gogoeta egitea ezta ba besterik auxe baiño: materigabeko izaki oiek gogoan sortzea; esate baterako, **egia** edo **zuzentasunaren** ideia. Edo ikusi ta aztatu ditezken gauzetatik "tasun" orokar oiek, murrizte baten bidez atera, eta materiazko soiñekoa gauzei kenduaz, izpiritualki buruan artzea. Ori da pentsatzea. Au da adimenduaren lan jatorra eta berezia.

Materiadun izakia, toki eta une jakin batean kokaturik bizi da. Ain zuzen, ortik datorkio banako berezia ta konkretua izatea. Toki oni loturik dagoelako, eta bere iraupenaren une ontantxe bizi delako, eta "tasun" auek eta aitzin-gibel aiek dituelako, orregatik izaki au da bakarra, bakoitza, kidekorik eztuena, berritu ezin ditekena.

Baiña izaki orrek nolako egokera artzen du nere adimendura aldatzen denean? Zer moduz edo nola bizi da, nere gogamenera igarotzean? Toki eta denpora batekin zeuzkan lokarri denak joan zaizkio: tokitasuna eta denporatasuna galdu du. Materiatasunez gabetua aurkitzen da orain. Absolutuan, betierekoan dago kokatua. Naierara berritu diteke, nai duzun aiña banakotan zertu diteke. Materiagabea da oso. Orra ba zer den gogamena, gogoeta egiteko almena: materiagabea gaitzat duen fakultatea. Eta materia bera ere eztu atzemaiten, materigabekiro ezpada.

Eta orain dator nere galdera: materia utsezkoa den indar batek egin al dezake orrelako lanik? Funzionea nolako, organua ere alako izaten dela ba-dakigu. Funzionearen nolakotasuna gaiak adierazten baitu. Organuak artarakotasuna bear du. Eta organuaren eta funzionearen artean ba-da nai-ta-naiez zer-ikusi edo kidetasun bat.

Zein da, izan ere, ikusmenaren gaia, objektua? Kolorea, noski. Beraz, ikusmenaren organuak bearko du "eter" delako orren zirrarak atzemaiten azkarra izan, bide ortatik datorkigun ezkero kolorea. Eta zein da entzumenaren gaia? Soiñua, otsa. Beraz, entzumenaren organuak bearko du gauza izan aizearen dardarazioak arrapatzeko, oiek baitakarkigute otsa. Gaia eta organua ezbalirake izatasun berdiñekoak, funzionea ezin izango litzake zertu. Eliza goratu batean nik nere besoe-

kin teillatua ukitzea nai baldin banu bezala: ezin, nere eskuak ezpaitira ain gora alleatzen.

Beraz, ulermenarekin materi gabea atzemaiten baldin badut; abstrakzionearen bidez materi gabea sortu edo kreatu egiten baldin badut, seiñale da ba-dela gu baitan indar bat materiaren alegin guztien gaiñetik dagoena. Gauza argia da au, auzia arreta pixka batekin eta urbildik konsideratu nai duenarentzat.

* * *

Oiek ola, aur batek aisa konpreni dezaken arrazoiketa au nola aaztu ta baztertu diteke? Eta zer aitzaki ta igesbide du Materialismuak, lotsagarri ez gelditzeko?

Ba-du Materialismuak baliamendu bat, eta artaz baliatzen da beti. Ba-daki, noski, andik probetxu ateratzen: Jakintzaren lillura, orra. Gizonaren Jakintza, materiaren alor ontan, aziaz ta etengabe ugalduaz joan da, bai lengo mendean eta bai oraingoan ere. Milla asmaketa eta aurrerapen estimagarriak etorri zaizkigu Jakintza ortatik. Makina onen gurpil eta palanka guztiak bana-banaka askatuak izan dira, eta bakoitzaren ibillerari buruz aunitz berri ezezagun zuzendu izan ditugu. Geiago oraindik: gogamenak materiazko baldintza batzuek bear ditu, bere lana egiteko. Ori dela-ta, gogamenaren esplikazioa baldintza oekin lotuegi azaltzen digute, alako eran, non, batzuen ustez, arima alperriko tresna billakatu da. Baiña otz-otzean asten bagera gogamenari buruz eta arimaren auzi oni buruz jakin izan denaren kopurua neurtzen, arriturik geldituko gera: utsaren urrengo baita Materialismuak bere alde atera dezaken guztia.

Beti bezala, berezi ditzagun emen ere zeatz eta garbi jakintzen saillari dagokiona eta beste ezaguera-moten eremukoa datekena. Jakintzek fenomenu sentigarria dute gai, bere baldinkizun eta ondoreekin. Ikus ditekena, uki ditekena, pisatu ta analizatu ditekena: orra Jakintzaren gaia. Eta gertakizunen aitzineko ta ondorengoen billakuntza: orra bere lana. Ortik kanpora, Jakintzek deus ere eztakite, eztute deus esatekorik, eztira beste deusez ari. Beren zabalgune eta eremutik ateratzen ezbaldin badira beintzat. Eta Filosofiaren, Erlijioa-

ren edo beste olakoen barrutietan —eurena ezten soroan, alegia— sartzen ezpadira.

Jakintzek nai baldin badute Jainkoaren edo Revelazioaren izatasunaz mintzatu, edo beste olako gaiez, eztira lur tinkoan ari. Auzi auen gaiñean deus ere ezpaitakite, ezpaitute indarrik puntu oiek argitzeko. Beren metoduak eta prozedurak, esperimentalak dira soilki: aztura eta oarkera, eztute besterik. Eta metodu orren bitartez ezin erabaki ditekena, beren mugarrietatik kanpo gelditzen da.

Orregatik, nik esango nuke bakunak eta iñusenteak izan oi gerala sarri-askotan. Iñusenteak, alegia, jakintsu puztu batzuek gure filosofia edo erlijioaren aurka zalaparta ateratzen dutenean, eta jaun oien bildurrez jartzen geranean. Zer dakite jaun oiek eremu auetan? Non dago, ontan, beren jakituria berezia? Ia-ia esango nuke, auzi auetan, berak direla epailerik txarrenak. Burua ere ertsia baitute beren espezialidadeaz. Gogamena ere sarri-askotan okertua eta makurtua, etengabe metodu bat eta bakarra ibilliaren ibilliaz. Egia esateko, eztaukagu zertan kezkatu, oien itzaldi zaratatsuak direla-ta. Mintza bekit jaun ori Kimikaz, Fisiologiaz ta abar, eta gogo onez aitortuko dut bere jakitate edatua. Baiña filosofiaz edo erlijioaz badiardu, eztiot batere jaramonik egingo.

Eta goazen orain arira. Gure auzi onetan, nori tokatzen zaio gogamenaren baldinkizun materialak seiñalatzea? Jakintza-gizonari, noski. Eta gogamenaren beraren izatasun edo muin ezkutua aztertzea, nori dagokio? Bistan da filosofuaren zeregiña dela ori. Eta bi barruti oiek naastutzeak zer ondore dakarke? Okerra ta gezurra bakar-bakarrik. Buru-muiñen (zerebruaren) funzionamenduari dagokion zerbait, filosofuak epaitu ta erabaki nai baleza, bere eremu edo alorretik kanpo legoke. Eta beste ainbeste esan bear da, gogamenaren izatasunaz jakintza-gizonak zerbait erabaki nai baldin badu, bere metodu esperimentalak ezpaitu ortarako balio.

Gogamena, buru-muiñez baliatzen den ezkero, alde ortatik beintzat, Jakintzaren zabalgunean edo barrutian sartzen da: ori gogo onez aitortzen dugu. Baiño gogamenaren izatatasuna erabakitzea: ori ez, ori eztago bere eskumenean. "Buru-muiñak gabe, gogamenik ez", eta "buru-muiñak nolakoak, gogamena alakoa": ori da jakintza-gizon zeranez zuk dakizun guztia. Ortik aurrera, batez. Eta oraindik gaiñeratu bear litza-

ke, zeatz jokatzeko: "eta ori gizona baitan, eta gizonaren oraingo egokeran". Jakintza-gizonak, izan ere, eztu eskubiderik proposizione au: "buru-muiñak gabe, gogamenik ez", egia orokarra, nunai ta noiznaikoa balitz bezala irakasteko.

Gogamena, organismuaren baldinkizun batzuei lotua azaltzen zaigu. Bapo. Eta zer segitzen da ortik? Buru-muiñek egiten dutela gogamena, eta au esplikatzeko eztela besterik bear? Baiña ori sofisma uts-biribilla besterik ezta! Alako sofisma ezagun ura: "cum hoc, ergo propter hoc". Muiñek gogamenari lagundu bear diote, beraz muiñak dira gogamena. Artzaia ikusiko duzu mendian, txakurra eta urritz-makilla beti lagun dituela. Beraz, zer da artzaia? Edo txakur bat, edo makilla bat... Arretaz eta urbildik begiratzen badiozu, emen eztago besterik. Aisa ikusiko duzu engañu ortan datzala Materialismuaren indar guztia.

Gogamenak ba-ditu materiazko aitzineko batzuk eta materiazko ondorengo batzuk. Beraz, gogamena, fenomenu materiala da. Esango bagenu bezala: Zer dago Donostiako Santa Klara ugartearen aitzinean? Ura. Eta gibelean? Ura. Beraz, Santa Klara ugartea urezkoa da...

Guk dakiguna da gogamenak, baldintza bezala, organismuaren lan bat eskatzen duela, eta lan orren lantegia buru-muiñetan aurkitzen dela. Eta arima bat baldin badago —eta ori filosofiak esan bearko dit, jakintza-gizonak ortaz deus ere ezpaitaki— arima ori bere lana egiteko materiaren bearrean dagoela; musikalariak soiñua jotzeko bere tresnaren bearra duen bezalaxe. Puskatu zazu tresna, eta eztago soiñu jotzerik. Kasko-ezurra eta barruko garunak gabe ere, arimak ezin gogoeta egin. Baiño zer esan nai du orrek? Musikalaririk eztela bear? Tresna ezta musikalaria, eta alaber garuntegiak eztu arimaren utsunea betetzen. Materialistek jendea engañatzen dute, galdekizun bat egiñaz eta isilpean beste bati erantzunaz. Guk emen jakin nai duguna da gogamenaren izatasuna, eta ez aren lagungarriak. Gogamena, materiazko zerbaitetik sortu eta erne oi den, arima bera materia ote den ala ez, edo arimarik ote dagoen ala ez. Ez gabiltza gogamenari lagundu bear dizkioten baldintzak billatzen.

Gogoeta egitea, materia gabea atzemaitea da: bai ala ez? Eta materiazko organuak ba al dezake materi gabea atzeman? Nere leenbiziko galderari ezetz, eta bigarrenari baietz

erantzun arte, eztuzu deus frogatzen gure kontra, eta bistan da ori ez dezakezula.

Gogamenaren sustraia eta iturria, au da, arima, materi gabearen maillakoa baldin bada, eta garra zuziaren gaiñean bezala dir-dir agiri bada, orduan guk ba-dugu eskubide onako au erakusteko eta siñisteko, alegia: arima, eta arimak duen materiazko tresnak eztutela etorburu eta izaera berdiña.

Eta arima ez baldin bada materiazkoa, zer segitzen da ortik? Materiaren langintzatik eztela sortua izan. Materiak ezin dezakela olakorik sortu. Nai ta naiez izpiritu batetik izan duela bere etorrera.

Izaki materi gabea ezin, beraz, materiatik etorri. Olako izakia sortzeko, kreatze-lana bear baita. Eta orra gogamenaren beraren aztertzeak nola eraman gaituan Jainkoagana.

Frogantza au alde orotatik osoago ta biribillago gerta dedin, urrengo atalburuan ikusi bear dugu nolako aldea dagoan gizonaren eta piztiaren artean. Leize ikaragarria dagoela ikusiko dugu, ez gorputzean, baiña bai ezagutze-kontuan.

IV

"Animaliek ere ba-dakite pentsatzen, gogoeta egiten, guk bezalaxe: maillako aldea dago bakar-bakarrik aiek eta gure artean"; ola mintzo dira askotxo. Eta esan bearrik eztago: ola mintzo direnak eztute gogoan animaliak goratzea eta bai gizona oien maillara beeratzea. Izpiritu utsezko arima nai lukete ukatu, eta ortara dijoaz. Izaki guztiak materia utsezkoak izan ditezela; gogamena, berriz, garuntegiaren lana baizik eztedilla izan: orra zer nai duten erakutsi. Ikus dezagun, ba, ea animalietan adimendurik ote dagoan.

Makiña bat istorio eta gertaera arrigarri kontatzen dira, animaliak direla ta eztirela. Baiña, geienetan, gertaera oiek, bear bezalako zeaztasunik gabe izan dira ikusiak eta artuak, eta beste askotan oker interpretatuak. Emen bai gertatzen dela antropomorfismu delako oben ori. Uste dugu, alegia, animaliak, gure gisa ari diren guztietan, guk ditugun bezalakoxe sentimendu edo asmoen jabe bear dutela izan. Baiña begitasunak edo irudipenak egiten du ori.

Ara nola Darwin-ek ideia jeneral baten aztarna aurkitu duen tximino batean: bein makilla batekin kaixa baten estal-

kia jasotzen asmatu zuela-ta, gero, tximino ura bide orrezaz baliatzen omen zan orixe bera beste antzeko egokieratan egiteko. Orra, beraz, tximinoagan ideia orokar baten sustarra! Ziñez, filosofu kaskarra azaltzen zaigu emen Darwin, ezpaitago adimendu-bearrik ori esplikatzeko. Naikoa da orretarako oroimenean irudi batzuk elkarturik eukitzea, eta gertaera ori eta bai beste olako asko ere aisa esplikatzen dira, beste gabe. Txakur bati, gauza bat egiten duen guztietan bizkarra berotzen bazaio, gauza ura geiago ez egiten erakusten zaio. Eta zer esan nai du orrek? Ongiaren eta gaizkiaren ideia baduela txakurrak? Ez. Makillaren irudia, berak egindako gauza orrekin loturik, elkarturik gelditzen zaio, eta beraz gauza ura bildurgarri biurtzen zaio, zigorra bildurgarri zaion bezalaxe. Eta bere burua gordetzera duen senak erakusten dio gauza ura geiago ez egiten, makillakadak ez artzeagatik.

Eta ori da animalietan aurkitzen duguna. Sentipen bat, oroitzapen bat, eta bi gauza auen elkartze bat; baiña orretarako eztago ideia orokar baten bearrik; ezta adimendu-bearrik ere. Eta animaliekiko kontakizun eta istorio denak edo ia denak, erregla edo esplikazio onen barruan sartzen dira. Sena probatzen dute, eta ez arrazoia edo adimendua.

Batzuetan, egia da, pizti baten egiñak ba-dirudite arrazoiakin pentsatuak eta ipiñiak izan direla: ain tajuz erreskadatuak agiri dira, ulermenaren aginduz ordenatuak baleude bezala. Adibide bat: txakur bat ba-dijoa bidez bide. Alako batean errekasto batekin topo egiten du. Egarri delako edo beroak igarota dagoelako, uretara sartzen da. Baiña gero, uretatik irtetzean, alako ozkirri bat nabaritu du eta asten da korrika eta saltoka. Otza sumatu du eta otz ori egoztearren asmatu du korrika egitea. Bere egin guzti oietan logika bat agiri da. Txakurrak, ordea, eztaki logika orren berri. Baiña ez jakinda ere, une bakoitzeko sentipenak erakusten dio zer egin bear duen.

Eta piztiengana jo gabe, gerok ere ez al dugu milla aldiz orrela jokatzen? Gure egitade guztiak eztira adimenduaren aginduz egiten, ezta urrik ere. Asko eta asko senaren esparruan gelditzen dira.

* * *

Piztia adimendun dela frogatzen duen frogarik eztago. Eta kontrara, ba-dago makiña bat, adimenik eztuela froga-

tzeko.

Ba-nijoa artez nere esan au finkatzera. Pentsatzea, gogoeta egitea, zer da? Definizioak ez ditzagun bein ere bistatik galdu. Definizioak aaztutzetik eldu baita maizenik naaspilla. Esan genduan bezala, gogoeta egitea auxe da: materi gabekoa sortzea, izaki orokarrak eta abstraktuak moldatzea, alegia. Pentsatzen dakianak ba-daki, gaiñera, bere baitan dituen konzeptu abstraktuok elkarrekin biltzen eta konbinatzen; orrela epaiak (=juicios) eta atsapenak (=principios) osatzen ditu. Eta ain zuzen, gaitasun ontan datza Jakintzaren azia. Izan ere, zer da Jakintza? Epai kateatu eta erreskadatuen bilduma bat, epai guztiok xede baten inguruan biltzen direlarik. Aziak landarea barruan daukan bezala, eta inguruko goraberak galerazten ezpadiote, barruko lege batek agindurik, landare ori argitara ematen duen bezalaxe; orobat, epaiak egiteko eta atsapenak azaltzeko gai izan ezkero, nai ta naiez erneko da Jakintza. Eta onatx beste ondorio bat: gogoeta egille den izakiak, baldin inguruneak laguntza pixka bat ematen badio, jakitatea bilduko du.

Eta jakitea bildu ezkero, aurrerapena ere ba-dator berez bezala. Orra ba irugarren ondorioa: dakian izakia, aurrerazale izatea. Eta azkenik, gogoeta egin, jakin eta aurrerantz abiatua dagoen izakia, baldin gizartean bizi bada, barneko premi batek ekarriko du bere adimendua besteen adimenduekin ar-emanetan jartzera: au da, mintzoa asmatu eta landu bearretan aurkituko da.

Ikusten al da zerbait olako piztiengan? Ezta fitsik ere. Aski da galdetzea, zer erantzun bear den jakiteko: erantzunaren zai egon bearrik eztago.

Gizonagan, bai, aurkitzen dira gauza guzti auek, eri edo ezindurik ezpadago beintzat. Ba omen dira gizon batzuk ia batere aurrerapenik egiten eztutenak, erdi abere edo erdi astotuak eta aituak daudenak. Baliteke, eztut ezer esatekorik. Baiño "ia" ta "erdi" oiek zerbait esan nai dute alere, itzerdiño auek eztira jartzen alperrik. Basati bat, landugabe bat jarri zazu bere burua landu dezakean tokian eta bizimoduan, eta besteen gisa ikasten du eta aurrerapen guziez baliatzera eldu da. Labur, gizon batzuk piztiak bezalakoak direla esatea, metafora bat baizik ezta. Ez naiz ni metafora orren etsai, erabilli bedi bear denean, aaztu gabe, ordea, bere egiazko balioa.

Piztietan ere aurrerapena gerta diteke. Baiña aurrerapen ori izadiarena izango da, ez piztiak berak lortzen duena. Abereetan evoluziorik baldin bada, abereen almenak ere aldatu ederrak ezagutu bearko dituzte. Baiña aurrerapen ori ezta jakitetik datorrena. Gizonak, abereak ezitzen eta errenditzen badaki, eskolatzen eztaki. Eta zer da ezitzea eta zer da eskolatzea? Ezitzea da piztiaren oroimena ta sentikortasuna gure probetxurako erabiltzea: eta orrenbeste egiten ba-dakigu. Baiña iñork eztio egundaiño piztiari erakutsi al izan bere almen oiezaz baliatzen: labur, eskolarik eztio erakutsi al izan.

Adimendua nabari da, noski, erleen langintzan, edo, zomorro txikiak arrapatzeko, armiarmak zintzilika jartzen duen sarean; baiña olako adimendua landareetan ere ezagun da, eta bai bizi gabeko arri ta meatzetan ere. Beraz, adimendu ori ezta piztiarena, izadiarena edo izadiaren Sortzaillearena baizik.

Piztiak lanean ari direnean, beti berdin ari zaizkitzu, ezertxo ere aldatu gabe, gurasoak eta arbasoak eta tokabilasoak ari ziran bezala, berdin berdin ari dira gizaldiz gizaldi eta belaunez belaun. Matxin-salto bat ikusi duenak, milloi bat ikusi balitu bezala. Batek ere eztu adimen-fitsik aldaturik xumeena egiteko, aldez aurretik emana izan zaien arloan (Richet).

Ziñez, borondate on ikaragarria, edo, nai baduzu, borondate gaizto nabaria bear da, ez ikusteko gizakumeak ba-duela almen bat guztiz berezia eta abereen almenetatik osoki ezberdiña. Ain zuzen, almen ori da adimendua.

Adimendua da materiatik aparte dagoen indar bat. Ba-du alere zer-ikusi materiakin aurreko baldinkizunetan eta ondoriotan, baiña ez bere izatasunean; orregatik, adimendua ezta evoluzio material baten elburua. Artez, zuzenean eta bitarteko gabe, Kreatzailleak berak sortu izan du. Beraz, orra beste bide bat, Kreatzaille ori ba-dela jakiteko. Dirdira txikiagoz bada ere, kanpoko munduak bezin seguru frogatzen du bide onek Jainkoaren esistentzia.

Aragiak eztu indarrik arima sortzeko. Izpirituak, berriz, eztu sortzen. Eta gu, izpiritutarrak izan. Giza-arima bakoitzaren azia Jainkoak berak sortua izan da, eta arima orrek bere kontura artzen du aragi sortu-berriaren zuzendaritza. Orregatik, ez bakarik gizona, orokarrean arturik, baiñan giza-ale bakoitza ere, aukerakoa ta aproposa dugu Jainkoa ba-dela frogatzeko.

V Kapitulua

Jainkogabeko Morala

LABURPENA

I. Gizonaren doai berezia: bere eskuko izatea. Doai onen ukatzailleak eztira benetazko ukatzaille. Onaren eta gaitzaren ideia. Eginbide edo obligazioaren lokarria. Morala Jainkogabe antolatu nai lutekenak. Gizadiaren iru adiñak, Comte-ren iritziz. Aburu ontan nabari den egi-puska. Nun dagoen geiegikeria.

II. LEGE *itzaren adierak. Itz orrek, "oituren legea" esatean adirazi nai duena. Etekin edo probetxua, Moralaren oiñarritzat eman nai lutekenak. Moral onen kritika.*

III. NERI *komeni zaidana, Moralaren oiñarri. Moral onen kritika. Gizartearen onura, oiñarri. Oiñarri makala au ere.*

IV. Ongiaren ideia zer den. Benetazko Morala zer den. Jainkogabe eztu zutik irauterik. Kant-en "imperativo categórico" delakoa. Jainkorik ezpadago, ez ongiak eta ez Moralak eztute sustrairik. Sortzaillearen gogoa salatzen didan legeari kaso egitea: orra zer den egiazko Moral bakarra.

Gizonak ba-du beste doai berezi bat, adimenduaz gaiñera: Naimena edo Borondatea deitzen dugu. Naimen orren legeak bear dira orain aztertu, eta lege oiek Jainkoagana nola eramaten gaituzten ikusi. Emen ere makiña bat gezur eta sofismakin topo egin bearra izango dugu. Eta gezur oiek larru gorrian jartzen saiatu bearra.

I

Gizonak ba-du naimena. Ba-du, oarturik eta jakiñaren gaiñean, bide bat autatzeko indarra. Ba-dakit indar orrek ere badituela bere neurriak eta mugak. Esan nai dut, nai luken guztia ezin dezakela lortu; baiña orain ez gera ortaz ari. Gizonak ba-du **liberum arbitrium** delako ori, askatasuna, bere eskuko izatea edo bere buruaren jabetasuna deritzaion almena. Ezin ukatuzko gauza da au.

Ba-da —jakiña— doai au ere ukatzen duenik. Auen iritzian, gizona ez litzake norbait, eta bai xoilki zerbait. Alperalperrik dabiltza, ordea. Ezta munduan iñor (ustekizun oien alde azaltzen zaizkigunak ere ez), benetan eta zintzo ezezko ori aintzat artzen duenik. Irakaslekuan eta sistemak asmatzeko garaian, bai, bearbada, baiña ortik kanpora, kalean, plazan eta eguneroko bizitza arruntean, beste guztiak bezalaxe, libretzat jotzen dute bere burua. Idazleak jarri dezake paperean: "Dena da baitezpadako; ezin bestean ta nai-ta-naiez gertatzen dira gauza guztiak." Baiña ori idazten duenak badaki, noski, bere esku dagoela ori idaztea edo ez idaztea, ori edo beste zerbait orren ordez jartzea. Eta artu duen gaia aurrera eramateagatik ori esaten badu ere, egiñek, ordea (idazlearen beraren egiñek) salatzen dute segituan izkeraren gezurra. Bizitzak parregarri uzten ditu sistema oiek. Gugan ba-da **norbait:** ba-da enegan adimenezko **nor** ori, eta **nor** onek artu dezake zuzendaritza, nai baldin badu, gure egiñak lege nagusi edo prinzipio batzuen araura zuzentzeko. Prinzipio gidari oiek dira, ain zuzen ere, Morala. Moral onek xede bati buruz zuzentzen ditu gizonaren egitadeak. Xede oni, **ona** edo **ongia** deitzen diogu. Au da, beraz, gure muga edo elburua.

Gauza batzuk bear dira egin, beste batzuk egitetik bear gera gorde. Orra gizadiak beti aitortu duen lokarria. "Onako au egin bear dut, nere eginbidea da, betebearra": orrelako

esakerak nunai ta noiznai esaten ta entzuten dira. Ongia, gu baiño gorago dagoen zerbait ba-dela sumatzen dugu. Orren kontra joaterik eztugu. Ari jarraitu bear zaio, aren esanera ekarri bear ditugu gure egiñak eta obrak: uste au denok daukagu gu baitan kokatua.

Eginbidea, betebearra... Ideia onek bere muiñean dakarren guztia aztertuaz, eta batez ere ongiaren ideia argi osotan jarriaz, berriz ere Jainkoarekin topo egingo dugu. Moralaren atzen oiñarri bezala azalduko zaigu Jainkoa. Eta oiñarri ori kendu ezkero, Moralak eztu geiago zutik irauten. Au uste dugu utziko dugula sendo finkaturik, ezin ukatuzko eran.

Gure egunotan egin dira saioak Jainkogabeko Moral berri bat antolatzeko. Alperriko saioak. Nai ta naiez ustel atera bear dute. Eskola ontako jaunek bere aurka daukate gizadi osoaren kondaira, mende guztien erronka. Baiña bost inporta zaie ori gure moralista berriei. Joandako mendeen erakutsiei erantzuteko, ba-dute arma bat egokia, Augusto Comtek asmatutakoa: iru aro edo adiñen asmakizun famatu ura, alegia.

Comte-ren iritzian, dotriña guztiek, bai moralek eta bai besteek ere, iru mailla, aro, adin edo egokera ezagutu izan dituzte: aurrena, erlijioarena, urrengo Metafisikarena, eta atzenean Jakintzarena. Ain zuzen, azkeneko ontan oraintxe ari gera sartzen. Aurreneko mailla, izpirituaren aurtzaroa bezala zan. Aro ortako gizonek zer egiten zuten? Jainkoak eta Jainkosak erruz asmatu, gure eginbideen sostenguak izan zitezen amoreakgatik. Lehenagoko gizonen buruzagi eta irakasleak siñeste oiezaz baliatzen ziran gizona bere eginbideari lotuarazteko. Gaurko amatxoak ere ez ote dira mamuaz eta xomorroaz baliatzen, beren umeak ezitzeko eta bildurraren bidez bear dena egitera ekartzeko? Alde aundi bat dago, jakiña: gaurko amek eztute berek xomorroagan siñesten, eta aro artako irakasleek bai siñesten zuten Jainkoagan: orduan denek, goikoek eta beekoek, zeuzkaten siñiskeria oiek. Eta —aitortu bearra dago— erlijioak bere mesedea egin zion gizadiari, onen urratsak gorantza zuzenduaz.

Bigarren aroa, Metafisikarena omen da. Beste aroaren aldean, ba-da aurrerapen bat, baiña gizonak eztitu oraindik aur-oiturak zearo gainditu. Metafisikak, siñeskeriak aizatu zituen, baiña bera ere zer da ba siñeskeria izugarri bat baizik?

Aro ontako gizonak, izpirituaren asmakizunak egiazko realitateak balira bezala artzen ditu.

Irugarren aroa omen da egiaren erresuma. Jakintza esperimentalek, azturaren gain borobiltzen diren Jakintzek, ekartzen omen dute gizona erresuma ortara. Eta aro ontan sartuberriak gera. Lehenagoko siñeskeriak uxatu ditu gizonak, eta Jakintzak eskeintzen dio orain egia osoa eta soilla.

XIX-garren mendeko narzisismu zozoa nabari da Comteren asmakizun ontan. Baiña ori alde bat utzirik, izan gaitezen begi zuzeneko, gure etsaien iritzietan izan diteken egipuxka aitortuaz. Neurriztasun onek mesede besterik ezpaitigu egingo. Comte-ren ustekizun auetan ba-da egiazko zerbait. Onartu dezagun, bada, emango aldigu zerbait argibide.

Jainkoaz eta munduaz aritu giñenean esandakoa, emen gogoratu besterik eztago. Iru aroen lege orrekin antz pixka bat duen zertxobait ikusi genduan an. Lehen-aroko gizonek Jainkoagan siñestu ezezik, Jainko oni ezartzen zizkioten, gaiñera, zeregin guztiak, baita izadiko indarrei dagozkionak ere. Jupiter zan bere buruz euria sortzen eta bialtzen zuena, edo ta oiñazturak jaurtikitzen zituena. Jainkoaren eskua ikusten zuten nunaitan ta zernaitan. Jakintza esperimentalek, izadia bera obeki aztertuaz, uste oker oetatik asko ta asko zuzendu dituzte eta ontan mesede izugarria egiten ari zaizkigu. Baiña era berean, Jakintza ere beste oker aundi batean erori da: uste du, alegia, Jainkoa betiko egotzi duela; eta ez. Bai zera egotzi! Jakintzak egiten duena da lagungarriak eta bideak ornitu, guk Jainkoa obeki ezagutu dezagun!

Moralaren barrutian ere berdin gertatu izan da. Antziña bateko gizonek uste zuten, nunbait, Jainkoak zebiltzala soroetako mugarriak zaitzen, berak zirela bidegabekeria guztien bengatzaille, bidazti erromesen lagun, ta abar. Etorri ziran gero filosofuak eta uste oiek aizatu zituzten. Baiña au gauza bat da, eta beste bat Jainkoa Moralaren azken oiñarritzat ez aitortzea, eta bien bitartean leize ikaragarria dago.

Nik esango nuke, ain zuzen ere, oraintxe ari dela Jainkoa, Berari zor zaion toki bakarra artzen. Gure ezjakiñak erantsi zizkion zeregin oiek kendu dizkiogunean, alegia. Bigarren kausen egikizun oiek erantzi zaizkionean, bere egiazko tokia eta lekua biurtzen zaio, Kausa lenena den aldetik zor zaiona.

Jainkoa, gauza bakoitzaren ondoan eta azpian datza, ez

ordea gauza orren barne-indarrak galerazteko edo oien ordez bere burua azaltzeko. Bera ezpaita izakien gurpil-artean sartzen, baiña ori bai, langintza osoaren azken itza ta erantzukizuna bere gain artzen du. Eta Moral-gaietan berdin gertatzen da.

II

Morala deitzen zaio, dakigun bezala, oituren legea erakusten duen filosofi-parteari. Baiño **lege** itz au aotan artzerakoan, nai ta naiez bereizkuntza bat egin bearra dago. Bi gauza oso ezberdiñak adierazteko erabiltzen baita itz ori. Ona emen leenbiziko adiera: Barruti edo eremu batean zer gertatzen den erakusten duen formula: ori da legea. Orrelakoak dituzu estadistika-legeak. Eskubiderik eztute adierazten, gertatu soilla bakar-bakarrik. Nola den gauza, ez nola izan bear luken. Lege morala, era ortara artuaz, zer litzake, beraz? Gizadiaren oiturak nola diren, nola izan diren, mende eta lurraldeetan zear zer goraberak ezagutu dituzten ta abar, adierazten digun formula. **Lege** itzaren bigarren esanaiak, berriz, ez gertatu soilla eta bai eskubide bat adierazten du. Ez gauzak nola gertatzen diren eta bai nola egin bear diren. Bigarren esanai orren araura, bistan da lege morala zer den: giza-bizitzaren formula bat, eredutzat jarritako xedea irixteko zer egin bear den azaltzen duena. Giza-bizitzak nolakoa izan bear duen adierazten duen formula.

Lege itzaren bi adibide oiek eztaude bata bestearen aurka. Bata bestea osatzera datorrela esan genezake. Jakintsu utsak edo soillak, moralidade-kontuan izan diren oiturak, gertaerak eta goraberak aztertzen ditu. Orrelako jakintsua eztaukat nik etsaitzat. Aitzitik, laguntzaille eta lankide zait, argibide baliotsuak ematen dizkidalako. Eta orobat fisikua, fisiologua ta abar, beren landan gelditzen diren bitartean. Ba-dute oiek beren esparru berezia eta jakingarririk asko eman dezaiokete filosofuari.

Egiñak, gertaerak, jakintsuaren alorra dira. Oituren Jakintza edo Moral Positivu delako ori, baliotsua zaigu, beraz, mendeen aztura biltzen duen aldetik. Arraza eta klima batetik bestera nolako aldakuntzak eta goraberak izan diren adierazten digun aldetik.

Baiña zoritxarrez, laister dator geiegikeria ta naaspilla, gauzak bere neurritik ateratzea. Jakintsu soillak oso bakan baitira. Gure baitan betiere datza filosofu bat erdi lo. Jaun oiek aitortuko dizute Jakintza utsaren landatik eztutela ilki nai, baiña gero, gutxiena uste duzunean, aaztu egiten dira nunbait, eta bat-batean eta supituki, Jakintza-gizonetik filosofua edo sasi-filosofua irtetzen zaizu, deabru baten gisa.

Ain zuzen, ori da Moral positivu orren alde daudenei gertatzen zaiena. Ara zer moduzko sistemak asmatzen dizkiguten, Moralaren asiera edo jatorria esplikatzeko: asieran gizonak beren sentidu eta griñen esanetara zebiltzan. Griñak zer eskatzen edo zer nai duen, ba orixe egiten zuten, eta kito. Baiña azturak erakutsirik, aurki konturatu ziran (abereek ere orrenbeste ikasten baitute), sentiduentzat atsegingarri diren zenbait gauza egitetik, eztatorrela ondore onik; eta kontrara, beste zenbait gauza, naiz eta nekegarri eta zaillak izan, onurakor gertatzen zaizkigula. Gaiñera, gizonak ba-du lagun urkoarenganako onginaiezko joera bat, errukizko sentimendu bat. Bi iturburu oetatik: **etekiña** eta **onginaia,** sortu omen zan Morala.

Oitu ziran gizonak gauza batzuk egitera, eta beste batzuk egitetik beren burua begiratzera, egikunde batzuk onetsi eta beste batzuk gaitzestera, esandako bi iturburu oen araura. Beren aztura ori, esaldi edo erasia batzuetan mamitu zuten gero, eta ola lege baten antza edo itxura eman zioten. Ondoko gizaldiek, aurrekoen erasia oiek ontzat eman, egiak bailiran artu, eta atzenean berez azaltzen zaizkigun egia agirikoak direlakoan, batere ezpairik gabe artu izan ditugu.

Eta lege oiek gizonak obligaziozkotzat jotzea, nola esplikatzen da? Ori ere onelatsu-edo gertatu omen zan, jaun oien iritzian: bai gurasoek, bai legegilleek, apaizek, buruzagiek ta abar, agindu-soiñekoz ematen zieten ondorengoei beren esperientzia ori. Eta azkenean zera sartu zaigu buruan: lege oiek adimenduaren argi xoillak erakutsitakoak direla. Orrela gutxi gorabera Janet jaunak, **La Morale** deritzaion bere liburuan.

Ziñez, penagarri da gauzak ola naspillaturik ikustea. Bestenaz, arima goitarrak dituzu, leialtasunaren adiskide eta bidegabekeria ororen etsai. Ori bai, erlijio gabeak, eta erakustera eman nai dute, gaiñera, Morala osatzeko eta bere zerean

finkatzeko, eztagoela erlijio-bearrik. Etxea zutik egotea nai dute, eta bitartean ari azpiak jaten ari zaizkio.

Jaun oien arrazoiketa, bere muiñera ekarrita, ontan sartzen da: Morala deitzen dugun ori, engañu bat besterik ezta izan, baiña zorionezko engañua, eta beraz, errespetagarria. Beste itzez: Eztago Moralik. Giza-oituren historia natural bat: emen eztago besterik. Txakurraren, zaldiaren eta gizonaren oiturak, denak mailla berdintsuan. Eta alderik baldin badago, bat bakarra aitatu diteke, eta berau gizonaren kaltetan. Txakurrak, alegia, eztu uste aoan daraman ezurra utzi bear duenik, iñork indarrez kentzen ezpadio beintzat; gizonak, berriz, bai, obligaturik dagoela uste baitu. Uste okerra, ordea, eta arrazoigabekoa, zeren konzientziak funtsik gabe erakusten dio ala. Lehenagokoek eta azierak sartu diguten gezurra baita. Egia bat, gertaera bat dugu emen, baiña ez eskubide bat. Esaten digute: ala da. Baiña eztigute ematen arrazoi bakar bat esateko: ala izan bear du. Obligazioaren arrastorik ezta iñondik iñora emen nabari.

Eta oiñarri oien gaiñean Moralaren etxea jaso nai duenak nola erakutsiko dio gero gizonari zer egin bear duen? Ala ere, jaun oiek saiatzen dira ortan, birtutearen bidea ta amodioa nai dute giza-biotzetan finkatu. Logika gabe, agi denez, erein duten azitik ezpaitator olako landarerik. Asieran esaten digute: Engañu bat izan da dena, ara zein izan den engañu orren bidea; eta gero azkenean, onela bukatzen dute: Eztu ajolarik, uste oker ortan irautea komeni zaigu, bide ortatik jarraitzeak mesede egiten digu. Eta zuek, Moral berri orren alde zaudetenok, gezurrari gogoz jarraitzen diozute, eta birtutearen bidetik eztabiltzanak gaitzesten dituzute. Logika bitxia benetan!

Baiña bildur naiz, munduak, logika obeagorekin jokatzen ez ote duen ikasiko. "A, adarra sartu ziguten? Ondo dago. Jakingo degu, bai, zer egin." Bildur naiz, ondore ori, zuek nai izan ezta ere, ez ote duten zuen ikasleek aterako...

Moralista auek pitzgarri edo akuillu eragille batzuk ere eskeintzen dizkigute. Esaten digute, adibidez, ba-dela alako sen bat, bizitza edatzeko eta zabaltzeko, eta egikunde goitarretara bultzatzen gaituena. Baita alako joera bat ere, irritsak eta griñak garbitu eta nobletu ditzagun. Eta arriskuaren zaletasun bat ere bai. Eta arrisku orrek bultzatzen omen gai-

tu gauza bat egitera, zailla eta gaitza denean, eta gaitza delako, ain zuzen ere. Zaletasun orrek eramaten omen gaitu birtutea egitera, abentura eder bat delako ta beste gabe. Orobat, zaletasun orrek bultzatzen omen gaitu eginbidea maitatzera, gure burua eskerbeltza jasaiteko zorian jartzeagatik: ori arima goitarrei oso gogoko omen zaie-ta...

Ederrak oso arrazoi auek. Nago, ederregiak ez ote diren. Gizonik geienek eztut uste pizgarri eragillerik or izango duten. Eta bakan batzuentzat ere izango ote dira aski epe luzean, batez ere une garratz eta larrietan? Ni bildur ezetz.

Bortitza izan gizonaren berekoikeria. Gogorra, jaidura goitar oiei egiten zaien gerla. Arriskuaren amodioak, ausardi-ukaldi batez buka diteken gertaera batean egin dezake zerbait; baiña bizitza osoa ortik zintzilika eukitzea, txorakeria galanta ta are burla ere egitea iruditzen zait. Sakrifizioak baditu, noski, bere alderdi ederrak, baiña berez, eta goragoko arrazoien laguntza gabe, tiratzen duela esatea, ori geiegitxo esatea dela dirudi.

Bere bizia ematera dijoan gizon bikain orri esaiozu ori eztela ezer, gertaera bat bakar-bakarrik; eta gertaera orri ematen diogun eder-itxura, irudipen bat baizik eztela, aurrekoetatik eldu zaigun pentsakera utsa. Bizi-senak eragiñik dijoala bizia ematera, eskola-umea, eskolatik irtetzean, sen batek eragiñik, saltoka asten den moduan. Erakutsi ori, bai, eta ikusiko dugu heroismua ugaltzen oten den baztarretan.

Ongiagan eta birtuteagan siñistu nai dugu oraindik, erlijioko siñiskaiak galdu ondoren ere. Azken itxaropen bezala, siñismen ortara iges egiten du gizadiak. Baiña zergatik siñistu bear dugun gauza oietan, ori eztaki gaurko gizonak. Egite gaiztoak, egin, len ere egiten ziran, baiña beztugarritzat artzen ziran; orain, berriz, jendea pixkanaka egite oiek parkakizun eta are txalogarritzat jotzera ere asia da. Seiñale utseziña da au, norantza ari geran jakiteko. Jainkoaren fedea il duzue, eta fede orrek utzitako utsunea eztuzue deusez bete. Norbera eserita dagoan zuaitz-adarra aizkorakin jo, eta buruz beera lurrera erori. Orixe gertatuko zaigu. Billa zazute benetazko euskarri bakarra Moralarentzat, bestela eztago salbaziorik.

III

Moral Positivu orren alde daudenak gauza bat nai izaten digute erakustera eman eta ondo frogatuta utzi, alegia: mendez mende eldu zaizkigun agindu moralak, arrazoiaren esanekin bat datoztela. Ortan jartzen dituzte alegin guztiak. Itz gutxitan, ontan biltzen da jaun oien esangoa: "Agindu auek, ondo begiratzen bada, norberaren etekiña eta guztion ona zaitu besterik eztute egiten." Beraz, gure aurrekoen lege moralak gorde bearrekoak dira.

Ongiaren lekuan etekiña, norberaren probetxua edo interesa sartzen digute. Ongiari ezpaitzaio, aen ustez, sustarrik aurkitzen; etekiña, berriz, bera da pizgarririk asko, gu eragiteko.

Norberaren etekiña oiñarritzat arturik, ara zer-nolako erakutsiak ematen dizkiguten jaun oiek: "Ez obeditu itsu itsuan zuen griñei, gertakizun txarretan sartuko baituzue zuen burua. Atsegiña, desiragarri zaigu, bai; baiña ondo neurtu ezik, atsegiña bere buruaren kaltetan biurtu oi da. Abereak on du aurrean ikusten duen gauzari eltzea; baiña gizonak urrunago bear du begia luzatu, eta ondoreak bear ditu ongi neurtu. Beraz, atsegiñen artean ere, goratuenak aukera itzazu, eta lagun urkoari onurakor zaizkionak. Atsegiñok, gaiñera, beti bere neurrian artu, geiegikeriatik bear eztena sortu ez dakizun. Moralaren erakutsiak, gizonari, al diteken zorionik geiena emateko asmatuak dira; gaitzak eta zoritxarrak bere bizitzatik uxatzeko."

Eta urrats bat aurrerantza emanik, esango dizute oraindik: "Zure buruaren kezka izatea, ezta aski. Zu parte bat, atal bat besterik etzera; batasun aundiago batean sarturik zaude. Elkarrekiko lokarriak ditugu. Denok nabaritzen dugu gu-baitan besteenganako onginaia; eta jokera au, izadiak berak emanik dakargu. Lagunartean bizi gera, gizartean, eta gizarteari egin dezaiokezun kaltea, zure buruari egiten diozu. Adibidez, gezurra esaten duzunean, zer egiten duzu? Azi txar bat aidean bota, eta egunen batean zeure burugaiñera eroriko zaizkitzu azi txar ortatik irtendako landare galgarriak. Norbera bizi den etxeari eztio iñork su ematen. Gizartea da gure etxe ori, eta Moralaren erakutsietatik kanpo biziaz, gure etxe ori ondatzen ari gera.

Bizi zaitez, bada, jakituriak alde ta aldi oro erakutsi duen neurri ura beteaz: Zuretzat nai etzendukena, eztezazula zuk besteri egin. Zaitu ta begiratu besteren eskubideak, zureak ere begiratuak izan ditezen. Maitatu, eta besteak ere maitatuko zaituzte. Eman, iñoiz artzerik nai baldin baduzu. Zure burua ukatu, oitura eder ori munduan zabal dedin. Labur, jarraitu birtuteari, eta orrela zeure izatearen esana egiten ari zera, eta era berean, zere buruaren alde lan egiten duzu."

Eta orra Moralaren etxea zearo jasoa: oiñarri, paretak eta teillatua, dena borobildua eta sendo finkatua. Ongia, **nere** ongia biurtu zaigu, ezpaita besterik.

Egia da —eta aitorbearra dugu— gauzak goi-goitik, gaillurretik begiratuaz, eginbidea eta etekiña bat datoztela, eta bat egiten dutela. Gizonak, ematean, bere burua aberastu egiten duela. Berekoikeri narrasari uko egiñaz, beste berekoikeri goragoko baten alde lan egiten dugula. Eta elkarrekiko lokarriak ezagutzen diren bezain laister, erokeritzat jotzen dela berekoikeria, eta mozkin-goseak berak ongira garamazkiala.

Guzti ori ala da. Jakin bearra dago alere, ortan bukatzen ote den dena, eta ortan ote datzan auzi onen muiña. Morala, zuurtzia soilla ote den: orra.

Eta ez. Oiñarri oiek berez eztira aski, Moralari bere sostengua emateko. Oiñarri auekin lanean ari diren Moralistek, gutxi gorabera kristau Moralaren erakutsi berberak ematen dizkigute. Baiña ori da, noski, ez sustrai oetatik landare ori datorrelako, baizikan kristau Morala bazterretan onarturik dagoelako, eta nai ta naiez, Moral orren antzeko zerbait antolatzera bearturik daudelako. Azitik bear eztena sortzera dijoanean, ba-dakite itzul-inguru batzuk egiten eta betegarri batzuekin estalduko dizute txuloa. Olako konponketak egiten mutillak dira eurak. Baiña egiara eltzeko, logikari bidegabe egin bear zaionean, seiñale da oiñarritzat jarritako sustarrak etzirela egokiak. Eta beti gelditzen da arrisku bat, gorago aipatu dugun arrisku ura: jendeak ez ote duen begiratuko sustar lasaietara, ondore latzetara baiño geiago. Eta orduan ba-dakigu norantza goazen: aurrera barik, atzera, barbaroen aroa berpiztera. Orra garbi esanda: Moral onek ortara darama gizadia.

Sustrai eta oiñarriak nolako, goiz edo berandu, fruituak

ere alako ateratzen dira. Eskola onen maisu zaarrak beren Morala, kristau Moralaren antzera borobildu bazuten, geroztik azaldu direnak eztute olako kezkarik izan. Landare eta fruitu, sustrai eta ondore, dena da erabateko eta dena dijoa kristau eredutik aldenduaz.

Denak dakigu zer-nolako gauzak ikusi izan diren gure mende ontan. Stalin-i galdetu omen zion Ipar-ameriketako periodista batek, Ukraniako nekazariekin egindako sarraski aiek egiak ote ziran. Eta besteak baietz erantzun. Eta periodistak berriro: Orrelako krimen itxusiak ea nola egin zitezken. Eta Stalin-ek erantzun: —Krimenak izango dira gauza oiek zuen Moralakin neurtuaz, burges-Moralarekin, alegia. Baiña gure Moralean oiek eztira krimenak, eta bai bertuteak...

Eta 1939-1945-ko gerla orokarrean, zer ilkintzak eztira egin odol otzean? Or daude, adibidez, Katyn-go illobiak. Eta gasganbarak... Juduekin eta Poloniarrekin egin direnak, basatiak eurak ere gorritzeko beste izan dira. Eta egitea ezta alere txarrena. Egin, len ere egin izan dira sarraskiak eta krimenik lotsagarrienak. Baiña ezta ori okerrena. Okerrena da gauza oek bidezkotzat jotzea. Irizpidearen okertzea: ori da gaiztoena. Eta ori da, ain zuzen ere, gure mendeko gaitza, eta barbaroak baiño beerago erortzeko zorian gaudelako seiñalea.

Norberaren interesa edo probetxua jarri ziguten Moralaren oiñarritzat, eta zer gero? Ondoreak bistan dira, Berekoikeriatik abnegazioa atera nai izatea, ezta lan makala. Errotan arrikoskorrak eio eta oietatik iriña aterako dela uste izatea bezala.

Nere etekiña bakarrik billatu bear badut, utzi zazute lan ori nere kontura: neuk baitakit nere probetxua ederkienik billatzen. Orretarako eztut aurzai-bearrik. Alegiñak egiten dituzute nere etekiña birtutean dagoela neri erakusten. Bapo; baiña zuen uste ortara ekartzen ezpanazute, ni libre gelditzen naiz, eta nai dudana egin nezake. Eztuzue bat ere eskubiderik nere egin batzuk gaitzesteko. Zer dela ta egozten didazute irain-zerrenda luze ori, birtutearen bidetik ez nabillelako? Eta zer da birtutea? Nik nere eskubideak nere modura ulertzen ditut. Bere eskubideak bere gisa ulertzen dituenari, zer esan dakioke?

Onenean onako au erantzungo luteke: Nere alabantzak eta nere gaitz-eristeak eztute esan nai auxe besterik: egike-

ra batzuen aldera sentitzen dudan onginaia eta beste batzuenganako daukadan iguiña. Ezta ori ola, ordea. Gauza ezberdiñak dira "au gustatzen zait" edo "etzait gustatzen"; eta "ongi dago" ala "gaizki dago" esatea. Bi iturritik eldu dira bi erantzun oiek: bata sentimendutik, bestea adimenduaren epai-lanetik. Nik gezurra esan, ostu, il ta abar egiñagatik, zuek, zuen Moral orrekin eztuzue eskubiderik neri ezer esateko: nere egiazko interesen gaiñean irizpide zuzenik eztudala: ori geienaz; ortik aurrera deus ez. Baiña nere egiteak gaitzetsi? Etekiñaren Moral ortan ezta ortarako lekurik.

Eta nor zerate zuek egiazko atsegiña ta etekiña nun dagoen neri esateko? Newton-i gogoko zitzaizkion Matematikak, pikaro jokalari batek atsegiñago izango du beste zerbait. Odolzurbillak eta odol-beroak eztute beren atsegiña gauza berberatan jartzen. Egite batzuk noizbait ondore txarra dakartela jakiñik ere, batzuen-batzuk egin gabe egotea baiño naiago izango dute gauza oiek egin. Aiurri batzuentzat, ain zuzen ere, zuek erakusten duzuen neurriztasun ori izan oi da gaitzik txarrena.

Onerako ditudan joerak asaldatu egiten direla, berauen kaltetan ari naizenean? Ba joera oiek ito egingo ditut, eta kito. Eta orregatik eztuzue neri aserre egiterik.

Zer dela-ta izan bear dute atsegin batzuk prestuak eta goitarrak? Emen eztago ez goiko ta ez barreneko. Zer metro edo neurri-klase duzue ori jakiteko? Nik ortik ateratzen dudan atsegiña edo asetasuna, ori da emen neurkin bakarra. Zer da obe: Pascal-en gisa beti miñetan egon, ala burugin zoriontsu ta patxadazkoa izan?

Gauzak etekiñaren aldetik begiratuaz, eztaukazute zer erantzun. Emen eztago ez aundi eta ez txiki. Neri geiena gustatzen zaidana: ori da gorena. Eta gutxien gustatzen zaidana: ori da beekoa.

Labur, Moralaren gorabera guztia etekiñean baldin badago, etekin ori bat bederak bere gisa entenitzen du, eta emen eztago geiago itzegin bearrik.

Eta alperrik aitatuko didazute gizartea, soziedadea. Gizartearen onura jartzen baitiguzute aurrean. Oiñarri makala ori ere. Erri baten ondamena baliteke gizartearentzat on izatea, edo ala iruditzea beintzat. Beraz, eman opioa bildurrik gabe indio txepel oiei, ogi pozoitua Australiakoei, mikrobio

txarrez josítako maindireak Afrikako beltzei. Gobernu batzuk mendez mende egin izan dituzten gaiztakeriak txalotu egin bearko lirake, aurrerapenaren gurdia azkarrago ibillarazteko baziren. Politikuen artean zeiñek asmatzen duen obeki, eta ori izango litzake zuzenena. Baiña bistan dago ori eztela ola: Moralaren aginduak eta gizartearen ona, bi gauza direla, alegia.

Egiazko Moralak zera eskatzen du: onak, ongiak, berez, izan dezala bere balioa, bere nortasun larria. Eta guk diogun da obe dela mundu osoa galtzera utzi, ari bidegabe egin baiño lehen.

Etekiña, interesa, ez norberarena ta ez gizadiarena, eztira aski Morala bere zerean finkatzeko. Alperrik da esatea ororentzat lan egiten denean, norberarentzat egiten dela. Bai, ala da, gauzei gandorretik begiratuaz. Baiña gure etsaiek eztute kontuan sartzen mundu ontako aldi au baizik, eta orduan gauza ezta ain garbi azaltzen. Eskatzen diozu gizonari neke bat segurua; eta neke orren truke eskeintzen zaion etekiña ez izan segurua; eta gaiñera, kidetasunik edo berdintasunik eztago eskatzen zaion nekearen eta eskeintzen zaion etekiñaren artean.

Gezurra esaten dudanean, egia da, bai, izurrite bat zabaltzen ari naizela, eta biar, onenean, nik zabaldutako gaitz orrek bere azpian artuko nauela. Baiña guzti ori, egia izanikan ere, ain da bada-ezpadako eta goi-usaiñekoa! Gezurraren abantailak, kasu jakin batean, ezin ukatuzkoak dira, gertu-gertuan eta eskumenean dauzkat; kalteak, berriz, oso urruti ikusten dira, eta ezta batere seguru jasan bearko ditudala. Beraz, ori baiño ezpadaukazu, ni bildur naiz gertakizun larri batean, nere etekiña tartean dabillenean, gezurra ez ote zaidan jaulkiko.

Ori eztela bidezkoa diozu? zuzen-kontrakoa dela? Bai, noski. Baiña ez esan etekin soillean datzala justiziaren gorabera guztia. Etekiñarekin eztuzu Moralaren etxea jasoko.

Nik zerga (kontribuzioa) ordaintzen dudanean, egia da, noski, nere alde ari naizela, nere faboretan, nik emandako dirua gero ororen onerako biurtzen baita. Baiño etekin edo probetxu ori, **enetzat**, zer da? Deus ez, edo utsaren urrengo.

Izan ere, nik emandako diruaz zer egin dezake Estaduak? Geien geienaz, bide zabaletan ondar-palakada batzuk geiago

bota arazi. Ni, berriz, zerga oiek ondatu egiten naute. Ondarpuska ori oso galesti ateratzen zait neri, botako ote dutenik ere eztakit seguru. Onenean, ni illez gero botako dute. Eta ori danori ain bada-ezpadako izaki, zer egin? Al denean, diru ori sakelean gorde. Nere arrazoibide oiek narrasak direla, goitasunik gabekoak? Baiña, norberaren etekiñean bukatzen baldin bada dena, emen eztago ez goiko ta ez beeko, leen esan dudan bezala. Alper-alperrik zabiltza, etekiñaren zorrotik eztuzu iñola ere abnegaziorik aterako.

Etekiña ere aipa diteke, noski; baiña justiziaren eta eginbidearen laguntza gabe, orrekin bakarrik gutxi egin al izango duzu. Norbaiti "sakrifizio au egin zak" esan bearrean bazera, eta onek erantzun baleza: "Zer dela ta egin bear dut nik ori?", itzik gabe geldituko zera, eztuzu izango zer erantzun. Etekiñaren arrazoi orrekin eztuzu eskuratuko. Izan ere, atso zaarren ipuia besterik ezta.

Esango didazu atala osoari zor zaiola, eta ori izadiaren beraren legea dela. Baiña **lege** itz orrek zer esanai du zure ezpaiñetan, gertaera soillak baizik ezpadituzu aintzat artzen? Izadiak ala egiten duela? Ori ezin ukatu. Alea, banakoa galtzeagatik bost inporta zaio ari, pilla salbatu ezkero. Arduratsua da gizadiarekin, gizakume bakoitzarekin, ordea, ajolakabea eta anker. Baiña zer dela-ta onartu bear dut nik jokabide ori? Patu beltz ori uxatu dezakedan guztietan, zergatik ez uxatu? Edota nere bizitzaren ispillu ta gidaritzat artu bear ote dut izadi itsuaren biotz-gabekeri ori?

Sen edo instintoaz gaiñera ez paldin badago besterik, zera esango dut: nik eztudala instinto ori, eta kito. Txoriak bere kumeak defenditzen ditu il arte; baiña izan oi da sen ori eztuenik ere; bere erroialdea irentsitzen duen txoririk ere bada. Ba ni onen antzera nauzu tajutua. Eta zer esan dezakezu? Instintu ori gabekoa naizela. Bai bata eta bai bestea, gertaera utsak dira, eta emen eztago besterik. Ez nago beste oiek bezala moldatua. Eztuzu nere kontra deus esatekorik.

Moralidade delako orren arrastorik geldituko bada gizartean, instintua, sena, griña, etekiña ta olakoen aurretik beste zerbait bearko da aitatu. Ongiaz, justiziaz ta eginbideaz bearko da mintzatu.

Eta zuek, filosofuok, zuen sistemak gorabera, beste denen modura ikusten duzue auzi au. Abnegazioa goratzen du-

zuenean, eztuzue egiten etekiñaren aldetik asmaketa on bat delako. Ortan gezurra diozute; zuen laudarioak eztira ortik eldu. Saririk ez ordaiñik ez izateak ematen dio sakrifizioari bere ederra, eta edertasun onek sorrarazten ditu zuen alabantzak.

Nai-ta-naiez, onean eta eginbidean siñesten dugu. Egiarekin ere alaxe gertatzen da; bai egia eta bai ona ezin uka ditezke. Alper-alperrik zabiltzate, asmatzen dituzuten itz guztien azpian aurkitzen baita on ori; eta ala, zuen ezezkoa, baiezkoa biurtzen zaizue. Edo ta nai al duzue zeron burua sala eta ager dezaizuedan? Zergatik edo nondik dator ideal bati buruz bearturik gaudela jakitea? Gizonak geralako, noski, eta gizonak geranez, adimendu bat dugulako, eta adimendu orrek lege bat sumatzen duelako. Bere ibillera guztien neurri izan diteken lege bat. Eta ori ala bada, ezagun da beste izakietan eztagoen zerbait ba-dugula guk. Ibaiak gainbeera dijoaz, izarrak oartzeke ari dira beren bidetik. Gizonak, berriz, ba-du konzientziaren esana bere pausoak zuzentzeko.

Ba-dira enegan bi joera-mota, baiña nik aurki sumatzen dut bata garaiagoa dela bestea baiño. Bereala konturatzen naiz gauza guztien gaiñetik zera naizela, alegia: adimendu, naimen, konzientzia, nere buruaren jabe. Eta nabaritzen dut adimenduak beartzen nauela ideal orren araura bizitzera. Ba-dut gorputz bat ere, bear dut zaindu, baiña arimaren morroi eta ez jaun izateko egiña izan dena.

Arima bera ere, zu mundura etortzean, landu ta azi bearrean aurkitzen da; zerorrek osatu bear duzu, eta ori zure egitekoa da. Ba-duzu ortarako tresna: zure buruaren jabetasuna. Baita eredua ere: zure adimenduak ematen dizun gizonaren ideal edo ispillu ori. Eskultore baten pare zera, gizona bear duzu landu eta moldatu, eta zerori zera gizon ori.

Gaiñera, ni ez naiz bakarrik. Mordo baten barrenean aurkitzen naiz kokatua, mordo baten alea banitza bezala. Orra gizartea, giza-erlauntza ori: izadiaren beraren lanegiña duzu au ere: izadiak jarri du enegan gizarterako griña edo joera, ar-emanetarako eta alkartasunerako joera. Nere eskasia ta auleria ere gizarteari deika ari zaizkio. Beraz, gizona ezta bere buru soilki: familia, iria, sorterria, gizadia: guzti ori da gizona. Beraz, gizarte-eginbideak ere saillean datoz. Nere senide, adiskide, aberri, giza-familia osoaren interesak, nere-nereak

bezala artu bear ditut. Besteen pozarekin poz artu, iñoren miñarekin atsekabetu, nere alegin xumearen ariora lanbide orotan parte artu. Guzti au egitea bere baitako egokitasunak eta ordenak eskatzen duen gauza dela ikusten dut.

Eta nere zoriona ere ortan datzala sumatzen dut, gaiñera. Izan ere, zoriona, bere muiñean, zer da? Bizia, izadiaren araura zabalduaz goazelako konzientzia arrai eta pozkor ori gugan sumatzea. Ongiaren lore eta ume den beste zorionik ez nuke nai. Eta orra or egia, birtutea eta zoriona, dena batean.

Eta pentsakera au ezta nerea. Platon, Aristoteles, Leibnitz, Spinoza, Kant... denak orrelatsu; basatiak berak ere bai. Giza-biotzaren pentsakera duzu. Bai burua ta bai biotza ere asetzen duen pentsakera. Bai gizakume bakoitza ta bai gizartea ere aintzat artzen duena. Gizonari bere leku egokia ta bere legea jakiñarazten dizkiona.

Baiña guzti orrek erpin bat, gaillur bat edo bukaera bat bear du, alere. Jainkoa gabe guzti ori utsera baitator. Eta ain zuzen, orixe frogatuko dugulakoan gaude.

IV

Ongiaren ideia, gizon guztiok barren-barrenean tinkatua daukagun oietakoa da. Ukatzailleak berak ere, eguneroko jardunean, etengabe ari dira ideia ori sendotzen eta aitortzen.

Tokiz aldatzea edo ibiltzea, eziñezkotzat jotzen dutenak, eztira orregatik ibilli gabe gelditzen. "Eztago egiarik" diona ere, ezta orregatik baietz eta ezetz esan gabe egongo, eta orrekin egiagan siñesten duela aitortzen du. Emen ere berdin gertatzen zaigu: ongia ukatzen dutenak, agerriz eta itxuraz dira ukatzailleak, baiña ezkutuan eta muiñean ongiagan siñesten dute. Gizona, eta ez onek asmatutako sistema, mintzo denean, egiak laister-asko erakusten du bere belarria. Orra gure gizontxoa etengabe onesten eta gaitzesten, alabatzen eta kondenatzen. Eta iritzi eta epai oietako neurria zein da betiere? Ongiaren ideia, ezpaitago besterik.

Eta biziaren aitorrera onen aitzinean, zer dezakete sistema guztiek? Deus ere ez. Gizakume guztiek aitortzen dute ongia, ukatzailleek berek ere bai.

Zer da, bada, ongia? Gure adimenduak giza-egintzetan

begiztatzen duen egokitasun bat, ordena bat. Gizonaren izakerak eta gizonari dagokion tokiak eskatzen duanetik ateratako neurri bat. Morala, berriz, zer da? Gizatasunari zor zaion begiramena gordetzeko bete bear den agindu-mordoa.

Eta ori da, ain zuzen ere, guztiok usandu eta sumatu oi duguna, bai gizon arruntak eta bai mailla altuagoan bizi denak ere. Auziaren muin-muiñean gaude. Eta ala begiratuaz, Morala ezta sistema bat: giza-biotza kanpora adirazia besterik ezta, gu guztion pentsakera, agertua eta argitua: orixe da, ez geiago ta ez gutxiago. Eta etsaien eraso guztiek ezin izango dute ikuste-molde ori ezeztatu. Aitzitik, aren alde lanean ari dira. Eskolan ta irakasguan bai etsai, baiñan andik irtendakoan, aren lagun. Zeiñek esan zuan gramatika plazan, ta ez eskolan, ikasten zela? Moralari gagozkiola beintzat, ori egia utsa baizik ezta.

Eta Moral orokar onek, guztion Moral onek, zutik iraun al lezake Jainkoagana jo gabe?

Ona emen koxka. Oneraiño asko ta asko ditugu gurekin. Ongiagan siñesten duten guztiak, alegia. Baiñan emen uzten gaituzte. Eztute arutzago joan nai. Nere adimenduari ordena bat azaldu zaio, naimenak ontzat artu du ordena ori, eta bizitza pratikoa adimenduaren eta naimenaren agintepean jarri da: orra dena bukatua. Gizonak bere buruari ematen dio legea: zer egin bear duen ikusi du eta orixe egin dezala agintzen dio norberak norberari. Gutaz kanpo eztago beste legegillerik. Eztago beste deusen bearrik, gure gaiñetik ezta iñor bear. Orra gizona trikua bezala kiribildua. Etzaitez urbildu, arantzokin min eztagizun... Esan bearrik eztago: Kant-en "imperativo categórico" delako ori dugu begien bistan.

Kant-ek onela dio: Zer da legea? Naimenak edo borondateak bere buruari ematen dion agindua. Ongia, berriz, zera da: gizonaren ziurtasunetatik lehenbizikoa. Baiña ziurtasun ori ezta arrazoiketaren fruitua. Bai zera, arrazoibide guztien buruan eta jatorrian aurkitzen da. Asiera da, eta ez muga. Eta emen eztago geiago galdetzerik. Billakuntza eta igoera berriak egiteko bear litzaken zurubia kentzen dizute eskutik, eta kito.

Kant-ek, ordea —eta au esan bearrekoa dugu aren alde— etzuen uste bere teoria orrekin Jainkoa ukatzen zuenik. Beste bide batetik, baiña irixten zan Kant Jainkoaganaiño.

Ala ere, aren arrazoibidea ezta bidezkoa, eta aren utsek beste uts aundiago bat sortu izan dute. Kant-ek Moralaren oiñarrietatik Jainkoa kendu, eta gero Jainko ori gaillurrean jartzen zuen; baiño aren diszipluetatik askok eztiote ortan jarraitu. Lehenbiziko ukatuan bai, eta gaiñerakoan ez: eta orrela oien sistemak gaillurrik gabe azaltzen zaizkigu, burua mozturik, gizakume gajoa bakarti eta umezurtz uzten digutelarik.

Kant-en lege morala, zutikako gabe, aidean zintzilika, ori da txorakeriarik aundiena. Borondateak bere buruari lege bat jartzen baldin badio, ez ote zaio zillegi izango ori zergatik den galdetzea? gauza orren arrazoiak edo sustarrak jakin nai izatea, alegia? Adimendun izakiak baldin bagera, izan gaitezen aintzat artuak, bederen. Iñondik eztatorren ordena bat, jatorri gabeko agindu bat, nondik-norakorik eztuen lege bat, zer da ori? Alabear itsu ori, zer dela ta onartu bear dut nik? Ez al dut eskubide, orrelako patu beltza nigandik urruntzeko? Gizonagan buruak bear al du izan gaiñerakoen gidari, ala gorputzeko beste parteek bear al dute buruaren agintari izan? Kant-en filosofian azkenengo hipotesi au ateratzen da gaillen. Konzientzia itsua da gidari; adimendua, jarraitzaille soilla besterik ez.

Kant, ori erakutsi bearrean aurkitzen da, bere metafisikak ortaratzen duelako. Baiña Kant-en metafisika onartzera ez gaude beartuak. Eta nik esango nuke Kant-ek berak ere eztuela onartzen, sistemaren eremutik bizitzaren zabalera ateratzen denean.

Egin ditezken filosofi-sistema guztiak adimenduaren bitartez egiten dira, eta ala egin bear, nai ta ez. Eta sistema egin ondoren, adimenduak balio eztuelako leloaz etorri, zer da ori? Adimendua gauza eztela erakutsi nai, eta orixe bera erakusteko adimenduaren premia izan. Gaur eguneon txorakeria ori ere ba-dugu, moda biurtu da-ta. Ederki esan du baten-batek: arrazoiak balio eztuela frogatzeko, arrazoiez beterikako liburua ematen digute... Bide polita, alajaiña: arrazoiaren balio-eza arrazoiekin frogatu! Nola nai duzue itzak gezurti ez gelditzea? Bizitzaren eta pratikaren aurrean, itzak zer indar izan dezake?

Alper-alperrik izango dira Kant-en alegin guztiak. Gizonaren izpiritua etengabe ari da oiuka: "Eta ori zergatik?" Lege

bat jartzen zaidanean, ea ori zergatik den, edo nolako eskubideaz den, galdetzen dut; eta eskubide gabekoa agiri bazait, "Nere buruaren jabe nauk", erantzuten dut. Nere adimendua eztela fiatzekoa, lege itsu batzuen araura tajutua dagoelako eta lege oien araura lan egiten duelako? Eta konzientziaren legeak, zergatik dira siñisgarriago? Oiezaz ere beste ainbeste esan ziteken. Kanpoaldeko izakietara betaurreko gezurti batzuen bidez eldu oi naizela? Ba, apika, ongia ere aurre-iritzi zozo batzuen indarrez atzemaiten dut.

Gizona lege-emale eta denpora berean lege orren morroi. Ongiak agintzen du gugan, baiña ori da gerok itsu-itsuan, nai ta naiez ta ezin bestez ongia maite bear dugulako...

Parkatu, irakurle, orrelako naasi-maasietan nere damuz sartzen banaiz. Baiño Kant-en asmaketak gogoratu bearrekoak ziran.

Moral batek, nere adimenduaren gosea asetuko badu, bi baldinkizun auek bear ditu bete. Aurrena, eta gauza guztien gaiñetik, bere xedea bear du: gizatasuna babestu dezala, gizonari dagozkion baliozko guztiak zaindu ta begira ditzala. Baiño ori ezta aski. Ispillutzat edo eredutzat jartzen didazun ideal orrek ba al du trinkotasunik edo oiñarri sendorik? Neri beintzat makiña bat neke ta bialeku eskatzen dit, eta nere izerdiak eman aurretik, ideal orren agiriak, frogantzak jakitea nai.

Nik nigan landu bear dudan gizakume ideal ori, zer da beraz? Nere izpirituaren asmakizun uts bat? Ni zer-nolako izan nindeken gogoratuaz egiten dudan ametsezko irudipen bat? Eta asmatu dudan zer ori, giza-irudi ori, tajutu ta moldatu bear omen dut. Baiña nik galdetzen dut: Zergatik? Eta erantzunik ez baldin badago, irudi ori or geldituko da. Nere irudimenak egindako amets baten pare izanen da; eztu amets batek baiño indar geiago izanen, ni beartzeko. Aidean asmatutako gaztelu bat, orra.

Amets bat eztut obligaziozko gauza bezala artzen, neronen asmakizuna baita. Eta nere gogamenak egin duen irudi ori, berdin; ez nau ezertara beartzen.

Agian auxe erantzungo didate: amets bat, asmakizun utsa da, baiña giza-irudia edo gizonaren ideal ori ezta gisa ortakoa. Orrek ba-du bere egia, gauzen egokitasun jatorra adiraz-

ten baitu, eta adirazi ere izadiak berak egokitasun ori nai izan duan eran.

A, ori besterik da. **Egia** diozu, **Izadia** diozu, gauzen **bere baitako ordena** diozu. Ori beste kontu bat da.

Ba-da Voltaire-ren iztegi filosofikoan toki bat. Izadia onela mintzo zaio filosofuari: "A, ene seme gaxoa! Izen bat jarri didazute eta izen ori eztagokit ondo. Izadia, Naturaleza deitzen nazute, eta ni, naizen guztia, **artea, lanegiña** besterik ez naiz." Eta filosofuak onela erantzuten dio: "Egia diozu. Zenbat eta geiago pentsatzen dudan, ainbat eta argiago ikusten dut lanegin bat besterik etzerala zu: izaki altsu eta esku aundiko baten lana. Egillea, ordea, gorde egiten zaigu edo urrundik erdi-ikusteko eran jarri"...

Orra or, argi ta garbi esanda, zer den "gauzen ordena edo egokitasun" delako ori...

Orain, bada: Jainkorik ezpalego, ezlegoke orrelakorik: ez gauzen ordenarik, ez egokitasunik, ezta izadirik, eta ez egiarik ere. Beraz, Moralik ere ez, Morala ezpaita auxe besterik: oituren eta egintzen egia, gauzen ordena ortan finkatua. Eta egia zer da? Mundua sortu zuen adimenaren asmakizun bat. Bai, Bera izan da mundu au "amestu" duena. Eta beragandik eldu dira mundu au betetzen duten izaki eta izaera oro, eta oien arteko lokarri eta artu-emanak, eta ar-eman oiek gobernatzeko legeak ere Berak jarritakoak dira. Moralak begitan jartzen digun giza-ideal orrek, bada, Arengan du bere sustraia eta jatorria.

Ez billatu beste iñun ongiaren sorterria. Ongiarekin batean dator, gaiñera, eginbidea edo obligazioa: oni ere alperrik ibilliko zera beste aztarnarik billatzen. Bi gauza oiek, ongia eta eginbidea, elkarri eusten diote, bata bestearen abea ta euskarria delarik.

Nik nere buruari legea ta obligazioa ematen diodala esatea, deus ez esatea bezala da. Segituan galde baitezaket: ba ote dut nere burua obligatzeko obligaziorik? Ezetz esaten badidazu, argi dago: eztago obligaziorik. Eta baietz erantzun ezkero, ori nondik edo zergatik den orrela, esan bearko didazu. Eta galdera oni erantzuterik eztago, Jainkoa baztertu ezkero.

Jainkoa alde bat utzirik, irutatik bat gerta ziteken: 1 Moralak adirazten digun ideal ori, nere gogo soillaren asmaketa

utsa izatea, eta orduan ezluke indarrik neretzat, bera baitlitzake nere menpeko, eta ez ni berarena; 2 itsu-itsuan, berez eta oarkabean mamitu den ordena baten oiartzuna izatea; baiña orduan, orrelako ordena itsu bat nola ezten ez nor ta ez ezer, eztut nik ikusten ni naizen au zergatik galdu bear den deus ere ezten orren atzaparretan; 3 edo azkenik, ideal ori, gauzen ordena baitezpadako bat izan ziteken, ots, gertaera utsa eta soilla den zerbait, baiña kausa batekin loturik eztagoena. Ala balitz, gertatu uts ortatik, ezetz atera, ez zuk ta ez iñork, eskubide bat? Onako au esan zenezake: "Orra or zer den". Eta nik erantzungo dizut: "Izan dedilla, nai badu". Ordena ori gogoko bazait, agian egokituko natzaio, baiña eskubidezko Moralik ezin diteke iñola ere ortik atera.

Bide ortatik zabiltzan artean, zaude lasai: obligazioari ezin izango diozu oiñarririk jarri. Nik nere burua edo presuna sakrifikatu bear diodala... zeri? gertaera gordin, uts, arimagabeko den zerbaiti? Tira, tira...

Bearrik, gauzak eztira ala. Nik or barrenean sumatzen dut obligaturik nagoela ongiari buruz. Eta obligazio ori ukatzen dutenak, berak oartu gabe, noiznai ta nunai ari dira beren ukatua baieztutzen. Eta obligazioaren sentipen ori esplikatzeko, Jainkoagana jotzea bear-bearreko zaigu.

Orduan bai, orduan dena dago argi.

Izan ere, ordena orrek ni beartzeko aiña indar izan dezan, zer bear da? Auxe, ez besterik: nere ezetza galerazteko ainbat itzal izan dezala. Eta ori da gertatzen dena. Jainkoak asmatu zituen izakiak. Berberak nai izan zituen. Berak erabaki izan du bakoitzaren izaera eta legea. Aren Naimenak eman dio lege orri agintzeko indarra, eta beste naimen guztiak Naimen orren naierara egon bear dute.

Eta ni, naimen txiki oietako bat naiz. Izadiko beste sorkari guztien antzera gertatzen zait neri ere; aiek eta ni, denek egiten dugu gauza bera: Jainkoaren gogamena zertu, egi biurtu. Baiño alde aundi bat dago, alere. Gizonaren azpian dauden izakiek lege ori betetzen dute berek eztakitelarik, eta bear orri ezin diote iges egin. Gizonak, berriz, bai. Gizonak ere ba-du legea; eta ba-du argia, ezaguera, lege ori ezagutzeko, eta ba-du bere buruaren jabetasuna, lege orren araura bere pausoak zuzendu ditzan, nai badu; eta lege ori austeko ere ba-du eskua. Ez luke, noski, orrelakorik egin bear, mun-

dua sortu duenaren legea austea baita, baiña ba-du ortarako gaitasuna.

Orain ba-dakit ba-dela lege bat, eta lege orrek ba-duela indar eta eskubide ene gain. Sortzaillearen gogoa salatzen didan legeari nik obeditu bear baitiot: ori bistan da.

Eta orduan Moralak ba-du bere balioa. Gizartea, Jainkoaren gogo bat bezala azaltzen zait. Nik, berriz, ba-dut zer-ikusi gogo orrekin. Lagun urkoaren amodioa, norbere buruaren emaitza, iñorengatik artutako nekeak, iraiñen eta laidoen parkatzea: argi berritan azaltzen zaigu dena. Eta Jainkoaren erri ontan ba-dut nik nere lekua, nere lantokia.

Lan egiterakoan, berriz, nere buruaren alde ari naiz, denaren gaillurrean nere zoriona aurkitzen baita, Jainkoak ala nairik. Zoriona, ordenaren lorea besterik ezpaita. Eta ala ere ez naiz egoista bat. Jainkoak zer nai duen, orixe bera nai dut nik.

Iru aldiz jainkozko: orra zer naizen. Jainkozko, nere zer onek Jainkoagan duelako bere jatorria. Jainkozko, nere gogamena, Jainkoaren gogamenaren araura tajutua izan delako. Jainkozko, nere egintzetan Jainkoaren borondatea betetzen dudalako. Eta azkenik, legearen barrutian bizi naiz. Ni ez naiz nere: ni baitan kiribildua egoteko, eztut eskubiderik.

Joandako mendean seriotasun aundiz mintzo ziran gizonaren autonomiaz. "I, gizon, errege aiz. I baiño gorago, ezta iñor. Ik agintzen duk ire gain. Ik ematen diok legea ire buruari. Gizonak eztu beste legegillerik aitortu bear."

Urteen joanaz, mintzatze-molde oiek parregarri biurtu zaizkigu. Eta atzetik etorri diren gertaerek ederki xamar erakutsi digute zer-nolako erregetza duen errege gaiso onek.

Jainkoagandik ilki den gauzak eztu eskubiderik jainkozko ez izateko. Pentsakera au goitarra duzu, argia, eta adimendua asetzeko modukoa. Beste Moral oiek, beren itzul-inguru, meargune ta okerrune guztiekin eztiren bezala.

Eta jendearen gain, zeiñek duen eragin-indar geiago erabaki bear bagenu, ezta mintzatu bearrik. Jainkoaren fedea beeraka dijoan neurrian, Morala ere berebat amilka dijoakigu. Estuasunetan, une larri ta gogorretan, tentazio bortitzak direnean, denek dakigu: beste arrazoi oiek eztute fitsik balio. Jainkogabeko Moral oien asmatzailleek, zintzotasun-aldietan, aitortzen digute ori. Ara zer dion batek: "Bildur izateko da,

Jainkoaren fedea giza-biotzetan itzaliaz, ez ote zaion gizadiari kentzen bere buruaren gain altxatzeko bear duen ego-pare aundi ori" (Taine). Eta Renan jaunak zion, siñiskerak alde bat utzirik, etzela iñundik nabari gizadiari Moral-katixima egoki bat emateko biderik. Eta Scherer galdezka ari zaigu ea barbarokeriaruntz ez ote goazen... Eta ikusiak ikusi ondoren, jaun laiko oien bildurrak etzirela txorakeriak aitortu bear.

* * *

Ongiaren ideiak Jainkoagan du bere sustraia. Ori da kapitulu ontan ikusi duguna. Urrengoan ikusi bear dugu Jainkoagan duela, berebat, bere elburu ta azken-muga ere.

VI Kapitulua
Birtutearen saria

LABURPENA

I. Birtuteak sari bat bear duela izan, orra giza-sentipen bat. Metenpsikosis, epikureoak, estoikoak eta ainbeste ustekizun zahar eta berrik sentipen ontan dute sustraia.

II. Munduko ordenak neri eginbide batzuk eskatzen badizkit, berak ere, oien truke, sariren bat eman bearko dit. Bestela, nere nekeak betiko gelditzen badira aaztuak, zertarako nekatu? Maiz entzun oi den objezioa: birtuteak eztio sariari begiratu bear. Esaera au dela-ta, sortzen diren okeraditu ta naaspillak.

III. Izadiak, gizarteak, konzientziak ba omen dituzte beren sariak, eta oietan luke birtuteak bere ordain egokia. Uste onen utsa. Jainkorik eta beste bizitzarik ezpadago, birtutearentzat eztago saririk.

Izaditik asi eta Jainkoagana garamazkiten arrazoibide guztiak ezeztatu naiean ibilli zan Kant. Ongiaren ideia onen aurrean, berriz, etzen ausartu. Eginbidearen sentimendu bortitza gu baitan ain sakonki dago errotua! Ezeztatu ezezik, berau artzen du Kant-ek zernaitarako ta noranaiko asiera ta oiñarria bezala. Sentimendu onezaz baliatzen da dena demostratzeko, bai giza-askatasuna eta bai Jainkoa bera ere. Obligazioaren ideiak, ordea, ba-du bere aldamenean beste bat, bere kideko edo bizkia bezala: ordain edo sariaren ideia, alegia.

Orra ba gure galdekizuna: ba ote da saririk edo ordaiñik gizonaren ongi ta gaizki egiñentzat? Izadiaren eta giza-bizitzaren atzera-aurrera soillak eman al lezake ordain ori? Eta ezezkoan, nora jo sari orren billa?

I

Or barrenean daramagu kokatua eginbidearen sentimendua, eta orrekin batean baita gure eskubideena ere. Bidegabekeriak asaldatu egiten gaitu: "Ondo irabazia zeukan!" esaten dugu bat-batean, errudun batek bere gaiztakerien ordaiña jaso duela entzutean. Bearbada, zigorra gogortxoa baldin bada eta gu biotz-bigunak, gizonaz errukitu egingo gera, baiña pekatariari berea eman zaiola esango dugu. Eta errurik etzuen norbait ikusten badugu zoritxarrak artua, orduan ere asaldatu egiten zaigu biotza eta goialderantz jasoten ditugu begiak. "Zer da au?", esaten dugu. Izadiak ongi egitera bultza egin guri, eta gero, zer? Gaizkia agiri zaigu gaillen, edo beintzat ajolagabekeria... "Izan adi zintzoa eta zoriontsu izango aiz": ulu au edo olako zerbait egiten digu konzientziak, baiña or nunbaiteko oiartzunak irriz erantzuten du: "Izan adi zintzo bai, eta betiere ikusiko bearko duk ire burua engaiñatua." Bibliak berak ez al dio: Zintzo diren batzuei gaizkiñen pagua ematen zaie, eta gaizkin batzuei, aldiz, zintzoen saria... Baita onako au ere, Biblian aurkitzen dugu: Orra lurra, gaizkiñaren eskuetan... Gure konzientziak ezin du olakorik jasan, mingarri zaio, ezin du ori ontzat eman.

Konzientziak, bada, eskubidea ta eginbidea jartzen dizkigu gauzarik baliotsuenak ta estimagarrienak bezala, eta gero, eguneroko gertaera arruntak ari zaizkitzu gure ioran

oiek etengabe zapaltzen. Ta ortik eldu da erosta amaigabeko ori, mundua bezin zaarra den negarrezko ulua.

Ta gorputzari itzalak bezalaxe, ongiaren ideiari jarraitzen dio betiere sariarenak, ordaiñarenak. Ezin ditezke bata besteagandik aldendu. Ongiagan siñistu izan duten guzti guztiek, sariagan ere siñistu izan dute.

Erririk geienak geroko bizitzan, eriotzaz bestaldeko munduan kokatu izan dute sari ori. Baiña geroko bizitzaren berri garbi ta zeatzik izan eztutenak ere, beti siñistu izan dute sari oiek ba-direla nunbait. Eta ain zuzen ere, erri auen aztamuka ibiltzeak eta sariok billatzearren egin izan dituzten saiaketak, ukigarriago dira guretzat.

Metenpsikosis deitzen den ustekizun orrek, eztu beste errorik. Sortzetik elbarritua edo gaitz txar batek joa etortzea, nola konpreni, bestela? Artean gaiztakeriarik egin gabea, eta dagoeneko zigorra buru-gaiñean? Eta erantzuna: ori, da, noski, emen jaio baiño leenago, beste bizitza batean egin diraden okerren ordaiñetan...

Testamentu Zaarreko juduen artean, geroko bizitzaren siñiskera ezta oso garbi nabari. Eta ain zuzen ere, orrexegatik beren alegiñak egiten zituzten ongiak lur ontan bere saria bear duela izan erakusten. Alperrik, noski, eguneroko gertaerek siñiste orren gezurra salatzen baitigute, baiña ala ere ezin zuten etsi. Argiaren kontra ere beren uste oni lotzen ziran. Job-en adiskideek eztakite auxe besterik esaten, alegia: munduan justizia dela nagusi, egundaiño eztela ikusi gizon zintzo bat galdua ta zorigaiztoan eroria. Birtuteari jarraitzen diona, zoriontsu izan oi dela, pake gozoan bizi dela bere etxean, artalde ugarien jabe, seme-alaba, illoba ta billobak erreskada luzean ikusi gabe eztela iltzen, ta abar. Nun ote zituzten begiak jaun oiek, olakoak esateko? Baiña ezta gaitz erantzuten: itxirik zeuzkaten, justiziaren goseak ikustea galerazten zien.

Gure egunetan, berriz, gizarteko justizia beiñola baiño elduxeagoa biurtu delako eta bai beste zenbait aurrerapen etorri direlako-edo, gure kidekoen artean berriz ere zabaldu da amets berbera: mundu onek, alegia, berak ematen duela aski saririk eta ordaiñik. Gizarteko izen ona ta itzala, konzientzia onaren poza ta aitorrera, eta or, gauzen barrenean ta kolkoan datzan bere baitako justizia edo zuzentasuna delako ori, ta abar: oiek izango lirake, askoren iritziz, sari egokiak eta

naikoak. Nolanai ere, gizona beti sari-billa. Eztauden lekuan ere, sariak ikusi nai. Eta beti sari-billa ibiltze orrek ez al digu adierazten, erarik ederrenean, giza-sentipen onen erro luzesakona?

Antziñateko filosofuen artean ere gauza bera ikusten dugu. Oien artean bi eskola aundi dira gogoangarri: epikureoak eta estoikoak. Geroko bizitzaz eztute irakaste garbirik, baiña biak aitortzen dute gizonaren ona bi gauza auek osatzen dutela: birtuteak eta zorionak. Baiña bi gauza auek nola alkartu ta batu? Or dago istillua. Ba-dirudi birtuteak zoriona ekarri bear lukela bere frutu bezala, baiña bizitzako goraberek eta gertakizunek uxatu egiten dute gure itxaropen ori. Eta maizenik, bi gauza auek, bakoitza bere aldetik ibilli oi dira: birtutea alde batetik, zoriona bestetik. Guk amets dugun anaitasun ori ezta iñundik agiri. Zer pasatzen da ba? Zergatik ori? Biotzak, bai onari ta bai gaitzari, ordain bat eskatzen, eta munduak ordain ori biurtzen ez.

Epikureoak ara zer bitxikeria asmatu zuten, korapillo au askatzeko: birtutea eta zoriona eztira bi gauza diferenteak; gauza bera dira bi-biak. Izan zaitez zoriontsu, bai, eta denpora berean ona ere izango zera: billa zazu ongia, laga zazu gaizkia. Eta ongia esaterakoan, zera, atsegiña esan nai dute; eta gaizkia esatean, atsekabea dute gogoan. Beraz, zoriona eta birtutea gauza bera dira.

Estoikoek, berriz, itxulitara, gaiñekoz azpi: birtutearen muiña eztatza zorionean, eta bai kontrara, zorionaren gorabera guztia birtutean bear da jarri. Zure eginbideari lotu zakizkio eta or duzu zure zoriona, gizonari dagokion atsegin bakarra. Ikusten denez, eskola biak gauza bera egiten dute: zoriona ta birtutea naastu eta era ortara nai lukete auzi au garbitu.

Auen atzetik etorri zirenak gezurrezkotzat jotzen dituzte bi eskola oien iritziak. Izan ere, zoriona eta birtutea, ezberdiñak direla ezin uka. Eta berriro asten dira saria nondik billatuko. Batzuetan eriotzaz bestaldeko bizitzan jartzen dute gogoa, zerurantz begiak altxatuz eta an dagokenaz osoko erantzupen bat ematera ausartu gabe. Duda beltzeko egunetan, berriz, bizitza ontan ordain egokirik ikusten ez ta, etsipenean erortzen dira.

Nolanai ere, morala eta zoriontsu izateko artea eztira bat.

Nekea eta sakrifizioa obligaziozkoak baldin badira gizonarentzat, orduan mundu berri ta zabala ageri da. Jouffroy-ren itz gogoangarriak datoz emen arira: "dena argitzen da, baldin beste bizitza bat badago. Eta bizitza au baizik ezpadago, dena da tajugabeko, dena illun eta ulertu-eziña. Ba-dago, beraz, beste bizitza bat. Beste bizitzako siñiskera ezin diteke amets zoro bat izan".

Ziñez, gizadiak bere baitan daraman sentipen larri au ezin diteke arinki arbuiatu, aurkeria bat balitz bezala. Eta filosofiak ere ezin dezake zokoratu, beste gabe, aztertu ta kontuan artu gabe. Alabearrez, kristianismuak gizonari egin dion mesederik aundienetakoa, auxe izan da, alegia: senaren edo susmoaren maillatik irten ezin da, igarian zebillen egia bat, adimenaren erresumara eldu nai ta ezin iritxiz zebillen egia, bere pentsalarien lanari eskerrak, giza-egia soilla ta betea biurtu du, bai biotza eta bai adimena ere asetuaz, gizon oso-osoari erantzupen egokia emanaz.

II

Gure eskubideek ba-dute zer ikusi gure eginbideekin. Ordena baten azpian bizi gera, ordena orrek eskatzen dizkigun nekeak eta sakrifizioak egitera beartuak gaude; baiña era berean ba-dirudi bera ere ba-dagoela ordaiñez zerbait gure alde egitera beartua. Ori da beintzat or barruan sumatzen duguna. Bidezkoa ote da gure sentipen ori? Erakutsi al diteke baietz, eta gure eskubideak betiko gelditzen badira ezeztatuak eta ukatuak, orduan berdin-berdin gure eginbideek ere balio ta indar guztia galtzen dutela?

Bai, noski. Ni obligazio batzuk betetzera beartua banago, ori izango da ordena bat dagoelako, eta ordena orri serbitu bear badiot, ori izango da ordena au ona ta zuzena delako, eta nere izerdi-nekeak eskatzeko eskubidea duelako. Ordena ori ona ez izatekotan, etzaiola lagundu bear bistan dago.

Munduko ordena ez baldin badago ongiaren alde, ongia egitera beartzen nauen lege orrek nondik nora izan dezake indarik neretzat? Gauzak orrela balira, ezbairik gabe, etekiñaren moralak luke arrazoi osoa. Izadia eztela ezertaz ere arduratzen? Orduan norbera ardura bedi norbere buruaz: emen ezpaitago besterik.

Sariaren ideia eta lege moralarena elkartuak daude, bada. Elkarrekin uztartuak eta lotuak. Bataren ondamenak bestearena dakar. Ez gaude munduko ordena gordetzera beartuak, baldin ordena orrek ezpadu uste guri ezertan ordaindu bear digunik.

Beintzat moralari azken koroa ta gaillurra emateko, ezin utzizkoa da sariaren edo ordaiñaren ideia.

Ba-dakit zer moduzko objezioa altxa dakidaken. Maiz entzun oi den gauza da, gaiñera. Orra: zenbat eta gutxiago pentsatzen den sarian, ainbat eta garbiagoa izan oi dela birtutea. Beraz, birtuteak eztu sari-bearrik. Ongia bear da egin ez sariagatik, baizik berez maitagarri delako. Kristau dotriñan ere ez al zaigu irakasten Jainkoa **berez,** eta ez sariagatik, bear dela maitatu? **Zerana zeralako,** alegia?

Baiña emen oker-aditu eta naasketa asko daude. Ongia egiterakoan, eztiot sariari begiratu bear, saria irabaztea beste xederik ezpanu bezala: ori ala da: ongia berez da maitagarri: ongiak berak, ongiak berakin dakarrenak baiño areago, tiratu ta bultzatu bear nau: baiña izadiak berak jarri nai izan duen laguntza arbuiatzea, ori ez litzake birtutea, eta bai arrokeria ta urguillua. Sariak ba-direla jakinda ere, oiek erdeiñatu egiten badut, ori urguillu utsa baizik ezta. Ordenak berak anaitasunik ederrenean alkartu nai izan duena —ongia eta zoriona, alegia—, ori ez nai izatea, nola izan diteke on? Beste aldetik, au garbi dago: saririk ezpalitz, birtuteak ez luke oiñarririk. Munduak birtutea begirapenik gabe zapaltzen baldin badu, idiak landako loreak antzo: orrek esan nai du birtutea deritzaion lore onek eztuela arentzat batere baliorik: eta orduan zillegi zait neri ere beste ainbeste egitea. Ongiak ezpadu iñon osozko garaipena lortu bear, orduan morala ezta ezer ere: atso zaarren ipuin bat besterik ez.

Saria, ordaiña, baitezpadakoa zaigu ba, moralak zutik iraungo badu. Victor Hugo-rena da itz eder au: Zuk al duzuna egitean, Jainkoa beartzen duzu zure alde egotera.

III

Ongiak eta gaizkiak sari edo ordain egoki bat bear dutela ikusi dugu. Baiña naikoa ote da ori probatzea, beste gabe, Jainkoa jartzeko, sari oien banatzaille bezala?

Askok eztute ala uste, eta sarien bearra gogoz aitortuarren, eztute alere Jainkoa ezagutu nai. Oien iritziz, izadiak berak ba-lituzke bere sariak, gizarteak ere bai bereak, eta oiekin asetzen dira. Ustekizun onen utsa adieraztea ezta gauza zailla izango.

Edozein ordenak ba-ditu bere esiak, gordegarriak eta babesak. Edozein landa edo eremuko legeak autsi ezkero, auslearentzat badatozke ondore txarrak. Nere gorputzak otz-bero egokia bear du; bere tamaiñako neurri ori gorde gabe, otzak igarotzen banau, bereala izango ditut ondore txarrak: kataRROa, kostuma, edo zerbait okerrago arrapatzea gerta liteke. Eta gizarteko bizitzan orixe bera ikusten dugu. Itzaldi bat egitera deitzen zaituzte; itzaldi eder bat egiten duzu, izen ona ta estimazioa eskuratu dituzu. Eta aldiz, itzaldi aula ta kaxkarra egite ezkero, etzaituzte geiago entzungo, eta orra zigorra. Gaiztakeriren bat, krimen aundiren bat egin baneza, Guardia Zibillek kartzelan sartuko nindukete eta Justiziarekin garbitu bearko nituzke kontuak. Aldiz, obra sarigarri bat egiten badut, medalla edo kondekorazio nabarmen bat eskura dezaket.

Eta gaiñera, or dago konzientzia deritzaion ori ere: gizonak ba-du etxe-barneko berezi ori, barneko lurralde ori, alegia: ori ere mundu aundi eta zabala dugu. Mundu onen legeak gordetzen baditugu, ber-bertatik dugu saria: barneko poza ta atsegiña. Konzientziaren esanaren kontra egin ezkero, berriz, aurki dut zigorra barneko ondoezean, ausiki bortitz-samiñetan.

Jakiña, bai gizadia eta bai gizartea eta bai konzientzia ere, denak dira Jainkoaren borondatearen mutil ta zerbitzari batzuk. Munduko ordenak Jainkoagan du bere iturburua, eta Jainkoak ipiñitako legeek ba-dituzte orain ere zaitzale ta gordegarri batzuk.

Kontua da, Jainkoa ukatu ezkero, ordain oiek berez, eta soillean arturik, naikoa ote diren.

Ikusagun. Eta aurrena aztertu ditzagun izadiaren ordain direlako oiek. Evoluzionistek berebiziko zalaparta ateratzen dute oiekin. Gure justizi-goseak or luke asebide egokia. Napoleon-en itza aipatzen dizute bein da berriz: "Dena pagatu oi da." Zuurki bizi denak osasuna jasotzen du saritzat; txorakeritan dabillenak gaiso bat arrapatzen du bere oarkabearen ordaiñetan. Atsegiñari geiegi eman ezkero, gorputza alperrik

galtzen duzu, ta abar. Beraz, dena dabil ongi, ba-da saririk aski.

Baiña ezta luze pentsatu bear, emen sari moralik eztagoela ikusteko. Izan ere, Moralak galdetzen duen saria zer moduzkoa da? Moralak nai du obra bakoitzari saria eman dakion, txalogarria edo erruduna den aldetik, eta eman ere, egillearen erruak edo merituak eskatzen duen aiñaan. Eta emen eztago olakorik, ezta urrik ere.

Etxetik irtetzen naiz jantzi ariñekin. Otzak artzen nau eta orra nere osasuna galdua. Baiña zergatik irten naiz ola? Agian ezin bestez edo beste erremediorik ez nuelako, eta sakrifizio utsez. Eta sari polita izadiak ematen didana! Gaiñera, bą al dago kidetasunik edo proporziorik erruaren eta sariaren artean? Nere oarkabetasuna, pekatu ariña da iñola ere; arrapatu dudan kostumak, aldiz, eriotzera eraman nindezake: zigor gogortxoa, alajaiña, orrelako uts txiki batentzat...

Eta izadiak ezin lezake bestela jokatu, gaiñera. Nola nai duzu iządiak erruduna, erruduna denez, atzemaitea, eta onen ta aren errua neurtzea? Ezin dezake. Itsua baita, eztu ikusmenik. Gaiñera, ezta bere buruaren jabe. Sariak eta zigorrak banatzeko, persona bat bear luke izan, eta izadia ezta persona bat: **gauza** bat baizik ezta. Makiña itsu bat: orra zer den bera. Aren legeak, makiña batenak dira guztiz. Lege auetatik ongia edo edertasuna sortzen bada, lege oien jatorrizko zuzenbideari zor zaio ori, baiña ez uste izadiak bere ibillera aldatuko duanik norbaiten alde edo iñoren kontra zerbait egiteko. Personen berri eztaki, eta gauzak bagiña bezala artzen gaitu. Arreta berdiña ipiñiko dizu buruan sekulako tontor bat sortzen edo garuntegi bat, **cerebro** bat moldatzen. Aren lantegian ardura berdiñekin egiten dira orain aunditu eder bat eta gero arpegi lirain bat.

Izadiaren ordaiñok nolabait ongiaren alde jarriak izan direla aitortu diteke. Ongiaren alde diot, eta ez ongia egiten duanaren alde. Obeki esateko, ordenari laguntzen diote, baiña ordena materialari. Ordena moralaren berri eztakite. Eta alper-alperrik da oiek aipatzea, justiziaz eta moralaz ari geranean.

Gaiñera, sarri askotan deus onik ez txarrik egin aurretik ere, zer agiri zaigu? Sari oien legea eztela iñundik betetzen. Ebanjelioko pasadizu ura gogoratu baizik eztugu. Itsu artaz

Apostoluek Jesus-i galdetzen diote: "Zeiñek egin zuen pekatu, berak ala bere gurasoek, au itsu jaio zedin?..." Ezberdintasun samiñek eta jaiotzako ezbearrek adierazten digute ederkienik zein gutxi ajola dion izadiari zure ta nere moralidadeak. Adu ona naiz txarra gure aurretik dijoakigu, berak sortzen ta eramaten gaitu, gure onegiñei ta pekatuei asko begiratu gabe.

* * *

Eta **gizartearen sariak** ba ote dira gogoangarriago? Ez asko geiago. Gizarteak ere ezpaitu izadiak baiño asko geiago ikusten. Nolanai ere, bera ezta utseziña onaren eta gaitzaren artean bereiztean, ezin ditu bata eta bestea bere iturburuan atzeman, konzientzian esan nai dut. Beraz, ezin ezarri dezaioke tajuz, bakoitzari, zor zaion ordaiña.

Errukarri litzaidake, izen ona, ta erritarren estimazioa edo gorrotoa iñork egiazko saritzat artuko balu. Denek dakigu ospe ori ta **opinión pública** deritzaion ori, aizea bezin ariña ta aldakorra izan oi dela, askotan diruaren edo interesaren agintepean dagoala, eta izugarrizko makurrak eta bidegbeak egiten dakiala.

Eta ez pentsa Poliziatik etorriko zaigunik auzi onen garbitzea. Zenbat gaizkille eta errudun gelditzen dira Justiziak atzitu gabe! Eta ondo egiñaren saria zenbat aldiz ikusi oi da, irabazi eztuenaren eskuetan aldatua! Gaiñera, gizartearen agintariek ezin dezakete moralidadea bere muiñean atzeman. Elizaz ari bagera, or dugu esan jakin ura: **"De internis non judicat Ecclesia"**: Elizari eztagokio arimen barneko gauzez epaitzea. Eta are gutxiago Estaduari. Zure obrak legearen arabera egiñak izan badira, legegilleak eztizu geiago eskatuko. Beraz, kanpotik agiri denari begiratzen zaio bakarrik. Egia da asmo okerraz edo gaizki egiteko intenzioaz jarritako obrak ere kontuan artzen direla, epaia ematerakoan; baiña ori da, noski, soziedadearen iraupenak ala galdetzen duelako, eta ala egin ezik, kalte aundiak etorriko lirakelako arentzat. Baiña berez, bere muin soillean, eztago bere eskumende, barneko zera baita.

Eta **bere baitako Justizia** delako ori?... ez gaitezen bakunegiak izan, ortan geiegi siñisteko. Lapur-mota guztiak eztabiltza beti gaizki, eta lapurreta ikaragarriak egindako erri guztiei ere etzaizkie gauzak beti ain gaizki atera.

Or dago Erromatarren Inperioa eta ia gure egunetan berakin antza duen beste bat. Gizon eta erri arrapatzailleak marduldu eta gizendu egiten dira: ori ezin uka. Gaiztoaren ondo egotea, Bibliak ainbeste aldiz aipatzen duen lelo ori, eguneroko ikusgarria dugu, noski. Errudunaren kastigua bezin sarri gertatzen den gauza, beintzat.

Alperrik da ba gure sentipen orrentzat oiñarri jator ta sendo bat emen billatu nai izatea. Eta gezurra dirudi, baiña gizona deus eztela diotenak, oiek berberak datozkigu gero esatera ba-dagoela zer-ikusi, moral-kontuan, nik orain egiten dudanaren eta emendik ogei urtera gertatuko zaidanaren artean. Nondik nora olakorik, ez Jaungoiko ta ez iñor ez baldin badago gure gaiñetik?

* * *

Baiña ba-dago oraindik beste zoko bat, bazter beneragarri bat, orain arte aztertu eztuguna: konzientzia, alegia. "Konzientziaren bozkarioa, orra ziñezko saria, bere eginbidea zintzo bete duanari betiere ematen zaiona. Merezi izan dugun guzti-guztietan ematen zaiguna, gaiñera. Eta sari au bai eztagoela gora-beren begira. Irabazi duenak, beti-beti artzen baitu" (Bourdeau).

Konzientziaren alorrean gaude, beraz. Au bai, ba-da beintzat Moralitatearen lurraldea. Konzientziak, gaiñera, kontuan artzen ditu bai kanpoko obrak eta bai ezkutuko asmoak ere. Emen ote dugu, beraz, benetazko ordaiña ta saria? Batzuetan ikusi oi da alako kidetasun edo zer-ikusi bat gizonaren obren eta konzientziako sariaren artean. Baiña geienetan —aitortu bearra dago— ezta olakorik ikusten; emen ere etzaigu olako berdintasunik agiri barneko atsegin-atsekabe eta moralitatearen artean.

Ba-da ongian miña ta kezka dakarken zerbait; gaizkian, aldiz, pake ta sosegu-iturri biurtu ditekean beste zerbait. Norbaitek bere konzientzia gogortu baleza, zer-nolako zigorra izango luke alakoak? Zenbat aldiz eztute aipatzen Iskribu Santuek gaiztoaren pakea eta sosegua, gaiztakeria ura bezin aise edaten duenaren pakea? Eta konzientzia mee baten jabe izatera etorri denari, zer ematen zaio saritzat? Birtutean gaillendu direnen naigabeak eta samiñak. Bitxikeria, baiña ala

izan oida sarri-askotan. Zenbat eta gorago igo birtutean, ainbat eta bortitzago izan oi da konzientziaren ausikia. Gaiztakerietan gogortua bizi dena, barneko ulua isillarazi duena, lasai ta patxara onean bizi da...

Eta au ala izatea, ezta arritzeko; edo beintzat aurki idoro diteke gertaera onen sustraia: gure barneko munduan kanpoko gorabereek sarbide aundia dutelako. Beraz, sariak eta zigorrak ez baldin badira onegiñen eta gaizki-egiñen araberakoak, eztira ziñezko ordaiñak. Eta aipatzen zaizkigun guztiguztiekin gertatzen da au. Alper-alperrik ibilliko zera sari egoki orren billa, eztago-ta.

Baiña Jainko bat baldin badago, orduan bai, orduan besterik da. Orra sari aundi bakarra, berez balio duena eta beste sari oiei balio aundi edo txiki eman dezaiekena. Zer da izan ere saria? Birtute eta gaiztakerien ordaiñetan jarririk dagoan atsegin ta atsekabeen mordoa. Baiña au bakar bakarrik egin dezake munduko indar, izaki ta zer guztiak bere eskuan dauzkan Izaki orrek, Jainko altsu, zuzen ta jakintsuak.

Izadiaren jabe den Jainkoak. Kanpoko obrak eta bai barneko asmoak ere miratzen dituena: Ark bakar bakarrik biur dezake ziñezko ordaiña. Jainkoaren bearrean dago, ba, moralidadea. Eta Jainkoak geroko bizitzan ordaintzen ditu emengo obrak.

Onekin eztugu esan nai gertaera batek edo bestek, orain ere, Jainkoaren gogoan, sari edo zigor-kutsua izan eztezakenik. Baiña ezta au arruntena. Ba-da beraz beste zerbait, bizitzaz araindiko eremu bat, beste lurralde bat, zuzentasun osobetea nagusi agiri den beste mundu bat. Orra geroko bizitza eta Jainkoa, bi-biak batera atzemanak.

Eta baldin justizia ori mundu ontan aurkitzen ezpada, ori ere moralaren beraren onerako da, noski: birtuteak, izan ere, nekea galdetzen baitu, eroapena, konfiantza eta etekiñari begira egon gabe obratzea.

Pentsakera onek ba-du tinkotasun eta egokitasun zoragarri bat. Gizon osoak onartu lezakena da, dudarik gabe: bai buru eta bai biotzaren betegarri.

VII Kapitulua

Bizi naia

LABURPENA

Gizonaren deseoak salatzen digu ederkienik zein arrazakoak geran, nolako zuretik egiñak izan garen.

I. Bizitzaren laburtasunaz esan oi ditugunak onako au adierazten dute: beti bizi nai dugula, eriotza ezin dugula onartu.

II. Abereak eztu olakorik ezagun. Eta gizonaren joera jator au ezin izan diteke ustela, zerik gabea. Desiderium naturae non potest esse frustra: *Izadiaren desira ezin izan diteke alferra: erasia onen indarra ta balioa, zuzen artu ezkero.*

Gizonaren destiñua, nondik norakoa, bear dugu orain aztertu eta arakatu. Obeki esateko, gure billakuntzak onako galdekizun onen inguruan izango dira: gizonaren destiñuak ba ote du esplikaziorik, ulertzerik, Jainkoa gabe edo Jainkoaren ideia ori gabe?

Izadiak bizi-arazten gaitu, bizitzara egozten gaitu.

Adimendun izakietan zera aurkitzen dugu: gogoa (deseoa); abereetan, berriz, instintua edo sena; eta ezaguera gabeko izakietan, joera itsua. Eta iru gauza oiek zeregin berdintsua betetzera datoztela esan genezake. Ara nola. Izadiak xede jakin bat izendatzen dio izaki bakoitzari, eta onek bide bat ibilli bear du xede ori irixteko. Orain bada, joera, sena ta deseoa, tresna batzuk besterik eztira izadiaren eskuetan, gu gure xedeetara abiatzeko, eta berak nai duen alderontz gu ibilli arazteko. Beraz, oiek estudiatzea gure xedeak jakitea bezala da. Bala batek ibilli bear duen bidea aldez aurretik dakianak, ba-daki noski, zuk tiroa disparatu orduko, ark non erori bear duen. Eta berdin giza-desiraren aundi-txikia dakianak, ba-daki gure noraiñokoaren berri.

Au da gure gaurko lana.

Giza-desira (deseoa), nolakoa da, norantza dago zuzendua edo abiatua? Desira onen elburua ezin diteke izan tajugabeko zerbait, irudipen utsa, izadiak ezpaitu tajugabekeriarik sortzen. Bere magaleko sorkariak ezin ditu zerik gabeko xede batera bultzatu. Ori ezta posible.

Ona emen zein den giza-desiraren muiña: **bizi nai.** Baiña bizi-nai au ezta asetzen seaskatik illobiraiñoko bide ori ibiltzearekin; gure bizi-naiak arutzago nai du. Giza-desirak eztu elburutzat illobia, ez; neurririk ta mugarik eztuen bizia baizik. Auxe da nik orain agirian jarri ta ziurpetu nai dudana, eta neke aundi gabe egin ditekela uste dut.

Nork eztu ezagutzen Lizardiren bertso ura, eta nork eztu somatu, ura irakurtzean, goitik berako astindua ezur-mamitan?

"Oi zein dan ituna
bera-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!"

Bein trenean ninjoala, an trenbide ondoan azaldu zan Aretxabaletako illerria, kanposantua. Nere ondoan zegoan langille itxurazko euskaldun batek, ara zer bota zuen, ura ikustean: **"Aor gure hotela..."**

Beste au ere trenean mutil euskaldun batzuei entzundakoa: **"Aberatsak eta pobriak, onak eta gaiztoak, danak leku batera: lur-azpira. Satorrarena, gure destiñua."** Frase auek eta auen antzekoak ez ote digute agertzen eriotzari diogun gorrotoa? Gizonak eriotza ezin du konprenitu, ezin du ontzat eman.

Edozeiñek daki nolako giarraz idatzi zuen gure Unamuno-k gizonaren bizi-nai orren gaiñean. Bilbotar pentsalalarisentilaria bortizki asaldatzen eta sumintzen da, arrazoiaren izenean gure bukatu-bearra erakustera datoztenen kontra. Nik bizi nai dut, ez il —dio berak—, bizi, beti bizi, eta nere nai ori erokeritzat jo bear balitz ere, ero izan nai dut nik. Gizonaren bizi-egarri ase-eziña, razionalismu narras baten kontra koldarkeri gabe ta ozenki asko aldarrikatu du Unamuno-k. Ori ezin uka, besteak beste.

I

"Bizia labur": orra mendez mende, nunai ta noiznai guzion aotan dabillen erasia bat. Ain erabillia ta arrunta delako, ez gaitu zertzen eta eztiogu kasu ere ia egiten.

Biblia Santuko Salmuetan ba-dira zenbait irudi berezi, giza-bizitzaren laburtasun au adierazteko: gizonaren egunak, igaroaz dijoan itzala bezala: egun bateko lorea bezala: azkar dijoan ibaiaren ur lasterra bezalakoak... Ezagun da orobat Tekuako emakumeak Dabid erregeari esan zion alako ura (2 Sam. 14, 14): "Guztiok il bear dugu eta lurrean isuritzen den uraren pare gera; bein ura isuri ezkero, eztago atzera biltzerik." Ta abar, ta abar.

Ain arruntak eta egunerokoak egin zaizkigu irudi ta konparazio auek... Eztiegu jaramonik ere egiten. Egunero-egunero ikusten ari geran etxe-aurre ezagunak antzo.

Bizitzaren laburtasuna: orra sentimendu bat beti-betikoa, noiznai ta nunai aurkitzen dena, giza-biotzetan sakon errotua. Ta ala ere, gauza urbillagotik aztertuaz, ezta ain errez esaera onen giltza billatzen. Bizia labur dela diogu. Baiña zer da labur ta zer luze? Zergatik da laburra giza-bizia? Edo zer metro

dugu biziaren aundi-txiki ori neurtzeko? Giza-bizia laburra da, noski, arbola batzuen edo mendien bizitzaz konparatu ezkero. Baiña abere askoren bizitzaren ondoan, oso da luze.

Gaztetasunaren erdian iltzen denak sentipen au izatea, tira, ezta arritzekoa. Baiña egunez asea eta betea iltzen den agureak? Nondik nora edo zergatik? Bere bizi-aroa bete du, egitekoa egin du, zer dela-ta dator espa orrekin? Baiña ondo dakigunez, agurearen bizi-naia ezta sekula asetzen, ez ixiltzen. Denek dakigu zeiñen bortizki lotzen den biziari. Bibliak kontatzen digu Jakob patriarkak Faraonekin izandako elkarrizketa: "Nere egunak, lurgain ontan —esan zion Jakob-ek— izan dira 130 urte: gutxi, eta eurak txarrak..."

Zer esan nai du guzti onek? Bizia nai duzun beste luzaturik ere, beti iruditzen zaigula labur. Milla urte biziko bagiña ere, berdin izango litzake. Bai, gure atsekabe musinga ori eztator labur izatetik, buka-bearretik baizik. Or dago giltza. Ez gera kejatzen aurki il bear dugulako, il bear dugulako baizik. Bukatu bear duen oro ezta ezer! Orra gure espa ta zinkurin oiekin adirazi nai duguna. Beraz, oker diogu bizia laburra dela diogunean. Gure barrenean darabilgun kezka, egokiago azalduko genuke beste era ontara mintzatuko bagiña: Bizia ezta ezer, bukatu bear baitu. Utsari buruz abiatua dagoena, utsa da. Eta gizona eriotzari buruz dijoa, jaio zen unetik. Iltzeko jaio gera, beraz, bala bat bere xedera eltzeko aurtikia oi den bezala. Gure bizia ezpaita besterik: eriotzari buruz ibiltze bat, joanaldi bat. Eta orduan, gure bizi-nai bortitz au, zergatik edo zertarako? Gure ioran oiek ez ote dira izango lilluramendu bat baizik, amets histu bat, gezurrezko argi-txakurra, gaur piztu eta gugan itzulipurdi zoro batzuk egin ondoren, gero betiko itzali egiten dena?

Orra gizadiak bein ere ta sekula ere onartu nai izan eztuena. Pentsamendu onek nazka ta iguiñik biziena ematen dio, erotzeko puntuan jartzen du. Orregatik gizadia betiere ibilli izan da, bai filosofia-mota guztiei, bai erlijio guztiei galdezka eta eske, bizitza motx onen luzapen bat eman dezaioten. Bere geroaren berri nai du jakin. Ona naiz txarra, baiña iraun beiñepein. Edozer, ezerez larri ori baiño leen. **"Naiago nuke** —dio Akiles-ek— **laborari pobre baten etxean unain egon, itzal guzti oien gaiñean errege izan baiño."** Bizi-nai au, be-

tiereko bizitza baten egarri au, izan da ainbeste ustekizunen ama ildakoei buruz.

Gure egunotan alegin aundiak egin izan dira gizonaren bizi-nai ori esplikatzeko eta albaltz sentipen onen indarra ezereztutzeko. Adibidez, esaten dizute: erriek eta jendeek beste bizitza batean siñisten dute, bai, baiña siñiskera ori ezta emengo ta oraingo bizitzan duten siñiskera bortitza baizik. Ederki, ta oso ondo esana, gaiñera. Guk ere eztugu besterik esaten. Guk eztugu esaten gizonak beste bizitza batean siñisten duenik. Guk dioguna au da: gizonak bizitzan siñisten du xoilki, nai du bizi, eta eztu ulertzen bizitza nola bukatu diteken. Eztu il nai, eztu ezerezean amildu nai, bere bizitzakin batean josirik dauden gauzetatik eztu ezertxo ere galdu nai. Neurri ta muga guztiak baiño arutzago luzatu bear duen zerbait bezala azaltzen zaigu bizitza.

Eta griña onen deadarra nolabait ixiltzearren edo asetzearren, a zer eztuten asmatu gaurko pentsalari batzuek: **"Etzaitez kezkatu, gizon, etzera ilko, arrazan biziko baitzera, edo izadiko elementuetan..."** Häeckel eta Buchnerek aski balin badute bizitza onekin, bejondeiela! Baiña ez, esan oietan ezin ikusi genezake gizonaren sentipena, ezta ori diotenena ere. Beren sistema da xoilki or mintzo dena, baiña beren biotzetan gizaseme ororen amodio berbera aurkituko genuke: bizitza iraunkor baten amodioa, alegia.

"Biziko gera gure ondorengoetan", esaten digute beste batzuek. **"Biziko gera gizadian: asko dugu orrekin..."** Baiña garbi dago igesleku oiekin eztela asetzen gure bizi-naia.

Gure sena, gure irritsa asaldatu egiten da bukatu-bear onen kontra. Ideia onekin ezin dugu etsi. Zerbait aurkitzen dugu bertan gure kontra dena. Ba-da emen misterio bat. Jarri gaitezen misterio au urbillagotik aztertu naiez eta ikusagun zerbait atera liteken bertatik jainkoazko ideiaren faboretan.

Nork daki eriotzaren tunel illun orren barrenean argitasun bat ez ote dugun sumatuko? Jainkoa ez ote dugun, urrunetik bederen, begiztatuko?

II

Gure sentierak bizia maite du, nai du beti bizi. Ez eun edo milla urte, baizik bizi, orrelako eperik edo neurririk gabe. Eta

zergatik ote da au? Ba al da posible gure desira au alperra izatea, utsa, kizunik gabekoa?

Abereetan eztugu olakorik ikusten. Abereak bana-banaka ezagutzen ditu gauzak, eta ezagutu bezala desiratzen ditu, eta jaurtitzen da beren gaiñean. Deseo bat zer den eztaki, ordea. Bizi da, baiña bizitzaren berri eztakiela. Berak nai du orain-oraingo gauza, eta ez besterik. Beste itzez esateko, abereak eztu bizia amets, ezpaitaki ori zer den. Berak nai duena da bere ezurra marraskatu, asitako jana bukatu edo lasai egin bere loa. Abereak, bada, iltzerakoan, eztu bere yoranen ondamenik ikusten: ori zer dateken ere eztaki ta. Begien aurrean jartzen zaizkion gauzak desiratzen ditu, ori bai, orain au ta gero bestea, bata bestearen urrengo, eta ori da guztia. Iltzen denean bukatze uts bat dugu xoilik, baiña ez bizi-nai baten ondamena. Ezta emen yoranik ito edo galerazi.

Guk darabilgun auzi ontan etzegoen abereen bizia aipatubearrik. Abereak ezpaitu egiazko bizirik. Eztu bizi-nai bat bakarra eta jarraitua. Nai du orain au eta gero beste ura, baiña nai puskatu oiek eztute batasunik osatzen, eztute lokarri bat denak elkarrekin josteko.

Besterik da gizona baitan. Gizonak ba-daki pentsatzen, gogoeta egiten. Ahalmen onek ematen dio gauzen puskatze onetatik iges egiteko indarra. Betierekoaz eta beti bat denarekin ba-du gizonak ar-emana. Bizitza baten ideia atxemaiten du. Eta bizia, on eta desiragarri azaltzen zaiolako, bere nai osoarekin amiltzen da on orren ondoren, indar guziarekin eltzen dio.

Gizonak, bada, adimendun den aldetik, ba-du bizi-nai bat berezi-berezia, bere azpian dauden beste izakiak eztuten bezalakoa. Eta gizonak bizi-nai au berezkoa du, jatorrizkoa; ezta gezurrezko asmazio bat. Alde ta aldi oro aurkitzen da gaiñera, aro, mende ta erri denetan.

Orain, bada, berezko desirkunde bat ezin dagoke zerik gabe, objetu edo kizunik gabe izan.

* * *

Desiderium naturae non potest esse frustra: ala zioten beiñolako filosofuek. Izadiaren desira ezin diteke izan alperrik. Oker ulertu ta ekarri diteken erasia da au, baiña bear

bezala artu ezkero, zuzena da, eta ziñez ba-du probatzeko indarra. Jakiña, gerta diteke norbait gose izatea eta janari gabe egotea. Menturaz, zuk ba-duzu jakin-naia eta bizi ontako goraberak eztizute uzten zure nai ori asetzeko aukera. Baiña bistan dago esan ori eztela ola artu bear. Jarri ditugun ejenplu oietan desirkundea ezta alperrikoa, gu emen ari geran aldetik. Alperrikoa litzake objeturik ezbalu, izadian ezbalego desira ori asetzeko biderik. Beste itzez, desira utsa, nondik norakorik gabea, ezin bete ditekena, nola edo zerekin bete eztagoelako; ori litzake alperrikoa. Eta ain zuzen, ori da gizonaren bizi-naiaz gertatzen dena, batzuen iritziz. Bai, egiazkoa da desira ori —diote—, baiña alperrikoa...

Eta guk diogu ori ezin ditekela. Onelako desira bat, desira jatorra, berezkoa, ezin ditekela alperrikoa izan.

Animaliak, piztiak gosea sumatzen du. Orra aragiaren nai bat, desira bat. Esango al du iñork zerik gabeko naia dela au? Izadian eztagoela ezertxo ere nai orri erantzuteko? Gosea baldin badago, orrek esan nai du ba-direla nunbait janariak, gose ori asetzeko. Orrela eratua baitago izadia, eta objeturik gabeko yoranik eztago. Belar-jalerik baldin bada, nunbait belarra ere ba-dagoelako izango da. Aragi-jaleak, berdin, nun edo nun aragia aurkitzen dela adierazten du.

Eta berdin gertatzen da gizonaren bizi-naiaz. Eztugu il nai, beti bizi nai dugu. Eta joera au izadiak berak emana da. Beraz ezta posible utsa izatea, alperra izatea. Asetzeko modukoa bear du izan.

Gero nere bizi nai ori asetua izango ote den ala ez jakitea, ori beste kontu bat da. Izadian janariak egonarren, iñoiz gertatzen da urlia edo sandia goseak iltzea.

Orain bada, betiereko bizitzaren yoran orrek eztu esplikaziorik betiereko iturri bat gabe. Orrelako joera bat ezin diteke sortu iturri ilkor batetik. Eriotzaren menpean dagoan izadiak ezin molda lezake betiereko bizira abiatua dedin izaki bat.

Gure sentimendu onek, bada, betiereko bizitza bat nun edo nun ba-dagoela adierazten digu. Ori bateko. Eta besteko, beste au ere bai, alegia: gure yoran ori bakar bakarrik ase dezakela bizitza illezkor ori bere baitan daukan izakiak. Bere baitatik il eziña, illezkorra den izaki ori guztiok dakigu nor den: alakoari Jainkoa deritza. Beragan dago izan eta izaki ororen sorburua.

Orra or Jainkoa aurkitu gure bizi-naiaren bidetik.

Eriotzarik eztago. Eriotzak materiakin bakarrik du zerikusi. Gorputzaren bizia, bere goraberakin eta bere azkenengo erortzeaz, ezta ezer. Eriotzean norbaitekin topo egingo dugu. Beraz, bizia ezta itzaliko.

VIII Kapitulua
Barneko ondoeza

LABURPENA

Bizitza onetako gauzek eztute gure gogoa asetzen. Gure gogoak desiatzen duenaren eta biziak eskeintzen dionaren artean eztago kidetasunik.

I. Bizitza onen kaxkarra, utsa: orra giza-sentimendu orokarra, alde ta aldi orotan nabari dena. Zorionari buruz abiatua, eta, zorionaren lekuan, orra oiñazea eta miña, eta norbere arteko burruka: au da gizonaren patu larria.

II. Gizona ezta bein ere asetzen bizitzak eskeintzen dionakin, beti dabil urduri, beti beste zerbaiten billa. Gaztaroan zoragarri azaltzen zaigu bizitza, aurki ordea frogatzen dugu beronen hitsa ta larua. Zergatik ase-ezin ori? Piztietan ezta orrelakorik nabari. Beste nunbaiterako egiñak garelako ez ote?

Bizi! Orra gizonaren irritsa, egarri ase-eziña. Baiña biziak eztu esan nai bakarrik irautea edo ez iltzea. Bizia zerbaitekin ere bete bearra dago. Bizi-naia, irauteari dagokion aldetik, aurreko kapituluan aztertu genuen, eta Jainkoa aurkitzeko bide egoki bat zela ikusi dugu. Beste bide bat, zabalagoa oraindik, aintzin-gibel askoduna gaiñera, dugu orain urratubearra: giza-bizitza betetzen duten gauzak aztertzetik eldu dena, alegia. Izan ere, iraute utsak eztigu ezer esaten. Metro bat, bi metro... baiña zer? Bi metro oyal onetatik, iru metro perkalezko edo sedazko tela orretatik...! ori ba-da zerbait esatea. Orobat, egun bat, bi egun, ori ezta aski. Egun bat lan ontan edo zeregin ontan emana, orrekin bai, zerbait adierazten dugu. Beste itzez esateko, iraun, baiña zertarako? Zer-nolako gauzez ta egikizunez betetzen den iraute ori aztertu bear dugu orain, eta galdetu ea esku artean darabilzkigun gauzak eta lanak asetzen ote duten gure gogoa. Orra oraingo galdera.

Adimendun izakiak ba-du berezitasun nabari bat: gogoa, desira. Gorputzezko izakiak pisua bezala, adimendunak naikundea edo desira dute. Au da berezko joera jator bat. Zenbat eta errotuago dagoan, ainbat obeto adierazten du desirak izaki baten jatorria eta nolakoa, argi osotan jartzeraiño. Desira oiek betierekoak, non-naikoak baldin badira, gezurrik eta makurrik gabe salatzen digute izaki baten kasta eta aiurria, etorkia, eta bai izaki ori norako ta zertarako den ere.

Izadiak ezin dezake bultza iñor utsari buruz. Gauza baten desira, bera da seiñalerik asko gauza ori ba-dela igartzeko. Orratza nora begira dagoan ikus dezagun, beraz, eta orrek adieraziko digu garbi asko gure nondik norakoa.

Giza-desirak zer nai duen, zer billatzen duen, zeren atzetik dabillen bear dugu, ba, arakatu. Eztugu asko nekatu bearrik gure billakuntza onetan. Aurki oartzen eta jabetzen baitgera egia samin onekin, alegia: bizitza ontako gauzak ondoeza ta ase-eziña uzten digutela. Bizitzaren laburrak eta buka-bearrak uzten digun ondoez aren pareko garraztasuna. **"Mundu kaxkar ontan..."**, esaten dizute gure baserritarrek, bizitza onen hitsaz ondo jabeturik.

Beraz, au ola izanik, galde dezakegu ea nora garamazkian ziñez barneko desira onek: ala bizitza ontako gauzetara, mundu ontan ezagutzen eta mamitzen diren bezala, ala beste nunbaitera. Eta desira onek emengo gauzak gainditu eta aitzina-

go igarotzen baldin bada, bere abiadura ori bearko dugu aztertu eta bere azken marra non duen kontuan artu.

Bizitzaren utsa ta ezereza: orra beste sentimendu bat, azaldutako ura bezin arrunta ta edatua. Jainkorik eztagoela diotenek ere gogoz aitortzen dizute sentimendu onen egia. Geiago oraindik, berek esaten dute —eta arrazoi guztiarekin esan ere— sentimendu au izan dela erlijio guztien sortzaillea. Beren iritzian, erlijioek ezlukete beste eginbearrik bizitza au osatzekoa baizik. Bizitza au berez kaxkarra, ustela eta gizona asetzeko ezdeusa izanik, erlijioek geigarri bat erantsi nai diote: Jainkoazko geigarri bat, alegia. Gauza bakar batean eztatoz bat gurekin: berek eztute aitortu nai erlijioek garbi ikusi eta asmatu dutela arazo ontan. Orregatik, gure arrazoibideak xede oni buruz daude jarriak. Giza-bizitzaren utsak Jainkoagana eramaten gaituala agirian ematera, alegia.

I

Bizitzren kaxkarrak sorrarazi dituen erostak, eresiak eta aiotsak kontatzen asiko bagiña, ba-genuke zer esan zati bateko. Literatura ugaria baitago sentimendu onen inguruan, edo obeki esateko, edozein literaturaren azpian, agiriago edo ezkutuago, sentimendu au datza. Sentipen onetatik bizi da poesia; dramak eztu beste iturbururik, nobela ere beronen ingurumarian ari da. Antziñateko literatura osoari sentimendu onen kutsua nabari zaio, eta au alde batetik arritzeko da, zeren aro artako gizonek sentimendu onen kontrako joera adierazten digute. Zeiñek maite izan du bizia, Homero ta Sofokles-en denporako griegoek bezala? Aien itzak siñistekotan, eguneko argi eztia bera zan naikoa gizona zoratzeko ta zorionez mozkortzeko. Eta ala ere, olerkari guztiak, naiz zaarrak naiz modernuak, eta filosofuak, ao batez ari dira giza-bizitzaren zoritxarra eta ezin sendatuzko auleria aldarrikatzen.

Ara zer dion batek: "gizona aberetan doakabeena dela". Beste batek: "obe dela ez jaio, edo-ta jaio dena gazterik ilko balitz". Besteak: "Jainkoek maite dituzten gizakumeak gaztaroan iltzen direla". Egia da, alaber, gauza auen esaleek, beste guzien antzera, biziari lotu oi direla, baiña esan dugun ikuskera beti gelditzen da zutik. Beti nabari da ezin sendatuzko samin ori, giza-izakeraren biotzondoa balitz bezala. Bizia mai-

te bai, baiña nik esango nuke biziaren irudi bat dela guk maite duguna, eta bizia den bezala dastatzen dugunekoxe, eztiogula goxorik artzen, etzaigula betegarri.

Giza-bizitzaren ziztriñaz ta ezin erremediatuzko miseriaz mintzatzen asiko bagiña, izpide luze ta amaigabekoan sartuko giñake. Puntu nagusi batzuk ikutu bear dira, alare. Iru burutan biltzen dira esateko guztiak: a) Miña, oiñazea, b) gure barnean daramagun burruka aragiaren eta izpirituaren artean, eta azkenik c) biziak eskeintzen digun guztia, zein motx eta ezdeusa den gure gose-egarria asetzeko.

a) **Miña, oiñazea.** Gure bizi-naiari ta zorion-egarriari bideak ertsitzera orra zer azaltzen zaion aurrena. Bai, miña. Arridura ta ulertu eziñezko laborria sorrarazten digun gauza. Asaldaturik eta sumindurik jartzeraiño aserretzen gaituana. Miña zergatik eta zertako, guk, bizia ta zoriona amets dugun auek?

Izan ere, arrazoi ezkuturen bat ez baldin badago, nola izan diteke au? Gizonaren barne-legeak eskatzen duenaren eta munduak ematen dionaren artean, nola eztago egokitasun edo berdintasun geiago? Jakintsuek dena aurkitzen dute munduan arrigarri eta miragarri. Baiña pentsa dezagun nola aurkitzen den gizona izadian. Or ikusten dugu mekanismu alimale onen erdian egotzia, indarren eta elementuen zurrumilloak zapaldu eta xeatuko ote duten bildurrez. Universua aundia da bai, zoragarri eta ospetsu, baiña baita garratz, eskerga ta biotz-gabea ere. Gizakume asko martiri biurtzen ditu. Eta ez esan bakanka bakarrik ikusten direla olakoak. Gertatzen dena, gure oarkabeak agonia asko ta asko ez ikusi iduri egiten dituela.

Job santua dugu auen irudi illezkorra: "Zer dela ta eman ote zaio argia doakabe bati?"

Naturalistei siñistu bearko bagenie, oiñazean eztago ezer arritzekorik. Badakizkigu buruz oien esplikazioak. Esango dizute, alegia, ala bear duela izan, oiñazeak ba-duela bere tokia izadiko legeen artean, gizonaren oiñazea gertaera bat baizik eztela, beste gertaera guztiak bezala, munduko ordenamenduan ba-duela bere egikizuna, izadia oiñazeaz baliatzen dela bere xedeak ardiesteko, ta abar. Baiña alperrikako esplikazioak dira auek. Ori den ori egia da noski, baiña guk emen darabilgun auzibidea ezta orrekin garbitzen. Guk eztugu emen

galdetzen zergatik edo nola aize-bitarte batek sortu dezaken alborengoa (pulmonia). Ori ba-dakigu, edo ba-dakigula uste dugu. Guk galdetzen duguna beste au da, alegia: nola diteke zorionerako irritsa duen izaki ori, den guztia oso-osorik zoriona amets duen ori, nola diteke arimagabeko makiña bati loturik egotea, eta amarretik bederatzi aldiz, zorionaren lekuan beronen aurkakoa besterik ez idorotzea?

Beste itzez, giza-gorputza izadiko legeen menpean datza, eta alde ontatik miñak eztu batere misteriorik ez arritzekorik. Aize-lekuan aurkitzen den arbola batek zapaldu ederra artzea, ziñez ezta arritzekoa. Ori ala da. Baiña besterik da gizonaren parterik nobleena kontuan artzen badugu: pentsatzen eta nai izaten dakian izaki oni begiratzen badiogu, alegia. Eta alderdi oni bagagozkio, izaki pentsalari onek ba-ditu bere joera eta yoranak, kontuan artzekoak, gorputzaren legeak bezin naturalak eta jatorrak direlako. Eta arritzen eta asaldatzen gaituana da taju onetako izaki bat miñaren azpian egon bear izatea.

Naturalisten ikuste-puntutik gauza begiratuaz, miñak eta oiñazeak eztu batere misteriorik. Ala da. Baiña gizona ezta bakar-bakarrik gorputza. Ezta bizidun bat geiago, beste bizidunen artean. **"Gizona, kaiñabera bat baizik ezta, izadiko izakietan aulena, noski, baiña alare kaiñabera pentsalaria."** Eztugu ori bein ere aaztu bear, eta miñaren auzia astintzeko garaian, ezta zillegi gizonaren erdirik oberena alde bat uztea.

Begiratu dezaiodan bada gizonari bere osotasunean. Zer ikusten dut? Alde batetik bere borondate guztiarekin zoriona duela amets. Auxe da bere abiadura jatorra, berezkoa, ezin ukatuzkoa. Beste aldetik, berriz, oiñazearen menpean datzala. Ba-da ziñez emen zerbait bitxi eta arritzekoa. Zorion-egarria izan izaki onen muiña eta gero samiñaren azpian bizi bear... Baiñan goazen aurrera. Berriz ere eldu bearko diogu oraindik puntu oni.

b) Oiñazeaz landara, ba-du gizonak beste zerbait jasanbearra: bere arteko burruka edo gudua. Gorputzeko miña bakarrik balitz, gaitzerdi. Ortaz gaiñera dago, gugan bizi dela piztia, bere txakurkeri ta piztikeri guziekin: arro, aragikor, gezurti, nagi... Arrazoimenak nai luke agindu, baiña piztikeriak bere aldetik tiratzen du. Aragiaren eta izpirituaren arteko burruka: piztiaren eta aingeruaren artekoa. Eta askotan

nai eztuguna onartzera beartzen gaituzte. Ori ere ez al da desordenu gogorra? Arima goitarrek arridura aundi batekin ausnartzen dute beiñolako erasia ura: **"Video meliora proboque, deteriora sequor..."** Zer den ona ikusi bai, ta ontzat eman ere, baiña gero, egiaren orduan, okerrekoa egin... Eta au da gizonaren patu txarra: norberarekin ere burrukatu bearra. Kristau baten begiekin begiratu ezkero, eztago, ez, emen eskandalurako biderik, zeren-eta bai oiñazea eta bai gure arteko burruka ori ere beste zerbaiteri buruz jarriak dauden. Emengo oiñazeek eta burrukek ba-dute sari bat azkeneko ondorio bezala. Baiña ori ala ezpada, emen desordenu ikaragarri bat agiri da. Alde batetik eginbidea begien aurrean ekarri, eta bestetik eginbide ori ezin bete. Detxepare, gure leen poetak, zeiñen ukigarriki adiraztera eman duen gizonaren patu beltz au: ardi itsu baten pare, gizona, beti bide zuzenetik okerturik, aragiak eta munduak beti engaiñaturik:

"eta bethi erratuya, nola ardi itsuya,
mundu hunek, haragiak, bethi enganatuya..."

Estoikuek asmatu ziguten bai gizon perfetuaren irudi edo erretratua. Baiña gezurrezko asmazio bat besterik ezta, amets bat.

II

c) Miña eta gaitza. Bi bela beltz auek ba-dira naikoa eta geiegi ere bizitzaren begitartea zer moduzkoa den igartzeko. Bizitzaren muiña, bizitzari bere kolorea eta itxura ematen diona zer-nolakoa den jakiteko.

Gizonen ezagutza pixka bat duena laister oartzen da gauza batez, alegia: eztela bat bakarra aurkitzen bere zorteaz pozik dagoanik, aoz bestela diotenak berak ere ez... **"Quo fit Mecenas..."** Zergatik ote da, Mezenas, iñortxo ere bere zorteaz kontent ez izatea? Ala galdetzen zuen Horaziok. Bizia bete, mukurutu, edatu ta zabalduagatik, ez oi da bein ere eldu giza-yoranen mailla berdintzeraiño. Eta ortik sortzen da samiña ta etsipena.

Arima goitarrak, sainduak, biotz aundidunak, oiek dira bizia gutxienik estimatzen dutenak. Denek ao batez aitortzen dute beren etsipena. Eta etzerate kargutu jendeak nolako irri-

parreaz erantzuten dion bizitzaren poza azaltzen duenari? Errukizko irriparreaz, baldin gaztea bada ola mintzo dena; eta mezpreziozko irriparreaz, baldin zaarra bada. **"A, kaxkala...!"**, edo olako zerbait adirazi nai duen irriparre batekin.

Obrarik aundienak, tristeak dira, bai literaturan eta bai artean ere. Or dira Job-en liburua, Kempisa, Beethoven, Shakespeare eta beste milla izen ospetsu. Gure artean Etxahun, Bilintx... eta ainbeste erri-kanta, alako biotz min eta saminkutsua dariotenak... Olerkariak, kantatzen asi deneko, ba-dirudi eztuela beste kantagairik gizonen erostak, burrukak edo ametsak azaltzea baizik. Oien obretan gizonak beti agiri dira miñetan, negarrez edo beren eskumenean eztagoan zerbaiten atzetik. Negarra, burruka, oiñazea.

Giza-biziak, azaletik eta kanpotik begiratzen zaionean, eztu, ba, ematen orrelakoa denik. Kanpotik eder ematen du, arrai, zoragarri ere esango nuke. Gozatsu, istillurik eta kezkarik gabea dirudi. Pinturetan eta zinean ere, ala agiri da. Baiña egitan ezta ala. Ain zuzen ere, arrazoi onegatik, biziaro bat bakarra dago benetan on ta eder: bizitzen asi baiño leenagokoa, alegia, bizia ikusgarri bat bezala azaltzen zaigun ura, ots, leenbiziko gaztaroa.

Orduan bai. Artean munduan sartu gabeak izaki, Parabisu bat bezala azaltzen zaigu au, eta bizia zoramenez beterikako festa bat bezala. Geroa, nolanai ere, dirdaiez ta lilluraz jantzirik azaltzen zaigu, biotz-begien betegarri. Gazteek itsu-itsuan siñisten dute or nunbait ba-direla eztakit nik zer zoragarritasunak. Zoriona zer den edo zertan den garbi esaten eztakite, noski, baiña izen ori ematen diote beren amets eta yoranek billatzen duten ondasun ezkutu orri. Eta ondasun orren billa abiatzen dira beren indar guziez. Eztute asko uste, orraitio, beren bizitzako arorik onena berauxe dela, geroago samin ezti batekin gogoratuko dutela, itxaropen ta amets lillurakor au baiño beste on tinkoagorik aurkitu ez dezatenean.

Gazteak egin du bizian bere sarrera. Eta daueneko ikasten ditu bi gauza. Bat: amestutako gauzak zailtxo direla arrapatzen, eta bestea: bein arrapatu ezkero, eztutela gizona asetzen.

Oztopoak eta etsipenak alde orotarik. Izan ere, bizitzaren eskola gogorra oiezaz dago egiña. Leenbizian eztugu siñistu nai, arritu egiten gera, asaldatzen gera, gure zoritxarrari edo

gaizki jokatzeari botatzen diogu errua, eta berriz esesten diogu. Nolanai ere, eta uts oiek gorabera, ba-dugu elburura irixteko ustea... Elburua, Muga... bai zera! Eztago olakorik. Beti bidean abiatuak. Azkenean, urte askoren buruan, ikasten dugu biar-etziko egunak igarotakoen antzera izanen direla, eztagoela itxaropiderik, eta orduan biurgune ukigarri bat gertatzen da gu baitan. Zorionerako dugun griña, aurrera barik, atzera begira jartzen da, oroitzapenari eltzen dio. Au da norbere burua engaiñatzeko era berri bat. Biziaren aurreko zatia gerokoa noiz arrapatuko, eta au eldu denean, igarotakoagatik miñez...

Eta ala izan oi da bizitza etsipenez josia. Eta eriotzak ere saio berriak egiñez arrapatzen gaitu, maillua eskuan dugula, edo bestela gure lanen zoritxarra zergatik izan ote den gogoratzen ari gerala, edo-ta askotan alper-lan onen erremienta aserre biziz urrutira jaurtitzen ari geranean.

Zer dela ta ori? Ba-da emen zerbait arrigarri eta bitxirik. Piztiekin ezpaita olakorik gertatzen. Piztiak, jan ta edan eta bere biziarekikoak egin ondoren, lasai asko dijoaz lotara. Gizona bakar bakarrik dabil beti beste zerbaiten atzetik. Zergatik ote da ori? Eta zergatik beste gauza orrek eztu gizona bein ere asetzen?

Francisque-Michelek, euskaldunez egin zuen liburuan badakarzki Frantzia-aldeko gure anaien kanta batzuk **munduko gauzen ezdeustasunaz.** Orra beren letra:

"Mundu zoro, tronperiaz bethea,
iduki nauk, ondikoz! gathetan.
Lausengarri, engañakor, tristea,
atzeman nauk, eta zenbatetan!"

* * *

"Ez da mundu huntan,
ez hunen agintzetan
behin ere aurkhitzen
zorion falsorik baizen;
bethi da gezurti
atzematen.
Halare bethi

Edireten
ditu gizonak
fidatu nahi zaizkonak..."

(*Francisque Michel, Le Pays Basque,* p. 505-506).

Eta mintzatze-molde au ezta erlijioarena bakarrik. Gizonaren barne-barnetik sortu da. Alde ta aldi orotan azaltzen baitu gizonak oiu samin au.

Munduko gauzen ezdeustasuna, funtsgabetasuna... Bai. Galdetu jakintsuei, agintariei, artistei, poetei: denak dastatu ta frogatu oi dute etsipen ori, samin ezin sendatuzko ori. Aundi direlakoan, eta Aundien izenakin ohoratuak izan, eta berek jakin eta ikus eztirela deus... Dena euki beren eskuetan, eta denori utsa izan berentzat.

Bai, nolanai ere, ba-da emen zerbait aztertu ta sakondu bearrekoa. Gizonaren alderdi au ezin diteke alde batera utzi, aintzat artzekoa ezpalitz bezala. Bizia, lur ontan ezagutzen den modura, ezta gai gure yoranak asetzeko: ori da kontua. Eskasia ontan, aski ez izate ontan, ba-da misterio bat, eta eskandalurako bide bat.

Ematen zaigun bizia oso goitarra edo aberatsa ta doatsua ez izatea, ori ez litzake arritzekoa, zeren eta iñork eztigu ezer zor, eta ematen zaigun on-apurraz pozik egotea bidezkoa dirudi. Baiño bear litzake beintzat kidetasun edo berdintasun bat on oien eta gure yoranen artean. Eta ain zuzen, ori da emen ikusten eztena. Arima eta bizitza, bi biak egin zituenak, zergatik egin etzituen bata bestearentzat?

Jainkozko arimak ematen zaizkigu, eta gero bizi zarpil kaxkarra eraman bear. Neurgea amets, eta nai ta naiez ezerezari lotua ikusten dugu gure burua. Gure eskumenean diren lurraldeak baiño arutzago ta aitzinago edatzen dira gure yoranak. Eta bidezkoa al da au?

Gauza bat baldin badago ezaguna, beti-beti eta nunai egiztatua ikusten dena, onako au da, alegia: egikizunen eta joeren artean kidetasun eta egokitasun bat nabari dela. Ba-da anaitasun bat, bata bestearentzat egiñak izan diren izakien artean, eta ain zuzen ere, anaitasun orretatik sortu oi da munduko egokitasun arrigarria. Baiña orain ari geran kontu ontan ezta batere olakorik agiri, emen ezta anaitasunik. Guk

amets duguna eta gure eskumenean dagoena ezin dira iñola ere berdindu eta elkarrekin uztartu. Ego zabalak izan, eta aitz-zulo mear baten barruan ibiltzera beartuak egon: nola diteke au, gure arima ezpaldin badator beste nunbaitetik eta ezpadago egiña beste non-edo-norako? Nondik ote datorkio yoran ori, kizunik eta sustarrik gabeko egarri ori?

Joera alper bat, ez buru ta ez buztanik eztuena? Jum, ori ezin diteke, izadiak eztu olakorik egiten. Begiak ez al du frogatzen ba-direla nun-edo-nun ikusi ditezken gauzak, eta belarriak ba-dela nunbait soiñua? Zangoak eztu adierazten badela lurra, eta egoak orobat ba-dela aidea, eta arraiaren eskardak ez al dira, menturaz, uraren seiñale eta ezaugarri? Ba gure ariman ere egoak baldin badira ez ote du orrek ezer esan nai? Arima, egaztia omen da, eta egan egiteko sortua: alaxe zion Laredotar Benardino idazlari mistiko zaarrak. Baiñan gaurkoz aski dugu, ez gaitezen azkarregi joan. Itzuliko gera berriz ere puntu onetara.

IX Kapitulua

Gure yoranen azkengabea

LABURPENA

Mundu ontako gauzek ez gaituzte asetzen, eta ori da, noski, gure arimak infinitua duelako amets, eta infinitu orren lilluraz ta doaiez gauzak pintatu ondoren, gero azkenean oien utsa frogatzen duelako. Gizonak billatzen duen zernairekin gertatzen da ori: jakintza, agintea, dirua, amodioa... Zer esan nai du orrek? Oietan beste zerbait billatzen dugula. Bazterrik eta azkenik eztuen izakia izan oi dela gure gogoen xedea.

Oiñazeak eta barneko guduak ainbesteraiño naigabetzen bagaitu, ori da, noski, gure zorion-ametsaren kaltetan datorrelako, gure bizia traba gabe edatzera dugun irritsa galerazten ta debekatzen duelako. Beraz, alde ontatik ori ezta arritzekoa. Zaillago da ulertzen gure arimari gertatzen zaiona ez bere aurkako, baizik bere aldeko diren gauzekin, gure zorionegarriari putz eta bazka ematera datozten izakiekin. Jaurtitzen gera itsumustuan oien gaiñean, baiña miazkatu orduko, ez gaituzte asetzen eta segitun abiatzen gera beste zerbaiten ondoren.

Zer esan nai du orrek? Bizi ontako izakiek ez bagaituzte asetzen, ba-dirudi emendik gauza bat atera ditekela, alegia: mundu ontako gauzetan eta oien bidez edo bitartez, beste zerbaiten billa ari gerala. Baiña onako au ere aitortu bear da: emengo gauzek asetzen ez gaituztelarik, oietan, alere, atsegin artzen dugu, eta bortizki sentitzen dugu beroien erakarpena. Orrek ere esan nai du eztitugula osoki arrotzak, eta billatzen dugunakin ba-dutela zer-ikusi.

Zer pasatzen da ba? Edo zein da, presiski, giza-urduritasunen xedea? Eta giza-biotzak billatzen duen on osoko ori eta beste on erdizko oiek ba ote dute zer-ikusirik elkarrekin? Ona emen orain aztertu nai duguna.

Bizi ontako zerek ez gaituzte asetzen. Ori ezin uka. Alere onako au ere esan bear da: bizitzako aro eta une guztietan eztugu ala uste, edo beintzat eztugu ori gogoan. Gorago mintzatu giñan gaztaroko atarian gertatzen denaz eta nola orduan mundua Parabisu-antzo azaltzen zaigun. Eta geroago ere maiz berritzen da gugan lillura au. Izan ere, zer gera gizonak, aur aundi batzuk baizik? Nori eztio gogoak bein edo bein eman, baldin onen edo orren jabe izatera baletor, amodio au, kargu ura, t. a. iritxiko baldin balu, bete-betean zorion-tsu izango litzakela? Uste okerra eta engaiñuzkoa, baiña gu ari geran auzibidera argi pixkat ekarri lezakena.

Aztertu eta arakatu dezagun gure ariman igarotzen dena, saiatu gaitezen alegiñean gure uste eta esperantza orren iturburuak aurkitu naiez. Emen dugu bide bat jatorra eta utseziña gure senak zer billatzen duen asmatzeko. Ni zerbaiten atzetik banabil gauza orrek erabat zorionduko nauela siñistuta, ori izango da, noski, nere ustetan, gauza orrek ba-dituelako zorion oso bete-betea emateko bear diren doai guztiak.

Eta izaki zoragarri orren gaiñean nik ezartzen ditudan doai oiek nolakoek diren jakin ezkero, jakingo dut alaber nora ninderaman ziñez nere desirak, gogoak. Ba begira zazute urbildik eta ikusiko duzue: orrela lilluratzen eta tiratzen gaituzten izaki den-denak eztute gurekiko indarrik gure begitan infinituaren lurrunaz eta koloreaz inguraturik azaltzen direlako baizik.

Ezin dugu gauza bat maitatu, betikoa ta azkengabekoa bezala artzen ezpadugu. Jakiña, elburu ta muga bezala artzen ditugun izakiez ari naiz, ez beste zerbaiterako bidetzat nai ditugun oiezaz. Esate baterako, atsegiña, amodioa, jakintza, ospea. Olakoezaz gizonak sarri esan oi du: Tamaiña ontan edo arako mailla artaraiño eskuratzen baditut, aski dut, eztut deusen bearrik. Orrela mintzo naizenean, zer egin dut? Aurretik ezarri izan dizkiot delako izaki orri gezurrezko kolore batzuk, berez ez dituen doai batzuk. Itz batean, infinituaz pintatu eta jantzi izan dut.

Eta ori ala bada, argi ta garbi agiri da ondorioa. Guk lurreko izakietan billatu oi duguna, zera da, infinitua, ez mugarik eta ez neurririk eztuen izakia. Egia ote da au, bai ala ez? Ikusagun.

Marko Aurelio-k aolku au ematen omen zuen maiteminduentzat: analizatu, odol otzean miatu orrela lilluratzen gaituan izakia, bere inguruko laiño ta estaldura guzietatik garbituaz. Erremedio bikaiña, baiña zergatik? Begitazioaren eskumendetik ateratzen den edozein gauzak, bere ederraren eta lilluraren geiena galtzen duelako, noski. Mundu ontako izaki oro, analizatu ezkero, eta gure sentimenduak eman oi dion ideal-kutsu ortaz erantzi ezkero, igartu egin oi da, zimeldu ta utseratu. Gauza bera urrutitik begiratzen baduzu, berriz, begitasunaren begi-ordeekin, orduan aunditu oi da, dizdiratsu ageri da. Ametsaren aunditasuna ta idealaren dirdira artu oi du. Baiña orduan ezta geiago gauza bera, gauza ura jainko biurtua baizik...

Orra, esate baterako, jakintza. Nondik ote datorkio bere itzal eta lillura arrigarri ori? Zer dela ta gizon arruntari azaltzen zaio jakintza aunditasun eta jauntasun bildurgarri orrekin? Eta zergatik itzal eta izu-laborri ori jakintsuarekiko? Naiz astronomua izan, naiz mediku, filosofu, edo tresna eta makiña berrien asmatzaille, erriko gizonak uste du, nunbait,

beste arraza bateko laguna dela jakintsua, eta aren aitzinean auspeztu bear duela.

Baiña ori da, noski, eztakielako zeatz, argi ta garbi, jakintsu bat zer den, eta bere jakintza zenbatetaraiñokoa den. Uste du, bere bakuntasunean, jakintsuak ba-dakiala, edo, beste itzez esateko, Jainkoa dela. Izan ere, zer da jakin, bere muiñean, Jainko izatea baizik? Arantzazuko ikasleek ba-dute aldizkari bat, **"Jakin"**. Bai, jakitea, gizonaren ametsa eta gutizia! Eta zer da jakitea? Gure begiakin mundua inguratu, zulatu, erraietako bere ezkutuak azaldu, meneratu eta berari agindu... Baiña gizonak eztaki deus ere, eta eztakielako, eztauka benetazko aginterik ezeren gaiñean. Gizonaren begiak irristatu egiten dira gauzen axaletik, lurraren gaiñaldea apur bat txitximurkatuz, eta ain zuzen orregatik izan oi da ain aula ta ergela Jakintzaren jainkotasuna. Baiña gizon arruntak eztu ori susmatzen. Jakintsuari berari ere milla aldiz aaztutzen zaio eta bera ere maiz erortzen da Jakintza jainkotzat artzeko tentazioan. Ain da egia gizona ezin ditekela adorazio gabe bizi!

Eta berdin gertatzen zaizu agintearekin. Urrun xamarretik begiratzen duenarentzat, zer dira agintariak, jainko batzuk baizik? Gogora ditzagun aintziñako Enperadoreak, jainkotzat aitortuak: **"divus Imperator"**. Alejandro Aundiak Jupiterren seme ta olako izenekin berari deitzeko agintzen zuen, batere lotsarik gabe. Enperadoreen jainkotasuna! Ba-dugu emen, alafede, ikasbide marduleko meditazio-gaia. Agintearen adorazioak erro sakonak izan bear zituen jendearen biotzetan, jan, edan, lo ta eztul egiten dakian gizaseme batek, iltzea zor duen batek, Jainko deitu dezatela agintzeraiñoko ausardia izan zezan!...

Eta izena eta deitura galdu bada ere, sentimenduak badirau. Geroztik ere Karlomagno baten garaian, Napoleonen eta olakoen egunetan ez al dugu ikusi sentimendu orren berpizte ospatsua? Eta edozein ministru edo Estaduko kargu bat duanaren aurrean ere sentimendu orren aztarna nabari da. Napoleonekin gerran ibillitako mutillek uste zuten au benetan zela garaitu-eziñezkoa, eta Santa Elenatik itzuliko zela nola edo ala, besterik ezpazan itxaspean tunel bat egiñaz. Eskolagabeko gizon baten burua zulatu eta barnetik ikusi al bageneza (ta eskolatuena ere berdintsu izango litzake, nun-

bait) an agiriko lirake entidade misteriotsu auek: Estadua, Legea, Nazioa, Errepublika, Parlamentua ta abar, denak jainkozko dirdaiez apainduak.

Esaera jakiña da eztagoela gizon ospetsurik bere morroiarentzat, etengabe bere aldamenean eta berari laguntzen bizi denarentzat. Eta zergatik? Laguntzaille orrek edo morroi orrek gizona den bezalakoa ikusi oi duelako, bere muga, koska ta akats guztiekin. Gizon orren illungune ta itzalak egunero egunero ikusten eta frogatzen ari delako. Baiña erriak, gaiñerako jendeak, eztu jaun oien alderdi ori ikusten. Beti azaltzen zaizkio **"ex cathedra"** mintzatzen, egunkarietan irakasten, dotriña garratzak ematen, beti urrunetik, eta ala jainkotzat artzen ditu. A, nolako larrapastada, jaun politiku oiek urbilxeagotik ezagutzen asterakoan! Baiña asko ta askorentzat larrapastada ori ezta bein ere gertatzen, dena urrunetik eta ametsaren laiñoz estaldurik azaltzen zaielako.

Eta diruak duen lillura, nondik ote dator? Neurrigabeko gozabide bezala azaltzen zaigulako ez ote? Rotschild! Izenak berak zer nolako irudiak altxatzen dituan gugan! Urre-zakuetan eseritako aundikiak, ikaragarrizko lujoz apainduak, aginte ta jauntasun beteko gizonak. Keiñu bat egin eta dena irtetzen zaie bere gogara. Erriko jendeak, jaun oien festen berri entzuten duanean, zera uste du, Homero-k dakarzkian jainkoen oturuntzak direla, alegia. Ezin du siñistu jan-edan oietan artzen den ardoa benetazko ardoa denik, edo an jaten den aragia egiazko aragia denik. Eztiozu buruan sartuko **"menu"** oietako itz arroak eztirela deus ere. Ezin du siñistu jainkobankete oietan eztela bere eguneroko bazkari arruntean ainbat gozatzen. Bai, jauna, bai, hotel apain eta dotore oietan ere giza-bizitza duzu, eta au berdiña izan toki denetan. Giza-bizitza bat besterik eztago, eta bera ainbestekoa izan, kaxkarra. Baiña erriko gizonak eztu ala uste.

Eta kontu aundia jarri oi da, gaiñera, bein ere jakin eztezan. Bestela, iñoiz jakingo balu, akabo adorazio ori, eta jakiña, ortik bizi direnak eztute nai akaba dedin.

Aberatsak gorde ta zaitu oi du diruaren itzala. Jakintsuak, berriz, bere titulu eta itz puztuekin jantzi oi du bere burua, mago-itxurak artuaz. Filosofua eta medikua griegoz mintzo zaizkitzu, eta orrela, bere buruari noizik bein, eta besteei beti, jakitunago dela siñistarazten die. Estaduaren buru egiten due-

nak gordeko dizu bere larderia al dezan eta obekienik, bere jardunak eta deliberazioak ate itxiz egiñaz. Eta Estaduko azken morroia ere, kutxazain edo karteru txar bat baiño ezpada ere, saiatuko da alegiñean goikoen itzal ortatik zertxobait beretzat artzen.

Apaiz-etxeetako neskame oien antzera: **"gu"**-ka ari zaizkitzu, berak apaiz bailiran. Estaduko azken morroiak orixe bera egiten dizu. Gauzarik txipienean milla traba jarriko dizkitzu eta alperriko urratsak eman araziko. Eta orrela dago bizi guztia, gezurrezko estalki batekin gordea, bere uskeria estali naiean eta biziari berari garrantsi eta itxura pixka bat eman naiean. Bestela, bere gordintasun eta billostasun utsean artuko bagenu, etsipenik larrienean eroriko giñake-ta.

Nondik datorkio nobelari, ipui, teatro eta zineari bere arrakasta izugarria? Idealaren amodioak egiten du ori. Bai, gogoko zaio gizonari gezurrezko bizi ori, aundi-kolore batekin eta betikotasun-kutsuarekin azaltzen zaiolako.

Amodioak berak, urbildik begiratzen badiogu, frogantzarik unkigarriena ematen digu esaten dugunaren alde. Analiza zazu amodioa, baldin erail nai baduzu, zion Marko Aurelio-k, eta egia biribilla zion. Izan ere, odol otzean aztertu ezkero, amodioak eztu zutik irauterik. Amodioak misterioa bear du, urrutiko ikuspegi luzeak, ezin mugatuzkoak, ots, ametsaren lurraldea da aren erria. Infinitua du galdegiten. Nori sartuko zaio buruan gizakume edo emakume aul kaxkar batek (baldin bere izate utsean eta den bezala artzen bada) sorrarazi lezazkela orrenbeste erokeri, balentria, eta, itz batean, giza-indar gorenen zabaltze ta edatze miraritsu ori? Amodioaren milagruak dira oiek, eta ain zuzen berak osatzen du giza-bizitzaren alderdirik ederrena.

Baiña ez! Maiteminduak amets duena ezta mami ta ezurrezko lagun bizi ura, onek esnarazten dion ideala baizik. Analisi ots batean argi-txakurtzat jotzen duzun ori, ori da ain zuzen, amodioaren muin bakarra. Eztu ark beste nortasunik.

Giza-bizitza osoak emango liguke lekukotasun auzi ontan. Ikusagun orain gizartea, soziedadea: emen ere berriz azaltzen zaigu infinitu-gosea, gizonak beti berakin daraman gose ezin kenduzkoa. Bakarrik ezin dezaketena, gizonek uste dute denon artean lortu al izango dutela. Antziñako ijitanuak Piramideetako arritzarrak jartzeko egin zuten antzera. Beti ideala

gidari. Frantziako Matxinada aundiko gizonak, mundua azpikoz gora jarri nai zuten ameslari porrokatu aiek, edo komunismuaren eragille ankerrak zer ziran? Idealaren gose, infinituaren maiteminduak, okerreko bidetik joan ba dira ere.

Erlijioak berak, giza-gogoaren lan berezi bat den aldetik, ez ote digu salatzen infinitu-gose orren aztarna? Emengoaz ezin ase, eta misterioari eltzen dio.

Labur: real utsaren barrutian, esparruan, ito egiten gera, ez gaude gure gogara. Gure gaiñetik beste zerbait ezpaldinbada, giza-bizia kaxkarregia eta hitsa dela sumatzen dugu. Utsa besterik eztugu aurkitzen gure ingurunean. Kirten baten billa ari gera, beraz, euskarri edo abe baten billa, gure bizitza andik sendo lotzeko eta bere jatorrizko auleria ori egiñalean erremediatzeko.

Au dela-ta, **"Jainko ezezaguna"**-rentzat erruz jaso izan dira beti aldareak munduan. Aldare orren oiñetara ekarri oi dira bizitza realeko gauza denak, bere itzal aundiarekin estali ta irudiz aldatu ditzan. Fetitxeak berak ere zer nai dute, giza-bizitzari infinitu-lurruna erantsi baizik? Siñiskera eta siñiskeria guztiak ere sustrai ortatik erne dira. Mitologiek eztute beste iturbururik. Bizitza nai dute goratu, jainkozko maillara jaso, misterioz inguratu, orrela, era ortara, laiño-artetik begiratzen zaiolarik, aundi ageri dedin amoreakgatik.

Orixe bera agiri zaigu antziña-aldiko literaturetan. Grezitarren epopeyak, bere muiñean, eztigu besterik erakusten, giza-bizitzarekin jainkozko elementua naasi-bearra baizik. An edozein gizon ospetsu, jainkoen seme zaizu, edozein iri aberats, jainkoek sortua izan da eta beren bizilekutzat artu dute, gaiñera. Zorte ona, jainkoekin adiskidantza dugulako seiñalea omen, eta zoritxar oro, ikusi eziña digutelako ezaugarri. Edozein asmaketa, berai egindako lapurreta; jakituria, berriz, beren izpirituaren ixuri bat...

Homero, Hesiodo, Herodoto —asaba famatu oiek—, eztute besterik beren liburuetan. Eta aitortu bear, gizadiaren zatirik bikaiñenak liburu oiek ditu Bibliatzat.

Eta poesiak eztu bein ere alde bat utzi jainkozko elementu ori. Beronetan aurkitzen baititu bere baliamendu oberenak eta estimagarrienak. Siñiskeriak, superstizioak, ba-du berakin zer-ikusi. "Superstizioa —zion Benjamin Constant-ek— emen, Frantzian, ez oi da artu bere alderdi bitxi eta irri-egingarritik

baizik. Ala ere, giza-biotzean ditu bere sustraiak, eta filosofia bera setatsu jartzen bada ari gibela ematera, axaleko biurtzen da eta ausarta."

Gaur eguneon ikusiko dituzu kristau fedea arbuiatu dutenak, eta ala ere, fede orrek giza-bizitzari ixuri dion lurruna, jainkozko usaia egiñalean gorde nai luteke. Jainkoa ukatu ondoren, itza, alere, nai dute gorde. Ametsezko izaki bat dela aitortu, eta gero izaki orren izena, begirunezko laiño tartean nai dute atxiki. Eguzkia itzali ondoren, aren argiarekin argitu ta berotu nai. Uste dute eztutela siñisten, baiñan egitan beren sistemak dira xoilki fede-gabeak; biotzak, aldiz, giristino dira, eta ala, arimako joerakin adirazten dute Zizeron-ek zionaren egia: "zein bearreko den jainkozko indar batek giza-bizia ingura ta besarka dezan, eta nola ezten posible bein ere gorantza begiratu gabe bizi al izatea".

Labur eta itz gutxitan esateko: ikusagun gizona bere egite guztietan eta bere biziaren zabalune guztietan: nunai eta beti, arimako astindu batek darama mundu ontako gauzetatik lekora. Gizonaren begirada, eta bai gogoa ere, kokatzen da —ezta dudarik— emengo izaki zeatz, ziztrin eta mugatuetan; baiña oietara jaurtitzen dugun ikuskera, arutzago dijoa. Uste dugu onako au desiratzen dugula, eta egia da, ori desiratzen dugu; baiña au da, noski, gauza orrek beste baten irudia gugan sorrarazten duelako, gauza ori, den baiño aundiago iruditzen zaigulako. Ezerezaren menpean dagoen uskeria ori arrapatzerakoan egin oi dugun keiñu aundiak, bete-betean ta argi asko frogatzen digu au. Besoak zabaltzerakoan, zabala, neurrigabea nai dugu arrapatu, besartetu. Osoa, egin-egiñekoa, betikoa ta bazterrik gabea nai dugu. Neurtua ta mugatua den gauzarik eztugu nai.

Neska txikiak bere panpiña (muñeca) maitekiro goxatzen duen bitartean, bere nebatxoak eztio batere jaramonik egiten. Onek bere joera izango du gerrara eta berunezko soldaduetara. Eta psikologuak ba-daki gertaera auek argitzen: aur-jolasak sentimendu bat salatzen digute: panpiña-jolasaren atzetik, amatasunaren sentimendua. Soldadu-jolasen atzetik, berriz, egintza-egarria. Eta nik esango nuke: bizitzako izakiak ere panpiñak eta berunezko soldaduak bezala dituzu. Eta emengo bizi au, beste baten itzala eta irudia bezala. Berari deika eta oiuka ari da gure barreneko sena.

Gure lanegiñek ez gaituzte bein ere asetzen. Eta zergatik ez? Lanera bultzatu ginduan sentimendua milla aldiz aundiago zelako. Lortu duguna, berriz, ziztrin eta utsa gelditzen delako. Mendia erditze-miñetan, eta azkenik zer eta xagu kaxkar bat erditu. Orra guri gertatzen zaiguna. **"Ori al zan guzia?"** Itz oek esaten dira aopean, goraki esaten eztirenean, an biotz barrenean, beazun-samiñez bustirik, egite arrigarri bakoitzaren ondoan. Amets genuena lortu bai, eta bereala gauza ura igartu egin oi da gure begitan, hits eta laru biurtu dela dirudi. Gauza denetan billakuntza eta saiatzea bakarrik da zoriontsu, eta ori da, noski, billatze orrek azkengabeko itxaropena daramalako bere erraietan.

Eta Jainkoagan siñisterik eztuena, bizia gezur ikaragarri bat baizik eztela konturatzen denean, a zer nolako etsipenean erortzen den! Ainbeste neke, ta dena alperrik... Or duzu, ispillu-antzo, Txillardegiren Peru Leartzako edo Leturia bera ere bai.

Bai, gizona den bezala nai ba dugu ikusi, ase eziñezko bere gutiziekin ar dezagun. Ideal baten atzetik dabil beti. Ideal orrek esplikatzen du bere arimako abiadura. Abiadura ori, berriz, izadiaren zera da, fruitua. Izadiak berak moldatu izan du gizona era ortara. Eta ain zuzen, orregatik diot nik abiadura orren elburua edo jo-muga ezin ditekela izan alde guziz ametsezkoa. Ideal orrek persona bizi batean mamitua eta tinkotua bear duela egon. Ori frogatzera dijoaz gure saialdiak.

X Kapitulua
Pesimistak eta txepelak

LABURPENA

I. Pesimistak eta txepelak dira gurari aundi oien berri eztakitenak; itxuraz beintzat ala dirudi. Baiña gauza urbillagotik begiratu ezkero, ezta ala. Izan ere, bere burua iltzen duenak, zergatik egiten du ori? Berak uste zuena, biziak eman eztiolako. Pesimistak ere zergatik jotzen du txartzat bizia? Au eztelako gauza, bere gosea asetzeko.

II. "Nik eztut aundi-ametsik", esaten du txepelak. Baiña agian eztaki bere gogoen berri. Gure barnean datzana ezta errez jakiten. Mihiak besterik esaten badu ere, gizonaren egintzak salatzen du ederkienik gure yoranen azkengabea. Gauzek ezgaituzte asetzen, baiña bai engaiñatzen.

Gure azterketa onen ondoreak atera aurretik, korapillo batzuk askatu bearrean gera. Esan dugu, alegia, gizona ideal baten atzetik dabillela beti, yoran azkengabeko batek daramala, ta abar. Baiña gizonen artean ez al dira askotxo orrelako yoranen berri eztakitenak?

Orra emen orain arakatu bear dugun puntua.

Bat baiño geiago aurkituko dituzu noski, taju orretakoak. Giza-guraria neurrigabea dela entzutean, auxe erantzungo dizute lasai asko: "Ba, nik, beintzat, ori zer den eztakit, eztut orrelako guraririk. Nere asmoak ondo mugatuak eta zedarrituak dauzkat eta asmorik ote dudan ere ia-ia eztakit. Denpora, datorren bezala artzen dut, gertaerak ere berdin. Idealaren gose-egarri ori zer den eztut konprenditzen. Yoran aundi oiek, zuk gizon guztietan ikusi nai dituzun oiek, nik eztitut ezagun, nigan eztut orrelakorik aurkitzen."

Eta beste batzuek, berriz, ez bizitza, baiñan ezereza maite omen dute. Bai, ezereza, eriotza, betiereko loa. Auek dira pesimistak eta oitatik asiko gera. Giza-gogoaz esanik dudan guztia ezeztatu ez baiña erarik argienean tinkotzen digutela adiraztera nijoa.

I

Eta lenbizi, beste guztiak baiño lenago, aipatu ditzagun pesimista pratikoak, ots, bizitzaz teoriarik azaldu ez, baiña au txartzat jo eta beraz utzi egiten dutenak, suizidak, alegia, beren burua iltzen dutenak.

Suizidak eztu eriotza maite, eriotza denez; baiño igesleku bezala billatzen du. Bizitza onetatik iges egiten du. Beraz, eztu bizia maite. Nola esan genezake, bada, gizonaren bizi-naia azkengabea dela?

Eztut uste burua asko nekatu bear denik objezio au askatzeko. Bere burua errekara botatzera dijoana, zer da, izan ere, bere zorion-gosean ondatua ta utsegiña baizik? Zorionametsik izan eztuena, ezta orrenbesteraiño zertzen biziak zorion ori ukatu diola-ta. Suizidioa etsipenetik eldu da. Eta etsipena zer da? Itxaropena galtze bat, noski. Beraz, ba-zan an itxaropena.

Norbait atea amorruz itxiaz etxe batetik irtetzen bada, orrek esan nai du eztuela an aurkitu berak uste zuena.

Etsipenean erori da, baiña etxera sartzerakoan ba-zuen itxaropen bat. Suizidakin berdin gertatzen da, eta eztugu ontan luzatu bearrik, au garbi dago-ta.

Itxuraz zaillagoa zaigu onako beste auen kasua: biziaren hitsa ta larua ongi frogatu ondoren, arrokeriazko mezprezioan gordetzen diren oiena. Eztakite urrunago edo gorago begiratzen. Bizitza onen utsak begia gora jasotzera ekarri bear lituzke; baiño ez, argirik eztute nai, illunpean murgiltzen dira. Utsa ta ezereza omen da beren amets bakarra. Oiek dira pesimistak.

Pesimista direnetatik asko eta asko mihiz bakarrik azaltzen dira pesimistak, baiña ori beste kontu bat da. Bizitza txartzat jotzen dute, baiña gero atsegiñen atzetik dabiltza. Badakite bai beren burua ezbearretatik ondo zaitzen, liburu saltzailleakin tratu emankorrak egiten, eta ori egindakoan jartzen zaizkitzu beren gogora illobiko zoritxarraz amets egiten, beren pipa erretzen duten bitartean edo garagar-ardoa galanki edanez, Schopenhauer-ek egin oi zuen bezala.

Taju orretako pesimistak ez uste gutxi direnik. Zivilizatuen artean beintzat, pesimistak nekez izan oi dira arras zintzo eta jatorrak. Erdi-txantxetako pesimistak dituzu geienetan. Bizia gorrotatzen dutela esan bai, baiña gero zer ikusten dugu? Beren izena ta ospea zaitzen dute, beren obariak eta mozkiñak txintxo asko begiratzen dituzte. Teorian dira pesimistak edo axalean, baiño egitez ta mamiz ez. Baiña utz dezagun au alde batera. Pesimismua objezio bat ez, baiña froga berri eta dizdiratsu bat dela azaltzera nijoa: gure barrenean datzan azkengabeko desiraren aztarna ospetsua.

Izan ere, zein da Pesimismuaren iturria? Ori bistan dago: bizitza onen lazeria, mixeria, gezurra, eta ezin erremediatuzko uskeria ikustea.

Eta diot nik: bizitza, gauza gaiztotzat jotzeko, bera baiño ezereza dela obe jakiteko, neurri edo metro bat bear da euki nai ta naiez. Bi-biak bear dira neurtu metro orrekin. Beste itzez, barnean daramagun idealetik zein dagoan urbillago bear da ikusi.

Eta zein da gure metro edo ideal ori? Ongiaren, osoaren, zorionaren ideia, noski. Orra ba, ideal ori nola agiri zaigun, ukatu nai den momentuan bertan.

Eta ez esan ideia ori eztuela pesimistak maite. Alperrik

esango du. Ez al du ba ezereza aukeratu, ideia ortatik bizia baiño urbillago dagoela uste duelako?

Pesimistak, ezerezaren atzetik dabillenean, ezerez ontan ikusten du atsedena, bere arimako indar saminduentzat asegarri bat, estimagarri iruditzen zaion zerbait. Eta ori zer da, onaren ideia ezpada? Onaren ideia beltzez jantzia, baiña berdin dio. Onaren tasunak ezerezari ezartzen zaizkio.

Orrek esan nai du pesimistak eztuela ezerez utsa maite, bere utsean, baiñan begitaziozko ezereza: utsik aurkitzen denaren ezereza: ezerezaren ezereza. Eta ori zer da, ezer ezpada? Uts dagoanaren utsa zer da, betetasuna baizik? Eriotzaren eriotza zer da, bizia ezpada? Ori bai, bizi ori, betetasun eta Ezer ori ezta bizitza onek eskeintzen dituen gaiekin osatua, eta orregatik ematen zaio ezerezaren izena, zer ezten adieraztearren eta zer diteken eztakigulako.

Orregatik, noski, hindutarrek Jainkoari deitzen diote ezereza. Ala adierazten dute Jainkoa eztela guk izakiaren izena ematen diegun gauza oietatik ezer. Baiña biziaren ukatze onek baietzik ederrena dauka barnean.

Ez al dio Dionisio Areopagita-k argiak baiño gauak egokiago adierazten duela Jainkoa? Pesimistek ere orixe gogoratzen digute. Beren ezereza zer da, gaua baizik? Jainkozko gaua, gezurrezko argi-txakurrak itzali ondoren. Baiña ezezko ontan Baietza bear luteke ikusi.

Nolanai ere, oien etsipenak gauza bat ematen du erakustera: yoranen zabala. Etsipenean erori dena, zera izan da beti: on-gose izugarri bat. Alperrik esango du ezetz, bere jatorrizko begitartea ezin du iñundik ere ezkutatu.

Biziaren bera-bearra ikusiz, illobiko betikotasuna maite du. Gure lanen utsa somatuz, betiko atseden aundia du amets. Gure Jakintza berriketa utsa besterik eztela jakiñik, betiko ixillean nai du ostatatu. Atsegiñaren utsa ta oiñazea miazkatuz, gorputzari atsedena eman nai dio, pakea nai du xurrupatu.

Atseden artu! Baiña eta atsedena ez ote da biziaren molde bat? Eta ixiltasuna ez al da Jakintza-mota bat: ezer eztakigula jakitea, alegia? Atsegiñari, utsa delako, gorroto izatea, ez al da guk amets dugun atsegin osoari gorazarre egitea?

Pesimistak, bada, On guzizko orren ondotik dabiltza, eta beren arimako indar guztiekin, gaiñera. Zorion-mota bakarra

maite dute: berek ikusten dutena, noski. Baiña itxura batekin ala bestekin gizona beti zorionaren atzetik. Eta oraingo bere etsipena da, noski, len iñoiz infinituaren atzetik ibilli eta infinitu ori aurkitu eztuelako.

Pesimistarik jatorrenak eta zintzoenak hindutarrak dira, **Nirvana** billatzen duten oiek. Zer da Nirvana? Gurarien iltzea, bizi goragoko bat irixteagatik. Goi bizitza ori zer den eztigute garbi esaten. Ezereza deitzen diote. Baiña au beintzat ba-dakigu: guk ezagutzen ditugun gauzetatik urruti dagoela. Gezurrezko on-pilla guztiak ukatu eta borondatea gau misteriotsu ortan murgiltzea, orra zer duen Nirvanak eskatzen.

Burua orrela ustu ondoren, kanpoko zarata oro isillarazi ondoren, hindutarrak bere arimako taupadakin batean urrutiko otsa aitzen duela uste du, azkengabearen oiartzuna.

Amets zoroen eriotza, emengo lan-gosearen debekua galdetzen du Nirvanak, baiña ukatze onen ostean ba-dago gorderik absolutuaren baietza. Argi bat kolorerik eztuena, forma gabeko zabala, betetasun bat, baiña ez izakia izakiaren gain metatuz osatzen dena, bazterrik gabeko idealitatea, ori da absolutua hindutarrentzat. Absolutu ortan murgiltzea, ori da beretzat zoriona.

Kristau fedeak ere ez al digu esaten zeruan Jainkoaren ikustean murgilduko gerala? Jainkoaren bizitik bizitzeraiño, absolutu ortatik parte izateraiño? Eta au izango dela gure zorion betea?

Labur, pesimismua eztago ba erreglatik kanpoan. Gizonak bizia du amets, eta bizia ere ez nolanaikoa, baiñan oparoa, betea, gu baitan aurkitzen den guztiari asea emateko modukoa.

Ikusi dezagun orain beste oien kasua, pesimistekin batean izendatu genituan txepelena. "Nik ba-dut aski eta geiegi ere nere eguneroko bizi apur txikiarekin, eztut aundi-ametsik": orra beste auen leloa.

II

Txantxetan ari gerala-edo pentsa dezake baten batek. Nor gera gu, **"Zuk desiatzen duzuna au ta au da"** iñori esateko? Nork daki bere barrengo berri bakoitzak berak baiño obetoago? **"Nik eztut aundi-ametsik, aski dut eguneroko bizitza**

arruntarekin": ala mintzatzen denari, ba al dugu guk eskubiderik ezer esateko? Zeiñek jakin dezake bere barne-gogoa, norberak baiño obeki?

Ala ere... auzi au ezta ain errez garbitzen. Bai, ba-dira gu baitan gogo batzuk gerok bakarrik ezagutzen ditugunak, baiña beste batzuk gordeak bezala aurkitzen dira, eta billakuntza sakon bat egin ezik eztira azaltzen. Eta billakuntza ori maiz norberak baiño obeki egin dezake kanpotik begiratzen duen beste batek.

Konparazio baterako, paseoan irtetzea ematen dit gogoak. Orra gurari bat nabarmena eta agiria. Baiña gurari orrek ba-dauzka barnean beste zenbait gogo gorde eta estaliak, eta ni ez naiz oiezaz jabetzen. Ala ere an daude, nere barnean.

Ikusagun. Zergatik daukat nik paseora joateko gogoa? Gogo orren sustraiak billatzen ezta ain samur. Psikologuak esango dizu: Adiskidea, buru-lanean aritu zera ainbeste ordutan eta ori geiegi da. Ostro zuriei begira ta begira egon ondoren, ostro berdeak ikustea komeni zaizu orain. Illen artean, liburutartean jardun duzu, eta orain bizien lagunarteak tiratzen zaitu. Lagunarte-bearrak, aldakuntza-bearrak ta abar piztu du zugan kanpora irtetzeko gogoa.

Guzti ori egia da, baiña menturaz ni ez nintzan jabetzen. Eta ala ere, nere ibilli-nai ori gogo ezkutu oien isatsa zan. Beraz, gure gogoen azken sustraia maiz eztugula ezagutzen esatea, ezta, ez bitxikeria bat.

Goazen aurrera. Orain ba-datorkizu fisiologua beste arrazoi batekin. "Gizona, izpirituaz gaiñera, ba-duzu zuk gorputz bat ere. Eta gorputz-zatiak ba-dituzte beren legeak. Giarrak, geldi egonaz, galdu egiten dira. Odola nekez dabil eta ondoeza sortzen da. Ez al dakizu txakurrari zer gertatzen zaion? Luzaroan lotuta egon denean, jarein zazu eta beingoan asiko zaizu saltoka. Zergatik? Zer dela ta? Pozaren pozaz, esan oi du jendeak, eta bai, alaxe da, baiña poz ori gorputzaren bear ortatik eldu da.

Berdin gertatzen zaie eskola-umeei ere. Oiek ere bi ordutan katiatuta egon ondoren, zoro-gisa amiltzen dira jolaslekura. Korrika ibiltzeko jolasak nai izaten dituzte. Zaletasun orren arrazoia galdetzen bazaie, emango dizute bear bada arrazoiren bat edo beste; baiña arrazoirik nagusiena eztute berek ezagutzen.

Eta zuk ere, jaun filosofua, ba-duzu aurrarekin eta txakurrarekin zer-ikusi. Urtetsua izanik, etzaitezke aurra bezala saltoka asi, baiña zugan ere gorputzak ba-ditu bere eskubideak. Zuk paseora joan nai duzula esatean, bera da, ain zuzen, zugan mintzatzen dena. Zure nai agiri ori zure barruko nai ezkutu baten agerpena baizik ezta...

Ezta ba ain samur gure barnea eta ondoa ezagutzea, guk zer desiatzen dugun zeatz jakitea. Zenbat gauza dira nere barnean, nik eztakidala!

Beraz, zuk diozunean: "azkengabeko desira oiek nik eztitut...", utzi zadazu esaten: "Egon pixka bat. Ikusi dezagun. Bear-bada zuk eztuzu orren berri..."

Ba-dira zeruan eta lurrean gure filosofiak susmatzen dituan baiño gauza geiago, dio Hamlet-ek. Eta giza-gogoan ere ba-da zure axaleko begiradak ikusten duana baiño geixeago.

Urliari naiz sandiari galdetuaz eztugu auzi au garbituko. Ortarako gure egiteak bear dira aztertu. Gizonaren egintza, barruko naietatik sortzen baita zuzen-zuzenik.

Nai agerizkoa ezta izaten barneko nai sakonaren agerpen eta itzulpen bat baizik, eta ez itzulpen osoa ere. Egintza, berriz, izatearen joera bat delako, ezaugarri utseziña dugu. Egintza da gure barneko irritsen izkera. Itzek bestela esanarren, egiñak salatzen dutena beti egiago, eta oiei egin bear diegu kaso.

Zer dio ba gizonaren egintzak? Ase eziñak gerala, noski. Onako au dugunean, arako ura nai dugula. Pobreak, aberatsa izan nai. Aberatsak, aberatsago, eta ontan eztago mugarik. Ez onek edo arek, edozein gizonek, nai du beti zerbait geiago. Jakiña, joera ori ezta gizakume denetan puntu berean edo gauza berdiñetan azaltzen. Gizonaren arreta edo begirada, mugatua izanik, ezin diteke bat batean puntu denetara edatu. Orregatik bati ardura diona, besteari eztio. Baiña zerbaitean beti salatzen da gizonaren ezin ase ori. Gauza batzuen gaiñean ezpaitugu gogoeta egiten eta ala eztugu oien kutiziarik izaten. Baiña pentsatzen dugun beste oietan, oietan eztugu bein ere **"aski"** esaten.

Auzi ontan itzei baiño gauzei egin bear zaie kaso geiago. Ba-dakit nik itz auek **infinitua, absolutua, eternua** (edo oien ordez euskeraz asmatu ditezkenak) izkuntza landuan erabiltzen direla xoilki; erriaren aotan nekez entzungo dituzu. Bai-

ña ez uste orregatik erriak eztuala zer-ikusirik emen esaten dugunarekin. Guk eztugu esan nai, alegia, baserritarrak azkengabea duela amets. Ori zer den ere eztaki. Guk dioguna da **azkengabeki** desiratzen duela, muga gabe, neurririk gabe. Buruan sartzen bazaio lurra naiz ganadua eukitzea, beti naiko du geiago. Lur-zati bat beretu duanean, beste bat nai izango du. Sei bei ikuilluan baditu, beste sei naiko ditu, ta abar. Gizonaz zerbait dakianak, ez al du au aitortzen? **"Bat dugunean, bia nahi ditugu; bia ditugunean, hirur"**, dio Axularrek.

Alperrik esango didazu, ba, zugan eztela olakorik gertatzen. Zuk orain eztuzu desiratzen **onenbeste** baizik. Bapo. Baiño "onenbeste" ori lortu dezazun egunean, zerbait geiago eskatuko duzu, eta beti ola.

Eta emen ba-da beste zerbait. Batzuek ba-dakite beren goseari draga jartzen. Onenbeste eta ez geiago. D'Alembert-en esana da: Norbere naiei neurria ipintzea, orra filosofuaren zoriona. Baiña au ezta guk diogunaren kontra. Bi gurari-mota berezi bear dira. Bata, izatearen joera dena, griña itsua, eta au ase eziña da: onezaz mintzo gera. Bestea, arrazoiak onartzen et gobernatzen duena. Eta gizon zuurrak, jakiña, jarri dezaioke draga izatearen griñeri. Baiña ori ezta izatearen guraria ukatzea, salatzea baizik.

"Gose naiz", **"gose naiz"**, orra izatearen lekaioa. Beti zoriona amets eta gose ori ezin il sekula. Zuloa ezin estali. Azkengabeak, infinituak bakarrik estali lezake. Zuk esan zenezake: **"Lekaio ori nik ito egingo dut edo isilaraziko"**. Ori egin dezakezu, bai, baiña ni izatea aztertzen ari naiz. Zuk zure naiei jartzen diezun draga orrek, ukatu ezezik, baieztu egiten du nere emengo irakaspena. Izan ere, zergatik egiten duzu ori? Beste on bat, pakea, noski, lortzeagatik...

Gizon arrunta, alere, eguneroko goraberen erdian sarturik bizi delako, ezta bere azkengabeko gose orrezaz oartzen. Ezta arritzekoa. Barreiatuak, kanpo aldera ixuriak bizi gera. Kanpoko zeretan kokatzen dugu gure arreta, eta bein ere ez gu baitan. Orain uskeria ontan, gero beste ortan, orrela dabil, mitxeleta antzo, etengabe batetik bestera gure gogoa, iñoiz gelditu gabe, eta asetzen ezpada ere, denpora pasa beintzat. Leiotik kalera begira zaudela, norbaitek zure atzean, ustu lezakean zure etxea, zu oartzeke. Eta utsik egongo litzake etxe ura, zuk ez jakiñarren. Orrelako zerbait gertatzen zaigu guri

ere: arimako etxea utsik eukiarren, ez gera jabetzen, kanpoko izakiei begira egon oi geralako. Uskeriekin gabiltzala, ez gaude ez aseak, baiña bai engaiñatuak. Axaletik bizi gera eta eztugu barrurago sartu nai. Baiña osiña, zuloa, antxe dago. Esnatu bedi gizon ori bere argi-lotatik. Bizitzak, berak dakian astindu edo ihurtzuri oetako batekin, esnatu beza eta orduan oartuko da bere gutizia ase-ezin orrezaz. Orduan sumatzen du zein gutxi den biziak eskeintzen diona, eta zein gutxirako, gaiñera! Eta eroa ezpada edo arras burugabea, nai ta naiez gizon orrek arritu bearko du, lengo bere lasaitasun ura gogoratuaz: **"bizi nintzela uste nuen, baiña ez nintzan bizi..."**

Gutxi dira, ordea, orrela esnatzen direnak, eriotzako iratzarri aundia gertatu baiño lehen.

Gezurra dirudi, baiña gu gerok ere, orrela mintzatzen geranok, ez al gaitu bizitzak bere oitura eta gezurrekin azpian artzen? Gu gerok ere engaiñatuak bizi gera, eta ori gerok dakigularik, eta eztakianarena egiten dugularik: orra gure patua. Mitxeleta lorez lore dabillan bezala, izakiz izaki gabiltza, gauzen uskeria ez ikusi iduri egiñik. Orrenbesteraiñokoa da gure mixeria ta lazeria. Zenbat eta zenbat il oi dira bizi izan direlako ustearekin, baiña ziñez eta benetan eztira sekula bizi izan. Beren baitara jetxi gabe, beren burua ezagutzeke joaten dira mundutik. Asko da ostro xumea amiltegi bat estaltzeko: ala omen dio India-ko esan komun batek. Txorakerietan izan oi da gure jarduna. Orrela bizi dena ezta gizon, ametsezko gaztelua egiazkotzat artu du-ta. Edo nai baduzu, zoro-etxeetako oien pare da: bere burua errege, jaun ta aundikitzat jotzen duten zoro oietako bat: utsik egonarren asea dela uste du...

Labur, bizitza, bere mami hitsean artua, zer da? Utsune aundi bat, etengabe estaltzen ari gerana, edo aspertze bat, betiere aaztu nai duguna. Guk zoriona deitzen duguna ezta zoritxar ikaragarri bat baizen, gutxi edo asko amets zoroekin goxatua. Au da egia utsa. Eta egia onen ondoreak berez datoz.

"Ur onen edalea, egarrituko da berriz ere", zion Jesus-ek. Gure barnean ba-da yoran bat eta billakuntza bat, bizitza ontako zerekin asetzen eztena ta ase ez ditekena, gaiñera. Orrek esan nai du guk billatzen duguna eta guk billatu uste duguna eztela gauza bera. Eta gure probetasuna nabaritzen badugu,

ori da, noski, barnean aberats geralako: ots, zernairen jabe izateko gauza geralako.

"Kaxkarra bere izatean,
azkengabe yoranetan,
Jainko eroria iduri du gizonak,
bere zeruaz aaztu ezin den Jainkoa..."

Au da gizona. Gisa ontara dago moldatua. Eta izadiak eztitu bere sorkariak alperrik eta zerik gabe egiten. Azkengabeko gutizia orrek izan bear du beraz xede bat. Gure egarri au ezin iraungi diteke ur xortakin eta ez xirripekin: iturburua bear dugu atzeman. "Nik emango diodan uretatik edan dezanak eztu sekula egarririk izango; eta nere ura urbiziko iturburua biurtuko zaio..."

Bai, Jainkoa dugu iturburu ori. San Agustin-ek ain egoki ziona: **"Zuretzat egin ginduzun eta gure biotza ezin egon diteke lasai zugan kokatu dedin artean."**

XI Kapitulua

Ideala eztela amets utsa

LABURPENA

I. Ezin asetze onen sustraia. Adimenduak jakiñarazten dion ongia, borondateak bete-betean eta mugarik gabe desiatzen du. Piztiagan ezta olakorik nabari.

II. Ideala deitzen zaio gure naikundeen objektuari. Eta pentsalari askok esaten dute: oiek gure izpirituaren asmazio utsak dira; gugandik kanpo ezta ezer, oiei erantzuteko; eta Jainkoa ere ori litzake: ideal guztien bilduma. Arrazoiketa onen makurra. Ni idealaren gose banaiz, ori da, noski, izadiak orrela moldatu nauelako. Giza-joera jator au ezin diteke itsua edo tajugabea izan. Gorputzeko goseak, janariak ba-direla frogatzen duen bezala, arimaren goseak ere berdin frogatzen du ba-dela nunbait gose ori asetzeko janari guzizkoa: Jainkoa.

Osotasuna, betetasuna, illezkortasuna: orra zeren billa gabiltzan. **"Tasun"** oiekin jantzitzen ditugu lur ontako izaki ta sorkari oro; ta kolore auei eskerrak, zaizkigu erakargarri. Ezin dugu gauzarik maite betiereko, oso ta guzizko balitz bezala azaltzen ezpazaigu: ala zion Fichtek eta ori ala da, dudarik gabe. Orrek esan nai du, noski, ideala dela gure gutizia ta billakuntzen jo-muga ta xede. Gizonari ala gertatzen zaiola garbi dago, eta esan dugunetik agiri da. Orain goazen gertaera onen azken erroa arakatzera eta ondorioak ateratzera. **"Ala da ta ala bearko du izan, gizona gizon den artean"**, esango dugu orain. Gertaerari teoriak emango dio bere sostengua. Eta ondorea berez bezala jaulkiko zaigu: gizonaren nondiknorakoa Jainkoagandik zintzilika degoela, alegia.

I

Gizonaren ezin asetze orrek non ote ditu bere sustraiak? Len ere egin genduan galdera au, gizonaren bizi-naia zela ta. Eta gogora dezagun orduan esana. Gizonak gogoeta egiten daki. Bere gogamenak orokarra atxemaiten du. Gure adimenduak moldatzen dituen ideiak eztaude materiari lotuak; **abstraktuak** dira, igeskorretik eta aldakorretik urrunduak. Ikararik ez zirkiñik egiten ezten lurraldean daude kokatuak, tinkatuak. Eta naimenak nola adimenari jarraitzen dion, bizi-naia ere orrelakoxea dugu: denpora eta leku jakin bati lotu gabea, mugarik eta esirik gabea, sekula agortuko ezten biziaz baizik asetzen eztena.

Gauza bera esan bear dugu emen ere. Bakar bakarrik, oraingo auziak ordukoak baiño zabalune aundiagoa duela, ura oraingo onen zati edo atal bat baizik etzen ezkero. Izan ere, gizonak zergatik nai du bizi? Bizia ondasun bat, on bat bezala azaltzen zaiolako. Izan ere ongiaren ideia da gure ideietatik bat. Eta ideia guztiak bezala, au ere bere osotasunean aurkezten zaio gure adimenari, iñungo bazterrez mugatu gabea. Dirutza dela, edo ohorea naiz jakitea: gauza guzti oiek adimenduak artzen ditu beren zabalera guztian, batere mugarik eta neurririk gabe. Adimenduarentzat ezpaidago mugarik. Eta naikundeak lege berbera du, onek ari jarraitzen dion ezkero. Zer da izan ere naikundea? Gogamenak aurrean jarri dizkigun ongietarontz gutizia edo bultza. Gure arimak izakiaren

deiari ematen dion erantzuna: ori da naikundea. Ongiak, ongiaren soiñekoz azaltzen zaigun bakoitzean, gure arima beregana tiratzen du, beraren gutizia sorrarazten du gugan. Eta nola gogamenak ezagutu ditzaken ongiak konta eziñak diren, berdin gertatzen da ongi oien naikundeekin: agortu eta ase eziñak direla, alegia.

Piztiagan ezta olakorik sumatzen. Eta ongi dago auzi ontan piztia aipatzea, aberea eta gizona elkarren ondoan jartzea, ark zer falta duen nabaritzean, onengan aurkitzen dena argi osoagoan jartzen baita. Patariak, bada, eztu gizonak bezala naikunderik. Ura ere ongiaren ondoren dabil, ori bai, edozein izakik bere ona billatu oi du-ta. Bere ona nai du, baiña nai izate ori zer den eztakiala, eta ona zer den ere jakin gaberik. Ideia abstrakturaiño ezta jaikitzen. Bere ingurumarian azaltzen zaizkion izakiak eztitu menderatzen, beroien doaiak barne-mintzo batekin adierazten eztaki; eta barne-mintzorik ezpadago, kanpoko izkuntzarik ere ezin izan. Piztiak eztaki bere buruari esaten: "Ederra zegok ori!", itsu itsuan zerbaiten gaiñean amiltzen bada ere. Tokian tokiko eta orain oraingo ona gozatzen baizik eztaki. Idealaren susmorik eztauka.

Gizonak xoilki du doai berezi au, amets egiteko doaia. Txakurrak naikoa du bere txabolatxoarekin, idiak ikuillu ondo ornituarekin. Gizona sekula ere ezta kontent. Bere bizi-leku guztiak bein-beiñekoak izan oi dira, oberik billatu artiokoak. Bide batean barna abiatzen bada, beti naiko du aitzinago. Desiragarri iruditzen zaion oro, naiko du atxeman. Ori gertatzen zaio bai jakintzarekin, bai diruarekin, eta orobat botere, atsegin eta ongi bat bezala azaltzen zaion zernai gauzarekin. Gogamenak ikuskizun zabal baztergabeak ezkeintzen dizkigu eta naikundea nai ta naiez bere atzetik dijoa. Onek ere ezin izan dezake mugarik bere nai izatean.

Naikundearekin zer-ikusi duenari **ideala** deritzaio. Ideal ori zer da, ordea? Gure izpirituaren asmazio uts bat ote da, edo gugandik kanpora ere ba al du izateren bat? Orra oraingo gure galdekizuna. Ideal bizia eta mamitua Jainkoa litzake, noski. Berau da gure billakuntza guztien xedea, eta orain ere, oker ezpanago, beronekin egingo dugu topo, beti bezalaxe.

II

Gaur eguneko pentsalarien artean ba-da mordoska bat —eskola ugaria, esango nuke— orain artio gizonaz azaldu dugun guztia edo ia guztia onartzen duena. Baiña ala ere, gizonaren azterketa ontatik azken ondorioa atera bear den orduan, ortxe gibelatzen dira, bearrenean **"anu eta uko"** egiten digute, Axularrek esango lukean bezala. Goialde ortan **Norbaitekin** topo egiteak illeak laztu edo izerleka sorrarazi egiten die nunbait, eta naiago lukete **Norbaiten** ordez, an **zerbait** bakarrik balego.

Norbait esatea ere ezta aski. Norbait ori aundia baita, gero! Aren aitzinean arro guztiek apaldu eta konzientziek kontu zorrotza eman bearra baitute...

Dena dela, aztatu ditzagun oien arrazoiak, zer-nolakoak diren. "Bai, gizona ezta bere biziarekin asetzen. Ametsetan egiten du. Munduko izaki murritzek eztute betetzen. Bere naikundeak eztu mugarik. Eder zaizkigun izaki guztien inguruan, ideala deritzaion ametsezko zer ori moldatzen dugu; eta ideal guztien bilduma bezalako bat ere bai, eta ori da, noski, Jainkoa. Zer da, beraz, Jainko ori? Ametsezko zer bat, gure izpirituak asmatua, gugandik kanpo batere bizitzarik eztuena."

Au da jaun oien pentsakera. Entzun duzue zer den Jainkoa oientzat: gure yoranek, lurreko zerekin asetu ezinda, zerurontz aurtikitzen duten hasbeherapena, intziria, su-txakurra, argi gezurrezkoa besterik ez.

"Jainkoa orixe da izan ere: idealaren kategoria", dio Renan'ek. Gure yoran aundi oien izena. Baiña gugandik kanpo ezta deus. Ezta beraz persona bat. Ideala orixe baita: ideala. Ezin dugu bizidun izaki biurtu: berezko zeregiñetik ateratzea litzake-ta. Gugan bizi da, baiña eztu beste bizirik. Gauzak bi taldetan daude bitaratuak. Bata da izaki real diren oiena: eremu ontan dena agiri zaigu neurtua, mugatua, esiz inguratua. Bestea da ideien eremua edo lurraldea: emen dena da bazterrik gabea, zabal, aundi, lasai, baiña era berean realidade gabeko. Mugarik ez izateko ohorea du, baiña ez existitzeko ohorea ere bai...

Arrazoibide au zuzena al da? Ba ote du baliorik? Ez ote dira auek egi-itxurakin sartu nai-dizkiguten gezur borobillak? Ikusagun.

* * *

Ba-da gauza bat auzi ontan aaztu bear eztena: nik dudan ideal-gose ori eztela nerea, baiñan izadiarena. Ezta neronek nai izan dudalako sortu dudan gosea. Ez, au ezta personari dagokion zera, urliarena edo sandiarena: au izadiarena da, nunai, beti eta orotan aurkitzen baita. Gure gogoaren egiturari darraikion gauza da. Beraz, gizakumearen tasun, doai edo propietate bat bezala da; beroa, otza edo astuna izan oi den bezala. Elurrari otza izatea dagokion gisa, dagokio gizonari ideal-gose izatea. Eztu orrek zer-ikusi onekin edo orrekin, gizonaren izatearekin baizik.

Ergela da, beraz, zuk ene kontra ateratzen duzun arrazoia: "Zure ametsak realidadetzat artzen dituzu." Ez jauna, oiek eztira **nere** ametsak. Nik ba-dakit, ondotxo jakin ere, nik illargia desiatuarren eztela illargi ori nere eskumenean jarriko. Napoleonen ospea nai izanarren, eztut noski naikunde uts orren indarrez ospe ori iritxiko. Nik naikunde aundiak izan arren gerta diteke oiek ez ardiestea. Baiña oiek **nere** naiak dira, neronek moldatutako ametsak edo yoranak. Idealerontz ene baitan sumatzen dudan abiadura ori, ordea, ori ene izakeran datza, nere nai guztiak baiño leenagokoa da: izadiak berak enegan jarria da, noski.

Azkengabea amets dugu, eztakigula ere; azkengabea nai dugu, nai eztugularik ere. Azkengabea nai dugu, baita arbuiatzen dugunean ere. Gere-gerezko joera batek garamazki ortara, guk batere gogoetarik egin baiño len eta berdin gogoeta egin ezkero ere. Ajola gutxi du emen gure gogamenak erabaki dezana.

Zer esan nai du orrek? Ez gerala gu nai orren jabeak, baiñan izadia. Ezta emen sartzen norberaren borondatea bere asmazioekin. Izadiaren lantegian aurkitzen gera. Naikunde au ezta nerea, izadiarena da.

Eta orain dator nere galdera: Izadiaren sorkari au —gizanaia—, berezko ta jatorrizko abiadura onekin, ezerezaren begira ote dago? Ba al da ori posible? Izadiak berak utsera bultzatzen ote gaitu? Ez, ori ezin diteken gauza da. Lekaio au ezta nerea; aurra nintzelarik eta aren berri ez nekianean ere, berdin berdin ari zan bere soiñua jotzen ni baitan; nik nai ez nai berdin berdin ari da orain ere. Aurtzaroan nere ezpaiñak

amaren bularrari nola zabaltzen nizkion, ez bularra ez ama ta ez nere burua zenik ere ez nekielarik? Ba alaxe.

Oiu ori, deadar ori, izadiarena da ba. Izadia bera, lurra, gizadia, da ba, nigan oiuka ari dena. Eta zuk diozu deadar ori nere izpirituak bere sukarrean moldatu duen amets uts bat besterik eztela. Gure gose orren atzetik utsa ta ezereza baizik eztagoala. Baiña ori ezta posible.

Neguantza usnatzen dutenean egaztiak igeska dijoazi, otzbero egokiaren billa. Eta asko dugu ori, klima gozo oiek non edo non ba-direla jakiteko. Nondik edo nola dakite egaztiok klima oien berri? Ezpairik gabe, eguraldiak berak ba-ditu bere bideak —guretzat izkutuak izanarren— eta berak ots egiten dio egaztiari. Dei izkuturen batek ekartzen ditu lurralde aietara. Eta izadian ere ala gertatzen da beti: objektuak esnatzen du funzioa ta nolabait sortu ere bai.

Izango al genuke goserik munduan janaririk ezpalego? Ez, noski. Zer da, izan ere, gosea, materiak materiari egiten dion deia baizik? Eta materiak ez luke otsegingo, materiak erantzun ezpalezake. Munduan janaririk ezpalitz, orduan nere joera ori iñora gabekoa litzake. Baiña ezta ala. Ba-da munduan egokitasun bat, eta ori da nere gosearen eta janarien artean ikusten dena.

Era berean, nere arimaren gosea izpirituaren deia da. Gorputzaren goseak adierazten du janariak ba-direla nunbait. Ba berdin, arimaren goseak adierazten digu badela nun edo nun gose ori ase lezaken janaria. Eta ain zuzen, Jainkoa da izpirituaren janari au. Gure arimaren gosea, bera da seiñalerik asko utsune ori bete lezaken objektu egokia nunbait ba-dela jakiteko.

Emango ote zaigu jainkozko janari ori bete-betean edo atalga bakar-bakarrik? Ori beste kontu bat da, orain ez gera ari ortaz. Ba-da munduan gosez iltzen denik, naiz ta janariak izan. Berdin gerta ziteken gure arimarekin, baldin jainkozko janari ori gure eskumenetik kanpo jarriko balitz.

Gure arrazoi onek eztigu probatzen bizitza onen ondoren Jainkoaz jabetuko geranik, baiño bai Jainko bat ba-dela. Aristotelek bete-betean onartuko luke arrazoi-bide au.

Ba-da egokitasun bat janari-eske dagoan izakiaren eta izaki orrek bear duen janariaren artean. Nere arima, gogo utzezko denez, Idealaren erriko alaba da, eta ba-du ideal orren

premia, bizi al izateko. Elkarrekin loturik daude bi gauza auek. Ezta posible ni mundura etortzea izpiritu bezala eta izpirituari dagokion joera batekin, eta gero izpirituaren objektua ametsezko asmaketa bat izatea.

Gizonak eztu esplikaziorik, Jainkorik ez baldin badago. Jainkoa ukatu, gure burua ukatzea bezalaxe da. Gu gure naikundeekin gauden ezkero, Jainkoa ere ba-dago. Gu utsean gerana, orixe baita Ura betean.

Jainkoa gabe, gizonak eztu nondik norakorik. Illunpe onetatik ez dago irtetzerik, onako egia auek baieztuaz baizik: baitezpadakoa ba-dela, absolutua, izaki azkengabea ba-dela, alegia.

Gu ba-gerala dakigun bezin seguru, Ura ere ba-dela badakigu. Gugan egiztatzen baitugu ori. Gure bizi-naia, jakinnaia, ondasun-naia, amodio-naia... denak agertzera ematen dute ba-dela azkengabeko bat iraupenean, jakiturian, agintean, ondasunean, amodioan...

Eta ez Jainkoa ba-dela bakarrik. Norbait dela, persona dela, bizia dela, pentsalari, egille, maitale, guzti ori ere jakin nezake. Gu bezala, baiña beste era batera Jainkoa dugu gogoeta-egille, bizidun, maitale ta abar. Gure jatorrizko kaxkartasunak erakutsi badit aren osotasuna, nola ukatu nezaioke nik dauzkatan bikaintasunetatik batere? Aski dugu gure buruari begiratzea, Bera ba-dagoela jakiteko, eta gugan eskas direnak beragan bete-betean aurkitzen direla igartzeko. Bere buruaren zola ukitzen duen edozeiñek, Jainkoa ukitzen baitu.

Ez al dio Bibliak Jainkoaren irudia daramagula gu baitan? Gure erraietan ba-dira jainkozko joerak; eta joera oiek eztira gureak, gure izakera eldu den iturburutik bertatik datoz. Iturburua ere jainkozkoa izan bear, andik ilki zen izakiari alako joerak itsatsi zizkion ezkero.

Orra Jainkoa berriz atxemana. Berak gure ariman utzi zuen aztarnatik da ezagun. Nun edo nun ur bizirik ezpalego, ez lirake basa-mortuan ur bizien gezurrezko irudi oiek nabariko (espejismos). Ez genuke infinitua amets egingo, baldin infiniturik ezpalitz.

Jainkoa dugu oiulari gu baitan. Jainkorik ezpadago, gure egin-goseak eztu xederik. Utsean ari gera. Izaki ilkor eta aul auek bakar-bakarrik bizi badira, esan nai dut. Bera bizi bada,

ordea, Ura dut xede, eta orduan nere biziak ba-du bestelako esanai aundia.

Zaarrek ba zekiten ori. Platon eta Aristoteles gogoeta onezaz bete-beteak daude. Eta gizonagan ezezik, edozein gauzatan ere Jainkoa adierazi lezaken desira-antza nabaritzen zuten. Gauza guztiak on baten atzetik omen dabiltza (aien esanez). Bizigabeko materia, bizitza iritxi naiean dabil; bizitzak, berriz, sentitzea du amets. Zentzunak, gogoratzea. Baiña ezin diteke beti ola jarraitu. Gauza bat bear da izan desiragarri ta maitagarri guzien elburu ta azken xede. Ibiltzera abiatzen dena, xede bat irixtearren ari da. Xedea, **causa causarum** dela esan oi zuten. Desiragarri uts ori, Ondasun bete, gorengo ori begietara datorkigu bat batean, kolpez, munduan gauzarik ulertuko bada.

Giza-ariman, berriz, naikunde orrek bere buruaren konzientzia artzen du, bere xedearen berri ba-daki. Orain, xede au utsa balitz, orduan gure arima tajugabeko izakia litzake, uler-eziña, posible eztena. Ta posible eztena ezin diteke ez sortu eta ez izan.

* * *

Orain ba-dakigu, noski, zer pentsatu bear den gorago aipatu genduan arrazoi artaz: "Zuk zure ametsak egiatzat artzen dituzu: azkengabea amets duzu, bai, baiña ori amets bat besterik eztela etzera konturatzen." Ez, jauna, amets ori ezta nerea, izadiarena baizik: beraz, ezin diteke amets alperra izan. Arrazoi orrek eztu ez buru ta ez buztan, ikusi dugunez.

Beste batzuek beste era batera jartzen digute beaztopa-arria. Ara nola: gure infinitu-gosea ez gure aunditasunetik, baiñan gure auleriatik omen dator. Bizitzan ba omen da gu asetzeko aiña eta bai geiago ere, baiña zer gertatzen da? Gure besoak motxegiak direla dena besarkatzeko; atsegiña dastatzeko eman zaigun indarra ere kaxkarra izan, eta aurki unatzen da. Guk atsegiña menperatu bearrean, atsegiñaren zabalak eta aundiak menperatzen eta azpian artzen gaitu gu. Gu gerok kaxkarrak izan, eta gure kaxkartasun ori izadiari ezartzen diogu...

Zer esan? Egia da gure indarrak nekatu egiten direla jardunarekin, baiña ez da nekatze au gure etsipenaren azken

erroa. Ez nekatu geranean bakarrik, baita bestela ere, gure lanen artean gogotik murgildurik gabiltzanean ere, dena beingoan eta bertanbera utziko genuke, baldin izakiak ezurrutsetan, diren bezalaxe, azalduko balitzaizkigu: izugarri hitsak, laruak. Ametsezko lillurak eusten dio gizonaren egintzari, orreri eskerrak dijoa au aurrera bere lanetan: garbi agiri da au esan diren gauzetatik.

Aspertzeke eta nekatzeke goza al bageneza ere, berdin litzake. Izakiz-izaki ibilliko giñake orduan, baiña beti barreiatuak eta engañatuak, beti uts, sekula ere ez aseak edo beteak.

Infinitua da ba gure yoranak ase ditzaken izaki bakarra. Eta giza-biotzaren lege au, beste gabe, ari da esaten infinitu ori ba-dela, eztela amets utsezko sorkaria. Gure biotzek Jainko orrengana dute abiadura, baita Ura ezagutzen eztutelarik ere. Gurari bakoitzaren azken erpiñean Aren itzal aundia nabari da.

Kreatzailleak barrenean jarri zigun lekaio ori, ezdezagula ezaditu iduri egin. Ara zer dion Salmuak: "Gizona, ohorezko maillan zegoelarik, etzuen bere aunditasuna ulertu. Adimen gabeko abereekin berdindu zan eta oien pare biurtu zan." Ez al diogu gizonari bidegabe ori egiten lurreko ondasun mugatuak baizik eskeintzen eztizkiogunean? Ez al da ori bere izakera ukatzea, bere biotza laidoztatzea, ego luzedun arranoa kaiola estuan euki nai izatea?

Ez dezaiogun sorgor egin gugandik jaso oi den zotiñari. Sortzaillearen atsak gu baitan jarritakoa baita.

XII Kapitulua

Jainkoa eta gizartea.-Familia

LABURPENA

Gizarteak iraun al dezake Jainkoaren fedea ukatu ezkero?

I. Familia da gizartearen atea eta asiera. Lagunarte txiki ontan datza zivilizazioaren oiñarria. Familia zenbat eta sendoago izan, erria ere zoriontsuago izango da. Familiaren giltza, berriz, ezkontza. Erri guztietan, mende danetan, siñistu izan da ezkontzak ba-duela lege bat, uztarri bat, ezkontideek onartu bear dutena. Baiña Jainkorik ezpadago, noren izenean eskatuko duzu lege ori?

II. Ezkontzaren batasuna eta betikotasuna: orra zer eskatzen duen gizartearen onak. Poligamia ta divorzioa, gizartearentzat kaltegarri. Baiña Jainkorik ezpaldinbadago, nola jarri karga ain astuna gizonen sorbaldan, eta noren izenean, gaiñera?

III. Ezkonduek elkarrekiko dituzten eginbideak nola zaitu Jainkorik ezpadago? Griñek laguntzen duten bitartean, gauzak ondo joango dira; baiña eta beste aldera jarri ditezenean?

IV. Seme-alabek gurasoenganako dituzten eginbideak beti izan dira lege eta erri guztietan goraipatuak. Baiña Jainkorik ezpadago, eginbide oiek eztute oiñarri tajuzkorik.

Mundua lenbizi eta gizona urrengo, aztertu izan ditugu aurreko kapituluetan. Eta gure billakuntza denen ondorioa beti ere au izan da: ez mundua eta ez gizona ezin ditezkela ulertu Jainkoa gabe. Baiña gizona ezta bakarrik bizi. Gizartean bizitzeko egiña izan da. Orra ba, gaiak berak eramanik, gizarteko bizitzaren atariraiño nola geran iritxi. Gizarteko bizitza onek, iraun al dezake Jainkoaren siñiskera gabe? Orra oraingo galdekizuna.

Gogoko zaizkio gure aro oni gizarteari buruzko kontuak. Gai sozialak moda biurtu dira gaur. Ikus dezagun, bada, ea gizartea zutik egon ote diteken Jainkorik gabe, eta gizartearen atzera-aurrerak Jainkoa eskatzen ote duan, ala ez.

I

Familia dugu gizartearen atea eta asiera. Berau da aurrenengo lagunartea, eta bere txikian, gizarte jatorra. Beronetatik ilkiak dira beste lagunarte oro. Beronetatik asi bearra dugu, bada, bai garrantsi berezia duelako eta baita ere, azian bezalaxe, gizarteko bizitzaren lege eta gorabera guztiak bertan aurkitzen direlako.

Familia esan eta gizon osoa esan, dena bat esatea da. Ezta komeni gizona bakarrik egotea, dio Biblia sainduak; are gutxiago komeni zaio ori emakumeari. Kaltegarriago oraindik izango litzake aurrarentzat. Gizakumea bakarrean arturik ezta oraindik gizon. Egiazko biziduna bikoteaz osatzen baita, eta bikote ori ezta oraindik oso, arik eta emankor izan dedin artio, ondorengoz inguratua izan artio. Gizonaren eta emakumearen elkartzea dela bide, irugarren bat sortzen baita.

Familiako bizitzan aurkitzen du gizonak bere giro egokia, bai almenak eldutasunera eramateko eta bai bere bearrak erremediatzeko ere. Ba dugu adiskide baten premia, euskarri bezala, kanpoko burruketan artutako miñen gozagarritzat. Adiskide baten premia, alegia, gure erori-aldietan lagundu, gure goibel-aldietan konsolatu, gure gaixoetan zaitu ta abar egin gaitzan. Bizitzako urratuek sorrarazten duten berekoikeriatik nork gorde izan dezagun; gure auleria eta eziña ikusiz biotzera jausi oi den kukiltzetik, nork altxa izan dezagun. Labur, arima-barrenean daramagun maite-egarria asetzeko, eta beste iñorengan bizitzera dugun griña, nolabait bete al

izateko. Orretara, gure bizitza kaxkar oni ugaritze ta luzatze bezalako bat ematen diogu, gure yoranen pareko iraupena, alegia.

Familia dugu gizarteko bizitzaren oiña eta sostengua. Kristok bere Aitari buruz zion ura esan dezake familiak zivilizazioari buruz: ara ezta iñor irixten nere bitartez ezpada.

Patriarken aroa izan da betiere gizadi zivilizatuaren lehenbiziko mailla. Erro onen gaiñean eraiki izan dira geroztikako aurrerapenak. Oiñarri ori gabe eztago zivilizaziorik eta bai barbarotasunera itzultzea. Zeri zor dio Txinak bere mendez-mendeko sendotasun ori, lagunarte au bere erroetan ondo jarria egoteari baizik?

Kondairagilleak ao batez diotenez, familiako biziera zenbat eta sendoago dagoen, erriak ere ainbat eta boteretsuago eta zorionez beteago. Eta kontrara, gizartearen usteltzea familiaren gainbeherakin eldu da.

Jarri itzazu bi nazio alkarren ondoan. Ezkontzaren saindutasuna, lokarriaren sendotasuna eta beren eginbideak nun zaitzen diren obekiago eta an duzu nagusitzarako eta aurrerapenerako itxaropen geiago.

Ori ola bada, nork eztu ikusten familiari sostengu ta oiñarri ematen dizkioten ideiak eta usteak berealdiko balioa dutela gizonarentzat? eztirela gutxigoraberakoak eta bai il edo bizikoak? gizartea bera desegiteko arriskuan jarri gabe, ukitu ezin ditezkenak?

Gaur eguneon, ordea, zer ikusten dugu? Bizitzaren izenean, gizartearen izenean, gizonaren izenean or ari zaizkigu aldarrika ainbeste ta ainbeste. Oiei, bada, adierazi nai diegu eztela gizonik, eta ez giza-bizitzarik Jainkoa gabe, Onek ematen diolako ari oiñarria. Eta bereziki, Jainkoa ukatzean, gizartearen atari, muiña ta guna bezala den familia ere arriskutan eta ondamendira bidean jartzen dugula.

Ikusagun Jainkoaren siñiskera nola idorotzen den familiaren azpian, eta siñiskera onek nola ematen dion bere sostengua familiari.

Asi gaitezen ezkontzatik, berau baita familia berri baten asiera. Ezkontza, alkartasun bat da, iguala edo tratu bat, baiño ez nolanaiko tratua. Iguala onetako eskubideak, iraupena eta eremua, eztaude gure eskuetan. Gizadiak eztu bein ere ala uste izan. Sekula ere, iñongo erritan etzaio ezkontzari

eman gaur zeinbatzuek eman nai lioketen askatasun osoa. Denek dakigu zer esan nai duen arako erdal itzak: **"conyugal"**: euskeraz, **uztarkide.** Esan nai du, alegia, ezkonduak beren borondatez uztarri baten azpian jartzen direla; beren etorkizunerako lege bat, lokarri bat onartzen dutela.

Kontratu ori egitea edo ez egitea, ori zure esku dago. Baiña egitekotan, ezin antola dezakezu zure gogara, dagoan ortan artu bear duzu. Ezkontzaren legeak eztira iñoiz ezkontideen eskuetan egon. Egun **"unión libre"** deitzen den ori, eztu gizadiak bein ere ezagutu. Izan dira bai, ontan ere goraberak, oitura berezi eta diferenteak, baiña oitura oien gaiñetik zutik gelditzen da esan duguna: ezkontzako kontratu orren barnelegea, izatasuna eta eskubideak eztirela bein ere utzi ezkontzen direnen eskuetan.

Orain, ondore larriak segitzen dira ortik, gu ari geran punturako.

Izan ere, nola esplikatu diteke gizadi osoa ontan iritzi bateko izatea? Gizonen griñen aurkako auzi batean, alegia? Ezkontzen direnen gaiñetik ba ote da goragoko zerbait edo norbait, oiei legeak eman dezazkenik? Ezkontzen direnen zin oek ez ote dira alkarri zuzenduak xoil-xoilik? Ba ote da emen gauzen izakera bat, eta izakera oni lotuak ote gera? Baiña zer da izakera ori, eta nundik du eskubide gure biotzak lotzeko, gure borondatea menperatzeko, gure jaidura eta irritsei **"ez"** esateko?

Zer dela-ta andra-gizonek, are semerik ez izanda ere, zoraldi batean edo oker zekusaten une batean beren buruak alkarri eman zituztelako, bear dute beti katigu egon? Orduan egindakoa zergatik ezin dute gero desegin? Orrelako obligaziorik nundik datorken edo orrelako menpetasunaren sustraia nun datzan erakutsi dezakenik nik eztut ikusten, gizonaren gaiñetik ezbaldin bada zerbait.

Historia lekuko, ba-dakigu gaiñera gizonek ezkontzaren lege ortan siñistu baldin badute, erlijioaz zer-ikusi duten arrazoiengatik izan dela. Ezkontza etzen aientzat personatik personara xoilki dijoan kontratua. Zer geiago ikusten zuten, bada? Ikusi bear dena: instituzio naturala, naturalezak berak eratua, eta ba-zekiten onek ba-duela eskubide gai ontan legeak emateko. Ortaz gaiñera, instituzio soziala, eta gizarteak ere, biziarazten gaituan ezkero, ba-du eskubide gure bizia go-

bernatzeko. Eta azkenik, instituzio erlijiosoa, gure amodio auskorrak azkengabekoakin lotzeko, azkengabeko ori gure promesen testigu bezala artuaz.

Eta gauzen ikuste onetan, ba ote zebillen tartean Jainkoaren ideià? Bai, noski. Zer da, izan ere, erlijioa Jainkoa gabe? Eta zer da izadia edo naturaleza, norbaitek eusten ezpadio, sostengua ematen ezpadio? Izen orrek eztu deus balio, batez ere Moralaren eremuan, Jainko personal batekin zer-ikusi ezpadu. Gizartearekin beste ainbeste gertatzen da (ikusi den bezala): onek emandako legeak eztute batere indarrik, an, goialdean, borondate aundi bat aurkitzen ezpada, tarteko borondate ergel oiei sostengu izan dakien.

Arrazoi auen indarrez gizadi osoak beti siñistu izan du ezkontzak ba-duela zer-ikusi Jainkoarekin. Ez gera emen asiko aspaldiko kontu eta oiturak kontatzen: Konfuzio, Buda, San Pablo..., milla aitorrera aipa zitezken. Alperrik litzake, ordea, iñork ukatzen eztuena sendotzen ibiltzea. Zerbait ikasia den gizonak ba-daki ezkontza eztela iñoiz eta iñun ezkontideen naiera egon. Erlijioek beti izan dituzte eskubideak kontu ontan; ezkontza zeruak bere gaiñera artua zeukalakoan. Gure egunotan, ordea, gutxi batzuk eldu zaizkigu guztiori irudipen utsa dela diotenak, eta bai emen eta bai beste eremu guztietan ere gizona erlijiotik eta Jainkoaren siñiskeratik jarein nai lutekenak. Ezkontza ere **"laiko"** biurtu nai dute, alegia. Baiña barrendu dezagun urbillagotik eta berariaz puntu au.

II

Gaur eguneon, erri zivilizatuetan beintzat, ezkontzak gizon bakar bat eta emakume bakar bat elkartzen ditu. Poliandria, au da, emakume bakar batek gizon bat baiño geiago eukitzea, erabat dago arbuiatua, are jende basatien artean ere; ain zaio naturalezari berari aiher. Poligamiaz, ordea, besterik esan bear. Musulmanek pratikatzen dute.

Kontu ontan kristau erlijioaren legea zein den denek dakigu: ezkontzaren batasuna erakusten du: bat batekin eta betiko. Betikotasun au batez ere geiegikotzat jotzen dute askotxok. Eta erlijioaren itzala alde guztietatik uxatu nai lutekenak, divorzioa asmatu digute. Ezkontzaren betikotasuna er-

lijioaren kontua omen da, beren irudiz. Erlijioa xoilki, berak dakizkian arrazoiengatik, jartzen omen da divorzioaren kontra.

Baiña kristau erlijioak ontan erakusten duana ezta ain zailla probatzen. Erlijioari xoilik dagokion gauza dela esatea, gezur galanta esatea da. Erlijioak bere pisu guztiarekin sendotzen ditu gizartearen onerako eta mesederako diren dotriña batzuk: ori da emen esan bear zena. Erlijioa naturalezaren alde jartzen dela, alegia; erlijioaren beraren legeak ez, baiña naturalezarenak defenditzera datorkigula.

Poligamiaz ari direlarik, zer esaten ote digute Le Play, Spencer, Comte, eta jasako soziologu denek? Naturalezaren xedeen kaltetan dijoala: emakumea toki txarrean uzten duela eta semea ere arriskutan. Ez ote litzake asko arrazoi au naturalezaren izenean poligamia ori debekatzeko? Ain zuzen ere, erri aurrera-zaleetan galduaz dijoa. Ezkontzaren batasuna gero ta geiago aitortzen dute denek gizonaren legea bezala. Eta ori aitortzen eta onartzen digute baita federik eztuten gizonek ere.

Baiña auei zera galdetuko nieke nik, alegia: ea noren izenean jarri nai dioten gizonari ain lege gogor eta pisua. Gizon bat emakume bakar batekin eta bizi guztirako. Giza-biotza ain da aldakorra eta aspertzen erreza, eta lege ori ain da bere griñen, bere arrokeriaren eta maiz bere etekiñen aurkakoa!

Naturalezaren bezeruak geralako? Bai, ori eztut ukatzen. Baiña ez ote da asko berak baitezpada jasan arazten gaituanak jasaitea? Berari gusto ematearren orrenbesteraiño ukatu bear al dut nere burua?

Aurrerapenaren alde lan egitera bearturik nagoelako? Baiña aurrerapen ori dela-ta, lotu bear al duzu gizon gaixoa? Edozein modutan ere, naturalezaren izenean itz egiten badidate, eta Jainkorik ezpaldin badago, zer da enetzat naturaleza dontsu ori? Makina izugarri bat besterik ez, itsua, xede jakiñik eztuena, ona ta gaitza, ederra ta itxusia, tajugabe naastutzen duena. Ziñez, goialde auek utsik eta isillik baldin badaude, ezpaldin badago or norekin nere biotza elkartu, orduan ondo egingo dut nere bidetik ibilli eta makina itsu orren batere jaramonik ez egin.

Ez, Jainkorik ez baldin badago, ezin ditezke onart ezkontza bakarrak gizonari eskatzen dizkion nekeak.

Bat eta betiko. Betiko oni buruz ba-dakit erri zivilizatuetan ere denak eztirela iritzi bateko. Betikotasun ori ain da uztarri astuna, ze askok ta askok eztute biotzik onen pisu aundia giza-bizkarretan ezartzeko.

Orra bikote bat. Noizbait elkartu ziran, edo norbaitek (sarritan gertatu oi denez) elkartu zituan. Bearbada elkarte ortatik letozketen ondoreen berri etzekitelarik. Elkartu-eta, azaltzen dira alkarganako oztasuna, alkar konpondu eziña. Beiñola adiskide zirenak, orra etsai biurtuak.

Eta orduan zer? Irteera gabeko kale itsu ortan egon? Gazte-denpora alperrik galtzen utzi eta bizitza guztiko martirioa jasan bear? Gauza latza ta gorria, benetan!

Ba-da irteera bat: elkarrengandik alde egitea, bakoitza bere aldetik joatea. Baiña orrek bakartadea esan nai du eta bakartadeakin milla arrisku. Bakartade orrek galdetzen dituan eginbide guztiak betetzeko, heroismua bear litzake, noski. Orregatik erri askok divorzioa sartu dute legean. Kristianismuaren aurretik divorzioa arras zabaldurik zegoan munduan, eta orain ere kristautasunaren babesetik ateratzen diren erriak divorziora biurtzen dira berriz ere. Baiña gizadiaren onari begiratu ezkero, ezta dudarik: ezkontzaren betikotasuna ezta gutxi goraberako gauza, il edo biziko baldintza baizik.

Izadiari berari begiratu bat ematen badiogu, zer ikusten dugu? Bizidunen zurubian, mailletan gora goazela, gero ta indartsuago azaltzen zaigu ar-emearen batasuna. Eta gizadian zenbat eta zivilizatuago izan erri bat, orixe bera ikusten dugu. Lokarriaren irmetasuna gizarteko onaren iturri baita. Eta irmetasun ori, besteak beste, betiko izateak egiten du. Ori bistan dago. Betiko jartzen den gauzak sekulako sendotasuna lortzen du. Erro aundiagoak bota oi ditu giza-biotzean. Kasketaldi edo zoraldi batean desegin diteken gauzak baiño aundiagoak bai, beintzat.

Lokarria autsi-eziña dela jakitea, jakite ori berori da lokarririk sendoena. Leial ez jokatzeari itxaropenak ematen badizkiozu, legearen austeko erraztasunak ematen ari zera. Batasuna desegin ditekela jakiteak, batasun orren azkena ekarri dezake. Eztabaidak eta eskatimak sortu ditezenean, lokarria austeko itxaropena baldin badago, jakite orrek berak ez ote ditu aserreak eta zauriak gaizkoatuko?

Biotzak garrazturik daudenean, bietatik batek ezkontza austea aipatzen baldin badu, besteak ere, gutxiago ez izateagatik, ez ote dio meatxuari meatxuakin erantzungo? Eta orra, konponketa erraza lezaketen uskeriek, samur senda zitezken zauriak, aundi biurtu eta sendakaitz billakatuak.

Beste batekin ibiltzea divorzioa lortzeko arrazoi baldin bada, ori da, noski, adulterioari eskubideak ematea. Emakumea, berriz, beti gelditzen da baztertua izateko arriskuan. Aren kabia jadanik ezta osoki arena, edozein egunean galtzea gerta liteke. Ezpaita bere bizi guztiko eta eriotzera arte. Eta zati bateko baizen egiten eztiren elkartzeak nai ta naiez azaletikoak izan bear. Ezin oitara eraman norbere barruko lillura eta poza.

Divorzioa jarri izan den tokietan ba-dakigu zer gertatu den. Etxeko erriertak geitu ta ugaritu egin direla. Eta lendabizi nekez ta meatz emango zela esanarren, gero senar-emazteak eskatu utsarekin eman oi dela.

Eta jakiña, lokarria orren apurkor biurtzean, gizarterako ondore beltzak segitzen dira. Gizartearen erroak —familiak, alegia— nondik du bere sendotasuna, senar-emazteen elkartze autsi-ezin ortatik ezpada?

Bikote askatu eziña, senar-emazteen elkartze betikoa: ori da zimendarria, erlojugilleak, an, gurpiltxo denen azpian jarri oi duan **"rubí"**-a bezala. Zenbat eta gogorrago izan arri ori, ainbat obeto mugituko dira gizarteko gurpil guztiak.

Bere erroetan jarritako ezkontza batek berealdiko mesedea egiten dio gizarteari. Ezkontza orrek sortu oi dituan aidetasun-lokarriak urrutiraiño zabaltzen dira, nazioaren zati bat pakean eta adiskidetasunean ipiñiaz. Seme-alabei, berriz, —eta seme-alabak izan erri baten geroa!— ez ote zaie onik ugari etorriko gurasoen tinkotasun onetatik? Bai, noski, adarretan tinko ezarritako kabitik txorikumeei mesedea datorkien bezalaxe. Jaiotza zoriontsuagoa, mantenu obea, segurantza aundiagoa eta beragatik biarko egunerako abantailak eta onurak besterik ez. Gurasoek ere familiko bizieran zaartzaroaren atzerapen bat eta bizitzaren luzagarria aurkitzen dute, neke-miñen gozatze bat, begirunea eta amodiozko giro bigun samurra. On guzti oiek, ordea, nola atxiki, itxaropen oiek biotzean nola berotu, baldin etxea loka badago eta goizetik gabera desegin baditeke?

Bistan dago, beraz. Ezkontzaren tinkotasunetik dago zintzilika gizartearen etorkizuna. Erlijioak badaki ori. Gurean marra iragan ere egin zela esango nuke. Eztabaida gogor eta luzeak izan ziran beiñola, Erdi-Aroko mendeetan, alargundu denari berriz ezkontzea zillegi ote zaion ala ez erabakitzeko. Eta erabakia baietzaren alde artu zan bai, baiño gogo aundirik gabe eta egiari berea eman bear zaiolako xoil-xoilik. Izan ere, ezkontideari, illezkero, gordetzen zaion leialtasuna, gauza ederra ezezik, bizi direnentzat ere ez ote da sustagarri eta pizgarri berri bat?

Biotzak berak ez ote digu orixe bera esaten? Biotzaren eskubideak aotan artzen dituzte ezkontza austearen zaleek. Baiña nere ustez, biotzaren eskubideak onako auek dira: onari leial egon eta arestian aipatu diren arrazoi aundiei gogoz eta borondatez erantzun. Eta lokarria laxotu nai dutenek eztute ez erriaren zoriona billatzen. Norberekoikeria eta griñak jartzen dituzte zorion orren gaiñetik. Eztute begirik ezkontza ausi eziñaren edertasun morala ikusteko. Gure giza-bizitza auskor onetan azkengabeko zerbait sar-eraztea, ori da izan ere ezkontza betikoa. Amodioak betikotasuna baitu lege eta amets.

Eta betiko lokarria geiegikotzat jotzen dutenak ere, beintzat ezkontzak lege bat, lotura bat bear duela aitortzen dizute. Beraz, traba bat, norbere askatasunaren gutxitze bat, lokarria. Orra berriz ere eginbidea, obligazioa.

Baiña Jainkorik gabe eztago eginbiderik, gorago egiztatu zen bezala. Orra bada, alde batetik familiaren ondo ibiltzea gizonarentzat gauzarik premiatsuena izan, eta bestetik, gizonak xede ori ezin iritxi Jainkoa ukatuz. Jainkoa ukatu eta ala ere familiaren alde egin nai, irteera gabeko kale itsu batean bere burua sartzea bezala da. Ori da noski esku batakin botatzen duzuna besteakin eutsika ibilli. Gizonen bizkarrean pisu astunak ezarri eta era berean pisu oiek jasaitzeko laguntzak kendu. Eta lagungarri oetan oberena, Jainkoa. Ez naiz aspertuko, bein da berriz esaten —alde guztietatik jaurti nai duten ezkero, eta aren presentzia adoragarria alde orotan azaltzen den ezkero—. Bai, Arengandik dago zintzilika gizonaren bizitza kaxkarra, Aren kutsuak dena du betetzen eta asetzen, gure axaletiko begiradak Jainkoaren esku ori maiz ikusi ez arren.

III

Gurasoek ba dituzte eginbide batzuk elkarrekiko, aldi orotan ezagutuak izan direnak. Eta orobat dituzte seme-alaben alderakotzat, baita seme-alabek ere gurasoenganako. Jainkoaren siñistea kendu ezkero, eginbide oiek oiñarri eta sostengu gabe gelditzen direla probatzen baldin badugu, probaturik gelditzen da, berriz ere, Jainkoaren fedea bear-bearrekoa zaigula familia ondamenditik salbatzeko.

Ikus ditzagun aurrena senar-emazteen arteko eginbideak. Ezkontzak bi bizitza egiten ditu bat, amodioa delarik batasun orren lokarri. Ezkontideek lagunarte bat, gizarte txiki bat edo sozietate bat osatzen dute. Eta zein da sozietate orren legea? Auxe: emaztea gizonaren esanera, gizona, berriz, ongiaren menpean, bere aginpidea lege orrek bear baitu neurtu; semealabak aita-amen menpean, menpetasun orren ordaiñez ardurak eta maite agiriak jasotzen dituztelarik.

Ori da familiaren legea, familiaren jerarkia. Ba-dakit gure egunetako feministek jerarkia ori desegin nai luketela, eta bere lekuan **diarkia** bat sartu, ots, bi sexuen berdintasun osoa. Matrimonioa ez litzake geiago batasun bat. Zu or eta ni emen, bi biok eskubide berdintsuekin. Zu etzera nere nagusi, ezta ni zure jabe edo agintari ere. Baiña gauzak ala badira, orduan eztugu alkartasunik, yustaposizio bat baizik: bat bestearen ondoan egote bat besterik ez, batasunik gabe. Eta ortik eztator gauza onik gizartearentzat. Lokarri bat gabe eztago batasunik. Arima bat bear du lagunarteak. Eta arima edo lokarri ori autoritatea da, agintzeko eskubidea. Aginte ori kenduaz, batasuna desegin duzu.

Ori dela ta, sen batek edo joera berezko batek erakutsirik, aldi oro senarraren autoritatea aitortua eta ezagutua izan da, naiz ta erri atzeratuetan gizonaren agintea bidegabekeri izugarriekin nahasia izan. Aundia da nonbait gizarte-sen ori, gertatuak gertatu, eta ala ere ezin izan dituztenean guztiz itzali!

Eta orduan emaztekiak indarra jasan baizik egiten eztuela diotenak, eztute guztiz zuzen esaten. Indarra jasan bai egiten du, baiña gutxi gorabera guk izadiaren zakarraldiak jasan oi ditugun bezala. Ba-dugu or barruan ordena baten azpian geralako sentimandua eta lege ori kunplitu bear delako

susmoa. Alabearrez orixe egiten zuan antziñako emaztekiak gizonaren martiri izanez. Berezko lege batek beartuta, emakumeak ba-daki gizonaren esanera bear duela egon.

Eguzkialde-Erdiko (Oriente Medio) erri askotan emakumeak arrituta gelditzen dira Europako emakumeen askatasunaren berri jakitean. Emen emakumea arpegia estaldu gabe nunai eta noiznai ta noranai ibilli ditekela entzutean, alegia. Eta gizonak lasa-lasa pipa erreaz eta kontu-kontari dabiltzan artean, emakume gaixoak lan gaitzak egiten ikusiko dituzu, buru gaiñean arri galantak eramaten, ta abar. Oiturak ontan asko dezakela ba-dakigu, baiña oituraren gaiñetik ba-dago emen beste zerbait: ordenaren sentimendu sakona, eta sentimendu ori barren-barrenean daramagu guztiok.

Kristau eztiren errietan bidezkoa bezala artzen zan emakumeak bere erlijioa eta jainkoak uztea eta senarrarenak artzea. Baiña personaren eskubideak orrenbesteraiño ukatzeak kristautasunak eztu bein ere ontzat eman. Konzientziaren barrutia beti igelditzen da alkartasun guztien gaiñetik. Baiña emakumeak gizonaren esanera bear duela egon, ori bai, erlijiozko eginbidetzat artu eta erakutsi izan du beti. Jakiña —eta esan bearrik etzegoen— gizonak bere eskubide ori adimendun izaki bati dagokion moduan erabilli bear du. Oiñarritzat amodioa izaki, ba-du eskubide onek beste edozeiñek baiño draga geiago despotismura lerratu eztedin. Ala ere eskubide ta aginte guztiek iragan oi dituzte beren mugak eta neurriak, eta ontan ere ala gertatu da maiz. Eta gizonak bere emazteari geiegikeririk egiten dionean, arrazoiak billatuko ditu, aitzaki eta edergailu bezala. Musulmanak bere emazte gaisoa lanpeturik daukanean, zera ateratzen dizu, alegia, alperkeria gogorapen gaizto guztien ama dela, eta abar. Onek zer esan nai du? Onaren senak, zuzentasunaren amodioak betiere irauten duela, are gaizkilleen artean ere. Zuzentasunaren kontra goazen unean bertan, zuzentasuna aipatu eta aotan artu bear.

Senar-emazteen arteko eginbideek eztute oiñarri sendorik, baldin gure gaiñetik lege bat dagoela aitortzen ezpadugu. Griña eta irritsek laguntzen duten bitartean, gauzak ondo joango dira; baiña oiek beste aldera jarri ditezela, eta orduan dira kontuak. Izaki guztien sortzaille eta legegille denaren siñiste ori gabe, legeak eztu irauten zutik. Nola gainditu ainbeste sa-

min eta lanbide, baldin lan oien gaiñetik **norbait** ezpadago? Gizonak bere eginbidea zintzo betetzen duanean; emaztea alde orotarik bide den bezalakoa denean, aisa egiten dira egitekoak. Emakumeak ba-du alako ekarritasun bat bera maite duanaren menpean egoteko. Gizonak, berriz, ba-du joera bere amodioaz erantzuten dionari laguntzeko. Izadiak berak ipiñi ditu, bada, indargarri edo laguntza sendoak. Baiño eginbidea aipatu nai baduzu, nun billatuko duzu eginbide orren oiñarria? Zer jarriko duzu griña okertuen edo biotz saminduaren sentimenduen tokian?

Gizartearen onura edo etekiña, orra zer sartu nai liguketen. Baiña gizakume bakar bati, banako utsari itsegiten diozunean, bildur naiz irriparre batekin ez ote dizun erantzungo. Biotza odola dariola dagoenak eztu ikusten bere oiñazeak zer garrantsi izan dezaketen gizartearen probetxurako. Gizartearen etekiña: ideia oso jenerala eta abstraktua da ori, gaiñera. Uko egite aundiak eskatu bear direnerako, lagungarri eskaxa. Eginbide astun oiek nik betetzearekin, gizadiaren onak irabaziko al du, ageriz, mailla bat bakarra? Eztut uste. Aundiagorik ikusita dago gizadia eta beti moldatu izan da nola edo ala. Eta bere aurrerapen-urratsak ain baratz eta geldo dijoaz! Nere egiteak, berriz, ain gauza xumea izan! Nere bizi guzia alperrik galtzen dela-ta, zer ajola zaio gizarteari? Enetzat, berriz, ori da dena. Ondar-ale au gurpil aundi orren azpian ipiñi bear dudala, berak errukigabe zapaldu nazan? Eztit ori iñork buruan sartuko. Gaiñera, gizadia zaitzea eztago nere kontu. Zer zor diot nik berari? Bizimodu samurra eman badit, eginbide samurrak. Enekin aaztu bada, eta azpian artu banau, orduan eztiot batere zorrik. Beraz, griñei jarraitu gakizkien, eta ortaz landara emen ezta zer mintzaturik.

Zuek, filosofuek, zerbait geiago nai zenukete. Ezkonduen arteko eginbideak aipatzen dituzue. Baiña eginbide oien sustraia nun duzue? Gizadiaren ona. Ondo dago, baiña ori ere zerbait izango bada, **zerbait** orren gibelean **Norbait** jarri bearko duzue. Jainkoa. A, orduan bai. Bitartean ixillik egotea baizik eztuzue.

Eta ezkonduen arteko ar-emanekin gertatzen dena, berdin-berdin gertatzen da guraso eta seme-alaben arteko goraberekin.

IV

Guraso eta semeen arteko artu-emanak ere izadiak berak arretaz zaitzen ditu berezko joera batzuen bitartez. Berezko zaio gurasoari bere barrenetik ilki den fruituari amodio edukitzea. Semeak, berriz, ekarritasun motelagoaz, baiña ala ere berez biurtzen dira oiek ere beren iturrirantza. Mendi goretako izotzorma eta elur-pillak, sentipenik baluteke, irriparrezko atsegiñez ikusiko lituzkete, nik uste, beren egaletatik sortutako errekastoak. Errekastoak, aldiz, lur zelaietara atxitxika jauzi baiño leen pozez besarkatuko lituzkete aita erraldoiaren oiñak.

Izadiak, ordea, askoz sendoago zaitu ta finkatu du aitaren sena, semearena baiño. Bizidunen zurubiko azpiko mailletan semeen gurasoekiko joera ezta ezagun. Zomorro batzuk, beren ondorengoak sortu bezain laister, il egiten dira; beren xede eta egitekoa egin dutelako, noski. Gizonen artean izadiak obeki zaitzen du banakoa; eta ala, ondorengoetan jarri du sortzailleenganako amodioa. Gizon basatietan ere nabari da joera ori. Baiña beti gelditzen da zutik leen esan duguna: semeen gurasoetara joera eztela gurasoena semeekiko bezain indartsu eta amultsua.

Eta ni narraion punturako ajola aundikoa da berri au. Semeak aitaganako duen ekarritasuna ezta joera utsa, instinto soilla. Amodio ontan adimenak ba-du bere partea. Au izan da gizonari geien geiena erakutsi zaion eginbidea, legedi eta erri denetako oituretan maizago agiri dena. Gizonek, beraz, beti uste izan dute obligatuak daudela gurasoen amodio eta ongi egiñei erantzutera. Eginbide ontatik ere aisa izango dugu iragaitza **Norbait** orrengana.

"Ene aurra, eskribatzen zuen Sirak-en semeak, arduratu zaitez zure aitarekin aren zaartzaroan, eztezaiozula eman atsekaberik. Aren adimendua aul badadi ere, jasan ezazu, eztezazula erdeiñatu, eta aitaren alderako zure amodioa ezta ahantzia izango" (Eccli. 3, 14). Biotz-ukigarri dira itz auek. Erri denetako lege eta oituretan aurkitzen dugu beroien oiartzuna. Semeak aitari egindako bidegabea beti izan da larrienetakoa bezala artua.

Urteak dira Gabirian ikusi nuela euskal antzerki bat: "Abaroa eta babesa". Alaba ezkondu batek tratu txarra ema-

ten zion bere aita zaarrari. "Onelakoak gertatzen dira, bai", zion nere aldamenean ikusle batek.

Gertatzen dira, bai, baiña gure zentzuak erabat eta biziki arbuiatzen ditu. Alperrikoa litzake Txina, India, Madagaskar eta ainbeste ta ainbeste erritan gai oni buruz egiten zirenak kontatzen astea. Ahikas, Tobias, Antigona, Koriolano: istorio ederrak. Baiña ederrak batez ere gizadi osoak oietan, ispillu batean bezalaxe, berberak sentizen duana aditzera eman digulako.

Eta gurasoak iltzen direnean, gure biotzeko samiñaren agergarritzat, zenbat oitura eta usario eztaude zabalduak errialde guztietan: lutoa ta abar...

Eta ez samin-agiriak bakarrik. Antziñatean urrutiago joan ziran gizonak guraso illen oroitzapenetan. Jainko biurtzeraiño, benetazko adorazioa aiei emateraiño, alegia. Jentillen jainko asko orixe besterik eztira: aita ta ama jainko biurtuak. Ildakoen jaiera oiek nolako erro sakonak izan dituen ikusteko, or dugu lur-azala illen oroigarriz betea. Gure Euskalerrian beste lurralde askotan bezala: begira bestela edesti-aurreko dolmenak, ta abar.

Aro ta erri basati aietan asaben adorazioraiño eldu ziran. Geiegikeria, noski. Beren erara, ordea, gauza bat adierazten digute: aitatasunak ba-duela jainkozko zerbait, eta asabek ba-dutela Jainkoarekin zer-ikusi, jainkotasunaren izenean ematen baitzaie kultu edo agurtzapen ori.

Eta ona emen nere galdera: kondairak erakusten dizkigun agiri oiek esplikatzeko naikoa al da semearen aitaganako lokarria? Edo-ta Jainkoaren fedea dabilkigu tartean?

Semea otz-otzean, Jainkoa alde bat utzirik, gogoratzen asten bada, gurasoei zor dien itzala ainbesteraiñokoa ote da, gero? Guraso asko badakigu zer moduz eldu diren guraso izatera: sarritan erdi gura barik, nai ezta. Eta bein ortara ezkero, betetzen dute nola edo ala beren eginbidea. Semeak esan zezaken bada: "nere sortzea nola izan zen badakit, eztiet ezertxo ere zor. Nere aziera zer modukoa izan zen eta gurasoek aziera ortan izan zituzten asmoak eta xedeak, badakizkit, eta eztiet geiegi zor. Edozein modutan ere, jaiotzea nik eztiot iñori eskatu; eta ba al zekiten nere aita-amek ni mundura ekartzearekin mesede baiño kalte geiago ez ote zidaten egiten?"

Orrelako izketa seme baten aotan ez genduke iñolare

onartuko. Gauzak nolanai gertatu diren, ari isillik egotea dagokio eta iru gauza galdetzen zaizkio: maitasuna, itzala eta menpetasuna bere gurasoekiko.

Baiña eginbide oiek noren izenean eskatuko? Gure gaiñetik zerbait ezpaldin badago, beintzat, nik ezin dut asmatu. Berriz ere, nai ez nai, Jainkoarekin topo egin bear.

XIII Kapitulua
Erresumak (Nazioak)

LABURPENA

Familiaren urrengo, erresumak (estaduak) datoz gizartean.

I. Gaur argi berritan azaldu zaigu gizartea. Gaur badakigu izadiaren lana dela gizartea, eta ba-daukala bere xedea. Adimendu batek aldez aurretik ezarri dion asmo edo xedeak gidatzen du kondairan-barnako bere bidea. Giza-gorputza edo organismua bezala, gizartea ere plan batekin moldatua dago. Erriak ba-du bere bizitza: bere jaiotze, aurtzaro, gazte-denpora, bere sasoia, zaartzaroa ta eriotza. Kondairak ba-du berezko bide bat, martxa bat, gizonen alegiñak gora-bera. Orrek esan nai du izadian bezala, gizartean ere adimendu baten aztarnak nabari direla.

II. Gizartean eta Kondairan agiri diren nazkagarriak, eta ortik Jainkoaren kontra jarri nai den beaztopa-arria.

III. Aurrerapen-lege bat nabari da gizartean. Beraz, ona da nagusi. Nekearen nekez eta astiroegi lortzen direla gizartearen aurrerapen oiek? Bai, baiña nolanai ere ordena bat agiri da: beraz ba-da ordenatzaille bat. Eta geroko bizitza bat baldin badago, bitartean igarotako nekeak eztira alperrikoak izango, an jasoko baitugu oien saria.

Familia, asiera besterik ezta, ataria, gizarterako zubia. Pixkanaka pixkanaka lagunarte ertsi ori zabalduaz dijoala, nazioak edo erresumak sortzeraiño etortzen gera. Esan bearrik eztago, erresumek irabazi aundiak ekarri oi dizkiotela gizonari alde orotatik: familia bakarrak edo banako utsak eman ez dezaizkioken abantailak, alegia. Eta menturaz egunen batean gizadi osoa antolabide zabalago batean sartua ikusiko dugu, ez erri bakoitzeko mugak desegiñaz (oiek ere ondasun askoren zaitzaille baitira), baiña bai muga oien gaiñetik gizon guztiek elkarrekin dituzten zer-ikusiak argi osoagoan ipiñiaz. Era ortara, bakoitza bere zokoan sarturik edo bata bestearekin burrukan ibilli bearrean, elkarri lagunduko liokete. Eta ala gizon guztien indarrak baltsan arturik, nork esan nolako onurak el zitezkean guziontzat? Ori izango litzake gizartea bere azken xedera eramatea.

Ametsak? Nik eztakit. Alako zantzuak sumatzen dira, baiña gaurkoz ez gera ortara iritxi. Erresumen aroan gaude oraindik. Ikusagun, bada, nolatan sortu eta bizi diren. Emen ere, gaiñerako eremuetan bezala, Jainkoaren siñiskera bearrezkoa dela azalduko zaigu.

I

Ikus zagun lehenik zein diren gizartearen sustraiak, iturburuak. Antziñateko gizonak susmo zoli-bizia zeukan Jainkoak gizartearekin duen zer-ikusi ori aditzeko. Orduko literatura gogoraturik besterik eztago: Homero, Hesiodo, Herodoto t. a. Bearbada (lehen ere mintzatu giñan ortaz) aiek zuzen-zuzenean joaten ziran lehenbiziko kausa ortaraiño, tartekoak aintzat artu gabe; eta ortan oker zeuden, noski. Gure mendekoek, berriz, beste muturrera jo dute, eta okerrago. Eskolastiko izkeran mintzatzeko, **"causae secundae"**, bigarrengo kausak edo kausa urbillak deitzen diren oietan gelditzen gera, eta oiek direla ta eztirela, lehenbizikoa izkutatu egiten zaigu. Arrazoi gabe, ordea. Tarteko kausa txiki oiek ezin sartu batitezke lehenbiziko kausa aundi orren lekuan.

Ain zuzen ere, gizartea, gure egunotan, argi berritan agertu zaigu. Noiz eta gure mende onetan, Jainkoa ukatzen den mende onetan, iñoiz bezala agertu zaigu Jainkoa bearrezkoa dela gizartearen nondik-norakoa esplikatzeko.

Gure egunotan ba-dakigu gizartea berezko zerbait dela, izadiaren fruitu bat, eta ez giza-alegiñen ondore utsa. Gaiñera, gizarteko bizia lege batzuez gobernatua agiri zaigu. Beraz, gizarteko gorabeeretan gizon xoilaren egiñalak uste den baiño gutxiago dezake; eta ala ere, gizarteak ba-darama bere bidea, aldez aurretik ezarritako asmo baten araura, eta jomuga ta xede bat ardietsi naiean.

Ori ala bada, gizartearen egiturak antolamendu bat adierazten badu, adimenak bakarrik asmatu lezaken plan edo ordenantza baten agiriak erakusten baditu, bidezkoa da fenomenu orren sustraia edo kausa billatzea, eta ortara goaz.

Gizartea, izadiaren lana edo fruitua dela gaur ez luke iñork ukatuko. Erlauntza, erletokia, ezta erleen borondatez egiña. Bai zera. Izadia ari da oien bitartez. Ba dute animali ttipi oiek joera itsu bat elkarrekin bizitzeko eta lan egiteko, eta ala, izadiak edo barruko griña orrek bultza egiñik, egiten dituzte beren billerak eta lan arrigarriak. Gizartean ere berdintsu gertatzen da. Gizataldeak axaletik eta gaingiroki ikusten dituanak pentsa lezake giza-gogoa dela oien asmatzaillea.

Ori, ordea, ezta ala. Gizona bere izatez, gizartekoi da. Bere arrazoiak eztu indarrik joera sakon orren kontra joateko. Arrazoiak kontu ontan egin dezaken guztia da joera onen alde egon eta beraren bideak zuzendu. Gizartea, beraz, erletoki baten gisa tajutua da. Ba-da, noski, alde aundi bat: gizonak arrazoia eta askatasuna duela. Baiña ori gora-bera, zutik gelditzen da esan duguna: gizartearen martxan eta atzera-aurreran izadia bera ari zaigula lanean. Gizonaren askatasuna izadi orren morroia besterik ezta. Gizartea, bada, izadiaren lana da, gizonarena baiño geiago.

Orain bada, gorago, izadian Jainkoaren aztarnak billátzean esan genduan gauza bera, berriz esatea tokatzen zaigu. Izadiak, gizarteko bere lanean, xede batzuk adierazten ditu. Beraz, adimen bat tartean ba-dabillela erakusten digu. Gizarteko antolamenduan adimen baten aztarnak aurkitzen badira, nik ba-dut eskubide galdera au egiteko: eta antolamendu ori jaio den iturrian ez ote da batere adimenik izango? Izadian agiri den ordenantza ederrak adimen bat galde egiten badu, gizartea esplikatzeko ere ez ote gera orren bearrean?

Gizona gizartean bizitzea, izadiaren lana da. Erleak erlauntzan bizitzea edo maats-aleak mordotan egotea bezalaxe.

Gizarteko obra ori izadiarena da beraz, berak ipiñi baitzigun biotzean artarako griña. Gure mende ontan maiz erabilli oi da organismuaren irudia gizarteko gertaerak argitzeko. Zer esan nai du orrek? Gorputzaren antzera, gizartea ere plan edo asmo batekin moldatua dagoela.

Gorputzean zatiak eta atalak egoki eta miragarriki daude guziaren onerako paratuak eta egokitasun ortatik sortzen da guziaren goi-bizitza edo batasuna.

Ori bera gertatzen da gizartean ere. Gizonak elkartuta egotetik izaki berri bat sortzen da, eta izaki orrek ba-du bizitza berezi bat: jaiotza, zaartzaroa, eritasunak, eriotza t. a.

Bai, erresuma batek, nazio batek persona-tankera artzen du. Ba-du bere bizitza, bere eitea ta izakera, gizakumeak bezalatsu. Erri bakoitzak ba-du bere aiurri berezia, bere gogoa, gaitasun bereziak, joerak, griñak, akatsak eta bai alderdi onak ere. Eta guzti ori agiri da oituretan, izkuntzan, literaturan, folklorean, legeetan eta kondairako bizitzan.

Lenago gizonek etzuten begirik kondairako plan edo ordena ori nabaritzeko. Kondairak, gertaerak kontatzen zituan xoilki: erregeak, gerlak, guduak. Gertaera oiek alkarrekin lotzen eta josten dituen aria etzen nabari.

Gaur besterik da. Gaur ba-dakigu bai munduaren kondairak eta bai erri bakoitzarenak ere batasun bat osatzen duela. Banako xoillaren alegiñen gaiñetik, ba-dira gizartean mobimendu aundiak, eta ain zuzen, oiek dira gizonen borondateei bidea markatzen dietenak. Ba-da gauzen logika bat gizakume bakoitzaren logikari agintzen diona. Ba-dira lege gotor batzuk. Gauzak eztira alabearrez eta itsu-itsuan gertatzen. Ba-dira bide jakiñak, zuzenbide nagusi batzuk, eta nai ta ez gizon partikularren saiaketek zuzenbide jeneral oietara bear dute makurtu. Erri baten biziak ba-du, beraz, adimendun izaki baten bizi-antza.

Ain zuzen ere, ori ala delako antziña-aldiaz baliatu izan gera beti etorkizunaren berri jakiteko. Dena itsu-itsuan edo gizonen naierara gertatuko balitz ezin izango genduke aldez aurretik ezer igarri ez antzeman. Kondairako jakintzak lur joko luke. Garai batean kronologia eta geografia ziran kondairaren bi begiak; oiezaz kanpo etzen beste bearrik. Gaur ezta ala. Artu eskuetan Le Play, Spencer, Taine edo-ta Comte.

Kondairari buruz oietan Cantú edo Thiers-en baiño argi geiago baietz aurkitu!

Eta alare zaharrek ere sumatu zuten emen diogun au. Aiek ere ba-zekiten erri bakoitzak ba-duela bere aroa edo adiña, gizonak bezalaxe. Polibio ta Zizeronen argi agiri da pentsamentu au. Bazekiten noski erri guztiek ba dutela sortze illun eta ezezagun bat, aurtzaro aula, gaztezaro sutsua itxaropenez anpatua, gizontasun neketsu eta emankorra, eta gero zaartzaro bat, asko edo gutxi nahasia, eta azkenik eriotza. Azturak eta kondairak erakusten zieten ori. Zivilizazio asko bizi eta lur joak ziran orduko. Eta oiezaz xehetasun asko ezpazekiten ere, beintzat onako au bistan zan, alegia: barbarotasunean sortu, txirotasunean azi, saiatuz eta gudukatuz elduerara iritxi, gero ondasunak bildu, guri eta samur bizitzen ikasi, neke askorekin bildutakoa neke gabe ezin atxiki ditekela aaztu, eta azkenean usteldu eta indarrik gabe gelditzen zirela. Orduan beste erri gazteren bat nundikbait azalduko zan, nazio aguretu ori il arazi eta beraren aragiaz gizentzera, eta au ere lehenbizikoaren aro eta adin berdintsuak igarotzen asiko zan.

Lege ori argi dago kondairan. Eta beste gauza onezaz ere jabetu ziran ondo antziñateko gizonak; naiz ta gizona berekoi izan, arritzekoa da zenbat eta nolako nekeak artzen dituzten beren gain millaka gizonek, abertzaletasunak eragiñik, eta ori erriaren bizitzak gure bizitza kaxkarrakin zer-ikusi gutxi duela jakiñarren.

Gauza onen ederrez lilluraturik, aien sistema politikoetan banakoa, ale bakarra edo individuoa erabat gelditzen da baztertua, orobatasunari eskeiñia. Joera orren aurka gure aro modernuak gizonaren eskubideak aldarrikatu ditu. Baiña egun, sozialisten ustekizunen indarrez, badirudi berriz ere antziñateko asmo eta ikuskizun oietarantz gaudela abiatuak. Estaduaren jainkotasuna erakusten zaigu, eta gizonak botere alguztidun orren aurrean makurtzea besterik eztu. Konzientziaren barrutia bera ere eta norbere askatasuna, batere lotsarik gabe bortxatuak ikusi izan dira.

Gure errukarriak joera oiek indarra ar balezate! Eztugu gizona artu bear etxe bateko arri bat bailitzan, edo bizidun izaki baten zelula bezala. Irudi ori, bere neurrian, erabilli eta onartu leiteke, baiña ez dezagula, arren, bere neurri ta muga

oietatik atera. Arrisku ikaragarria datza emen. Eta gezur eta oker galanta ere bai. Arriari etxetik eldu zaio bere balio guztia, berez ezta ezer. Zelula delakoari ere etzaio bizia eman gorputzeko goi-bizia zaitzeko baizik. Giza-banakoak, ordea, ba-du berez balio berezi eta gotorra. Baditu adimendua, bere buruaren jabe izatea eta betiko irautea. Ba-du etorkizun bat, berari dagokiona. Bera da jo-muga eta elburu. Ezta, beraz, gizartearentzat. Aitzitik, gizartea da gizonen onerako jarria, gizonari laguntzeko. Gizartea laguntza bat besterik ezta, gizon guztiok gure bizia umotasunera eraman dezagun.

Nolanai ere, erri batek batasun bat duela: ori ere egia da. Ba-du bizitza bat, erritarren bizitzaz landara. Onek zer esan nai du? Gizartearen goraberak eztirela ustekabearen lan itsua. Gizarteko bizitza ori gogamenaren fruitu edo ondorea dela, eta borondate batetik datorrela. Gogamen eta borondate ori eztira gizonarenak, noski. Gorago ere esan dugu gizonaren begiak eta saiaketak ezer gutxi dezakela ontan. Ara zer zion Gambettak: "Nazio baten agintari dagoenak aitortu bear izaten du ba-dela gizonen gaiñetiko indar bat, jostaillu bezala ibillirazten gaituana". Eta Balzac zenak: "Emen jotzen diren soiñuak an goietan izan dira asmatuak." Eta Maximo du Camp-ek: "Askotan gertatzen dena: guk maltzurkeri guztiarekin zerbait irixtearren gauza bat asmatu, eta gauza orrek uste ez genduan ondorea ekarri."

Kondairaren lerro nagusiei bagagozkio, gizonak eztu ezer aundirik egiten bere kabuz edo asmoz. Gobeliñak deitzen diren eun oitako langille antzo, itsuan eta irudia ikusi gabe, gainazpitik diardu lanean. Bere begiz ikusi nai duanean eta bere egiteen ondoreak urrutitxo eraman nai dituanean, ustegabeko olatu batek estaliko du bere lana. Zuurtzia utsarekin antolatutako obrak izan oi dira denetan auskorrenak, desegiten samurrenak.

Gauzek ba-dute berezko bide bat, martxa bat. Ba-da logika bat, kondairak ba-du asmo bat. Gertaerek ba-dute lege bat. Eztira alabearrez edo xede gabe egiñikako marrazkiak edo zirriborroak. Beraz, izadian bezalaxe, nabari ote da gizartean ere adimendu baten aztarna?

Zivilizazioa, esan du filosofu batek (H. Spencer-ek) izadiaren aldi bat baizik ezta: arrautza bat bere eldutasunera

irixtea edo lore baten sortzea izadiaren gertaera eta aldi diren bezalaxe.

Ori ala bada, ondorea bistan dago.

Gogoratu lenago esan genduana: izadiak bere lanetan adimendu baten aztarnak erakusten dizkigu, bera itsua izanik ere. Adimendu ori beste nunbait bear da billatu.

Emen orobatsu. Ordea, ba-da alde aundi bat. Izadiak indar batzuen bitartez egin oi ditu bere lanak, eta indar oiek arte bat daramate barrenean. Gizarteko lanean, berriz, bere baitako arte ori gizonetan aurkitzen da kokatua. Orregatik edo, iduritzen zaigu gizonak direla kondairaren egille utsak. Baiña ezta ori egia. Gizonak eztira drama onen egilleak. Tokatzen zaien papera bete baizik eztute egiten.

Gaiñera, gizona ez al da, bera ere, izadiaren lana?

Gizonen borondateak eta izadiaren alabearrak, denak daude gogamen baten eskuetan jarriak. Orrek gidatzen eta zuzentzen du gizarteko bizia. Bera da borondateen Jaun eta Jabea. Beronen izena ezpaiñetan daukagu: Jainkoa! Bai, Bera dago giza-pilla ororen gibelean, oien sortzaille bezala. Kondairaren ostean, au bere bidetik abia-arazteko.

Eztu onek esan nai etengabe ari dela bere eskua gizarteko goraberetan sartzen. Izadian eztu alakorik egiten, eta gizartean ere ez. Noiz edo noiz, gertaera bakan batzuetan egin oi du ori ere: orduan dugu milagrua edo Providentziaren agertzea. Baiño maizenik eta komunzki dena dabil berez bezala; lan guziaren azpian, ordea, ba-da gogo gidari bat. Eta gogo onek egiten dizu xedea ezarri, xede ori lortzeko bideak autatu eta bere asmoa beteko duten langilleak lanean ipiñi ere.

...Baiña ori ala bada, ondore ori atera bear bada, oztopo ikaragarria jartzen zaigu bide-erdian: kondairaren antolatzailleak bearko du bere burua zuritu. Alde orotatik akusazio gogorrak jasotzen baitira aren aurka. Kondairak eskeintzen digun irudia ain da nazkagarria...

Goazen emeki-emeki eta soseguz. Gure marmar guztien gaiñetik Jainko Betikoaren obra alabagarri azalduko dela seguru nago. Eta guk, Job-en antzera, aitor au bearko dugu eman: "Ni baiño gorago dauden eta nik asmatu ezin ditudan miratiez, ulertu gabe, mintzatu naizelako, errudun jotzen dut nere burua, eta autsaren gaiñean eserita, damutzen naiz"...

II

Gogora dezagun, asteko, izadiari buruz askatu bear izan genduan korapilloa. Izadia milla desordenu, tajugabeko, ilkintza, triskantza eta ondamendiz josia agiri zaigu. Izadiak, Saturnok bezalaxe, bere semeak jaten ditu. Nazkagarria agiri zaigu benetan... Zer moduzkoa izan zan objezio oni eman genion erantzuna? Lehenik, onako au esan genduan: Arrazoi orrek eztu zer ikusirik auzi ontan. Jainkoa badela probatzen asi gera gu, eta ez Jainkoa zuritzen. Gu murgildurik bizi geran ordenatza miragarri onek ba-dituala bere misterioak? Eta zer? Ordena bat baldin badago, ba-da noski ordenatzaille bat. Izadian asmo baten aztarnak nabari badira, ba-da nunbait arkitektu bat. Jainkoaren auzia eta Jainkoaren tasunen auzia, bi auzi ezberdiñak dira, ezpairik gabe.

Jainko-etsaien arrazoibidea ezta, zinez, logika onean onartzekoa. Jainko bat baldin badago, berezkoa baita Arengan misterioa aurkitzea; eta guk, eguntto batez bizi geranok eta mundu zabal onen bazter nimiño bat zapaltzen dugunok, Jainkoaren obretan misterioa aurkitzea, ezta batere arritzekoa. Munduaren Egilleari zer dagokion, zer egin bear luken, zer permiti lezaken eta ez lezaken ta abar, ortaz diot, ezin gindezke gure buruaz geiegi fiatu, ezpaitgera nor ori erabakitzeko. Jainkoari onako au esatea: "Zure lanetan au eta ura nabaritzen badut, eztut Zugan siñistuko", ezlitzake seriotasuna eta bai txorakeri bitxia. Gure arrazoibidea, berriz, zuzena ta argia da oso: munduan ordenantza agiri baldin bada, seiñalea da Ordenatzaille bat ba-dela.

Gizarteaz denaz bezan batean, berdintsuki bear dugu jokatu. Alde batetik, kondairan eta gizartean asmo baten arrastoak agiri dira; bestetik, kondairak eskandalo galantak sorrarazten dizkigu. Bata eta bestea egia izaki, bi mutur oiek beude zutik, elkarrekin nola josi ezpadakigu ere.

Gaiñera, illungune oiek argitzeko, zerbait esan genezake: utsaren erdia baiño geixeago, noski.

Kondairari eta gizarteari begiratu bat ematen badiogu, ikuspegi nazkagarria agiri zaigula ezin ukatu. Giza-arrazak sortu duan leenbiziko semea, Kain: orra or kondaira osoaren irudi. Eta Betikoak Kain-i galdetu ziona: "Zer egin duk ire

anaiaz?", ori bera galdetu bear genioke gizadiari, gizarteko bizia Moral-aldetik epaitu bear bagenu.

Axaletik eta gaingiroki kontatua, kondaira biotz-ukigarri eta are gozoa ere azaltzen zaigu. Begitarte xarmanta ta zoragarria du benetan. Baiña barreneko mamiari begiratuaz, eta gure irizpideak Egille on bati zer eskatuko lioken gogoratuaz, kondairak asaldatu egiten gaitu. Buru argiak eta biotz guziz bikaiñak agiri dira, bai, kondairan zear, eta aren alderdi ona osatzen dute; baiña eztira, ez, nagusi. Eta gaiñetikoa zer da? Oiñaze-malko-lokatz eta munstrokerien bilduma itxusi bat besterik ez.

Gizartea, gizona aunditzeko eta laguntzeko sortu zan, eta sarritan gutxitzeko eta ondatzeko baizik ezta izan.

Errien agintaritzak (botereak) eztute sekula iturburu garbirik izan. Jartzen zaizkigu betiere agintzen zer bidez edo zer moduz eztakizula, eta agintea igarotzen da eskuz esku indarrez, odolez, saldukeriaz edo joku zikiña dela bide.

Gobernuak, guzion ona beren on propioa bezala artu bearrean, lege ori gainazpikatu eta itzulipurdikatu dute, alegia: beren on propioa, beren arrokeria eta aberastasuna nazioaren ona biurtu dute. Eta mendekoek goikoen biurrikeria oni erantzun diote gorrotoaz eta sarritan matxinadaz.

Errien arteko ar-emanetan gerlak, zelatak, bekaizkeriak ageri dira jaun ta nagusi. Aulen ondatzeari garaipena deritza. Sekulako ilkintza gordiñak epopeya goitarrak bezala artu izan dira. Gaizkille aundiak heroe biurtu, t. a.

Zer gaiztakeria ezta egin gizartean? Gizona gizonaren ostikopean jarri, emakumea zapaldu, aurra griña lotsagarrien kontura utzi. Gizona iltzea egite txalogarri edo eskubide bat bezala artu. Lapurreta estaltzeko, **"conquista"** izen ospetsua jarri zaio. Saldukeria parkatua izan oi da **"Tratado"** izenaz zuritua baldin badator. Zirkuetan gizonaren bizitza, eta bakanal guzietan gizonaren birtutea jolaserako bide bailiran artu izan dira.

Gizonak egin eztuan deabrukeririk eztuzu aurkituko. Orregatik-edo, ikusitakoak ikusi eta, gizarteko bizitza, gizonari ain berezko zaion bizitza ori, aurrerapena ez, baiña gizonaren okertzerik eta gaiztotzerik makurrena jotzen dute batzuen batzuek.

Gaurko egunez ere badiraute gizartearen beltzune oiek.

Botereak beti bezala ari dira beren joku zikiñetan; baita beren azpikoak ere oien aurka burua altxatuz. Erri zivilizatuak etengabeko eztabaidetan, alkarri zemaika. Gizonaren eizea ezta ez oraindik bukatu. Bai zera, bukatu! Eichmann-en prozesuan agertu diren bezalako ilkintzak, noiz ezagutu ditu munduak? Gizarteko indarrak, gaiak eta diruak zertarako enpleatzen dira? Gerlak prestatzeko edo aurrera eramateko. Esklabotasuna ezta ez il; erri zivilizatuetan ere bizi da oraiño, milla aurpegi ta estalki arturik. Goseak egin ditu orain ere bereak, eta sarritan aberatsen eta boteretsuen berekoikeriagatik. Usteldura moralak dena kutsatzen du. Labur: mendeen asieratik azkenerarte, munduaren bazter batetik besteraiño, gizarteko bizitzan desordenuak eta gaitzak dauka parte bat ain ikaragarria, ze organismu ustel ori badirudi ezin ditekela Jainkoaren lana izan.

Antziñateko gizonak etzeuden ain itsu, ori ez ikusteko. Zeruan siñisten zuten eta zeruari ezartzen zioten gizarteko lana; baiña gizartean agiri den gaiztakeria esplikatu naiean, asmatu zuten ba-dela **"fatalismua"**, alabearra deritzan iratxo beltz ori, gauza guztiak eta are jainkoak ere bere azpian zituana. Eta alabearraren esplikazio onekin birao egitetik gordetzen ziran.

Gu, geroago bizi geranok, mendeen sail luzeagoa ezagutzen dugunok, Ebanjelioaren argiak eta aurrerapen asko ikusi ditugunok, ez gera asetzen alabearraren asmazio orrekin, eta gizarteko bidegabekeria oiek geiago samintzen gaituzte. Perikles edo Faraontarren arokoak baiño kontentagaitzago gera, noski.

Ezta seiñale txarra, gaitzak samintzen bagaitu. Nik beintzat samurrago parkatzen diot onako au esan duan Inglaterrako Ministro laboristari: "Ni Jainko banintza, mundu au dagoan baiño zuzenago tajutu izango nuke." Kondaira batere samiñik gabe ikusten duan optimista kaxkalari baiño samurrago, esan nai dut. Biraoa alde bat utzirik, minberatasun ori Ebanjeliotik eldu zaigu.

III

Gizarteko irudi onetan bi eratako gaitzak agiri dira. Lehenik, gizarteak berak berakin daramazkian gaitzak: oiñazeak,

nahasketak, baratzegi ibiltzea, ondamenak: au da, gizarteak gizarte denez ikusi oi dituan gaitzak. Eta urrengo, gizakume bakoitzari gaitz oetatik segitzen zaizkion ondorio makurrak, baitezpadako zorigaitzak.

Bereizkuntza au ardura aundikoa dugu. Izan ere, onen edo orren zoritxarrak, gizakume berezi baten gaitzak, sendagaia ere partikularra galdetzen du. Denen gaitzak, berriz, sendagaia ere denena bear du.

Ikusagun lehenbizi denen gaitza, gaitz soziala.

Kondairako edozein garaian aurkitzen ditugu desordenuak, zikiñak, usteldurak, eta ori gizarteko atzera-aurrera bear ez bezala ibilli oi delako. Ori ala da. Baiña gizarteko zoriona beingoan eta osorik bear al da lortu? Ba ote dugu eskubiderik urlia lekutan edo guri gogoak ematen digun unean ori eskatzeko? Eta guztiz ere, gure naikunde ori gertatzen eztelako, Jainkoa errudun jo dezakegu, edo Jainkorik eztagoela epaitzea bidezkoa al da?

Gaiñera, gure egunotan badakigu lege baten berri: evoluzio edo biraldakuntzaren legea. Ain zuzen (eta arritzekoa da) ortaz baliatzen dira Jainkoaren etsaiak Jainkorik eztagoela probatzeko; eta ortaz baliatuko gera gu aren alde jokatzeko.

Lege onek gauza bat agertu izan du: munduko ordena aldian zear eta mendez mende nabari dela. Ezta xehetasunean ikusten, orotasunean baizik.

Apika, bestela izan zedin naiko genuke guk. Baiña mundua, berak nai duan gisa dabil, eta ez nik edo zuk nai genuken bezala. Edozein modutan ere, Ordenatzaille baten billa gabiltzanok, ordena bat izan dedilla, benetazko ordena bat, ori da guk eskatu dezakeguna. Ordena ori zer moduzkoa den: aldian zear baizik agiri eztena edo memento xoil eta jakin batean egizta diteken bezalakoa, ori beste kontua da.

Nortzuk eta, Zeruaren eta Providentziaren ukatzailleak datozkigu aurrerapen-lege delako ori goratzera!

Gizona (esaten digute) aberetasunaren esparrutik ilki zan. Apurka-apurka eta nekearen nekez abere-oiturak utziaz dijoa. Gogoak edo izpirituak artu zuan gizonaren zuzendaritza. Aurrerapideak geldiro-geldiro egin dira, izadiaren aldi guztiak egin oi diren bezala. Aurrerapen nekosuak, baiña alere etengabekoak, eta gizarteko zoritxarra zearo bukatu eta

ezkutatuko den aroa urbil omen da. Ezberdintasunak gutxituaz dijoaz, eta gutxituaz joango dira, arik eta neurri dexente batera eldu gaitezen artio. Labur, izpirituak artuko omen du munduaren agintea.

Zer adirazi nai du mintzatze-molde onek? Gure esana onartzen dela bere aurka joan nai den denpora berean.

Aurrerapen-legea agiri omen da munduan. Beraz, ona da nagusi. Munduak ona du xede edo jo-muga, gaitzaren kaltetan. Gizataldeen evoluzio edo biraldakuntza, onari buruz dago abiatua.

Zergatik orduan ainbeste denpora, ainbeste luzamendu, onak garaipen osoa lortu arte? Baiña galdera onek ere eztu arrazoin aundirik. Bearbada Jainkoak nai izan du aurrerapenak gizonaren beraren marka eraman dezan, onen askatasunaren eta onen auleriaren marka. Nolanai ere guk eztugu eskubiderik Jainkoari esateko: Eztut Zugan siñistuko gizartea asieratik gizondua eta zoriontsua egiten ezpaduzu. Bearbada ezta ori guretzat egokiena. Norbere lan eta nekeen semea izatea ez al da betiere obe? Norbere saiaketa, odol eta malkoez irabazitakoa ez al da ederragoa? Eskola-maisuak aurraren lensaioak gidatzen ditu, bere eskuan aurrarena artzen du, idazten ikasi dezan. Jainkoak ere alatsu eusten dio gizadiari goraka daraman bide ontan. Ezerezetik aterea izan denak makiña bat mende bear ditu bere jo-muga atxikitzeko.

Gizakumea mundura datorrenean, narrugorrian dator. Aula oso aragian, utsa izpirituan, arrisku eta premia guzien menpean. Urte luzeetan egon bearko dute gurasoek eta irakasleek lan ta lan, gizon aterako bada. Ori, ordea, etzaigu gaizki iruditzen, ontzat ematen dugu. Zergatik? Neke guztien buruan, gizona sortzen eta moldatzen dela ikusten dugulako. Eta gizadia deritzan beste izaki bizi ta aundi orrezaz zergatik eztugu beste ainbeste pentsatu bear? Gizadiaren adiña izugarri luzea da. Mende bat ezer ere ezta arentzat. Eguntto batez bizi geranok ezin gure begiekin neurtu mendeen erreskada luzea. Eta jartzen gera artega, biraoka. Arreta geiagoz begiratuko bagenu, eta goraxeago igoko bagiña, ikusiko genuke, noski, naiz ta aipaturiko illunguneak egiak izan, ezarian-ezarian ta ia igarri gabe, gizadia ba-dijoala aurrera, eta aurrerakoan ere, orain artio bezala, bere aurrerapide ontan, mailla berriak iritxiko dituala.

Gertaerei urbildik begiratuaz, xeheki, gertatzen diren gisa, desordenua baizik ezta nabari. Urrutitik eta antziña-aldiari begiratuaz, argi-ildo luzea agiri da illunpeen erdian.

Barbarotasunetik ozta-ozta ilkiak gera. Alare gure mendean ezta gizona txakurra balitz bezala iltzen, bidean topo egin dugula ta beste gabe. Gaur gizonik geienak eztira jopu edo esklabo, beiñola gertatzen zen bezala. Ez gaude Faraoandar aien mendean, gerlan artutako katibuei begiak ustutzen zitzaizkienean. Ezta Daviden aroan ere. Errege onek, naiz ta aundia izan, preso artutakoak iru saldotan banatu eta irutatik bi iltzen zituan, eta ori bere errukiaren adigarritzat.

Gaur ere munstrokeriak egiten dira, bai, eta azken gerrateak ondo egiztatu du. Baiña kondaira eskuan artuaz, gauza bat da ezin ukatuzkoa: oiturak poliki-poliki oberantza dijoaztela. Gizadiak atzera-aurrera asko izan ditu, bai gora-aldiak eta bai bera-aldiak ere. Baiño bultza guzti oien buruan, geroago eta gorago aurkitzen gera. Jakintzatik, irakaskintzatik edo ta erlijiotik artutako pake-bideak gizadian nagusiagotzen dijoaz; gerla-gosea eta piztikeria zokoratuz dijoaz.

Egungo ondoezak eztitugu ba ixildu nai; baiña ala ere gizadia aitzina dijoala aitortu bear da. Barbarotasunaren landa estutu egin da; zivilizazioarena, berriz, edatu eta zabaldu, poliki piliki, baiña etengabe.

Bai, badakit gure izkera oni batek baiño geiago ezarri lezaioken eraskiña. "Aurrerapide ederra, atzeneko gerla orokarrak azaldu diguna, bere gas-ganbara, konzentrazino-landa eta ainbeste sarraski ta gertakizun lazgarriekin! Ostikada galanta gizadiak eman diguna! Eta gerla ondoren, ainbeste bazterretan zabaldu den komunismuak zer egin du? Giza-eskubideak itzali, gizakume gajoa errukigabe zapaldu eta Estaduaren oiñazpitan jarri". Baiña gertaera oiek eztute nere esana gezurtatzen. Orotasunari begiratu bear zaio. Atzerakadak eta ostikadak eta mota guztiko goraberak gerta ditezke, baiña kondairako mendeak saillean arturik, aurrerapen lege ori oartzen dela ezin ukatu diteke.

Galdetzen badidazu: gaur atzo baiño aurreratuago ote gaude? Erantzungo dizut: eztakit. Eta galdetzen badidazu: Aurrerapenik adierazten al digute barbaro aiek, Erromako zivilizazioa ondatzera zetoztela? Frantziko Matxinada aundiko oiturak eztiagoak al ziran aurreko urteetakoak baiño? Ezetz

erantzun bear. Baiña gauzak eztira ola artu bear. Gizadiak ere ba-ditu aul-uneak, krisis-garaiak, lozorro-orduak, eritasunak eta gaitzaldiak. Laugarren mendean, iparraldeko ugolde arek kristau erria ta Erromatarren Inperioa estali zuanean, ain aundia izan zan oiñazeen neurria ta okerren kopurua, eta ain gutxi nabari zan aurrerapen ori, ze munduaren azkena urbil zela uste izan zuten. Ara San Gregorio Aundiak zer idatzi zuan: Mundua il-agiñean dago, bere eritasunak sendatzerik eztu, asken bukaera laister bear dugu ikusi...

Baiña bista laburrekoak izan gu. Iparraldeko jende garratz aiek aurrerapen-lana egitera zetozten. Ori bai, aizkora ta sua zekarkioten Erromako zivilizazio aguretuari. Sekulako kiskaltzeak, ebakiak eta mozketak egiñaz, Europako mapa berria moldatu zuten. Gauzen egokera berria landatu zuten. Gure aroa edo oraingo egokera, alegia. Eta bere lotsagarri guztiekin, ez al da gure egokera au atzenengo Zesar aiena baiño obea?

Beste ainbeste esan diteke kondairako nahasmendu izugarri guziez ere. Aurrerapenak ba-ditu bere goraberak: orain atzeraka, gero aurreraka, baiña gorabera guztien buruan aurrera-legea agiri da nagusi. Eta ori eztute ukatzen gure etsaiek. Ortik segitzen den ondorea ere eztezatela uka, beraz. Aurrerapena ongiaren erresuma da. Erresuma orrek badituala bere liskarrak eta bere luzapenak? Baliteke. Bearbada izango dira arrazoiak liskar ta luzapen oietarako. Baiña ongiaren erresuma, au da ordena, onartuz gero, nai ta naiez Ordenatzaillea onartu bear.

* * *

Baiña bein onera ezkero badakit zein den batek baiño geiago jaurtiko didan arria: "Aurrerapen-legea diozu? Bego. Munduan ezaguera gabeko izakiak besterik ezpaleude... Baiña munduan gizonak ere ba-dira eta oien biziak egun batez bakarrik irauten du. Gizarte-mordoek zerbait geixeago irauten dute, baiña utsa oiek ere munduaren biraldakuntza orokarrari begiratuaz. Egungo gure zorigaitzak arintzeko, etorkizuna aipatzen al diguzu, eta etorkizuneko gizadia? Asto illari, uzkutik olo, esaten dute Erronkariarrek. Poz ederra, geroko amets orrekin eman nai diguzuna. Uste al duzu aski

dela etorkizuneko amets ori, Kreatzailleak (baldin bada) bere burua zuritu dezan? Ba al dago eskubiderik ainbeste gizakume ta gizarte-mordo oiñazetan ta bidegabean zapaltzeko? Bakoitza bere kasa bizi da lur ontan. Ba al du eskubide Jaun orrek gure oraingo ordu au etorkizunaren izenean galtzera uzteko? Ba al du eskubide ama oni erditze-miñak bialtzeko, berak ezagutuko eztituan ume batzuen ederragatik?"...

Irudipenak mintza arazten zaitu ola.

Nork esaten dizu zuri zure nekeen fruitu ortatik eztuzula zerorrek ezertxo ere jasoko? Munduaren ibillera mendeetan zear aurreraka dijoa. Gizakume bakoitzaren bizia, berriz, mundu ontarako, illobian bukatzen da. Mundu ontarako; baiña besterako ez al da orduantxe piztutzen? Emen nekatu zera, arikatu zera: eztira sari gabe egongo zure samiñak.

Il esan oi da, baiña beste mundu ori baldin badago, iltzea arako piztutzea baizik ezta. Ba-dakit nik geroko bizitzako siñistea ateismuak eztuala onartzen. Baiña guretzat naikoa da posible dela jakitea. Geroko bizitza ori posible baldin bada, gure etsaiek eztute eskubiderik esateko: Gizarteko gaitzek konponketarik eztute eta errudun ateratzen dute Jainkoa; beraz, naiago dugu Jainkorik eztagoela esatea.

Arrazoibide makurra —berriz ere diot—: illungune bat aurkitzen dela ta, argi, tinko ta gotor dagoan egia zokoratzea. Bestalde, zer mendez-mendeko aurrerapide etengabeko ori baiño aundiagorik? Or-emen erorika ta behaztopatuz, eta gero berriz burua altxatu eta berpizte miraritsuak egiñaz. Bai. gurdi bitore ori ba-dijoa aitzina, bere xedeari buruz. Egia, igarotzean, millaka zapaltzen dituala; baiña bizitza alperrik galduok Jainkoak jasoko ditu. Aurrerapen-lan eskerga ori bukatua izango den egunean, orduan aitortuko dugu belauniko ta arriturik, iñortxo ere eztela alperrik edo bidegabez nekatu. Ez alperrik, nekeok gizadiaren onerako izan baitira; eta ez bidegabez, nekatu denak bere gaitzen saria jasoko baitu.

Jesusek zion ura gogoan artu dezagun eta munduko samindurek ez gaituzte nahasiko ez kezkatan jarriko: "Fede gutxiko gizonak: Zergatik zalantza ori? Ez al daki Aitak, zuek baiño obe, zer zaizuen komeni? Ba al da zuen artean bere semeak ogia eskatu eta ogiaren lekuan arri bat emango dionik? Edo arraia eskatu ta suge bat emango liokenik? Naiz ta gaiztoak izan, badakizute zuen umeei gauza onak ematen. Eta

zuen Aita zerukoak ez ote du jakingo bere eskaleei gauza onak ematen?"

Zein den gizadiaren eskea, badakigu onezkero: bizi, alegia, ta gure izerdien ondoko zoriona. Kreatzaillearen obrak gogoan ditu bi yoran oiek. Orrekin batean kondaira malkoz eta samiñez bustia ikusten dugula? Ezta ori arrazoi dena ukatu ta ukatu onekin dena illunpetan uzteko.

XIV Kapitulua
Gizarteko lokarria

LABURPENA

Gizarteak aginte bat bear du, nai ta naiez. Aginte orrenganako eginbideek iraun al dezakete zutik Jainkoagana jo gabe?

I. Rousseau-ren teoriak boterearen etorkiaz (Contrato Social). Gaur eguneon ustekizun oiek aaztuak daude, gaur ba-dakigu soziedadea izadiaren beraren lana dela. Beste aburu batzuk, gai beroni buruz.

II. Antziñateko agintariak maiz azaltzen zaizkigu Jainko biurtuak, eta legeak zerutik jetxiak bailiran. Ori geiegizkoa zan. Gaur beste muturrera jo dugu. Baiño egia, bi oien tartean dago. Jainkorik ezpaldin badago, eskubideak eztu oiñarririk. Indarraren eskubidea garaitu nai bada eta eskubidearen indarreraiño iritxi, Jainkoa bearko da aitortu.

Izadia, gizakumea, gizartea: ona emen iru gertaera, Jainkoa gabe ezin uler ditezkenak. Gizonak gizartearekiko dituan eginbideak, zutik irauteko, Jainkoaren bearrean dira. Gizartea agintari gabe ezin bizi diteke. Agintari ta oien aginte guztien bilduma edo mordoari, izen abstraktu batekin **Boterea** (Agintea) deitu izan zaio. Baiña aginte orri obeditzeko eginbideak, obligazioak, non du bere iturburua? Non du bere oiñarria edo azken sustraia? Sekulako eztabaidak izan dira, auzi au dela ta eztela. **"Agintearen etorkiaz"**: titulu onekin asten dira gai ospetsu oni buruz azterketak. Ikusiko dugunez, auzi ori ezin da tajuz garbitu Jainkoaren ideiara jo gabe. Jainkoaren ideia noranai zabaltzen eta edatzen baita, eta azkenik ideia ortara biltzen dira gauza guztiak.

I

Baiña lehenbizi azal ditzagun Jainko etsaien aburuak. Egiazko argiak, gezurrezko argi-txakurren ondoan geiago diztiratzen baitu.

Agintearen etorkia esplikatzeko iru bide artu ditezke. Agintearen iturburua gu baitan jartzen duana: ori da bat. Iturburu ori gure gaiñetik jartzen duana: au da bigarrena. Edo-ta azkenik, gure azpitik: iru.

Azpitik: iritzi onen araura, izadiak, etengabeko bere biraldakuntzan, gizartea ezezik, boterea ere sortu izan du. Gaiñetik: au da Jainkoagana jotzen duen bidea. Gu baitan: orra kontrato soziala, Rousseauk asmatu edo beintzat zabaldutako teoria ospetsua.

Asi gaitezan beronetatik. Rousseau-ren burubidea, ark erakusten zuan gisa, eztut uste gaur iñork aintzat artuko duanik. Onen iritziz, leen-gizonak basa-piztiak bezala bizi ziran bakartadean, bata besteagandik bakanduta. Gero, ordea, elkarrengana bildu ziran, elkartze onetatik etekin asko jasotzekotan. Beraz, tratu bat, egiune bat egin zuten, eta egiune ortatik sortu da boterea, gizarteko agintarien indarra edo eskubidea. Egiune ark tratularien borondatea beste oiñarririk eztu. Eta tratulariak gaur tratua egin duan bezalaxe, biar desegin dezake, nai baldin badu. Legea, erri-naiaren agiria, eta agiria baizik ezta. Ala zioten prantsez Matxinadako gizonek. Baiña

esan onek naiz ta errugabea iduri, aiek uste zuten baiño ondorio larriagoak dakartzi barrenean.

Alare, eztut ukatu nai asmakizun onek duan egi-apurra. Agintariek edo eskudunek erritik bertatik irtendako eskubideaz ari dira. Errien borondateak egin oi du bere buruzagien izendapena. Berak erabakitzen du, orobat, boterearen itxura edo tankera, beraren iraupena eta urrengoari pasa arazteko era edo modua. Geienetan gauzak eztira ala gertatzen, ba-dakigu. Boterea indarrez, maltzurkeriaz edo gutxi batzuen borondatez sortu oi da maizenik. Baiña orduan ere erriak eman dezake ondoko baiezkoa, itzez eta ageriz ezpada, egitez eta obraz beintzat. Eta nolanai ere, erri osoak bere buruzagien izendatzean parte izatea —al den parterik aundiena— beti izango da gauza desiragarria eta ortara zuzendu bear dira pausoak.

Baiña auzi onen koska, eztago or. Gauza bat da gizakume bat agintari izateko izendatzea edo autatzea; eta beste bat, gizon autatu ori erriaren eskuetan uztea, berakin nai duan guztia egin dezan. Eta gutxiago oraindik onartu diteke beste uste ura, alegia: gizonak ba-duela eskubide oraingo gizartea ezetsi ta arbuiatzeko, eta lehenagoko egoerara biurtzeko, au da, tratu zoriontsu ori egin aurreko bizimodura itzultzeko. Eta ain zuzen, auxe da Rousseau-ren dotriñatik berez jaulkitzen dena.

Gizonen borondate soilla beste aberik eta oiñarririk ezpaldin badu gizarteko alkartasun orrek, jakiña, gizarteak desegin dezake zoraldi batean, berberak beste ordu batean zentzu geiagorekin egindakoa. Eta batere arrazoirik izan ezta ere, bialdu dezake esku utsik berak aginteaz jantzi zuen bere mandataria. Eta iñork anarkista izan nai badu, nork galerazi lezaioke? Egiune ura kaltegarritzat jo badeza, edo tratu ori sator-tratua atera zaigula baderizkio, nola ukatu ari gizartetik alde egiteko eskubidea? Nizaz kanpo ezpaldin badago iñor ni lotu nazakenik edo nere burua legearen azpira ekarri leñakenik, orduan libre naiz eta ba-dut eskua menpetasun ori ta bere abantail guztiak arbuiatzeko.

Irakatsi zaiozu dotriña ori jendeari, eta orra anarkia. Gizartearen trinkotasuna, orra arriskutan jarria. Orra ondamena gizonarentzat. Beraz aburu ori biziaren kaltetan da, izadiaren aurkakoa, okerra, gezurra.

Gaur eguneon, egia esan, eztie iñork kaso geiegi egiten

XVIII gn. mendeko uste ta iritzi oei. Ordu ezkeroztik Soziologiak urrats aundiak eman baititu. Eta egun ba-dakigu jakin sozietatea izadiaren beraren lana edo fruitua dela. Abere-taldeekin gertatzen dena orixe bera gertatzen dela gizonekin ere. Gizartea eztela gizon batzuen tratu edo egiune batetik sortu.

Gizonak berez adiskidea billatzen du, emakumea. Eta ori izateak berak eskaturik. Gorputzak, biotzak, adimenduak, biziak, denek galdegiten diote adiskide ori. Aurkitzen du, emankorra biurtzen zaio, seme-alabak sortzen dira: orra urreneko giza-mordoa, izadiaren maastitik zintzilika. Familia onek, ordea, ba-ditu bere ondoan beste batzuk. Segurantza-bearrak bultzatuta, edo artu-emanak direla bide, berezko lokarriak sortzen dira familia oien artean. Gertaera auek naturalak dira, gauzen izakerak dakarzkianak. Gizonaren borondateak eztu aginterik oien gaiñean.

Eta ala sortu da gizartea. Eztago emen zorioneko traturik edo egiunerik. Biziak berak dakarren gauza da, beraz. Eztago gure eskuan gizartea desegitea. Aren sorrera, jaiotza ta aunditzea ere berezko gertaerak dira. Or da gure gaiñetik izadia agintzen, bere lana egiten, lokarriak eta korapilloak lotzen eta estutzen.

Tesis ederrenak eta zuzenenak, ordea, geiegira jo dezake. Eta onekin ere orixe gertatu da. Aburu zuzen au onartzen duten askotxok beste teoria bat asmatu digute boterearen etorkiaz. Jainkoa ukatzeagatik, noski.

Auetzat gizartea gertatu uts bat besterik ezta. Gertatu soilla: ez geiago ta ez gutxiago. Eta jakiña, gertatu utsetik eskubidera igotzen: or dute lorra. Izan ere, gure gaiñetiko mundu ori ukatu ezkero, ezta gauza samurra. Eta gertatu utsean kokaturik ari dira dena esplikatu naiez.

Gizona (esaten digute) aberetasunetik ilki zan eta polikipoliki badijoa aurrera. Gizartean agintea indarrez sortu zan, baiña aren ondorio onak ikusirik, finkatu egin zan, eta gaur eskubide bat bezala onartzen eta aitortzen dugu guziok.

Teoria berbera azaldu zitzaigun Moralaren oiñarriak aztertu genituanean. Orduan ere orixe bera esaten ziguten. Zer da ona ta zer da gaitza? Gerok ipiñitako izen batzuk. Egikera batzuk gizadiarentzat kaltegarri ta beste batzuk mesedegarri direla egiztatu ondoren, aei gaitza ta beste auei ona deitu izan diegu.

Baiña ori gertatu utsa da. Gauzak ala gertatzen direla-ta, neri zer? Ortik nola aterako duzu eskubidea? Ni gabe ta bera bakarrik egiten baldin bada lan ori, egin bedi ordu onean. Egiteko ortan nik eskuak sartu gabe ere egingo da. Gertatze utsa ezin izan diteke eskubide baten iturri, eginbide baten oiñarri. Gertatzetik eskubidera, nola igaro? Ezin iñola ere. Obeditzeko arrazoiak eskatzen dituanari, zer erantzungo? Ezer ez. Boterearen aurka jaikitzen denari, oker dagoela nola agertzera emango?

Sasi-Moral orrek dakarzkian ondorioak berez ikusten dira. Eskubiderik eztago. Indarraren indarra, besterik ez. Aburu onekin ezpaitago eginbidea sortzerik. Griñak gelditzen dira nagusi ta traba gabe.

Moral ontan eztago ez errudunik ez errugaberik. Garaileak eta garaituak, besterik ez. Anarkistak sortzeko eztira ez teoria txarrak.

Dotriña au gizartearen kaltetan dela, esan bearrik eztago. Beraz, izadiaren kaltetan. Baldin izadiak, giza-bizitzak eta gizarte-bizitzak batere baliorik badauka guretzat, arbuiatu bearrekoak dira.

Ez Rousseau eta ez oraingoko Moral ori eztaude, bada, zuzen beren asmaketa oitan. Antziñateak begi zoliagoa izan zuen kontu ontan. Egiarekin batean, ordea, uste okerrak ere naasi zituan —Jainkoari buruzko azalketa onetan maiz adirazi diren uste oker aiek—, baiña auziaren giarrari gaurko Positivismuak baiño urbillagotik eldu zion. Ar dezagun, bada, mendez mendeko ondasun ori, irakaspen ori, eta uste okerrez garbitua, boterearen etorkiaz eta eskubidearen oiñarriez egiatzat jo ditekena ikus dezagun.

II

Lehen-gizonen erregeak, jainkoak izan ziran; eta garai artako gobernu-mota, teokrazia (ala idatzi zuan Rousseauk). Gizon aen ustez, agintaria eta menpekoak izate berdiñekoak ezin izan. Artzaia ardiak baiño izate gorogoduna den bezala, Enperadoreek ere, gizonen gain aginduko badute, jainkoen arrazakoak izan bear. Eta arrazoi-bide ori zuzena zan —dio Rousseau jaunak— zeren, gure sentipenak eta ideiak zearo

okertuak ezpadaude, ezin konpreni diteke nola gizonak gogo onez bere kideko bat, bera bezalako bat, nagusitzat ar dezaken.

Agintarien jainko-biurtze ori ezin uka diteke. Antziñateko erri geienetan ikusten dugun gauza baita. Agintariak jainko biurtuak edo jainkoak errien agintaritzat artuak, alegia.

Juduen artean ori gauza nabaria da. Gizarteko lege guztiak gaiñetiko estalki onekin jantzirik datoz: **"Ara zer dion Betikoak"**. Egipton, berriz, justizia-arazoak jainkotasunaren izenean garbitzen ziran. Grezian eta Erroman jainkoak ziran Errepublikako lehen-agintari. Konfuzioren iritzian, erriko ardurak eta aginte-arazoak, zeruko mandatu batzuk dira. Legeak, zerutik igorritako aginduak. Numa Pompilioren legebilduma, Ninfa Egeria delakoak agertu omen zion ari; eta abar.

Eta gorago maiz esan duguna berritu dezagun, alegia: gure egunetako uste okerra larriagoa dela aiena baiño. Legeak aientzat osoki Jainkoarenak ziran; gure mendearentzat, berriz, osoki gizonarenak. Ez bat eta ez beste. Egia tartean baitago. Eta Ninfa Egeriaren mitu oiek, gure filosofia arroak uste duan baiño mami geiago daukate.

Baiña, baiña... onako au ere esan bear da: antziñateko uste ortatik ondore beltzak segitzen ziran: agintariek Jainkotzat artzen zuten beren burua. Agintari aiek denpora berean agintari ta Apaiz Nagusi ere izaten ziran. Estaduaren goreneko mailla, apaizen mailla izaten zan. (Euskaldun frantsezek, gaur artio, alkateari auzapez deitzen diote. Noizbait auzoko agintea apaizaren eskuetan zelako izango da, noski). Estadu laikoa gure egunetako asmakizuna da. Eztut au esaten maxiatze edo arbuiatzeko kontuan, zeren aldaketa ori, bere neurrian, aurrerapen bat izan baita, dudarik gabe. Intsensarioa ta ezpata esku berean izanik, oso errez baita neurri ta muga guztiak gainditzea. Eta orduan, tiraniaren garaian, nora iges egin, zerua bera ere jauntxo oekin bat egiñik agiri bada? Botereak usteltzen zirenean, astotzea beste biderik etzen menpekoentzat.

Ontan kristautasunak ekarri zituan azi berriak mundura. Eta ark ereindako azien bidez etorri da gizona naaspil ori desegitera. Nori berea, zion Kristok: Jainkoari Jainkoarena, Zesari Zesarena. Ala egin zuan bereizkuntza: lurreko gauzak

alde batera, zerukoak bestera. Eskubidearen indarra eta indarraren eskubidea, bat eztirela agertzera eman da.

Izan ere, eskubideak Jainkoagan du bere abea, eta ez erlijioan. Ori garbi ikusi etzutelako, antziñateko erri denak teokraziaren arabera aurkitzen ditugu eratuak. Zeruak eraendu bear bagaitu —uste zuten nunbait—, zeru orren mandateriei gobernua uztea baiño zer egokiagorik? Baiña filosofiaren aurrerapenak laister berezi zituan bi alor oiek, jakintzarena ta erlijioarena, alegia.

Heraklitok bere garaian onela zion: gizonek emandako lege guziak jainkozko lege bakarrean dute beren jatorri ta etorkia. Ta orobatsu diote aldi artako jakintsu denek. Gure mendean, berriz, Jainkoagan finkatutako eskubidea, giza-eskubideen kaltegarri dela esan izan da. Ori dionari onako lau baiezko auek prantatzen dizkiot nik:

Agintzen duana=legea.
Legea, berriz, edo arrazoia da edo deus ezta
Arrazoia, edo Jainkoa da edo deus ezta
Beraz, agintzen duana=Jainkoa.
Agintzen duana=legea.

Ori onartu ezik, indarraren eskubidean erortzen gera: edo alabearra edo anarkia autatu bear. Agintea gizartean bearrezkoa dela guztiak aitortzen dute. Agintea —autoritatea— lokarri bat bezala baita, gizarteko zati edo menbro denak lotzen dituana, eta ororen xedea edo ongia billatzera beartzen gaituana. Ongi ori autoritateak arau batzuetan mamitzen du eta arau oiek artzen ditu bere egitekoen gidaritzat. Ain zuzen, ori da legea.

Filosofo denek, legea zer den adirazte orduan, auxe esaten digute: legea arrazoiaren esana edo iritzia dela, alegia. Borondate itsu edo zoro batek agindutakoa ezlitzake legea. Legea, zuzena izatekotan da lege, zuzena ezin izan arrazoiarekin bat ezpadator.

Eta zer da arrazoia, botere guztien gaiñetik bere burua jasotzen duen zer misteriotsu ori?

Arrazoiak ezin ditu bere eskubideak zuritu, Jainkoarengana jo ezik. Giza-adimenak ezpaitu berberak bere egia egiten. Aitzitik, adimena ari da egiña ta emana dagoan egiaren gain. Bere baitako egia orrekin bat etortzeko egiten ditu ark

bere saieketak. Bere baitako egia ori, ordea, nola uler diteke, euskarririk edo kirtenik ezpadu, itz uts bat bezala aidean zintzilika baldin badago?

Gizarteko autoritateak ezin du, ba, bere burua zuritu, ezin ditu bere eskubideak egiztatu, arrazoiaren legeak aipatuz besterik. Eta lege oik gauzen izatasunean edo izadian finkatuak daude. Arrazoia eta gauzen izatasuna zer dira, ordea, Jainkoaren lana baizik? Beraz, autoritateak ezin du bere burua zuritu Jainkoagana jo gabe.

XV Kapitulua

Gizartearen xedea (elburua)

LABURPENA

Gizarteak aurrerapena du elburu. Baiña Jainkorik ezpadago, izen orrek ba al du sentidurik? Eman al dezazkioke izen orrek gizonari, lan egiteko bear dituen pizgarriak? Jainkorik baldin badago, bai, baiña bestela ez.

Egiazko aurrerapena lortu al diteke, gaiñera, Jainkoa gabe? Birtuteari abeak eta oiñarriak moztu ezkero, zer aurrerapen itxaro diteke?

Eta gizartea nora ote dijoa? Bere bideetan zear, saiaketa ikaragarriak egiñaz, bal al du xede jakiñik edo jo-mugarik? Jainkoa alde bat utziaz, gizartearen xedea bete al diteke? Gorago esan dugunez, aurrerapena du gizarteak lege edo jomuga. Aurrerapena: orra balio berezia ta gotorra duan gauza bat. Etengabeko aurrera joate ori, ongira gero ta geiago urbiltzea, artaz gero ta osokiago jabetzea: orra gizadiaren xede eta ametsa. Gizakume guztien artean burutu bear den lana da au. Baiña gizonak zergaitikoak galdetzen ditu betiere. Lan egin bear dugula? Ederki. Baiña esan bekigu zergatik eta zertarako. Ori nai dugu jakin.

Eta diot nik: Jainkoa baztertu ezkero, eskeintzen zaizkigun arrazoiak ba ote dira gure lan-nekeak onartzeko adiña, gure egintzari erantzun egoki bat emateko modukoak? Eztut uste. Orra atzenengo azterketa ontan ikusi bear dena.

Gizakumea, bere ibillera guzietan, zeren atzetik ote dabil? Onaren atzetik, noski. Gizonak, bana-banaka edo bakarrean arturik, bere indar guztien eta gaien edaraztea du lege, auxe baita aren ona. Ark nai du, alegia, gauza bakoitza bere tokian jarri dedilla: lehenik gogoa, urrena aragia, eta, azkenik, bere txokoan arrazoiaren arabera lan egin.

Gizarteak ere, gizarte denez, ba-du berari dagokion eta berak billatzen duan ona. Gizartea ezpaita —Pascalek zionez— gizon bat baizik, betiere dirauena eta etengabe ikasiz dijoana. Beraz, giza-alde bakoitzari eskatzen zaion lan uraxe bera du gizarteak ere, au da: bere gaiak eta indarrak erabilli, jakitatea zabaldu, oiturak oberantza eraman, bizitza-mailla, organizazio obeago baten bidez, geroago ta gorago jaso, eta abar.

Baiña aurrerapen-lan onek, neke ta saiaketa ikaragarriak galdegiten ditu. Korrikalari oien antzera, beti izerdipatzetan, burruka gogorrean, saiatuz eta bortxa egiñaz bizi bear.

Eta noren edo zeiñen izenean eskatzen zaio gizonari orrenbeste neke?

Aurrerapena ezta berriketa gero! Lan eskerga adierazten duen itza baizik. Erriek zenbat lan eta neke burutu izan dituzten, basati-egoeratik atera zirenetik, oitura eta legeak eztitzeko, irabazitakoa finkatzeko, behaztopa-arriak garaitzeko... Eta zertako eman gure buruari ainbeste neke? Uskeria baten atzetik joatearren? irudipenezko amets zoro bategatik?

Ziñez, Jainkoa kendu ezkero, gizonaren lan-gosea asetzen duten gauzak, objetuak, aidean gelditzen dira, oiñarri gabe, eztute gotortasunik ez trinkotasunik. Zertarako nekatu?

Izan ere, Jainkorik ezpaldin ba dago, zer egiten dut nik mundu ontan? Mundura izan naiz egotzia, makiña itsu onen erdian ikusten dut nere burua. Alperrik nekatzen naiz, ezpaitaki ark nere nekeen berri. Eta egun batean baizik ez nau lurgaiñean uzten. Eta egun ortan bertan ere milla arriskuz inguratua bizi naiz, arima gabeko botere eskerga baten menpean.

Ori ala bada, aurrerapenak izan ote dezake sentidurik? Ainbeste nekerentzat ba al da itz ortan sari eta ordain egokirik? Jaso al ditzake gizonak ideia ortatik lanerako bear dituan pizgarri eta akuillu eragilleak? Ez, noski.

Zuk, materialista edo panteista zeran orrek, noren izenean ezarriko diozu gizonari ain zama astuna?

Gogora datorkit emen Vinsonek idatzitako orrialde bitxi bat. Ikus aren euskal bibliografia ospetsua, itzaurrea ain zuzen. Vinsonek borobillak bota zituen euskaldunen aurka: au giñala, bestea giñala, ta abar. Gure erriak erlijioari zion atxikitasunak bere onetik ateratzen zuan. Dena dela, bere izerdi eta nekerik baliotsuenak gure erriari ta izkuntzari eskeiñi zizkion, eta alde ortatik zordun gera berarekin. Ateo edo panteista edo materialista edo zerbait olako zan nunbait. Itzaurreko azken itzak Euskalerrian jarri nai izan zituan eta orretarako Ondarrabira etorri zan. An, Hendayari buruz, itxas ertzeko ikuspegi zoragarri artan dago gure filosofua, itxaso zabalari ta eguzki gorriari so. Mokoz moko agiri zaizkio bi lur, aren ustez oso ezberdiñak. Ango aldean Frantzia boteretsu ta aurrera-zalea: an dena da aurrerapen, zalaparta, urduritasun, ezin egona... eta Errepublika, gaiñera. Emengo aldean, berriz, atzerakuntza, lozorroa... eta monarkia. Eta orain dator gizonaren urduritasunaz filosofiak eman dion argitasuna: Orduan konprenitu nuen —dio berak— gizonaren ezinegona, materia illezkorraren txinparta igarokor bat baizik eztela...

Ba!... Ori al zan guztia? Ori ala bada, aurrerapena delata, etzen orreta puztu bearrik. Zure ustez Aurrerapena memento bateko sukar ergela besterik ezta, zorabio itsua. Eta ala ere Jainko bezala jartzen diguzu? Ziñez eztut ulertzen. Sus-

trai ondo kaskarrak ditu Aurrerapenean jarri duzun fede orrek...

Izan ere, Jainkoa kendu ezkero, nere atsegiñaz kanpo eztut aurkitzen lanera bultza nazaken ziorik. Ezpaita iñor, ez saritzeko ez ordaintzeko. Alperrik nekatzen gera, gaiñera, ain fite igarotzen geranok ezpaitugu betarik gure lanen fruituak ikusteko. Etxea egin-berri eta igeltzeroak alde orduko, orra eriotza ate-joka.

Eta gure buruaren probetxurako egiten dugun lanarekin ori gertatzen bada, gizadiarentzat egin bear dugunaz, zer esangó? Zer da gizadia? Zu eta ni, gaurko ta biarko bizidunak, gizakume guzien bilduma. Ni eroriko naizen egunean, ezpaldinbada iñor ni jasotzeko eta elburu on batera ni eramateko, zertarako nekatu bear dut nere burua alperriko lan batean?

Bere kabia egiten ainbeste nekatzen den txori gaisoak baleki jakin aize-bolada batek adarra ausi, ta kabia, umeekin naaste, eraman bear diola, saiatuko al litzake oraindik lan ortan? Zer uste duzue? Piztiak egingo ote luke lanik onako gogoeta au egingo balu, alegia: Nere kabi onek unetxo bateko iraupena baizik eztu izango. Nere zulo onek eztit emango egonlekua ordu baterako baizik. Nere erlategiko eztia gizonak lapurtu bear dit biar. Nere txindurri-pillak udagoienean lertu bear du, gurdi deabru batek zapalduta.

Animali xume gaixoa, milla arazo ta joan-etorrietan sartua! Naturalezak engañatu egiten zaitu. Nekea ta lana eskatzen dizu, eta zertarako? gero aaztua izateko.

Eta gizonaren patua berdin-berdiña izanik, erokeria ortan eroriko al naiz? Gizona auskorra da oso, bai, erruki emateraiño. Izadiak nunnai, noiznai ta nolanai azpian artu dezake gizona. Ortaz gaiñera, goialdeko bazter oiek utsik baldin badaude, ezpaldin bada an iñor gure nekeak saritzeko, zertarako nekatu?

Jainkoa ukatzen duten jaun oiek argi eta garbi esaten digute: Gizona deus ere ezta. Giza-bizitza ezta ezer. Ez giza bizitza eta ez beste edozein bizitza ere ezta deus: irakite bat, sukar ttipi bat, usteldura bat. Aldiaren erloju aundiak ematen duen taupadatxo bat. Izarren arteko burruka aundien gertakari bat. Eta ori esan eta bertatik gaiñeratzen dizute: Gizona, Jainkoa da, eta ain zuzen, Jainko au da guk gure lanekin goratu nai duguna! Ziñez, nik eztut ulertzen izkera au. Eta zer

eskatzen diote gizonari? Aurki il bear duen gauza bategatik nekatu dedilla? Bere odol eta izerdiak eman ditzala ametsezko Dulzinea baten omenez? Eta Jakituria al da ori?

Gizonak adimena du, eta bere etorkizunean ezerezaren zulo beltza baizik ezpadu ikusten; kondairaren olatuak ezerez ortara eramaten bagaitu, orduan, zer eskatu zenezaioke?

Gizadiaren etorkizuna aipatzen digute. Eta zer da ori? Utsa. Gure aurrerapenak zer dira? Orain dardara pitin bat egiten duen atomua. Burua zerbait jasotzen duen metatxoa, gero bereala lurrera erortzeko. Beraz, geldi ta isillik egotea obe.

Nik beintzat, ateismua egia izatekotan, ez nuke nai besterik: emengo arazo denentzat lenbailen bukaera etor dedilla, ta kito. Biziak ezpailuke geiago ez buru ta ez buztanik, ez izate-arrazoirik. Izarren jira-bira oietan ixtripuren bat gerta zedilla, gure planeta oztu eta elur-estalkiak gure abarrotsa betiko isilarazi zezala.

Bai, egia, sobera dakit nik gauzen ikuskera au eztagoela nornairen eskuan. Gizonik geienak txepel ajolagabe dira. Langosearen zorabioan ematen dute bere denpora eta lan ortan aurkitzen dute bozkarioa. Senak bultza egiten digu, gerok nai eztugularik ere. Izadiak bizi-egarri bat kokatu du gu baitan, eta onek ibilli-arazten gaitu, eta itsutu ere bai. Erromatarren atsotitza zan: Jupiter-ek galdu nai dituanak, lehenik erotu egiten dituala. Izadiak ere, lanean jarri nai gaituan ezkero, zer egiten du gurekin? Begiak itxi egiten dizkigu eta gibeletik bultza egin. Baiña zoroa baldin bada bultza egiten diguna; aurrerapen-lan onek beste eragillerik ezpadu, orduan gauza alferra ta utsa da dena, funtsik gabea. Eklesiastek ziona: Dena da utsa eta aize-eske ibiltzea.

Uskeria oni, bada, sendagarri billatzeko eta gizarteko langintzari bere oiñarria biurtzeko, zeren premia dugu?

Aspaldiko siñiskera zar aiek bear dira berriz artu. Siñiskera aien arabera giza-aurrerapenak, beste gauza guztiak bezala, ba-du etorki aundi bat, asiera bat, ibillera eman ziona baitan. Eta bere bide luze zabal ori ibilli ondoren, bukaera bat ere izango du noski, Aren beraren galtzarrean.

Gizadia, Jainkoagandik ilkia eta Jainkoaren irudia beregan berritu naiez, Jainko ori egunen batean berriz aurkitzeko asmoarekin ari da: orra erri denek beren tradizioetan arri

biurturik utzi dizkiguten uste ta aburuak.

Uste ori egiazkoa baldin bada, or dugu, gure lan onentzat koroirik ederrena. Izan ere gizarteak bere azken xede eta jo-mugara eramaten du gizona. Gizona, berriz, izadiko indar guztien gaillurra bezala da; aldez, materiaz osaturikoa, aldez espiritutarra; beraz, izaki denen guna eskeintzen digu bere baitan. Landa loretsu baten pare da gizona. Ark lurraren joritasun eta koipea erakusten digun bezalaxe, gizonak ere mundu orokar onen alderdi guztiak dauzka beragan bilduak.

Antziñateko kondairagille, filosofu, jakintsuek, naiz ta kondaira-zati txatxarra ikusi, begi zolia zeukaten jainkozko kutsua kondairan atzemaiteko. Grezitar askatasunak Asiatarren despotismua garaitu zuanean, sakonki iragarri zigun Herodotok: Garaipen orrek esan nai du, alegia, ba-dela beti aurrera joateko asmo bat, gizadiaren onerako antolatutako plan bat. Israelko profetek ere berdin zioten: "Bijoaz erri guztiak, bakoitza bere Jainkoaren izenean; gu ere gure Jainko Betikoaren izenean abiatuko gera" (Mich. 4, 5).

Orra giza-aurrerapenak zer bear duen. Jainkoarekin badugu ziorik onaren alde saiatzeko. Ba-dakigu borondate batek lankidetzat artu gaituala, bere lana osa dezagun amoreakgatik.

Frankotan, gertakariak milla goibera izanik, nere saiaketa xumeak alperrik izango dira. Baiña orduan ere ba-dakit azken garaipena onarentzat geldituko dela, segurantza ori badut. Gizartea, mundua, gizona Jainkoarenak diren ezkero, badakigu gaitzaren indarrak eztirela garaile aterako. Ba-dakigu, azkenik, Jainkoa dela bide, arima illezkorrek betiko bizitzan jasoko dutela beren neke guztien abuztua. Jainkoarekin dena piztutzen da, dena da argitzen, denari zaio esanai berezia erantsitzen. Jainkoa gabe, berriz, dena biurtzen zaigu tajugabeko. Giza-aurrerapenak berak Jainkoa gabe eztu nondik-norarik.

* * *

Ikusagun orain beste puntu bat, alegia: giza-aurrerapena Jainkoa gabe, tajugabeko izanez gaiñera, lortu ezin diteken gauza dela.

Izan ere, ateismuak egiazko aurrerapen edo progresua eragin eta edatu al dezake, gero? Galdera oni tajuz erantzu-

teko, lehenik progresu orren muiña nun dagoen edo itz orrekin zer adierazi nai den aztertu bearko.

Tren laisterragoak jartzea, kaleak obeki argituak egotea, janari eta soiñeko apain-tajuzkoagoak eukitzea eta gauza guztietan eroso ta lasai bizitzea. Progresuaren mugak orra baizik ezpadira eldu, edo beste antzeko barruti auetara, alegia: gudal-oste boteretsuak sortu, lantegiak geitu, materiari buruzko jakintzak landu eta jakintza oiek gorputzaren bizitzarako duten aplikazioak gero ta geiago edatu: progresua ortan soillik kokatu ezkero, ez nuke esango Jainkoagan siñistu gabe ere ori lortu ez ditekenik. Baiña progresuaren ideia ori ondo kaskarra ta estua da, iñundik ere. Orrekin bakarrik ezin ase gindezke.

Gizonak ba-ditu adimendua eta borondatea. Ba-du beraz jakintzarako eta moralerako gaitasuna. Gaitasuna ezezik, bi joera oek zabaltzeko eta lantzeko eginbide estua. Progresua beraz zer ote da? Bi almen oiek edaraztea, umotasunera eramatea.

Giza-adimenduak goratasun aundiagoa atzemaitea, gizajokabideak zindotasun eta jatortasun-mailla obea irixtea, gizarteko ar-emanetan berekoikeria garaitzen ikastea, gizabideari buruzko birtuteak sendotzea, erriaren onagatik neke ta lanak onartzen jakitea, errien arteko ar-emanetan justizia ta zuzentasun geiago izatea.

Labur, ikus dedilla etengabeko jasoaldi bat, gora-goraka bat aragitikan espiritura, materiatik arrazoira, jatorrizko aberetasunetik eginbidearen heroismuraiño. Ori da, noski, Urrezko mende edo aro deritzaien oitan guk ikusi nai duguna.

XX gn. mendeko gure Euskalerri ontan aurkitzen dugun progresuaz ere asko esan zitekean. Materiaren aldetik dugun progresuak ez ote gauzka pixka bat itsuturik? Ongi dago progresu ori; baiña espirituaren aldetik beste ainbeste pauso eman ote dugu? Nik eztakit. Iratzederrek esaten zidan bein: Erraztasunak, aisa bizitzeak, diru-goseak ondatu bear gaitu. Tximiniak gero ta geitzenago: besterik etzaigu ajola. Euskaldunak pobreago ta neketsuago bizi zirenean, erritasuna gorde zuten beintzat. Gordeko al dugu guk orain, dirua ugaritu denean, aisa bizitzen ikasi dugunean? Ez ote gera gutxi-asko txepeldu? Lan gogorrak egiteko euskaldunik ezta aurkitzen: ortarako betoz galleguak, gaztelarrak, extremeñoak, andalu-

zak. Euskal familietan, berriz, seme-alaben numerua gutxituaz dijoa...

Askok uste dute nunbait progresua dela errietan kafe ta jolastoki dotoreak egotea, etxean baiñu artzeko gela izatea, trenak eta automobillak ugaritzea... Bildur naiz aberastasuna ez ote den gure etsairik aundiena izango.

Gure erri batean langille zegoan mutil batek (etzen bera euskalduna) esaten zidan bein: apupillo bizi naiz familia batean, arratsaldeko seiretan bukatzen dut lana, eta nora joan orduan? Bere burua zerbait jantzi edo landu nai duanarentzat, eztago tokirik; ez liburutegi bat ez ezer. Nai ta ez tabernara edo zinera edo olako tokietara joan bear. Eta bestelako kultura zabaltzen digute leku oiek. Ardoa, txikiteoa, gure galgarria. Gure agintariek ba al dute valore goren oien ardurarik edo kezkarik? Ezta geiegi ezagun.

Zenbat euskaldunek egiten dute maisu-karrera? Jakiña, maisuek diru gutxi irabazten omen dute, ofizio ori neketsu ta gogaikarria omen da. Orregatik naiago dute denak —baita praille-ohiak ere— fabriketako edo ofizinetako bidea ikasi. Eta gero, jakiña, Gaztela-aldetik ekarri bear gure umeentzako maisuak. Ori al da erriaren etorkizunari begiratzea?

Eta gero euskera galtzen ari dela-ta, espaz.

Baserriak ere ustuaz dijoaz; denak kalera nai dute.

Gureak egin ote du? Euskaldun arroak dirua aisa gastatu, ondo bizitzen txepeldu ta usteldu, gallegu pairutsuak eta umillak berriz gure lurraz jabetzen ari.

Arrue, Iturriaga, Otaegi maisu izanak, lan ederra egin zuten euskal literaturaren barrutian. Egingo al digute olakorik tximini-gizonek?

Euskera, erlijioa, fedea, oiturak, erritasuna, dena dijoakigu gainbeera amilka, dena desegiñaz, urratuaz, utseratuaz, eta gu arro ta itsu, jokabiderik ederrena daramagulakoan, edo errurik bada, iñork beti errua, atzerrikoak, alegia.

Ez gaitezen itsu izan, geron utsak eta akatsak ez ikusi iduri egiteko...

* * *

Egiazko progresua, bada, lehenik moral-kontua da. Eta Jainkoa gabeko moralaz zer bear den pentsatu badakigu onez-

kero: oiñarri gabekoa dela erakutsi genduan. Ori bai, izan ditezke arima zindoak eta Jainkoagan ez siñisteko zorigaitza dutenak; baiña gizadiak gizadi denez, baltsan arturik, siñismen ori gabe, ezin du moralitatea atxiki. Goreneko siñiskera oik mugatzen dute errien morala. Eta onen arrazoia ezta zail billatzen: Jainko gabeko morala teoria bat baizik ezta, eta teoriak indar gutxi du giza jendearen gain.

Jendearentzat ezta aski ongiaz mintzatzea eta ongiaren konzeptu abstraktu ori ideal bat bezala ar dezan erakustea. **Zerbait** ez, baiña **Norbait** bear dugu orretarako.

Ongi morala Jainkoak onesten badu, orduan besterik da. Orduan bai, ba-dut ene itza nori zuzendu. Zerua eztago geiago utsik. Eremu alimale oiek Aitaren ardurapean daude. Berak argitu ditu izar-mordo oiek, bere begien begirada maitetsuak bailiran. Berak piztu du eguzkia maitasun-sutegi antzo, eta beragana jotzen dugu denok indar-billa. Gure begietan argiaren bidez eta gure konzientzian ongiaren ideia dela bide, azaltzen zaigu, ba, Jainkoa. Bere arduraz ta providentziaz gauzen gorabera denetan du Ark sarbide. Bere bizkar artzen du gertakari guzien erantzukizuna, alabearrez gertatu oi diren oiena ere bai. Eta bizitza au bukatutakoan, Berari dagokio gure egiñen epaia ematea; epai zuzena, egiazkoa, egiaren araura emana. Ai, gauzak ala badira edozeiñek ikusten du bestelako balioa artzen duela munduak eta gure bizitza kaskar onek! Gizonak ba-daki norekin itzegin, ba-daki entzuna dela. Bai senak eta bai arrazoiak ba-du siñeste onetan nun atseden ar, nun indarberritu; eta, labur, ezta siñeste ori bezelakorik progresua eragiteko.

Eta Aita Zeruko ori aragi egitea eta gure artean giza-itxuran —eredu izan dakigun— ibiltzea posible balitz, milla aldiz obekiago litzake oraindik. Arrazoi guztiarekin esan izan da: jende arruntari eta "**masa**"-ri itzegiteko, erlijioak bakar bakarrik duela botere. Erlijioa ezpaita adimendu xoillarekin ari, gizonaren sen eta griña sakon guztiekin baizik.

Gure mende ontako azturak ere zerbait irakats dezaiguke ontaz. Kristau siñestea bera-beraka dijoan neurrian, berekoikeria ez ote dijoa nagusi gelditzen? Berekoikeria bakarka edo mordotan pillatua (nazionalismuak, razismuak ta abar), nik ezpaitut alderik ikusten. Jainkoaren siñestetik askatu nai gaituzten oiek, zer lortu bear ote dute orrekin? Gizona askatu,

bai, baiña eginbidetik askatu, besteenganako leialtasunetik, norbere buruaren uko egitetik, alkarrekiko laguntza ematetik askatu, eta ez al dira auek gizarteko onaren oiñarriak?

Idealismua deitzen duten ori atzeraka dijoanetik, usteldura geituaz eta aundituaz dijoa. Oiturak aldapa bera amilka. Aragia jarri zaigu jainko izun bezala, ezertxo ere ukatu bear etzaion jainkoa. Biziari mugak ipintzen zaizkio eta odolaren alperrik galtze ori izurritea baiño txarragoa zaigu. Frantziak emeretzigarren mende-erdira Alemaniak aiña bizi-lagun zeuzkan. 1914-ko gerlako denporan, berriz, Alemaniaren ejerzitua iru aldiz aundiagoa zan. Zergatik? Frantzian ezkontzaren aurka egin ziren pekatuen ondorioz. Euskalerrian ere izurrite ori zabaltzen dijoala edozeiñek ikus dezake. Lendik gutxi eta gerok gure erria gutxitzenago ari. Eta ba al dugu gero **genozidioz** itzegiteko eskubiderik?

Elkarrenganako fidantziarik ezak ondatzen ditu ar-emanak. Nunai dirua jartzen da errege: politikan, administrazioan, justizian, barruti denetan. Gizarteko mailla guztietan griñak bere naierara dabiltza eta lukurreria lotsagarriak dira nagusi. Eginbideaz eta betebearraz zeiñek itzegingo al digu, erlijioa ta Jainkoa egotzi ezkero? Orregatik ausartki esan genezake: **Jainkoa gabe, erririk ez.** Bai kondairak eta bai giza-psikologiak ere sendotzen dute gure esan au.

XVI Kapitulua

Zer dela-ta ez legoke Jainkorik?

LABURPENA

Jainkorik eztagoela eta gaiñera ezin egon ditekela erakusteko ematen diren arrazoi batzuk. Arrazoi oien arrazoigabea.

Giza-gogamenaren bide guztiek alkar jotzen duten bidegurutzean Jainkoa aurkitzen dugu.

Izadia, giza-bizitza, gizartea: iru sorkari aundien etorkia, legeak, xedea, Jainkoa gabe ezin uler ditezke. Jainkoa aurkitu dugu iruron oiñarrian. Jainkoa erditik ken, eta dena da ezerezean erortzen, dena gau billakatzen. Jainkoa egotzi ezkero, gu eta gure denak amilka dijoazi. Erri primitivu direlako oiek ba dakite ori. Afrika aldeko bambuti-tar bati galdetu zioten bein ea Jainkoa iñoiz ilgo ote den. Eta aren erantzuna: Ez, Ura il baledi, Arekin batean dena galduko litzaketa (Schbesta; "Cristo y las religiones de la tierra", p. 610; BAC).

Gure mende ontan, ordea, gizadia Jainkoaren aurkako sukar bortitzaz artua delako-edo, ba-da bestela uste duenik, Jainkoa eztagoela esateari gutxi eritziaz, ezin izan ditekela ere erakutsi nai digute. Jainkoa esatean, zera esan nai dugu: izaki goreneko bat, bere lanegiñetatik berezia, bere baitako biziaz bizi dena eta denpora berean izaki ororentzat bizi-iturburu dena. Ots, Jainko bizia eta personala.

Jainko ori —esaten digute— alferriko tresna da. Jakintsuak dena esplikatzen baitu urbileko kausa edo arrazoiak direla-bide; Jainkoarentzat ezta an tokirik gelditzen. Ontaz len ere mintzatu giñan eta eztugu gauzak bir-esaten ibilli bearrik. Azi baten pare da izadia; azi ortatik erne da dena. Baiña nik galdetzen dudana da ea non dagoen azi orren Ereilea, ainbeste izaki ta zabaltze ustegabekoen azia bota duen Ereilea, alegia?

Munduan gaitza ta makurra lasai ta bere gogara dabiltzala-ta, ortik ere Jainko-fedearen kontra oztopoak jartzen dira. Ontaz ere mintzatu giñan. Oiñazea, miña, barreneko burruka ta eztabaida, bera zaigu ar-mailla ta zurubi Jainkoagana igotzeko. Izan ere, sentituko al genuke oiñazerik, zorion-egarririk izango ezpagenu? Gure izateak ba-du, dudarik gabe, bere erraietan azkengabeak ipiñitako bere marka. Guk amets dugun xedea, biziak ezin du atzeman, eta ortik dator ondo-eza.

Guk nai genuke argi ta garbi ta laiño-izpirik gabe dena ikusi, korapillo denak askatu. Jainkoa, ordea, naiz ta pagalari ona izan, ezta aste oro pagatzen duten pagalari oietakoa.

Jainkoaren asmoak ezin guk orain zearo ulertu, ezin gure adimenduarekin neurtu. Oso gutxi baita guk dakiguna. Itxoi-

ten ikasi bear. Gure ibillera, motxa izan; gure ikustea laburra. Erabateko epairik ezin ba eman.

Filosofu batzuek onako au ere esaten digute: Jainkorik eztago, ezin ditekelako egon. Izan ere Jainko ori, izaki azkengabea —infinitua— omen da. Izaki azkengabea, ordea, ezin bizi diteke izaki mugatuak bere aldamenean ditualarik. Baztergabea baldin bada, eztago an lekurik beste iñorentzat; eta baztergabea ezpada, orduan ezta Jainkoa.

Gaiñera, Jainkoa perfetasun utsa omen da, eta ala bada, lan perfetuak besterik ezin sortu ditezke aren eskutik. Munduko izakiak, berriz, akatsez josirik agiri zaizkigu.

Beste bat: izaki baztergabeak eztu bizitzarik. Bestela, izaki mugatuak Ari erantsi ezkero, Ura luzatu ta aundiago biurtuko luteke, eta luza ditekena ezta baztergabea. Ta abar...

Baiña —eta auxe da gure erantzuna—, gogoeta oiek egiten dituena, ez ote dago, gero, begitasun ikaragarri baten azpian? Izaki azkengabea, izana ta bizia bere baitatik dituena, dena delako ta beste gabe, alakoak izatea ta bizia ditu berez dagozkiolako. Bera **da**: adizkera onek adierazten duena iñori ez bezala dagokio Ari. Beste izakiez mintzatzean, oiek ere **badirela** esan oi dugu, baiña Jainkoa **da** ta munduko izakiak **dira** esatean, esanai berdiña, ozentasun eta adiera berbera ote du ots orrek? Era berean aplikatzen al zaie Jainkoari eta gaiñerazko izakiei **izan** aditza?

Gure gogamena ta gure izkera ere ergelak izan Jainkoarekiko arazoetan, kaskalak. Uts egiten digute franko aldiz. Bizitza arrunteko zeregiñetatik ateratzen geraneko, milla okerrera eramango ginduzke gure izkera gaixoak, baldin adimenduak makur oiek zuzenduko ezpalitu.

Jainko azkengabeari mundua erantsi egiten diozu, eta orra azkengabea aundiago biurtua... Ederki. Baiña nola ez ikusi arrazoiketa ontan datzan engaiñua?

Orra tubo bat 50 zentimetru luze dituena. Eta beste bat 30-ekoa. Beraz, bata besteari erantsiaz egiten dute 80 zentimetru luze. Bai. Baiña kontu oiek egiten dituena ezta onezaz jabetu, alegia: bi tubo oiek teleskopio batenak direla, eta gaiñera bigarrena lèenbizikoaren barnean sarturik dagoela... Ain zuzen, orixe bera gertatzen zaigu guri. Izaki alguztidun baztergabea alde batetik, izaki kreatuak bestetik, eztira gisa ta mota berekoak. **Izan** aditzak, Jainkoari ezartzen zaionean, ba-

du esanai bete-betea, ozena; beste izakietan, ordea, ez. Orregatik zion Platonek egitan ta ziñez Jainkoa bakar-bakarrik **dela,** eta gure izakia Arenaren itzala besterik eztela...

Jainkoa perfetasun utsa dela eta perfeto denez bere lanak ere perfetuak bear dutela izan, orra egia bat ezin ukatuzkoa. Jainkoa ezin diteke gaitzaren egille izan. Onako au, ordea, bai, gerta diteke: Jainkoa on baten egille izan, eta gero on ortatik gaitzen bat sortu. Gaitz ori, alabaiña, beti izango da axalekoa, bein-beiñekoa, eta Jainkoak azkenik bere jakituriakin onari laguntzera ekarri dezakena.

Esate baterako. Bildotsa sortzea on bat egitea da, noski. Leoia egitea ere bai. Baiña jarri itzazu alkarren aurrean, eta orra gaitza: bildotsaren eriotza. Orain, gertaera beltz ontaz azken epaia emateko, gauza bat bear da jakin: ia munduaren atzera-aurrera orokarrari begiratuaz eriotz ortatik on aundiagoa etorri ez ote diteken; eta ori neurtzea Jainkoaren jakituriari dagokio.

Gaiñera, perfetasun utsa denez, **"tasun"** ori bere-berea du, ta ezin dezake lanegiñetara zabaldu. Kanpoko bere lanek oso ta perfeto eztenaren marka derriorrean bear dute izan. Izaki perfetoa bat bakarra baita, eta eztu parerik. Sor diteken guztia, berriz, mugatua ta neurtua da, nai ta nai ez, mota ta klase berezi batekoa, eta ain zuzen, izakiak era askotakoak ta ezberdiñak izatetik eldu da gaitza. Idia ezin diteke zelaian ibilli milla belar zapaldu gabe eta milla bizidun bere ankakin lertu gabe.

.."Baiña munduan nabari den gaitza ain da izugarri aundia!" jhardesten didazu. Eta zein zera zu, orrelako epaia emateko? Jainkoaren arrazoiez guk tutik ere eztakigu. Gertaerak ere bear bezala eztitugu ezagutzen, aldez ta aldiz zoko batean kokaturik gaude-ta. Jainkoaren lana bere zabalean eta luzean guk ezin besartetu. Ez ote da ausardikeria Egilleari legeak ipiñi nai izatea? Guk esan dezakegun guztia auxe da: gaitzaren auzia misterio bat dela, besterik ez.

Jainkoaren etsaiek eztute misteriorik onartu nai Jainkoa baitan, eta gero millaka pillatzen dizkigute beren ametsezko asmakizunetan. Ulergaitza ez ulertzeaz kontenta gaitezen, baiño ba-dela aitortuaz, alere; bestela, Ura gabe, deus ere ezpaititeke esplikatu.

Jainkoagan misteriorik izatea ezta arritzekoa. Baiña iza-

ki mugadunak mugarik eztuena gabe izatea, ori misterioa ez, baiña tajugabekeria, absurdoa, munstrokeria litzake. Eta zentzua duenak ba-daki bi mutur oetatik zein autatu.

Jainkoaz mintzatzean, isildu gaitezen! Eta gure isiltasuna, izan bedi adorazio bat!